

Pentsioen gaur egungo egoera eta etorkizuneko gakoak

*BGAERI buruzko lehenengo legea onartu eta 35 urte
beranduago egindako azterlana*

Euskadiko BGAE Federazioa





Federación de EPSV de Euskadi
Euskadiko BGAE Federazioa



Pentsioen gaur egungo egoera eta etorkizuneko gakoak

*BGAERI buruzko lehenengo legea onartu eta 35 urte
beranduago egindako azterlana*

Euskadiko BGAE-en Federazioa

versu2
2014  libros



Lettera Publicaciones, S.L.ren sail bat.

Juan Barroeta, 8 - 1 B

48992 Getxo, Bizkaia.

www.verssus.com

2020ko urtarrileko edizioa

“Versus Libros - Lettera Publicaciones” argitalpen-taldeak *copyright*aren babesaren alde egiten du. *Copyright*ak sormena sustatzen du, ideien eta ezagutzaren esparruan aniztasuna defendatzen du, adierazpen askea sustatzen du eta kultura bizia bultzatzen du. Eskerrik asko liburu honen edizio baimendua erosteagatik eta *copyright*aren legeak errespetatzeagatik, bai eta obra honen zatiren bat baimenik gabe ez erreproduzitzeagatik, ez eskaneatzeagatik edota ez banatzeagatik. Horrela jokatzuz gero, egileei babesa ematen zaie, eta gure argitale-txe txikiak irakurle guztientzako liburuak argitaratzen jarrai dezan ahalbidetzen da”.

Pentsioen gaur egungo egoera eta etorkizuneko gakoak

BGAEni buruzko lehenengo legea onartu eta 35 urte beranduago egindako azterlana

© Lettera Publicaciones

Espainian inprimatua

Eskubide guztiak gordeta. Debekatuta dago argitalpen honen zatiren bat erreproduzitzea, edozein delarik ere erabilitako bitartekoa, elektronikoa zein mekanikoa, barne direlarik argitalpenaren zatiren bat fotokopiatzea, grabatzea edo informazioa biltegitatu eta prozesatzeko edozein sistema erabiltzea, argitaratzailearen alde aurreko idatzizko baimenik gabe.

Argitaratzaileak edo idazlanaren egileek ez dute inolako erantzukizunik onartuko, lan honetan argitaratutako materialaren ondore gisa norbanakoei edo erakundeek izan ditzaketen galeren ondorioz.

Aurkibidea

Aurkezpena 9

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.
Euskadiko BGAE-en Federazioko presidentea

Hitzaurrea..... 11

Pedro Azpiazu Uriarte jn.
Eusko Jaurларitzako Ogasun eta Ekonomia sailburua

1.Kapitulua. Pentsio-sistemen joera nagusiak 15

Matti Leppälä jn.
PensionsEuropeko idazkari nagusia

2.Kapitulua. Pentsioen etorkizun konplexua 41

Yves Stevens irak. dok. jn.
Lovainako Unibertsitate Katolikoko Zuzenbide Fakultatea (Belgika)

3.Kapitulua. Mutualismoaren printzipio eta balioak: etorkizunerako erronkak 55

Pedro Muñoz Pérez jn.
Espainiako Mutualitateen Konfederazioko ohorezko presidentea

4.Kapitulua. Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskadin eta haren orokortzea 67

Luis Carlos Izquierdo Goikoetxea jn.
Eusko Jaurларitzako Gizarte - Aurreikuspen Osagarriaren arduraduna

5.Kapitulua. Aurreikuspenaren arloko konpromisoa negoziazio kolektiboan.....	81
---	----

Tomás Arrieta Heras jn.

Euskadiko Lan Harremanen Kontseiluko presidentea

6.Kapitulua. Prestazio definituko sistemak: desiraren eta errealitatearen arteko bidegurutzeta.....	103
--	-----

José Carlos Maza Guzmán jn. eta Idoia Atxa Uribe and.

LagunAro, Enpleguko BGAEa

7.Kapitulua. Gizarte aurreikuspen pribatuaren zeregina.....	113
--	-----

Pedro Unamuno Bidasoro jn.

Baskepensiones, Banakako BGAEko zuzendaria

8.Kapitulua. Gizartearekiko Arduratsua den Inbertsioa	133
--	-----

Iratxe Castaño Markiegi and.

Geroa Pentsioak, Enpleguko BGAEko GAI arduraduna

9.Kapitulua. Inbertsio alternatiboak.....	153
--	-----

Jon Aresti Bengoetxea jn.

Elkarkidetza, Enpleguko BGAEko inbertsioen arloko zuzendaria

10.Kapitulua. Bizi-zikloa aurrezkian.....	173
--	-----

Juan María Pérez Morán jn.

Norpeñsion, Banakako BGAEko zuzendaria

11.Kapitulua. Inbertsioen arriskuaren kudeaketa Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeetan (BGAE) eta Inbertsio Printzipioen Adierazpena (IPA)	199
--	-----

Unai Ansejo Barra jn.

Itzarri, Enpleguko BGAEko inbertsioen kudeatzailea

12.Kapitulua. BGAE - en kontabilitate irizpideak 221

Gerardo Arcos Jócana jn.

Kutxabank Seguros-ko arlo finantzarioa eta Bibarko, Enpleguko BGAEko idazkaria

13.Kapitulua. Gobernu onaren politikak 241

Jon Aramburu Sagarzazu jn.

Loreto mutua, MPS-ko zuzendari nagusia

14.Kapitulua. Teknologia berriak eta Gizarte Aurreikuspena:
PREVITECH 255

Jordi Vila jn., Jorge Nicolau jn., Félix Valdecantos jn. eta Fran Morente jn.

VidaCaixa, GeroCaixa, Banakako BGAEko, erakunde kudeatzailea

Aurkezpena

Joan den urriaren 27an, 36 urte bete ziren Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundearen (aurrerantzean, BGAE) 25/1983 Legea onetsi zenetik.

Aurreikuspenaren esparruko araudi autonomikoaren lehen zehaztapen horrek, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoari balio izan baitzion gizarte-babeserako tresna baten, BGAE-en, legezko oinarriak finkatzeko, geroago gaur egun isla duen esperientzia arrakastatsua bilakatu da; halere, zalantzarik gabe, zenbait erronkari aurre egiten laguntzeko gai izan beharko du —esate baterako biztanleriaren bizi-luzerari—, pentsio-sistemaren osagai gisa tresna erabilgarri bat izaten jarraitu nahi badu.

Testuinguru horretan, Euskadiko BGAE-en Federazioan, zeinaren burua izateko ohorea baitut, Eusko Jaurlaritzaren balio handiko lankidetzarekin, ulertu dugu urteurren hori ospatzeko modurik onenetako bat dela pentsio publiko eta osagarriei buruzko eztabaidan sakontzea liburu hau, euskarri digitalean, argitaratuz. Liburua egiteko estatu mailako zein nazioarteko eta euskal autonomia erkidegoko adituen laguntza eskergaitza eduki dugu.

Liburua irakurrita egiaztatu ahal izango den bezala, hautatutako gaiak era askotakoak dira, zeren eta hartzen baitute pentsioen nazioarte mailako egungo egoeratik eta haien etorkizuneko perspektibetatik hasi eta teknologia berriei daukaten loturaraino, honelako tresnetan ezari-ezarian dauden printzipio eta balioak, euskal aurreikuspenaren errealitatea eta beste gai teknikoago baina, zalantzarik gabe, interesgarri batzuk ahaztu gabe.

Azkenik, aukera honetaz baliatu nahi dut gogora ekartzeko joan den mendearen laurogeiko hamarkadaren hasieran benetako aurreikusleak izan zirenak, zeinek bizia eman baitzioten BGAE-en irudi juridikoari eta hura garatu baitzuten, hartara bideratuz, horrenbestez, haiengan konfiantza jarri zuten euskal herritarrentzako estaldura ekonomiko aipagarri bat. Era berean, gogora ekarri nahi ditut gizarte aurreikuspen osagarriaren esparruan, honako funtsezko xede honekin, lan egin duten eta lan egiten duten guztiak: guri laguntza ematea ahal den modurik onenean aurre egiteko pentsioek dakartzaten erronkei.

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.
Euskadiko BGAE-en Federazioko presidentea

Hitzaurrea

Eskuartean daukazun argitalpena Federazioak, Jaurilaritzarekin eta inplikaturako eragile guztiekin batera, gure aurreikuspen-sistema zabaltzeko daukan konpromisoaren agerkari fidela da. Euskal erakundeek diligentziaz jokatu zuten Gizarte Segurantzaren integraturik ez dauden mutualitateen arloko eskumenen bultzada goiztiarrean, lehenengo legea 1983an onetsi baitzen; hain zuzen ere, Estatutuaren 10.23 artikuluan aitortuta datoz eskumen horiek. Hortik aurrera, esan daiteke historia arrakastatsu bat eraiki dugula, zeren eta mutualitateen garapenak eta daukaten garrantzi ekonomiko gero eta handiagoak gure inguruan berdinik ez duen toki batean kokatzen baitute gure Herria.

Baina urte asko iragan direnez, agertokiak eraldaketa handiak pairatu ditu. Kezkagarriena da Gizarte Segurantzaren lehenengo zutabe publikoa bidegurutze batean dagoela, zeren eta, trantsizio demografikoak ukiturik, kontsolidazio eraginkor baten zain baitago pentsioen arloan betidanik bete duen funtsezko zeregina bermatuko bada. Ez da hori, dena den, erronka bakarra: gure sistema osagarriak ere, zenbateko ekonomiko dirdiratsuen eta goraldi instituzional erlatibo baten atzetik, beste bultzada bat behar du, ez baitio erabateko erantzunik ematen harengandik espero denari; hau da: errenta ertain eta baxuetarako estaldura osagarri nahikoa zabaltzea enpleguko lehentasunezko sistemen bitartez, horiexek baitira egokienak.

Hori legez ezin ezar daitekeen zerbait denez, kontziente izan gara beti proiektuak pizgarrien birdiseinatze bat eskatzen duela, baina, aldi berean, aldaketa kultural bat ere behar duela, bai eta hura lortzeko

pertsuasio-dosi handiak ere. Hori dela eta, azken urte hauetan, interesa duten eragile guztiekin lan egin dugu, patxadaz, elkarrizketa eraikitzailea baliatuz. Zailtasunak argi daude: lanaren munduak azpimarratzen du krisialdiaren ondorioek lan-baldintzak gaiztotu dituztela; enpresen eremuak kostu geroratuaren izaera eta nahitaezko lehiakortasuna nabarmentzen ditu. Hori guztia, berriz, negoziazio kolektiboa krisian dagoen garaian suertatzen da, eta negoziazio hori funtsezkoa da orokortzearen ideia sendo horretarako.

Jakin beharra dago, era berean, eragile eta beharrian ugari badaudela, eta aurreikuspeneko aurrezki-bideak prestatu behar direla enplegu-sistemetarako sarbiderik ez duten pertsonentzat.

Ezagutzak, eztabaida informatuak, elkarrizketa irekiak beren fruituak ematen dituzte, baina ezin dira mirariz-edo desagerrarazi eduki ekonomiko argia duten hainbat interes-gatazka. Hori dela eta, behin edo behin adierazi izan dut ezen, puntu honetara iritsita, harritzen ninduela egiaztatzeak guztiok nahi genuela aldaketa, baina inor ere ez zegoela aldatzeko prest. Esaten dute behin eta berriz gauza bera egin eta emaitza desberdinak espero izatea eromenaren sintoma dela. Ez dugu eromenean erori nahi, ez eta itxurakerian ere: behin eta berriz gauza bera egiten badugu, ez dugu hazkunde-krisi argian dagoen sistema hau bultzatuko.

Ordezkaritza-erakunde eskudunoi dagokigu gure gain hartzea ondasun komuna interpretatzeko ekimena, alde guztiei entzun ondoren. Erantzukizun hori bere eginik, Jaurlaritzak Zerga-koordinaziorako Organoan proposamen bat egin du, zeina katalizatzaile eraginkor bat izan baitaiteke eragileak nahi den norabidean mugiarazteko, hain zaila den testuinguru honetan. Proposamenaren ildo nagusiak zabal azaldu ditugu, eta inongo misteriorik ez dute, zeren eta orokortzearen helburuari erantzutea besterik ez baitute egiten, lehentasunezko enplegu-sistemak eta, horrenbestez, baterako ekarpenak eta errenta-erako kobrantza bideratuz. Xehetasunek ez dute hainbesteko interesik, proposamena nahitaez irekia baita, are gehiago erabaki fiskalak hartzeko mekanismoak eta foru erakundeen zeregin nagusia kontuan hartuta.

Baina gizarte aurreikuspen osagarriaren erantzukizuna duen saila garen aldetik, sinetsita gaude hark bere funtsezko ildoetan aurrera egin

beharra duela, denok aurrera egingo badugu. Gizarte aurreikuspen osagarriaren orokortzea Herri-proiektu handi bat da, eta niri gustatuko litzaidake beste hogeita hamabost urteren buruan errealitate bat izatera iristea. Gauza asko beharko dira hori horrela izan dadin, baina mila miliako bide bat ibiltzeko lehenengo urrats bat egin beharra dago, eta urrats fiskal hau guztiz beharrezkoa da.

Pedro Azpiazuri Uriarte jn.
Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia sailburua

1. Kapituluia

Pentsio-sistemen joera nagusiak

Pentsioak gizarte babeseko sistemen zati garrantzitsua dira. Sistema horiek oso konplexuak izaten dira herrialde guztietan. Horrenbestez, ez da erraza, eta posiblea ere ez da, horien guztien laburpen orokor bat egitea. Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharreko ezaugarri nagusi batzuk badaude gizarte babesean eta pentsioen zereginean; era berean, nabarmendu behar da pentsio mota desberdinek ezaugarri horien arabera bilakaera bat izan dutela. Sakoneko aldeak honako honetan dautza: zehaztea nori esleitzen zaion erretiroan zehar diru-sarrerak emateko erantzukizuna; hau da, pentsioen eremuan zein den gizartearen zeregina, zein enplegu-ematearena eta zein enpleguarena.

- Sarrera.
- Gai nagusiak.
- Pentsio-sistema onenen adibideak.

Sarrera

Gizarte babeseko sistema mota desberdin ugari daude, eta pentsioak haien atal bat dira

Oro har, 50eko hamarkadatik, banaketa bat gertatu da sistema bismarckiarren eta sistema beveridgearraren artean¹. Lehenengoak, normalean, kotizazioekin lotutako prestazio bermatuak jasotzen

¹ Ikus Bismarck vs Beveridge.

ditu: prestazio horiek lan-harremanean oinarritzen dira, eta haietatik, halaber, enpleguaren familiako kideen aldeko eskubideak eratortzen dira. Sistema horietan, gizarte babesak gaixotasuna eta erretiroa bezalako arriskuak estali nahi ditu, eta prestazioak egin diren kotizazioen zenbatekotik eta iraupenetik datoz. Sistema beveridgearretan, ordea, oinarritzko estaldura-maila gutxieneko bat bermatu nahi da biztanle guztientzat, eta estaldura-maila hori herritartasunean eta ahalmen ekonomikoetan oinarritzen da. Sistema horiek pobrezia arintzera bideratutako eskubide unibertsalez arduratzen dira, eta prestazioak, normalean, banakakoak izaten dira, eta ez datoz beste inoren, esate baterako, senideen, eskubideetatik. Sistema bismarckiarretan, prestazioak, funtsean, kotizazio sozialen bidez finantzatzen dira; sistema beveridgearretan, berriz, diru-sarrera fiskalen bidez, nagusiki.

Azken hamarkadetan, babes sozialeko sistemen sailkapen gehiago ere egin dira²; esate baterako, Iparraldeko Europako ereduak eta Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialdeetan erabilitako ereduak, azken horiek lehenago erregimen sozialisten mendean egondakoak. Honako hauek dira sailkapenak eta oinarritzko ezaugarriak:

Ongizate-estatuaren eredu liberal anglo-saxoia

Eredu honetan, merkatuek eta aseguru pribatuek zeregin nagusia dute, eta nahitaezko gizarte babeseko sistemen helburua pobreziaaren prebentzioa da. Horrenbestez, prestazioak oso apalak dira. Gizarte Segurantzak publikoa azken baliabidea da eta seguru pribatuek lehentasuna dute.

Erdialdeko Europako lan korporatibistan oinarritutako gizarte aseguruak

Eredu honetan, gizarte babesa enpleguaren ekarpenetan oinarritzen da. Sisteman babes-maila egokia ematen die enplegatuei, baina babes-maila apala dago sistematik kanpo daudenentzat. Enplegu-prestazio osagarriek funtsezko zeregin bat dute. Enpleguaren eta enpleguemaileen ekarpenak oinarri finantzarioa dira. Eredu honek honako hauek hartzen ditu, esate baterako: Alemania, Austria, Frantzia, Luxenburgo, Belgika, Suitza eta, neurri batean, Herbehereak.

² Ikus Kari eta Markwort.

Iparraldeko Europako eredua

Eredu hau gizarte eredu demokratiko, instituzional eta birbanatzaile bat dela esaten da. Gizarte babesak zeregin garrantzitsua dauka, funtsean gizartearen erdigunea diren erakundeetan oinarritua. Gizarte babesa nahitaezkoa da legez. Eskubideak unibertsalak eta banakakoak dira, eta ez dira merkatuetan oinarritzen. Eredu horrek Suedia, Danimarka, Norvegia, Islandia eta Finlandia hartzen ditu. Herbehereak ere maiz sartzen dira eredu honetan.

Hegoaldeko Europako eredua

Eredu bismarckiarraren antzekoa da, gizarte aseguruaren eragin handia dela eta. Hala eta guztiz ere, familiaren zeregina askoz handiagoa da erantzukizunari dagokionez, eta polarizazio handi bat dago aseguruaren babesa jasotzen dutenen eta hura jasotzen ez dutenen artean. Pentsio-funtsek eta gizarte solaskideek zeregin garrantzitsua izan dezakete. Gizarte babesaren eragin birbanatzailea nahiko mugatua da.

Ekialdeko eta Erdialdeko Europako herrialdeak, lehenago sozialistak izandakoak

Horietako asko, gaur egun, Europar Batasuneko kide diren estatu berriak dira, eta oraindik ez dute eredu zehatzik garatu. Munduko Bankuaren ereduaren oinarrituta ezartzen joan diren soluzio pribatuak dira Europako gainerako herrialdeak bereizten dituztenak, eta soluzio horiek, gure ustez, eredu anglo-saxoitik hurbilago daude. Gizarte babesaren garapenaren egoera horrek Bulgaria, Lituania, Letonia, Errumania, Eslovenia, Polonia, Txekiar Errepublika, Hungaria eta Estonia bezalako herrialdeak hartzen ditu. Horietako batzuetan (Hungaria, Eslovakia, Polonia), gobernuak berriki pentsio-funts pribatuaren egiturak babes sozialeko erakunde publikoetara transferitu dituzte; hau da, aurreko eskemetara bueltatu dira.

Taxonomiak eta definizioak askotarikoak dira

Ez dago pentsioetarako taxonomia edo definizio unibertsalik. Erakunde desberdinek terminologia eta sailkapen desberdinak erabiltzen dituzte, esate baterako, enplegu-pentsiotzat edo banakako pentsiotzat hartu behar direnak definitzeko. Horrek zailago egiten du konparazioa, eta, adibidez, Europar Batasunaren eta ELGaren estatistikek oso ikuspegi desberdina planteatzen dute pentsio osagarriak direla eta, zeren eta

Europar Batasunaren definizioek enplegu-pentsioetatik kanpo uzten baitituzte pentsio osagarrietako asko; esate baterako, halaxe gertatzen da Europar Batasuneko kide diren Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialdeetan.

Maiz gertatzen da pentsioen gaian erreferentzia egiten zaiela zutabe desberdinei; hau da, lehenengo zutabea gizarte segurantzarena da, bigarrena enplegu-pentsioena eta hirugarrena, azkenik, banakako pentsioena, baina zutabe horien edukia aldatu egiten da helburu desberdinen arabera. Eta Munduko Bankuak 0 zutabe baten kontzeptuak ere erabiltzen ditu (*kontingazio gabeko pentsioak*) bai eta laugarren zutabe bat ere (*familiaren eta gizartearen laguntza instituzionalizatu gabea*). Horrenbestez, ezin da ezer ondorioztatu aldarrikatuz pentsio bat zutabe jakin batekoa dela. Pentsio horren edukia ezagutu beharra dago, bai eta hura arautzeko modua ere.

Pentsioak, eta bereziki gizarte babeseko pentsioak ematen dituzten pentsio publikoak (hau da, lehen zutabea deitu izan dena), eta askotan enpleguak, lanpostuak edo lanekoak deitu izan direnak (hau da, bigarren zutabeak), eskumen nazionalekoak izaten dira neurri handi batean. Europar Batasuneko kide diren herrialde eta estatuak askatasuna dute pentsioei buruzko legeak nahi duten moduan egiteko, beste arau lotesle batzuk urratzen ez dituzten neurrian; esate baterako, Europar Batasunaren barne-merkatuari edo lehiari buruzko legeak. Maiz gertatzen da gizarte solaskideek, hau da, enplegatuen eta patronalen erakundeek, garrantzi handia izatea negoziatzeko eta bigarren zutabeak enplegu-pentsioak adosteko. Herrialde batzuetan —Danimarkan eta Herbehereetan, esate baterako— horrek berekin ekarri du enplegatu gehienek bigarren zutabeak pentsioak edukitzea. Gizarte solaskideen zeregina oso garrantzitsua izan daiteke baita lehen zutabeak pentsioetan ere, Frantzian eta Finlandian gertatzen den bezala. Herrialde horietan, enpleguan oinarritutako pentsioen zeregina oso aipagarria da, baita gizarte segurantzatzat —ez bigarren zutabeak enplegu-pentsiotzat— hartzeraino ere.

Banakako pentsioen panorama (hirugarren zutabea deitutakoa) askotarikoa da oso. Pentsio-mota horiek, normalean, borondatezkoak izaten dira, baina nahitaezkoak ere izan daitezke. Gizarte solaskideek garrantzi askoz txikiagoko zeregina betetzen dute, edo zereginik batere

ez, nahiz eta posiblea den, era berean, enplegu-emaileek banakako pentsioetarako ekarpena egitea, Txekiar Errepublikan gertatzen den bezala; izan ere, azken horretan, ia enplegu-pentsiorik ez dago.


Pentsio-sistemen erreformak, helburuak eta arriskuak

ELGAko herrialdeetan pentsio publikoaren modu ohikoena soldatekin lotutako sistema bat da, prestazio definitua duena eta banaketa-metodoaren arabera finantzatua (PAYG), eta pentsio kapitalizatuak erretiroan zehar diru-sarrerak osatzeko edo haien egokitasuna hobetzeko modu bat izaten dira.

Lotura argi bat dago pentsio publikoen ordezte-mailaren (hau da, pentsioaren zenbatekoa erretiroaren aurreko soldatarekin alderatuta) eta bigarren eta hirugarren zutabeen pentsio kapitalizatuen estalduraren artean (nolako estaldura ematen dieten langileei edo biztanleria osoari).

Europako herrialde gehienetan aurreikusten da pentsioen eskuzabaltasuna gutxitzen joango dela finantza publikoen murriztapenak eta biztanleriaren zahartzea direla eta; azken horrek, gainera, mendetasunaren ehunekoak handitzen ditu.

By 2050 there will be ***just two working age people*** per one elderly person in Europe




Source: UN Population Division, World Population Prospects 2015


Biztanleria zahartuak funtsezko erronka bat planteatzen die pentsio-sistemei. Emakumeek eta gizonak, urte gehiagotan bizitzen doazen neurrian, denbora gehiago lan egiten jarraitzen ez badute eta beren erretirorako gehiago aurrezten ez badute, ezin izango da pentsioen egokitasuna bermatu, zeren eta gastuan egin beharreko igoera jasanezina izango baita. Gizarte zahartuak eta pentsiorako aurrezki-arrakala: pentsio kapitalizatuen estaldura apala, aurrezki-maila eskasa. Gizarte Segurantzaren pentsioen jasangarritasuna eta egokitasuna arazo garrantzitsu bilakatuko dira. Herrialde askok behar argi bat dute, pentsio publikoaren diru-sarrerak kapitalizazio bidezko pentsio pribatuekin osatzekoa.

Mundua gizarte segurantzaren erreformen halako uholde bat jasaten ari da. 1995-2018 aldian, 78 herrialdek pentsioen kotizazio-tasak handitu zituzten, 57 herrialdek erretirorako legezko adina atzeratu zuten eta 61 herrialdek prestazioen kalkulua aldatu zuten, errebalorizazio-erregela aldatuz. Europan, pentsioen erreformen bolumena modu ikusgarrian handitu da azken bi hamarkadetan, Europar Batasunak pentsio-politikei buruz estatu kideekin egindako lanaren emaitza gisa (2001etik), eta, bereziki, 2008-2009 aldiko Krisi Finantzario Handitik, Europako Batzordearen txostenaren hurrengo irudian erakusten den bezala³.

Graph 3. Number of (main) pension measures in the EU since the 1990's



Graph 4. Decomposition of (main) pension measures in the EU since the mid-2000's



Pentsio-sistema batek helburu asko izan ditzake, eta guztiek ez dute loturarik egokitasunarekin. Batzuek egokitasuna aipatzen dute, baina

³ EE 2016.

beste batzuk pentsio-sistemaren beste helburu batzuekin lotzen dira; esate baterako, ekitatea, birbanaketa, arriskuen gutxitzea edo jasangarritasun finantzarioa. Helburu horiek ez dituzte nahitaez babesten egokitasunaren helburuak, eta maiz gertatzen da pentsio-politikari eta haren erreformari buruzko eztabaida egokitasunaren eta jasangarritasunaren arteko orekan eta konpentsazioan zentratzen dela. Pentsio-sistema batek prestazio jakin batzuk agintzen dituenean, edo haiek jasotzeko itxaropen bat badagoenean, orduan eztabaida bermeetan zentratzen da askotan eta, kapitalizazio-pentsioen kasuan, kapitalizazio-mailetan eta kaudimen-baldintzetan, azkenean arriskua bere gain hartuko duenarengan. Pentsio publikoetan, finantza publikoen zati bezala, eztabaida finantza publikoen jasangarritasunean zentratzen da, eta zorrean eta defizit-mailetan, baina baita ere, askotan, azkenean arriskuak bere gain hartzen dituenarengan. Hirugarren zutabeko pentsio pertsonalek ere bermeak eduki ditzakete, edo emaitzak oinarritu daitezke soilik inbertsioen errendimenduan. Beste behin, kontua da azkenean nork hartuko duen arriskua bere gain. Pentsio sistema guztiek eta pentsio-sistemen atal guztiek arriskuak izaten dituzte: finantzarioak, demografikoak eta politikoak, eta kontua beti halako arriskuak bere gain hartzen dituenaren bizkar gelditzen da. Hiru zutabeko sistema orekatu batek, hau da, atal-mota desberdinek —banaketakoek eta kapitalizaziokoek, kolektiboek eta banakakoek— eratuta dagoen pentsio-sistema batek normalean erresilientzia handiagoa izaten du, arriskuak dibertsifikatuago daudelako eta, horrenbestez, pentsioen emaitzak, maiz, hobeak izaten direlako pertsonentzat.

Egokitasuna eta ekitatea helburu gisa⁴

Funtsezkoa da egokitasun-helburu batzuk egon daitezela pentsio-sistemaren mailan, eta haien xedeak izan behar du bermatzea gizabanakoen pentsioak egokiak direla zentzu zabalean. Joera dago halakoak diseinatzea pertsona askok beren erretiroaren plangintza egiteko duten gaitasun- edo borondate-gabezia konpentsatze aldera. Politikak taxutzeaz arduratzen direnen kasuan, egokitasun-helburuaren lehenengo xedea da pentsioen diseinua gidatzea. Ikuspegi horretatik,

⁴ Ikus ELGA 2019 a.

egokitasunaren helburuak tresna baliagarriak dira pentsioen politika egituratzeko, eta horren xedea da egokitasun-helburuak lortzea, modu orekatuan, sistema osoarentzat edo pentsio-sistema baten osagai jakin batzuentzat.

Egokitasun helburu ohikoena diru-sarreraren ordezkapen-tasa izaten da. Teorian, ordezkapen-tasak adierazten du gizabanakoak, lan-bizitzaren eta erretiroaren arteko trantsizio egokia egiteko, zer ehuneko behar duen erretiroa hartu aurretiko diru-sarreretatik. Baina, halaber, garrantzitsua da pentsatzea ea diru-sarrera «egokiak» dakartzaten ordezkapen-tasek aukera emango ote dieten erretiro-aldian ere eusteko lan-bizitza osoan izan duten bizi-mailari. Aldaketa demografikoarekin (biztanleriaren zahartzea), herrialde askotan ordezkapen-mailak eta pentsio publikoen egokitasuna nabarmen narriatzen ari dira, eta agerikoa da pertsona askok pentsio osagarriak beharko dituztela beren erretiroan diru-sarrera egokiak eduki nahi badituzte.

Honako hauek izango lirateke ELGAko herrialdeetan egokitasun-helburuak erabili diren moduari buruzko adibideak:

- Kanadako Ekonomia eta Finantzeta Ministerioak, 2016an, analisi bat egin zuen, ehuneko hirurogeiko ordezkapen-tasa bat erabiliz. Oinarritzat hartu zuen tasa horrek Kanadan normalean erabiltzen den ordezkapen-tasen eskalaren batez besteko puntua irudikatzen zuela.
- Islandian, legeak (Pentsioei buruzko 129/1997 Legearen 1. kapituluko 4. artikulua) eskatzen du ekarpen definituko enplegu-pentsioen araubideek helburu gisa izan dezatela % 56ko ordezkapen-tasa bat, gutxienez, berrogei urtez ekarpenak egiteko kasuan; horrek, izan ere, % 1,4ko kontsolidazio-tasa bat ematen du lan egindako urte bakoitzeko. Islandian legezko helburu hori dago (% 56koa) legeak zehaztutako Ekarpen Definituko funtsetarako, baina gainbegiratzearen arloko agintariek ez dute hura kontrolatzen.
- Australian, txosten garrantzitsu batek erretirorako diru-sarreraren egokitasunari buruz egindako azken balorazio ofiziala Australiako 2010eko Etorkizuneko Sistema Fiskalaren Berrikuspenean egin zen. Txosten horrek analisisa bere esparruan kokatu zuen ordezkapen-tasak erabiliz, ehuneko hirurogeiko edo gehiagoko ordezkapen-

tasak dauzkaten batez besteko soldatapekoen aipamena eginez, eta gomendatzen zuen pentsio pribatuen sistemarako nahitaezko ekarpenaren mota ez handitzea.

- Irlandan, gobernuak ez du helburu ofizialik ezarri, baina erretiroaren aurreko diru-sarreraren % 50eko ordezkapen-tasa aipatu ohi du. Zenbateko hori Pentsioei buruzko Politikarako Ekimen Nazionalak (NPPI) proposatu zuen, zeinak erretiroaren aurreko diru-sarrera gordinen % 50eko helburua iradoki baitzuen erretiroko diru-sarreraren ordezkapen-tasen kasuan, betiere batez besteko irabazi industrial gordinen % 34ari lotuta, gutxienez, Estatuko pentsiorako erreferentzia gisa; eta hori lortzeko, % 70eko pentsioen estaldura-tasa osagarri bat lortu beharko litzateke 30 urteko edo gehiagoko pertsonentzat.
- Txilen, ordezkapen-tasak direla-eta % 70eko itxaropenak sortu ziren 1981ean pentsioen erreforma egin zenean. Hori legez ezarrita ez badago ere eta helburu ofiziala ez bada ere, sortutako itxaropenek oraindik jarraitzen dute izaten pentsio-sistemak % 70 ordezkapen-tasa bat emango duela.

“Pobrezia arintzearen edo oinarritzeko biziraupenaren bermearen” helburua pentsio-sistemetan ohikoa den beste helburu bat da, eta, normalean, pentsio publikoei lotuta dago; hori dela eta, pentsio pribatuen rolera mugatzen da. Maiz uste izaten da gutxieneko pentsioa gutxieneko biziraupen-mailari lotu behar zaiola, eta horrek halako deskonexio bat sor dezake pobrezia marra zientifikoki ezarriaren eta gobernuak emateko prest dauden gizarte ongizateko mailaren artean. Adibidez, Erresuma Batuan, pentsioetarako askatasuna dela-eta berriki egin den erreformarekin, jendeak bere pentsioetako aurrezkiak berreskura ditzake ordainketa bakar batean, eta libreki erabili ahal du diru hori, zeren eta gobernuak aldarrikatzen baitu gizarte segurantzaren pentsio publikoa pobrezia marren gainetik dagoela. Hala eta guztiz ere, probabilitate txikia dago politikak taxutzeaz arduratzen direnek publikoki pobrezia arintzeko helburu bat finka dezaten, gutxieneko segurtasun-sarearen gainetik.

Beste helburu garrantzitsu bat “ekitatearena” da, egokitasunarekin lotuta baitago; izan ere, jendeak maiz baloratzen du bere pentsioaren

egokitasuna kontuan hartuz beste erretirodun batzuen maila eta pertsona horiek erretiroa hartu aurretik zeukaten maila. Interpretazio ugari daude ekitateak esan nahi duenari buruz, eta belaunaldien barrukoa edo belaunaldien artekoa izateari buruz. Askok uste dute ekitaterik ez dagoela, eta sistema zuzengabea dela. Horrek neurri handi batean zailtzen du pentsioen politikei eta haien nahitaezko erreformei buruzko adostasuna.

Horri dagokionez, pentsio publikoen narriatzeak erronka handi bat planteatzen du herrialde askotan, jada erretirodun direnek ordezkapentasa handiak jaso eta tasa horiek etorkizuneko erretirodunentzat murriztuta dauden kasuetan, baita kapitalizazioaren bidez (bigarren edo/eta hirugarren zutabea) aldaketa hori konpentsatu nahi denean ere. Jendeak senti dezake bilatzen dena dela jada erretiroa hartu dutenen prestazioak ordaindu behar dituztela, beren buruarentzat aurreztu ez arren, eta, gainera, beren buruarentzat eta etorkizunerako aurreztu behar izatea, enpleguaren panorama eta, horrenbestez, pentsioena, belaunaldi gazteentzat gero eta konplikatuagoa den egoera batean.

Lehen zutabeko banaketa-pentsioen murriztapen ekonomiko eta fiskalak aintzat harturik, erretirorako aurrezki osagarriek zeregin garrantzitsua eduki behar dute pentsioen etorkizuneko egokitasuna segurtatzeko garaian. Avivaren kalkuluen arabera, Europan, 2017 eta 2057 artean erretiroa hartzen duten pertsonen urtero 2 bilioi euro gehiago aurreztu beharko dituzte, beren erretirorako diru-sarrera egokiak lortu nahi badituzte. Aurrezkietan pentsioei begira dagoen arrakalaren kudeaketa konplexua da, eta estrategia orokor bat eskatzen du.

Gai nagusiak

Pentsio osagarrien estaldura hobia funtsezko erronka bat da


Pentsio osagarriek erretirorako aurrezki gehigarriak ematen dituzte, pentsio publikoak osatuz, eta horrela lagungarri gertatzen dira pentsio-sistemetan egokitasuna egon dadin. Haien garrantzi erlatiboa nabarmen aldatzen da, nahitaezko pentsioekiko daukaten musuz musuko rolararen pean. 90eko hamarkadatik, pentsio osagarrien zeregina, enplegu-pentsioetatik hasita, handitzen joan da Europan (salbuespen gutxiarekin), baina erregioetan dauden aldeak ere garrantzitsuak dira.

Oro har, estaldurak garrantzi gutxi izaten jarraitzen du herrialde askotan.

Hurrengo irudiak erakusten du zein den pentsio osagarrien estaldura munduko hainbat herrialdetan.

Pentsio osagarrien estaldura

As a percentage of the working age population




Iturria: ELGA 2018

Europar, enplegu-pentsioen estaldura zabalena Iparraldeko herrialdeetan gertatzen da; haietan, enplegu-planek betetzen dute adindunentzako diru-sarreraren ordezkapenaren funtsezko eginkizuna, eta nahitaezkoak dira (lege-arauetan oinarrituak) edo sasi-nahitaezkoak (hitzarmenetan oinarrituak). Mendebaldeko Europako estatu kideetan, zeinetan soldatei lotutako zutabe publiko bat baitago, enplegu-pentsioek zeregin osagarriagoa dute. Hala eta guztiz ere, estatu batzuetan (Belgikan, Alemanian) langileen % 50eko estaldura gainditu dute. Hitzarmen kolektiboen estalduraren igoeran oinarrituta, Belgikak aurreikusten du estaldurak gora egingo duela, lan egiten ari diren langile ia guztiak hartzeraino.

Enplegu-pentsioak diseinatuta zeuden, halaber, Irlandako eta Erresuma Batuko pentsio-sistemetan zeregin zentral bat edukitzeko, oinarrizko pentsio publikoen osagarriak baitira. Hala eta guztiz ere, haien estaldurak higadura bat jasan du azken hamarkadetan, eta herrialde horien egungo politikekin haiek berreraikitze ahaleginak egiten ari dira. Erresuma batuak «auto-enrolment» (alta automatikoa) izeneko sistema berri bat jarri du abian (*enpresa guztiak behartzen ditu beren langileak sistema batean sar ditzaten; izan ere, sistema horretan, soldataren zati bat plan kolektibo pribatu batean ordaintzen da, modu partekatuan*) 2012an, eta arrakasta handia izan du, zeren eta enplegu-pentsioetan 11 milioi parte-hartzaile baino gehiago lortu baititu. Sistemari atxikitako pertsona batek hura uztea erabaki dezake, baina hiru urte iraganda berriz ere sartuko da eta, une honetara arte, gehienek geratzeko hautua egin dute. Erresuma Batuko sistema horretako hasierako ekarpen-mailak oso apalak dira, eta erronka bat izango da haiek areagotzea eta pertsonen informazioa ematea aurrezteko beharrari buruz eta enplegu-pentsioan aurrezkiak dakarren onurei buruz, hura utz ez dezaten.

Alta automatikoa, era askotara, munduko joera bat bilakatu da azken hamarkadetan, hurrengo irudiak erakusten duen bezala⁵. Askok uste dute aukera on bat dela pentsioen politikari dagokionez, baldin eta estaldura areagotu nahi badugu.



⁵ Payet 2019ren irudia.

Hegoaldeko Europako estatu kideen bereizgarri bat da gehien bat pentsio publikoen mendekotasun handi bat dutela, eta aurrezkiak zeregin oso txikia duela enplegu-pentsioetan. Erdialdeko eta Ekialdeko Europako estatu kideetan, 90eko hamarkadatik hainbat herrialdek beren pentsio-sistemak finantzatzeko metodoak dibertsifikatzearen alde egin dute, nahitaezko pentsio kapitalizatuak garatuz eta, hartara, estaldura-kuota nahiko handiak erdietsiz.

Banakako pentsioen estaldura, halaber, desberdina da herrialdeen arabera. Banakako pentsio produktuek, normalean, hobetzeko balio dute, eta helburu dute pentsio publikoetatik eta enplegutik datozen diru-sarrerak areagotzea. Banakako pentsioak oso modu desberdinean banatuta daude, eta ez dago datu orokor eta konparagarriarik. Banakako pentsioen ospea, neurri handi batean, tratamendu fiskalaren eta beste pizgarri finantzario batzuen mende dago, eta halakoak asko aldatzen dira. Adibidez, Alemanian eta Txekiar Errepublikan zuzeneko pizgarri eta dirulaguntzak egon dira, banakako pentsioak erakargarriagoak izan daitezten baita tarteko diru-sarrerak eta diru-sarrera apalak dituzten taldeentzat ere, eta horiek estaldura-tasak handitu dituzte. Txekiar Errepublikan, enplegu-pentsioak ia ez dira existitzen, eta enplegu-emaelek banakako pentsioetarako ekarpenak egiten dituzte, eta halakoak pentsio osagarrien artean nahiago izaten den aukera bihurtu dira.

Probabilitate txikiagoa dago, ordea, lanpostu ez-normalizatueta dauden langileek eta langile autonomoek estaldura jaso dezaten pentsio osagarrien araubideen bitartez. Horri gehituz gero araubide publikoetako sarbide- eta kontsolidazio-baldintzak ez direla hain onak izaten, ondorioa izan daiteke higitu egin daitekeela erretiroak irauten duen bitartean diru-sarrera egokiak izateko aukera. Babes soziala (pentsioak barne) tradizionalki zuzendu zaie lanaldi osoa eta kontratu mugagabeak dituzten langileei.

ELGak aipatzen du ezen aukera gehiago dagoela lanaldi osoa duten langileek beren borondatez kapitalizazio-pentsioak edukitzeko, lanaldi partzialak dituzten langileek eta autonomoek halakoak edukitzeko baino. Antzeko erara, Pentsioen Egokitasunari buruzko 2018ko Txostenak (Europako Batzordea) aipatzen du autonomoek normalean enplegu-pentsioetarako sarbide askoz mugatuagoa dutela enplegatutako langileek baino, bai aurrezki-mota horretatik kanpo geratzen direlako beren egoera

dela eta, bai sarbidea borondatezkoa eta parte-hartzea apala direlako ere. Langile-mota horiek enplegu-pentsioetarako sarbidea izateak, bereziki aldi baterako lan-agentzietako langileena bezalako kategorien kasuan, oztopo bat izan dezakete baita estaldura sasi-unibertsala duten herrialdeetan ere, aukera gutxiago dagoelako hitzarmen kolektiboetako estaldura jaso dezaten, edo baldintza berezien menpe egon daitezkeelako.

Enpleguaren mundua arin aldatzen ari da, eta lan egiteko moduak eta kontratu-motak ugaritzen ari dira; horren adibidea dira eskariaren arabera lana edo baleetan oinarritutako lana. Plataformetan kudeatutako lana garatzeko erronka berriak sortzen ari dira, “enplegu-modu bat, zeinak lineako plataforma bat erabiltzen baitu, ahalbidetze aldera erakundeek edo gizabanakoek arazoei konponbidea ematea, edo ordainketa baten trukean zerbitzuak emate aldera”⁶. Enplegu-mota horretan hiru alderdik hartzen dute parte: plataforma, bezeroa eta langilea edo zerbitzu-hornitzailea. Plataforman kudeatutako lanak banakako atazak egitea bilatzen du, edo arazo zehatzei konponbidea ematea. Lana azpikontratatzeko da, eta eskaria dagoenean egiten da. Lana enplegatu moduan edo egiazko autonomo moduan egin daiteke.

Bestalde, plataformatan egiten den lana ere badago: halakoetan, (1) enpresa batek lanak zereginetan banatzen ditu, (2) lanaren emaitzak kontrolatzen ditu (teknologiaren bidez), eta (3) lana azpikontratatzeko die bere enplegatuak ez diren batzuei. Horrek errotik aldatzen du lan-mundua, zeren eta, kontrola gorabehera, lanak edo zereginak gizabanakoei azpikontratatzeko baitzaizkie. Plataformetako langileek ez dute ez langilearen eskubiderik, ez enpresaburuen askatasunik. Horrenbestez, ez dute pentsio-funts tradizionalen estaldurarik jasotzen, eta konponbide berriak behar dituzte erretiroan diru-sarrera egokiak lortzeko⁷.


Banakako pentsioen arloko aurrezkia gaitasun finantzarioaren arabera da, eta gizabanakoaren jarrera onaren arabera, eta horrek erronka bat planteatu ahal die langile ez-normalizatuari bereziki, baina beste hautabide bat eskaini ahal die, orobat, enplegu-pentsioetarako sarbide mugatu edo nulua duten talde batzuei. Herbehereetan, enplegatutik gabeko autonomoen % 75 inguruk banakako pentsioen estaldura du.

⁶ Eurofound 2018.

⁷ Mattila 2019.

Pentsioetan, genero-arrakala oso handia da herrialde gehienetan, eta hori dator, era berean, emakumeek pentsio osagarrietarako sarbide txikiagoa izatetik gizonezkoek baino, hurrengo irudian erakusten den bezala.

Genero-arrakala ELGAko herrialde batzuetako pentsioetan



Iturria: ELGA 2019

Genero-desberdintasun izugarriak daude estaldura sektorialean, eta emakumeak nagusi diren sektoreetan enplegu-pentsio gutxiago eskaintzeko joera dago. Emakumeek, halaber, enplegu-modu ez-normalizatu gehiago dituzte gizonezkoek baino, generoarekin zerikusia duten elementuei lotutako hainbat arrazoirengatik; hain zuzen, bizitzan zehar metatzen doaz haiek eta azkeneko emaitza da genero-arrakala handiagoa dagoela pentsioaren gaian.

Ez da harrigarri gertatzen borondatezko pentsio-planen estaldura diru-sarrerak handitzen diren neurrian handitzea. Testuinguru horretan, diru-sarreraren lehen eta bigarren deziletan aurki daiteke estaldura bereziki apala. Horren arrazoa aurrezteko ezintasuna da, eguneroko bizitzaren murriztapen finantzarioen ondorioz, pentsio publikoen ordezkapen-tasa handiagoen ondorioz eta pizgarri fiskalen erakargarritasun eskasaren ondorioz. Gero eta gehiagotan gertatzen da, orobat, diru-sarrera apalagoak dituzten pertsonak banaka aurreztu behar izaten dutela beren pentsiorako, pentsio publikoek behera egiten jarraitzen dutelako.

Hitzarmen kolektiboetan oinarritutako enplegu-pentsioetan, funtsean enplegu-emaileak ordaindutako ekarpenekin finantzatutakoetan, estaldura orekatuago dago diru-sarreraren dezilen artean. Hala eta guztiz ere, estaldura sasi-nahitaezkoa duten herrialdeetan (esate baterako, Herbehereetan), estalduraren arrakalak nagusiki diru-sarrera apalenak dauzkaten taldeetan daude. Gutxien irabazten duten pertsonak “auto enrolment” delakotik salbuetsita gera daitezke (esate baterako, Erresuma Batuan).

Gizarte solaskideak eta gizarte elkarrizketa gakoak dira herrialde askotan pentsioen estaldura on bat edukitzeko, baina modu arras desberdinean Europar Batasun osoan, eta, halaber, modu oso mugatuan Europar Batasuneko kide diren estatu batzuetan. Horrek bereziki enplegu-pentsioen garapen potentziala mugatzen du.

Gizarte solaskideek —sektore-mailan eta banakako enpresa-mailan— zeregin gakoa dute herrialde askotan, bereziki enplegu-erregimenak haien ekimenez sustatzen direnean. Gizarte solaskideek zeregin aktiboa izan dezakete, halaber, enplegu-erregimenen kudeaketan, eta ongi administratzekotan, horrek berekin ekar dezake enplegatuen eta enplegu-emaileen interesak ongi lerrokatzea eta gobernantza hobea eta kostu txikiagoak edukitzea. Horren emaitza da pentsioen prestazioek hobera egiten dutela. Elementu horiek garrantzitsuak dira enplegu-pentsioetako sistemenganako konfiantza sortzeko garaian.

Arriskuak gizabanakoei iritsarazten zaizkie

Pentsio-sistemek elementu batzuk badituzte amaieran arrisku partekatuen multzo bat dakartenak; esate baterako, bizitzaluzera, inflazioa, inbertsioaren errentagarritasuna (sistemaren zati kapitalizatuan), demografia, kaudimengabezia (enpresa sustatzaileena, gizabanakoena edo pentsio-hornitzaileena) eta ezegonkortasuna (politikoa, erregulazioaren arlokoa eta ekonomikoa). Pentsio-mota edo -formula zein den, arrisku horien erreferentzia biztanleria edo adin-kohorte jakin bat izan daiteke; industriaren adar bat, edo enpresa sustatzaile bat edo batzuk; pentsio-mota jakin bateko parte-hartzaileen talde bat (jardunean edo jarduna etenik dutenak); plan jakin bateko banakako parte-hartzaile bat, esate baterako enplegatu bat edo

gizabanako bat; pentsioen hornitzailea eta inbertsioak edo aktiboak kudeatzen dituzten enpresak.

Aldaketa demografikoa eta banaketa-sistema baten bidez finantzatutako erregimenetako aurrekontu publikoan izandako murrizketak direla eta, arriskuak gizabanakoari edo enpleguari iritsarazi zaizkio. Iritsarazte horiek azken hamarkadetan gertatu dira bereziki.

Enplegu-sistema kapitalizatueta aldaketa nagusia gertatu da inbertsio-arriskua gizabanakoari iritsarazterakoan, eta, horrekin batera, aldaketa bat gertatu da prestazio definitutik ekarpen definitura edo plan mistoetara. Prestazio definituko (PD) erregimen batean, prestazio jakin bat agintzen da, eta ekarpen definituko (ED) erregimen batean, berriz, prestazioa pertsona batek aurrezten dituen eta inbertsioek ematen dizuten aktiboen arabera da. Eskema misto batean, arriskua bi planteamendu horien artean banatzen da.

Banaketako prestazio definituko pentsioen gutxitzearekin batera, zutabe kapitalizatuen igoera etorri da, halakoak, normalean, EDko araubideetan oinarriturik. Enplegu-pentsioen kasuan, PDko erregimenak, mailaz maila EDko planekin edo plan mistoekin ordeztzen ari dira, baina pentsioetako aktibo gehienak oraindik ere PDkoak izaten dira. Europan, erregimen-mota desberdinen arteko desberdintasunak honako irudi honetan agertzen dira adierazita.

Figure 9: scheme types by country (assets as at 31 December 2016)



Iturria: Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritza 2017

Gainera, gero eta maizago gertatzen da EDko pentsioen hornitzaileek ez dizkietela kontratuko gutxieneko bermeak ematen aurreztaileei. Hainbat arrazoi badaude aldaketa horietarako eta pentsio-hornitzaileek arriskuak gero eta gehiago saihesteko. Agindutako erantzukizunen balioak gora egin du, eta zama handi bat bihurtu da bizi-itxaropenaren igoera eta interes-tasa apalen testuingurua direla eta, bai eta nazioarteko kontabilitateko arauen ondorioz eta kasuan kasuko finantzaketa- eta kaudimen-baldintzen ondorioz ere. Enpresa sustatzaileek zailtasunak izaten dituzte EDko erantzukizunak kudeatzeko, eta horren emaitza da arriskuak gizabanakoei iritsarazten dizkietela.

Gaur egungo testuinguruak, zeinean interes-tasak txikiak baitira, eragina izan du biziarteko errenten merkatuetan, eta eragin du haiek oso garestiak izatea; horrek berekin ekarri du biziarteko erretirorako diru-sarrerak oso txikiak izatea biziarteko errenta bat erosten denean. Horrek eragin du desmetatze-fasean aldaketa bat gertatzea, biziarteko errentez bestelakoak diren produktuetara, eta, errealitatean, horrek esan nahi du bizitza-luzeraren arriskua eta inbertsioaren arriskua gizabanakoei transferitzen zaizkiela.

Arrisku desberdinak gizabanakoari aldatze horiekin, pentsiorako aurrezki-fase desberdinetan garrantzi handia hartu dute pentsioei buruzko informazioa edukitzeak eta aurrezki fase desberdinetan finantza-ezagutzak eduki behar izateak. Gizabanako batek parte hartzen duen pentsio-sistema modu egoki eta bidezkoan ulertzea helburu desiragarria da. Hala eta guztiz ere, ez litzateke gehiegi balioetsi behar informazioak beren erretirorako aurrezten ari direnen jokabidean daukan inpaktua. Pentsio-sistemaren arrisku guztiak eta alderdi aipagarri guztiak ulertzeko erronka planteatzen da, eta, horrenbestez, garrantzitsua da ematen den informazioa eta aurreztaileen heziketa finantzarioa hobetzeaz gainera, sistemak halako moduz diseinatuta egotea non pertsonak gidatuko baitira beraientzat perfektuak ez izan arren gutxienez onak diren soluzioetara.

EDrantzko aldaketak, askotan, hautaketa-elementu bat dakar banakako aurreztailearentzat. Litekeena da pertsonak erabaki behar izatea sisteman sartzen diren ala ez eta beren pentsiorako aurrezten duten ala ez; zenbat aurreztu; pentsio-hornitzaile bat hautatu behar izatea; inbertsio-estrategia bat hautatu behar izatea, eta erabaki behar

izatea erretiroan nola esleituko dituzten metatu dituzten aktiboak. Garrantzitsua da lehenetsitako aukerak, besterik adierazi ezean aplikatzen direnak pertsona batek hautaketa aktibo bat ez egitea erabakitzen duenean, ahal den onenak izatea. Errealitatean, pertsona gehienek ez dute aktiboki hautatzen eta, horrenbestez, lehenetsitako aukera baten alde egiten dute.


Arriskuak banakatzeko sistema desberdinak daude⁸, zeinetan inbertsioaren arriskua aurreztaileen eta hornitzaileen artean bana baitaiteke metatze indexatu baten moduan (esate baterako, “cash balance” planak) Belgikan, Alemanian, Japonian, Erresuma Batuan eta Ameriketako Estatu Batuetan. Gutxieneko errentagarritasunerako berme batzuk egon daitezke —Austrian, Alemanian eta Suitzan gertatzen den moduan—, edo soldatan oinarritutako gutxieneko prestazioen maila batzuk —Kanadan, Erresuma Batuan eta Ameriketako Estatu Batuetan bezala—.

Inbertsioen eta bizi-luzeraren arriskuak kideen eta hornitzaileen artean parteka daitezke, prestazio baldintzatuak emanez (esate baterako, indexatze baldintzatuak planak); horixe gertatzen da Austrian, Kanadan eta Ameriketako Estatu Batuetan. Inbertsioen eta bizi-luzeraren arriskuak kolektiboki ere banatu daitezke helburu diren prestazio kolektiboak dituzten kideen artean (esate baterako, CDC edo ekarpen zehaztu kolektiboak) Kanadan, Islandian, Herbehereetan, Australian eta Erresuma Batuan. Halaber, desmetatze kolektiboko soluzioak ere badaude (esate baterako, CIDC edo banakako ekarpen definitu kolektiboa), Austrian, Danimarkan, Israelen, Herbehereetan, Alemanian, Australian eta Erresuma Batuan.

Arriskuen banaketak berekin dakar kostuaren eta prestazioen ziurtasunaren arteko konpentsazioak egitea. Pentsio altuagoak ekar ditzake, baina pentsioen mailak ez daude bermatuta eta arrisku handiagoen banaketak malgutasuna gutxitzeko joera dakar. Aktiboen kudeaketa kolektiboak pentsio altuagoak ekar ditzake, baina hautatzeko banakako askatasunaren kaltetan. Gainera, agerikoa da eramangarritasuna desmetatze-fasean murriztu behar dela, bizi-luzeraren arriskuan eraginkortasunez arintze aldera.

⁸ Ikus Payet 2019.

Arriskuak banatzeko metodoei buruzko argitasun batzuk eman daitezke, esate baterako, honako irudi honen bidez:



Pentsio-sistema onenen adibideak

Alderaketek indarguneak eta ahulguneak islatzen dituzte

Melbourne-Mercer Pentsioen Adierazle Orokorrak aldizka ebaluatzen du pentsio-sistemen egokitasuna, jasangarritasuna eta osotasuna 34 herrialdetako pentsio-sistemetan (2018ko zenbakian). Azken emaitzaren arabera, Herbehereak eta Danimarka goi-goian daude, eta ondoren Finlandia eta Australia datoz. Jakina, alderaketa horiek ez dira ofizialak, baina datu oso baliotsuak ematen dizkigute. Konparazio horretan goi-goian kokatutako herrialdeek ez dute elkarren antzik, baina guztietan sistema mistoak daude. Banaketa-zati bat dago, baina, era berean, nahitaezko edo sasi-nahitaezko atalak badituzte (hitzarmen kolektiboetan oinarrituak), zeinak kapitalizatuta baitaude, eta, horretaz gainera, borondatezko banakako pentsioak badauzkate.


Melbourne-Mercer Pentsioen Indize Globala

System	Overall Index Value	Sub-Index Values		
		Adequacy	Sustainability	Integrity
Argentina	39.2	40.8	33.8	44.1
Australia	72.6	63.4	73.8	85.7
Austria	54.0	68.1	21.5	76.7
Brazil	56.5	72.5	28.5	70.1
Canada	68.0	72.1	56.0	78.2
Chile	69.3	59.2	73.3	79.7
China	46.2	53.4	38.0	46.0
Colombia	62.6	68.4	50.1	70.9
Denmark	80.2	77.5	81.8	82.2
Finland	74.5	75.3	61.0	92.1
France	60.7	79.5	42.2	56.5
Germany	66.8	79.9	44.9	76.6
Hong Kong SAR	56.0	39.4	54.9	84.2
India	44.6	38.7	43.8	55.2
Indonesia	53.1	47.3	49.5	67.4
Ireland	66.8	79.0	45.9	76.6
Italy	52.8	67.7	20.1	74.5
Japan	48.2	54.1	32.4	60.7
Korea	47.3	45.4	48.1	49.3
Malaysia	58.5	45.2	60.5	77.1
Mexico	45.3	37.3	57.1	41.6
Netherlands	80.3	75.9	79.2	88.8
New Zealand	68.5	65.4	63.4	80.6
Norway	71.5	71.5	58.1	90.2
Peru	62.4	68.0	54.2	65.1
Poland	54.3	53.8	46.2	66.4
Saudi Arabia	58.9	61.6	53.3	62.6
Singapore	70.4	64.4	69.5	81.2
South Africa	52.7	41.9	46.8	78.2
Spain	54.4	68.7	27.8	68.6
Sweden	72.5	67.6	72.6	80.2
Switzerland	67.6	58.0	67.5	83.2
UK	62.5	57.8	53.4	82.9
US	58.8	59.1	57.4	60.2
Average	60.5	61.1	52.0	71.6

Iturria: Melbourne Mercer 2018

Herrialde onenak zein diren adierazten dituzten sailkapenak baino are interesgarriagoa da, ordea, aztertzea ea pentsioen prestazioak onak ala txarrak izango diren, eta sistemak jasagarriak diren ala ez, hurrengo irudien erakusten den bezala. Iturria: Melbourne Mercer 2018, 9. orrialdea).

Pentsio Sistemen kalitatea eta iraunkortasuna




Iturria: Melbourne Mercer 2018.

Onenak: Danimarka eta Herbehereak

Danimarkako pentsio-sistema honako hauek osatzen dute: pentsio publikoen zutabe batek, nahitaezko bi enplegu-erregimenek, borondatezko enpleguko sistema batek eta borondatezko pentsio-plan pribatuen aurrezkiek. Enplegu-pentsioetako planak, berez, nahitaezkoak dira, eta gizarte solaskideen arteko hitzarmen kolektiboetan oinarritzen dira. Ez dago enplegu-sistemak ezartzeko nahitaezko baldintzarik, baina patronaleko eta sindikatuetaiko garrantzi handiko elkarteen hitzarmen kolektiboetan oinarritutako erregimenak nahitaezkoak izaten dira hitzarmenak hartzen dituen enpresa guztientzat, eta hortik irteteko aukerak oso mugatuak dira. Batez beste, kotizazio-tasak diru-sarreraren % 15ekoak dira, eta enplegu-emaleak kopuru horren 2/3 jartzen du. Erregimen horietatik gehien-gehienak (% 90 baino gehiago) EDkoak dira.

Danimarkako enplegu-erregimenen 1/3 inguru enpresa bakarreko pentsio-sistemak dira, eta 2/3, berriz, sektorialak dira. Horrek Danimarkako industria-egitura islatzen du, enpresa txiki eta ertain ugarirekin, eta horrek berekin dakar pentsio-funts sektorialak efizienteagoak izatea kostuei dagokienez.

Hurrengo irudiak ⁹ erakusten du nola Danimarkako sistemak, Iparraldeko Europako ongizate-estatu baten aparteko adibidea denak, osagai ugari dituen (publikoak zein pribatuak), eta horiek beharrezkoak dira pertsonentzako pentsio-prestazio on bat lortzeko (kopuruak DKKtan, 1 DKK=0,13 €).



Iturria: Hansen.

Herbehereetan ere, gutxienero oinarritzko pentsio publikoak eta enplegu-pentsio sasi-nahitaezkoak ugari dira, soldatekin lotutakoak, eta langileen ia % 90 hartzen dituzten hitzarmen kolektiboetan oinarrituta daude. Gainera, Herbehereetan, erregimen sektorialak tokia irabazten ari dira, eta enpresa-erregimenen zeregina gutxitzen

⁹ Hansen.

ari da. Kontsolidazio handi bat gertatzen ari da, zeren eta baldintzak (bai zuhurtziazkoak, bai gobernantzakoak, informaziokoak eta abarrekoak) gehiegizko zama bat izatera iritsi baitira txikiagoak diren funts askorentzat.

Herbehereetan, urte askotan, eztabaida bat egon da pentsio-sistemen erreformari buruz, zeinaren erdigunean honako hau baitago: nork hartu behar dituen bere gain sistemaren arriskuak. Beste ezaugarri garrantzitsu bat da aldaketak lan-merkatuetan duen inpaktua, gaur egun pertsona asko eta asko ez baitaude pentsio-funts tradizionalen estalduraren pean.

Horrenbestez, posiziorik onenean kokatuta dagoen herrialdean ere, gai garrantzitsuak daude mahai gainean; hori dela eta, garrantzitsua da aipatzea herrialde guztiek etengabe aztertu, erreformatu eta hobetu behar dutela beren pentsio-sistema. Europako Batzordeak 2018an Maila Handiko Adituen Talde berri bat sortu du Europako egoera aztertzeko eta Europako Batzorde berriarentzako pentsio-politikari buruzko gomendioak emateko. Espero dezagun horrek berekin ekar dezala pentsio osagarriak orokortzea eta, bereziki, hil edo bizikoak diren enplegu-pentsioak, Europan pertsonak, etorkizunean, pentsio egokiak eduki ditzaten.

Matti Leppälä jn.
PensionsEuropeko idazkari nagusia

Erreferentziak

- A discussion of approaches and challenges when assessing the adequacy of funded pensions, OECD DAF/AS/PEN/WD(2019)3 (OECD 2019 a).
- Aviva, Mind the gap 2016 – Quantifying the pension savings gap in Europe (Aviva 2016).
- Bismarck vs Beveridge, Comparison of social insurance systems in Europe, <https://www.ifo.de/DocDL/dicereport408-db6.pdf> (Bismarck vs Beveridge).
- EIOPA market development report on occupational pensions and cross-border IORPs., 2017 (EIOPA 2017).
- Employment and working conditions of selected types of platform work, Eurofound 2018 (Eurofound 2018).
- Gender and Private Pensions, OECD DAF/AS/PEN WD (2018) 12 (OECD 2019).
- Hansen, Henning: «Adequacy – Seen from Denmark», aurkezpena, 2019ko ekaina (Hansen).
- Kari, Matti y Markwort, Jari: Sosiaaliturvajärjestelmät eri maissa, Helsinki 2008 (Kari y Markwort).
- Mattila, Maija: «Työ ja työntekijän oikeudet alustataloudessa», Helsinki, 2019 (Mattila, 2019).
- Melbourne Mercer Global Pension Index <https://australiancentre.com.au/wp-content/uploads/2018/10/MMGPI-Report-2018.pdf> (Mercer 2018).
- OECD Pension markets in Focus 2018 (OECD 2018).

- Payet,Stéphanie: «Policy responses to challenges faced by private pension systems in the OECD», aurkezpena, 2019ko ekainaren 6a (Payet, 2019).
- Pension adequacy report 2018 – Current and future income adequacy in old age in the EU (Pensions adequacy 2018).
- Pensions Reforms in the EU since the Early 2000's: Achievements and Challenges Ahead, G.Carone, P.Eckfeldt, L.Giamboni, V.Laine and S.Pamies Sumner, 2016 (EC 2016).

2. Kapituluia

Pentsioen etorkizun konplexua

Pentsioen gaia konplexua da. Hala eta guztiz ere, eredu sozioekonomikoetan, askotan, gauza oso sinpletzat planteatzen da. Gisa honetako aurkezpen edo eredu erraz bat hiru zutabeko eredua da. Haren arabera, lehenengo zutabea Gizarte Segurantzaren PAYG (banaketa-sistema) erako nahitaezko araubidea da; bigarrena nahitaezko finantzatze kolektiboko enpleguko pentsio-planak dira, eta hirugarrena norberak finantzatutako banakako aurrezkiak dira. Ereditu hori ia arketipiko bilakatu da mundu guztian. Edonora begiratzen dugula ere, edozein pentsio koka daiteke aplikatzen erraza den araubide horretan. Sinpletasuna bera da haren indargunea. Hala eta guztiz ere, eragozpen bat badu: ereduak iradokitzen du azpian dauden hiru pentsio-motek halako oharkabeko oreka bat irudikatzen dutela pentsioek dauzkaten arrisku desberdinen artean. Pentsio-moten eta haiei dagozkien arriskuen —esate baterako, demografia, bizitzaren luzatzea, inbertsioa eta inflazioa— arteko oharkabeko orekari buruzko aipamen hori kontraesanean dago errealitatearekin. Egia da mundu guztian dauden pentsio-araubideak oso konplexuak direla, legearen ikuspuntutik gisa askotakoak direla eta izugarri konplikatuak direla.

- Sarrera.
- Pentsio-ereduen lanketa.
- Arriskuaren dibertsifikazioan oharkabeko oreka bat egotearen presuntzioa.
- Europako dibertsitatea lege ezartzen da.
- Prestazioen diseinua eta kalkulu-metodoak.
- Antolamendu-maila: nazionala, sektoriala, enpresarena edo banakakoa.

- Ezarpena.
- Tratamendu fiskala.
- Kontrol-mekanismoak eta gobernuaren zeregina.
- Alde interesdunen parte-hartzea; esate baterako, sindikatuena edo patronalarena.
- Arriskuak eta lotutako kostuak nork hartzen dituen bere gain eta nola banatzen diren.
- Finantzaketa-metodoak: banaketa (PAYG) eta kapitalizazio irekia edo itxia.
- Etorkizun konplexua eta konklusioa: konfiantza behar da.

Sarrera

Pentsioen konplexutasuna agerian jartzen da araubide baten egiazko izaera sakontasunez aztertzen denean, dauzkan ezaugarri korapilatsu guztiekin. Pentsioen araubideen gaineko analisi horien guztien balorazioak ondorio batera eramaten gaitu: pentsioen irudikatze sinple batek engainua eragin dezake. Horrenbestez, politikoki pentsa daiteke, esate baterako, bigarren zutabea deitutakoa erabiltzea lehendik dagoen lehen zutabearen aurkako eraso ideologiko bat dela. Alabaina, horrek ez du zertan horrela izan beti. Adibidez, enpleguko pentsio ez-kapitalizatu batzuk badaude (PAYG, banaketakoak) edo enpleguko pentsio-plan kapitalizatuak, zeinek, nagusiki Estatuko bonuetan inbertitzen baitute; horrenbestez, inbertsioaren arriskua, funtsean, arlo publikoan dago, gizarte segurantzaren araubideetan gertatzen den moduan. Edo babes-maila edo elkarrizketa sozialeko maila handiak dituzten enpleguko pentsioak badaude. Ondorioa da ezen pentsio-araubide nazionalek erakutsi ohi dutela errealitatea 1-2-3 zutabeen batura baino askoz ere konplexuagoa dela. Etorkizunak pentsioei dakarkiena edozer dela ere, segurua den zerbait badago: etorkizuna konplexua izango da.

Pentsio-ereduen lanketa

Nazioarte mailako pentsio pribatuen edo enpleguko pentsioen konparazioa, normalean, hiru zutabeen eredua deitutakoari dagokio¹ Erreferentzia horietarako guztietarako arrazoia agerikoa da. Oso modu

erraza da pentsio-araubide desberdinak aurkezteko. Hala eta guztiz ere, legearen ikuspuntutik, gaia hipersinplifikatu egiten du. Legez, hiru zutabeen erdua ez da existitzen². Herrialdeen arteko desberdintasunak agerikoegiak dira. Hiru zutabeen ereduaren indargunearen izaera, nolanahi ere, soziologikoa edo ekonomikoa da errealitatean: (ia) pertsona guztiek “beren naziotasuna edozein dela ere” beren pentsioen sistema nazionala aitor dezakete eredu horretan³.

Arriskuaren dibertsifikazioan oharkabeko oreka bat egotearen presuntzioa

Gainera, pentsio-sistemen ereduaren lanketak arrisku bat izaten du beti: pentsio-sistema baten elementu jakin bat gehiegi nabarmentzea beste elementu batzuk —berdin garrantzitsuak— aintzat hartu gabe. Errealitatea da ezen, gaur egun, pentsio-araubide nazionalak oso askotarikoak direla eta kapitalizazio-sistemetan, banaketa-sistemetan edo sistema mistoetan dauden pentsio-mota guztiak, nahitaezkoek, enplegukoek edo banakakoek, dituztela osagai.

Hala eta guztiz ere, badirudi ezen, azken hamarkadan, pentsioei buruzko atsotitz uniboko eta unibertsal bat azaleratu dela, zeinak honako hau baieztatzen baitu: “pentsioetarako agertoki nazional on batek” eduki beharko lituzke, esate baterako, bai elementu kapitalizatuak, bai banaketakoak ere. Esankizun horri jarraituz, bi finantzaketa-metodoen nahasketa baten aldeko aldarria egin da, pentsioen halako desoreka oharkabeko edo ikusezin bati behar duen oreka ematen ariko balitzaio bezala. Hala eta guztiz ere, inongo zentzuzko arrazoi ekonomikorik ez dago hori hala denik sinesteko⁴. EEEko herrialde askotan gertatu

¹ Y. Stevens, “The comparison of the European Issues in Pension and Employee Benefit Law with the U.S. Federal Law Regulating Employee Benefits”, J. Marshall L.Rev.J. 2008, 1191.

² Ibidem.

³ Gabriel Amitsis, Jos Berghman, Anton Hemerijck, Theodoros Sakellariopoulos, Angelos Stergiou e Yves Stevens, “Connecting Welfare Diversity Within the European Social Model” 103-06 (Theodoros Sakellariopoulos, Jos Berghman, eds., Intersentia 2004). Ereduaren «aitorpen»-maila Munduko Bankuari zor zaio. «Averting the Old Age Crisis: Policies to Protect the Old and Promote Growth» izenburuko txosten famatuak (Oxford University Press: Oxford, 1994) hiru zutabeek sostengatutako pentsio-sistemaren kontzeptua zabaldu zuen. Txosten hori argitaratu zenetik, hainbat interpretazio egin dira. “World Bank, Averting the Old Age Crisis: Policies to Protect the Old and Promote Growth” (Oxford University Press 1994).

⁴ J. Banyar, «Possible reforms of PAYG pension systems»; honako honetan: E.J.S.S. 2016/18, 286-308.

den araubide kapitalizatu askoren gainbeherak erakutsi du kapitalizazio-sistemei buruz aurrez aldeztu izan diren abantaila makroekonomikoak, esate baterako, arriskuaren dibertsifikazioa, inbertsio-zorroen hobekuntza, aurrezkiaren handitzea, kapital-merkatuen garapena eta lan-merkatuaren pizgarri handiagoak, askotan okerrak zirela⁵. Errealitatea da ezen bai kapitalizazio-araubideek, bai banaketakoek alde onak eta txarrak dituztela, baina ez direla elkarren aurkakotzat hartu behar arriskuaren dibertsifikazioari buruz hitz egiten ari garenean.

Europako dibertsitatea legez ezartzen da⁶

Europako pentsioetarako legezko sistemarik ez dago. 28 estatu kideek molde eta araubide desberdinen arabera osaturiko beren sistema integratu propioak badauzkate, eta horien barruan arriskuen banaketamota desberdinak daude. Pentsioek jarraitzen dute, haien mota guztietan, funtsean eskumen nazional bat izaten. “Europako pentsioen Legea” terminoak okerbidez iradoki lezake pentsioei buruzko corpus juridiko bat badagoela Europan. Argi eta garbi dago halakorik ez dagoela. Pentsioen lege europarra termino orokor bat baizik ez da Europar Batasunak (bere osotasunean) pentsioak direla-eta bere egin dituen arau juridiko guztiak aipatzeko.

Europar Batasunaren eta estatu kideen arteko eskumen-banaketa dela eta, badaude pentsioen elementu batzuk, Europako mailan arautu daitezkeenak. Europako pentsioen elementu deitutakoetako bakoitzarentzat, beharrezkoa da Europako Hitzarmenaren barruan definitutako eskumen bat egon dadila. Eskumen horietan oinarrituta, Europar Batasunak zuzentzarauak garatu izan ditu nagusiki. Funtsean, Batasunaren lau askatasunei egiten die erreferentzia (*pertsonek, salgaien, zerbitzuak eta kapitalen zirkulazio askea*).

Nagusiki lege finantzarioarekin eta zuhurtasunezkoarekin lotutako Europako zuzentzarau batzuez gainera, Batasuneko kideek jarraitzen

⁵ K. Hirose, “Pension Reform in central and Eastern Europe in times of crisis, austerity and beyond”, ILO, Budapest, 2011, 5.

⁶ Y. Stevens, “Interactions between policy and law regarding pensions”; honako honetan: B. CANTILLON, H. VERSCHUEREN en P. PLOSCAR (eds.), “Social inclusion and social protection in the EU: interactions between law and policy”, Antwerpen, Intersentia, 2012, 155.

dute antolamendu-mailan beren pentsio-araubideetatik oso independenteak izaten.

Horrenbestez, Europako errealtatea mosaiko bat da⁷

Pentsioetako teknikak eta elementuak direla-eta Europako estatu kideetan dagoen aniztasuna elkarrekin estu lotuta dauden hainbat oinarriren gainean eraikita dago. Europa mosaikoaren hari eroalea da, eskumen nazionalak direla eta. Mosaiko hori hainbat piezek osatzen dute; esate baterako, estaldura, prestazioen diseinua, inplementazioa, tratamendu fiskala, kontrol-mekanismoak, interes-taldeen partaidetza, arriskuen banaketa eta finantzaketarako teknikak.

Estaldura, afiliazioa eta kideak: nahitaezkoak, borondatezkoak edo mistoak?

Pentsioei —edo estatu-pentsioei— buruzko lege-araubide gehienek modu batean edo bestean kidea izateko nahitaezkoatasuna jasotzen dute. Nahitaez kide izate hori hainbat modutan antolatzen da: Estatu kide batzuetan (Herbehereak), herritarra izatea, esate baterako, kide izatearen baliokidea da. Beste batzuetan, berriz, planteamendu kategorikoago bat badago kide izateari buruz (Belgika, Alemania, Danimarka). Hemen, kide izatea langileen kategorია jakin bati lotuta dago; esate baterako, funtzionarioak, autonomoak, langileak, exekutiboak edo beste batzuk. Kasu horietan, kide izatea enpleguko kategorია sozial nazionalari lotuta dago, herritartasuna alde batera utzita. Bi planteamendu horien arteko desberdintasun juridikoak aipagarriak dira eta desberdintasun handiak eragiten dituzte gutxieneko pentsioa edo adinekoentzako biziraupeneko gutxieneko maila bezalako gaien planteamenduari begira. Legezko desberdintasunak, halaber, azaltzen dute zergatik ez dagoen estatu kiderik non pertsona guztiek, herritartasuna eta enplegua alde batera utzita, estatuaren pentsio bat jasotzen duten. Beti geratzen dira populazioaren zati batzuk estaldurarik gabe. EBko enplegu-pentsioen araubide gehienetan, kide izatea (edo afiliatuta egotea) enplegatzailearen edo enplegatzaileen eta enplegatuen ordezkaritza-organismoen bitartez

⁷ Y. Stevens, "EU and pensions: is there need to develop a common pension policy?", E. PALOLA eta A. SAVIO, "Refining the social dimension in an Enlarged EU", STAKES, Saarijärvi (Finlandia), 2005, 141-159.

antolatzen da (normalean, maila sektorialean). Enplegatu afiliatuen, autonomoen edo funtzionarioen kasuan, afiliazioa enplegatzaileretik lan-kontratuaren ondorio bat da. Gehienetan, enplegatzailerak ezin du afiliazio hori errefusatu. Kasua bada, afiliazioa nahitaezkoa da. Enplegatzaileraren kasuan, enplegu-planaren antolaketa boluntarioa izan daiteke, enplegu-pentsioen sistema bat antolatzea edo halako sistema baten antolaketan parte hartzea erabakitzen du, edo, bestela, gutxienez ere eskubidea eman dezake enplegu-pentsioen sistema baten parte hartzeari ezezkoa emateko. Enplegatzailerak batek sistema bateko antolaketa edo parte-hartzea errefusatzetik ez duenean, afiliazioa ia nahitaezkoa da enplegatu guztientzat edo enplegatuen kategoria jakin batentzat (afiliatio-sistema mistoak). Banakako pentsio-sistemarako ekarpenak boluntarioak izaten dira ia beti. Halere, neurri handi batean, “banakako pentsio-sistemarako ekarpenak” kontzeptuaren norainokoaren definizioaren arabera izaten da. Adibidez, hipoteken tratamendu fiskal aldekoa, estatu kide batzuen kasuan, banakako pentsio-sistemen araubide horien zati bat da; araubide horietan, izan ere, ordainketa hipotekarioak (bolumen jakin batean) jasotzen dituzten bizi-aseguruen primen halako muga bat egoten da zerga-arinketarako. Hala eta guztiz ere, zerga-arinketaren mota hori nagusiki nahitaezkoa da herritar guztientzat (batzuetan, “kreditu pertsonal fiskala” deitzen dena). Tratamendu fiskalen mota horri buruz hertsiki “pentsioak” direla esan badaiteke ere, agerikoa da nolabaiteko garrantzi bat badutela pentsioei buruzko politikari begira.

Prestazioen diseinua eta kalkulu-metodoak

Pentsioak kalkulatzeko metodo batzuk badaude. Ezagunenak honako hauek dira: ekarpen definitua (ED), prestazio definitua (PD) eta mistoa. Mota horietatik hainbat aldagai badaude, formuletan zenbait elementu biltzen dituztenak: soldatak, diru-sarrera profesionalen batezbestekoa, azken bost urteetako soldatak, azken urteko soldatak, laneko soldaten batezbestekoa, lan egindako urteak, urte bateko batez besteko kalkuluak, inbertsioaren errentagarritasuna, errentagarritasun bermatua (goiko mugarekin nahiz gabe), primetan oinarritutakoak...

Antolamendu-maila: nazionala, sektoriala, enpresarena edo banakakoa⁸

Europar Batasunean, pentsioak hainbat mailatan antolatuta daude. Estatuko pentsioen, enpleguko pentsioen eta banakako pentsioen arteko bereizkuntza estatutaren, enpresaren eta gizabanakoaren hiru mailez harago doa. Muga bateraino, bistan da alde interesdun guztiak inplikaturik daudela pentsio-mota guztien antolaketa. Gutxienez ere “antolaketa” terminoa zentzu oso zabalean interpretatzen denean. Gaur egun, esanahi-mota hori nahiko ohikoa da “gobernantza korporatiboari (soziala) buruzko eztabaidan” edo “inbertsio sozialki arduratsua” ri buruzko eztabaidetan. Alde interesdun guztiei gonbita egiten zaie eztabaidan parte har dezaten. Hala eta guztiz ere, hori ez da zehazki antolamendu-mailaz ulertzen dena. Antolamendu-maila, normalean, pentsio bat kobratzeko bidea hasteko eskubidearen sinonimoa da. Eskubide hori estatutaren esku egon daiteke (pentsioen estatu-araubideak), industria-sektore jakin bateko mintzakide sozialen esku (pentsio sektorialak), enpresaren esku (enpresaren enplegu-pentsioak) edo gizabanakoaren esku (pentsio pertsonaletarako xedapenak). Hala eta guztiz ere, eskubidea horien nahasketa bat ere izan daiteke. Adibidez, estatuak, industria-sektoreak edo enpresak sustatutako pentsio-araubide jakin batzuetan gizabanakoek parte ez hartzeko aukera duten pentsio-sistemen kasua da. Hori bera aplikatzen da enpresa batek hautatzen duenean parte ez hartzea estatutaren araubidez edo araubide sektorialaz beste araubide batean. Legez gisa guztietako bereizkuntza zehatzak egin dira sistema nazionalen artean, eta haiekin beti doikuntza zehatz bat egon da maila desberdinen artean. Horrenbestez, ikuspuntu profano batetik, maiz erraz gertatzen da maila desberdinak sinplifikatzea, baina normalean okerra izaten da hori (legearen ikuspuntutik).

Ezarpena

Pentsio-sistemaren beste elementu bat da pentsioak nola ezartzen diren. Estatu kide batzuek ez dute aukerarik ematen enpresen balantzea

⁸ Ibidem.

ez kanporatzeko enpresek beren langileekin dauzkaten pentsio-konpromisoak finantzatzera bideratutako funtsetatik. Erreserba horiek inpaktu zuzena dute enpresen —eta, horrenbestez, herrialdearen— bideragarritasun ekonomikoan. Estatuen pentsio-sistema gehienak banaketa-metodo batean edo kapitalizaziokoa ez den metodo batean oinarritzen dira. Hala eta guztiz ere, aldaketa demografikoetarako konponbideei buruzko egungo eztabaidan, estatu kide askotxok berme gehigarriak sortzeko politika bat hartu dute: erreserba-funts deitutakoak dira. “Koltxoi” horiek normalean gastu publikoaren “kredituaren” aldean kontratatzen dira. Estatuko pentsioen banaketa-sistemetan, estatu-kontrataziorako zorrak hartzen dira aintzat, eta gastu publikoaren zati bat dira. Hartara, erreserba-funtsek aukera ematen dute gastu publikoa orekatuta egoteko. Banakako pentsio-araubide gehienak, guztiak ez badira, kanpoan kontratatzen dira banku batekin, aseguru-enpresa batekin edo pentsio-funtsen motaren batekin. Horrek, halaber, esan nahi du gizabanakoak ezin duela eragin horniduren edo metatutako erreserben bolumenean.

Tratamendu fiskala

Neurri fiskalak pentsio-politikaren tresna bat izan dira beti. Pentsio-araubide gehienek (estatukoak, enpleguak edo banakakoak) zerga-araubide berekia edukitzen dute askotan. Gehienetan hori konbinatu ohi da pentsio baxuen edo sozialki ahultzat jotzen diren pentsiodunen kategorien kasuetarako salbuespen batzuekin. Estatuko pentsioen tributua-maila lotuta egon ohi da zaharrenentzako biziraupeneko gutxieneko diru-sarreraren maila fiskalarekin edo etxearen maila fiskalarekin (halakorik badago). Enpresen edo sektoreen araubideekin lotutako enplegu-pentsioen tratamendu fiskala, askotan, konplexuagoa izaten da, zeren eta tributua ordaintzeko hiru une posible egoten baitira: ekarpena egiten denean, inbertsioaren errendimendu bat badagoenean edo pentsioaren prestazioa egiazki ordaintzen denean. Teorikoki posiblea da zerga-salbuespen bat egotea hiru uneetan edo (ez hain teorikoki) hiru uneetan tributazioa egotea. Sistema alda daiteke SSS sistema batetik (salbuespena hiru uneetan) TTT sistema batera (tributazioa hiru uneetan). Bien artean hainbat eredu badaude, baina Europako Batzordeak gero eta joera handiagoa du estatu kideentzat EET sistema proposatzeko arau gisa. Horrek esan nahi du pentsio-araubideari egindako kotizazioen gaineko tributaziorik ez dagoela, eta

inbertsioaren errentagarritasunaren gaineko tributaziorik ez dagoela araubidea sortzen ari denean, eta aldi berean jasotako prestazioarengatik tributatzeko dela. Banakako pentsio-araubideen kasuan, maiz gertatzen da kreditu fiskal bat badagoela, eta haren bidez Estatuak egiazki sustatzen duela gizabanakoak diru-kopuru bat aurrez dezan bere erretirorako.

Kontrol-mekanismoak eta gobernuaren zeregina

Estatu kideetan kontrol-mekanismo batzuk badaude, zeinak bideratuta baitaude egiaztatzen ea pentsio-sistemak zuzen kudeatuta dauden. Agintarien multzo batek egiaztatzen ditu estatu kide bateko pentsio-sistema desberdinen lege-murriztapenak, zuhurtziazko murriztapenak eta murriztapen sozial eta finantzarioak. Agintari horiek estandar desberdinen arabera lan egiten dute Europar Batasun osoan. Bada gai bat eztabaidak gaingiditzen dituen: enplegu-pentsioak zuhurtziazko irizpidearekin gaingiditu behar diren ala estatu-gaibegiratze zorrotz bat aplikatu behar-ko litzatekeen. Eztabaidak, esate baterako, halaber jasotzen du ea estatu-pentsioetarako kotizazioak ordaintzen dituztenek zuzen ordaintzen ote dituzten. Kontrol-mekanismo guztiak hertsiki lotuta daude Administrazioak pentsio-sistemetan betetzen dituen rol desberdinekin. Izan ere, Europako estatu kideetako administrazio guztiek ez dituzte botere berak. Estatu kide batzuetan, badirudi funtzionarioen goi-karguek botere nahikoa dutela gizarte segurantzak eta, horrenbestez, pentsio-sistemak egituratzeko. Hartara, bai rola bai Administrazioaren boterea Gobernuaren beraren rolean islatzen dira. Gobernuak hainbat modutara esku hartzen dute pentsio-sistemetan. Pentsio-sistemen antolamendua, kontrola, arauketa eta kudeaketa gobernuaren esku egon daitezke. Pentsio-araubide gehienetan, rol desberdin horiek guztiak aldi berean ere topa daitezke gradu desberdinetan. Gobernuak Estatuko pentsio-araubide gehienetan daukan rola kudeaketa eta antolaketa (borondatezko eskusio-ereduetan izan ezik) biltzen ditu, esate baterako; banakako pentsio-araubideen kudeaketa, berriz, normalean agente pribatuaren esku geratzen da; esate baterako banku, aseguru-enpresa edo funtsen (pentsio-funtsak) esku. Agerikoa da Gobernuaren arauketa-lana pentsio-araubide guztietan topa daitekeela, baina gauza segurua da Gobernuak ez duela esparru horren monopolioa. Estatu kide gehienetan, mintzakide sozialek betetzen duten eginkizun arautzaile garrantzitsua aitortzen da. Funts sektorialak, esate baterako, normalean mintzakide sozialek sustatzen dituzte eta, horrenbestez, negoziazio kolektiboaren bitartez araututa daude.

Alde interesdunen parte-hartzea; esate baterako, sindikatuena edo patronalarena

Mintzakide sozialek Europako pentsio-sistemetan betetzen duten rolak garrantzi erlatiboa du Batasunekoak ez diren beste herrialde batzuekin alderatuta. Europar Batasuneko estatu kideetan maiz gertatzen da mintzakide sozialek parte-hartze aktiboa izaten dutela Estatuko pentsio-araubideen politikan. Esate baterako, aholkua ematearen edo, are, arauak ematearen arloko boterea duten organo administratibo askotan topa daiteke. Mintzakide sozialei historikoki esleitu izan zaien zeregin klasikoa legez islaturik geratzen da pentsio-araubideen modu desberdinetan. Erregimen edo araubide batzuetan, mintzakide sozialek badute, esate baterako, hitzarmen kolektiboen bitartezko arautze-boterea. Bada, haietan, mintzakide sozialek funtsezko zeregina izan ohi dute pentsio-araubideen politika sozialaren esparruan. Normalean, haien botere arautzailearekin batera, kudeaketaren arloko boterea dator. Enpleguko pentsio-araubideetan, zeinetan sistemari hasiera emateko eskubidea enpresari baitagokio guztiz, haien rolak askoz ere garrantzi apalagoa du, eta askotan aholkua emateko zereginera mugatuta dago. Enpresari lotutako beste enplegu-sistema batzuetan, mintzakide sozialen rolak pentsio-funtsaren kudeaketa jasotzen du, esate baterako.

Arriskuak eta lotutako kostuak nork hartzen dituen bere gain eta nola banatzen diren

Pentsioen arloan eztabaidatu ohi den gai are konplexuagoa da nork hartu behar dituen bere gain haiekin lotutako arriskuak. Arrisku horiek ugari dira, eta hainbat mailatan gertatzen dira. Bizitza-luzera, esate baterako, estatuko pentsio-araubideetan egitate makroekonomiko baten moduan agertu ohi da, baina enplegu-pentsioetan ere arazoak eragin ditzake. Esate baterako, ordainketa bakarrak badaude, planteatzen da ea ordainketa bakar hori nahikoa izango ote den ordezte-tasa itxuroso bat emateko edo, pentsioak urteko ordainketetan ordainduz gero, ea urteko ordainketa horiek indexatu behar diren ala ez. Estatu kide desberdinek hainbat konponbide eman dituzte arazo horietarako; esate baterako, nahitaezko adierazle bat aplikatu dute, zeina ongizate orokorraren mailari lotuta baitago. Enplegu-pentsioetan ager daitekeen beste arrisku bat enplegatzailearen kaudimengabeziarena edo aseguru-

enpresaren nahiz pentsio-funtsaren kaudimengabeziarena da. Estatu kide batzuek lege batzuk eman dituzte, berrasegurua eskatzen dutenak; beste batzuek, ordea, banakako kontuak sortu dituzte, eta haien bidez Estatuak arriskua estaltzen du. Arriskuei buruzko eztabaidaren beste elementu bat prestazio definituko (PD) pentsioak ekarpen definituko (ED) pentsioetara aldatzearekin lotutakoa da. EDko planen kopurua gero eta txikiagoa da Batasunean. Alde batetik, gero eta gehiago dira beren PDko araubideko sistemak EDko araubideko sistemetara aldatzen dituzten Europako enplegatzaileak. Alde batetik (eta estatistikoki garrantzitsuena da), plan berri gehienak ED erakoak dira. PDtik EDra aldatzeak zerikusia du arriskuak onartzearekin. Oro har, PDko araubideetan, enplegatzaileek inbertsioen errentagarritasunarekin lotutako arriskuak hartzen dituzte beren gain; EDko araubideetan, berriz, enplegatua da arriskua onartzen duena. Teorikoki, pentsioekin lotutako arriskuak gizabanakoen, mintzakide sozialen, enplegatzailearen edo enplegatzaileen edo Estatuaren gainean gera daitezke. Arrisku guztiak onartzen dituen Estatuaren denean, gizartearen izaten da, oro har, balizko galerak estaltzen dituen.

Finantzaketa-metodoak: banaketa (PAYG) eta kapitalizazio irekia edo itxia

Banaketa edo PAYG deitutakoa ez da Estatuaren pentsio-araubideen monopolio bat. Legez, PAYGen oinarritutako enplegu-pentsioak badaude hainbat estatu kideetan. Horrenbestez, kapitalizazioa ez da enpleguaren pentsio-araubideen edo banakako pentsio-araubideen monopolio bat. Are gehiago, ohikoa izaten da estatuko pentsio-araubide gehienek kapitalizazioko zati bat (txikia) izan dezatela beren sistemetan, kotizazioak sistemara iristen diren unetik pentsioak ordaintzen diren unera iragaten diren denbora-tarteak direla eta. Legez, finantzaketa-modu hori «denbora mugatu baterako kapitalizazio sistemak (itxiak)» deitutakoen barruan sartzen da. Horrek esan nahi du oinarritzko aktiboen etengabeko fluxu bat badagoela, baina aktibo horiek egonkorrak direla (eta, horrenbestez, itxiak). Enpleguaren pentsio-araubide gehienek kapitalizaziorako legezko modu bat badute, “ireki” tzat jotzen dena. Horrek esan nahi du posiblea dela kide berrien diru berria etengabe sar dadila. Estatu kide batzuek kapitalizazio itxia eskatzen dute enpleguaren pentsio-araubide bat ixten den momentutik,

eta eskatzen dute, halaber, geratzen diren bakarrak izan daitezela ekarpenak etenik eta eskubideak geroraturik dituztenak.

Mosaiko juridikoa

Elementu desberdin horiek guztiak ikusten direnean, nahiko argi geratzen da Europa, errealitatean, pentsioekin lotutako elementuen mosaiko juridiko bat dela. Horrek ez du zertan elementu negatiboa izan (ez eta, arrazoi beragatik, positiboa ere). Frogatutako egitate bat da. Horrenbestez, European legezko tipologiak edo pentsio-sistemen legezko ereduak asmatzea oso lantegi zaila da, ezinezkoa ez bada. Zaila izateaz gainera, egia da, era berean, legezko ondorio gutxi dituela, edo batere ez. Legez, elementu eta teknikak direla-eta, estatu kide bakoitza bakarra da.

Etorkizun konplexua eta konklusioa: konfiantza behar da

Mosaiko juridikoak argi eta garbi zailtzen du gai honetan European planteamendu erkide bat egon dadila. EIOPA-Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzaren 2014ko azterlanak 34 (!) legezko parametro desberdin identifikatu zituen, eta horietako bakoitzak geruza desberdinak dauzka Europar Batasuneko enpleguak eta banakako pentsio-tresna guztietarako⁹. Analisi hori da, nire ustez, Europako panoraman aurre egin behar diegun zailtasunen frogarik onena.

Halaber, argi geratzen da ezen pentsio sistema nazionalak sistema izugarri konplexuak bilakatu direla, aurrekontu-murrizketen eta politika fiskal eta sozialen bitartez elkarrekin konektatuak. Pentsio-sistema guztiak (nahitaezkoak, enpleguak eta banakakoak) sakonki ulertzen oso zailak dira. Zalantzarik gabe pentsioei buruzko legedian «deabrua xehetasunetan ezkutatzen da». Nire iritziz, pentsioei buruzko legeen konplexutasuna azkar areagotu da azken bi hamarkadetan Europako estatu kide askotan. Nire ustez, konplexutasun hori lotuta

⁹ Datu basea (IORP deitutakoak eta banakako pentsioak): https://eiopa.europa.eu/Publications/Reports/EIOPA-OPC-14-059_Database%20of%20pension%20plans%20products%20in%20EEA.xlsx?Web=1.

dago, nagusiki, biztanleriaren zahartzearen kontzientzia hartzearekin; izan ere, horrek gobernuak bultzatzen ditu beren araubideak aldatzera. Parametro-aldaketa horiek ekarri dute estaldurari buruzko lege berri ugari egon dadila. Gobernu gehienek pentsioen identitate nazionalari eutsi diote, eta parametroen erreforma justifikagarriak sartu dituzte, egiturazko erreformen ordeaz, baina horregatik konplexutasun handia izatearen prezioa ordainduta. Horrek paradoxa bat ekarri du: lehendik dauden araubideenganako konfiantzari eusteko, garrantzi bizikoa da bat-batean ez gehiegi aldatzea pentsioak direla-eta azpian herrialde batean dauden kontzeptu eta nozioak. Hala eta guztiz ere, funtsezko aldaketarik egiten ez denez —bai, ordea, parametro-aldaketak—, pentsioei buruzko legedia harrapatzen eta ulertzen zaila den elementu bat bilakatu da. Paradoxa da, noski, horrek sistemarenganako konfiantza-eza eragin dezakeela, eta pentsio-sistemaren konplexutasun eta opakutasun izugarriak larriki higa dezakeela konfiantza.

Estatu kide askoren kasuan, gizartearen zahartzeak erronka bat izaten jarraitzen du. Horrenbestez, araubide kapitalizatuen edo ez-kapitalizatuen estalduraren zabaltasuna definitzen duten parametroek pentsio-politiken erdigunea izaten jarraituko dute datorren hamarkadan. Nire iragarpen pertsonala da estatuko kide gehiago hasiko direla araubide kapitalizatuetara aldatzen, eta gizabanakoak erantzukizun handiagoa hartu beharko duela pentsioetarako aurrezkiaren arloan. Aldi berean, litekeena da gero eta gehiagotan gertatzea alta automatikoa (auto enrolment deitutakoa) aztergai izan dadila enplegu-sistemetan.

Yves Stevens, Irakasle doktore jn.
Lovainako Unibertsitate Katolikoko Zuzenbide Fakultatea, Belgika

3. Kapitulu

Mutualismoaren printzipio eta balioak: etorkizunerako erronkak

Gizarte aurreikuspeneko mutualitateak irabazi asmorik gabeko gizarte ekonomiako erakundeak dira, zeinek aseguratzerako modalitate berezitu baten bitartez Gizarte Segurantzaren prestazioen prestazio osagarriak ematen baitituzte. Profesionalki kudeatuak, mutualisten kontrolarekin eta aseguratzailerekin aldezturik lotuta, kudeaketa garden bat egiten dute, zeinak, urteetan zehar, kudeaketa-gastuetan tasa lehiakorrenak eman baititu merkatuko operatzaile guztien artean; horrek, izan ere, ekarri du mutualistek Gizarte Segurantzarenaren osagarria den kopuru handiagoko pentsio bat edukitzea.

Mutualitateen kudeaketa parte-hartze demokratikokoa da, eta haren jardura honako honetan zentratzen da: gizarte aurreikuspena bermatzea, osasun-laguntza barne dela, langile autonomoaren edo besteren konturako langilearen kasuan, elementu eratzaile edo sustatzaile moduan edukita profesionalen korporazioak, elkarteak, kooperatibak, enpresak edo banakako izaera duten taldeak; hori dela eta, aukera eman dezake izaera kolektiboko gizarte aurreikuspena gizarte osoari zabaltzeko.

Gizarte aurreikuspeneko mutualitateak irabazi asmorik gabeko erakundeak dira, eta haien helburua da Gizarte Segurantzaren prestazioak osatzea, baita osasun-laguntza ere. Mutualitate horiek, gainera, Europako aseguru-erakundearen kaudimenaren esparruari loturik daude.

Mutualitateen Espainiako Konfederazioa Espainiako Gizarte Aurreikuspenaren Mutualismoaren ordezkaritza goreneko organoa da, eta 370 erakunde baino gehiago biltzen ditu; mutualistak, berriz, bi milioi eta erdi pertsona baino gehiago dira. Kudeatutako ondarea, azkenik, 45.000 milioi eurokoa da.

Gizarte aurreikuspeneko mutualitateak herritarren aurrezki/ aurreikuspen finalista bideratzeko tresnarik egokienetako bat dira; hala aitortu izan da zuzenean Toledoko Itunaren Batzordearen azken ondorioetan; izan ere, horren 16. gomendioak dio aldeztu duela “Gizarte aurreikuspeneko mutualitateak, irabazi asmorik gabeko aurreikuspen osagarriarako tresna gisa, sendotu daitezela sistema publikoarekiko lankidetzaz-irizpideen arabera, gizarte aurreikuspena enpresen eta profesionalen esparruan zabaltzeko tresna berezitu gisa”.

Mutualitateek, gizarte aurreikuspeneko erakundeak izateaz gainera, 1984an aseguru-erakundeen legezko izaera eskuratu zuten, soil-soilik beren helburua betetzeko behar zen kaudimen eta sendotasun finantzarioa erdietsi zezaten. Hala eta guztiz ere, ez dituzte beren ezaugarri sozial eta tekniko bereziak galdu, zeinak eskusiboak baitira aseguramendu-modalitate horretan. Honela laburbil ditzakegu horiek:

- Irabazi asmorik gabeko aseguru-modalitate bat betetzen dute, borondatezkoa eta Gizarte Segurantzaren nahitaezko sistemaren osagarria.
- Gizarte Ekonomiaren arlokoak direnez, pertsonen sozietateak dira, ez kapitalen sozietateak, eta, horrenbestez, mutualitatearen gobernu-organismoetan mutualista guztien parte-hartze demokratikoa dago.
- Batzar Orokorren bitartez, mutualista guztien biltzera da, presazioen erregelamenduak alda daitezke, eta horrek aukera ematen du kolektiboko kideen artean elkartasuna aplikatzeko. Egitate hori lagungarri gertatu zen arrakastatsu gerta zedin banaketa-sistematik sistema jasangarriago eta kaudimen handiagoko batera iragateko, banakako kapitalizazio-sistemara, horixe baita gaur egun daukatena.
- Gizarte aurreikuspeneko mutualitateen beste bereizgarri bat haren obra sozialaren garapena da; gai horrek, izan ere, tratamendu bera-

riazkoa du Gainbegiratzeari eta Kaudimenari buruzko Legean, non ezartzen baita gizarte prestazioak eman ahalko direla.

Zorrozkiz aseguruena ez diren prestazio horiek elkartasunetik sortu ziren, eta teknika aseguratzaile zorrotza aplikatzen duen banakako kapitalizazio-sistemaren osagarria den elementu bereizgarria da hori.

Gizarte obrak barnean hartzen ditu, besteak beste, elkartasunezko jardueren babesletza, ikasketetan laguntzeko bekak, aparteko laguntzak, lanbide-jardueran hasteko maileguak...

- Gizarte aurreikuspeneko mutualitateek bazkide babesleak izan ditzakete, eta haiek erakundeak sor daitezen sustatu eta gobernu-organotan parte hartzen dute, baina ezin dute kontrol eraginkorrik egin. Halakoak enpresak, elkarteak, lanbide elkargoak eta abarrekoak izan daitezke.
- Gainera, mutualisten artean, modu orokorrean, hertsiki aseguratzailea izatearenaz aurreko beste lotura bat badago, zeina profesionala, enpresariala edo asoziatiboa izan baitaiteke, halako moduz non mutualisten parte-hartze aktiboa lortzen baita, lotura horien bitartez gardentasuna eta mutualitatearen informazioaren bideratzea erraztuz.
- Mutualitateek gardentasun gehigarria lortzeko neurri gisa, beren gobernu-sisteman kontrol finantzarioko batzorde bat izaten dute, orokorrean, eta batzorde horrek, zeina Gobernu Batzordeaz kanpokoa baita eta batzarkideek osatuta baitago, urteko txosten bat ematen du mutualitatearen egoera finantzario eta ondarekoari buruz.
- Gizarte aurreikuspeneko mutualitateek enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna baten moduan jardun dezakete haien mutualista guztiak enpleguak direnean, haien babesle edo sustatzaileak zerbitzuak ematen dizkieten enpresak direnean, eta ematen diren prestazioak soilik enpresen eta mutualisten arteko akordioen ondorioa direnean.
- Autonomia-erkidegoek gizarte aurreikuspeneko mutualitateen arloko eskumenak bereganatu zituzten, eta egitate hori bereziki garrantzitsua

da sistema osagarria oinarri sozial handi bati zabaldu nahi zaionean; izan ere, hori errazago egiten da eskumenak autonomia erkidegoen esku utziz, zeren eta horrek ahalbidetzen badu aurreikuspeneko beharrianak herritarrei hurbiltzea, haietatik gertuago baitaude.

Autonomia erkidego guztiek arlo horretako eskumenak beren estatutuetan jaso dituzte, eta gaur arte lau dira legeintza-eskumen osoa egikaritu dutenak: Euskal Autonomia Erkidegoa, Katalunia, Valentzia eta Madril.

Aurreko ezaugarri horiek guztiak direla eta, gizarte aurreikuspeneko mutualitateak herritarrek erretirorako egiten duten aurrezpena bideratzeko eta kudeatzeko esparru pribatuko tresnarik egokienetako bat bilakatzen dira, irabazi asmorik ez dutelako eta haien kudeaketa-kostuak oso txikiak direlako.

Gizarte aurreikuspeneko mutualitateek efizientziarik handiena dute kostua-etekina analisian. Gastuen aldetik, honako abantaila hauek daude: administrazio-gastu txikiak, kapitalari dibidenduen bidez ordaindu behar ez izatea, irabazi asmorik ez egotea eta talde finantzarioekiko (bankuak edo aseguru-enpresak) independentzia; eta diru-sarreraren aldetik, berriz, inbertsioek aukera ematen dute finantza-baliabide guztiak pentsioen ordainketara bideratzeko.

Kudeatzeko modu horrek aukera ematen du kotizazioko bide luzeetan (30 urte) erretiroko pentsiorako metatutako kapitalaren aurrezkian ehuneko hogeita hamarrera arte lortzea.

Horri dagokionez, eta nahiz eta inbertsioen kudeaketak, krisialdiko urte hauetan, gure historia berriko unerik txarrenari aurre egin behar izan dion, zeren eta aktibo guztiek aurrekaririk gabeko hegakortasun eta zalantzak eduki baitituzte, bereziki gizarte aurreikuspeneko mutualitateek ez dituzte behar izan beste sektore batzuei begira ezarri diren neurriak.

Mutualistek erabateko konfiantza eduki dute gure erakundeengan, zalantzarik gabe aurrez zegoen loturaren ondorioz (lanekoa, profesionala, asoziatiboa eta abarrekoa), beren aurrezkiak zaintzen dituen mutualitatea oinarritu eta sostengatzeko orduan.

Eta hori lortzen da mutualitateek aurreikuspen jardueran dauzkaten ezaugarri bereziengatik, pentsio osagarrietarako epe laburreko errentagarritasunean oinarritzen ez diren finantzaketa-estrategiak erabiltzen baitituzte; hori dela eta, errazago gertatzen da zurrumbilo finantzarioak indargetzea. Bestetik, arriskuen kudeaketa epe luzekoa da (eta, horrenbestez, epe luzeko errentagarritasunak daude), eta horrek kudeaketa espekulatibo hutsaren arrisku finantzarioa gutxitzen du.

Horrek guztiak aukera eman du gizarte aurreikuspeneko mutualitate espainiarrek azken urte luzeetan sendotasun eta kaudimen finantzario eztabaidaezinak izateko, aseguruaren arloko araudiak eskatutako gutxieneko kapital-mugak gaindituta.

Etorkizunerako erronkak eta proposamen sektorialak

Gizarte aurreikuspeneko mutualitateak pentsioen sistema publikoaren aldeztaille sutuak dira; hori dela eta, gizarte aurreikuspeneko mutualitateen helburuak dira sistema horren askitasuna, pentsio duinak emateari eta haiei eusteari eta bideragarritasuna emateari dagokienez.

Gure ikuspuntutik, Gizarte Segurantza publikoaren osagarri diren gizarte aurreikuspeneko sistemen arau-garapenak hari eusten dioten zutabeak indartuko ditu; hori dela eta, sistema horiek, haien izenak ongi dioen bezala, sistema publikoaren osagarriak izan behar dute. Gure ustez, guztiz beharrezkoa da sistema publikoari eta sistema pribatuari eustea.

Herritarren artean, gero eta kezka handiagoa dago sistema publikoaren jasagarritasunari eta askitasunari dagokienez; hori dela eta, Toledoko Ituneko batzordearen akordioak berrindartu behar dira pentsio publiko bideragarri eta nahikoak bermatuko dituzten epe ertaineko eta epe luzeko estrategiak segurtatzeko, kontuan hartuta lan merkatua, bere kotizazioekin, ez dela iristen Gizarte Segurantzaren sistema hornitzera.

Gure ustez oso beharrezkoa da askoz ere bultzada eta garrantzi handiagoak ematea batzorde parlamentario horri, zeina adostasunaren eta elkarrizketaren ordezkaritza baita hain garrantzitsua den gai batean: herritarren diru-sarrerak beren erretiroaren orduan, are gehiago

egiaztatu denean sistema publikoa ez dela nahikoa hartatik datozen pentsioak hornitzeko.

Akordio horiek aukera eman behar dute sistema publikoaren askitasuna bermatzeko eta jardunean daudenen eta erretiroa hartuta daudenen arteko ekitaterako, pentsio publikoen jasangarritasunari eusteko helburu orokorra ahalbidetuko duten erreformei ekiteko eta pentsio-sistema kapitalizatu publikoen balizko ezarpena analizatzeko, belaunaldien arteko elkartasunaren printzipioari eutsita.

Aurreko guztian oinarrituta, gizarte aurreikuspeneko mutualismoak etorkizunerako erronka batzuk planteatzen ditu, gizarte aurreikuspena bere alderdi guztietan garatzeko; eta haiek lortzeko, gizarte aurreikuspen hori gizarte osoari zabaldu behar zaio.

Pentsio osagarrien sistemen zabalpen hori funtsezkoa da aurrekontu-egonkortasunerako eta enpleguaren egonkortasunerako; hori dela eta, haren sustapenari buruzko politika aktiboak egin behar dira; ondoren azaltzen ditugu horietako batzuk, ekin beharreko benetako erronkak direnak:

- Sistema osagarri kolektiboak garatzea ¹.
Gizarte aurreikuspenaren arloko politika sistema desberdinen tresnen eraginkortasuna lortzera eta ezaugarriak aztertzeraz bideratu beharra dago.

Aurreikuspen sozialeko sistema kolektiboak, laneko lotura bat edo lotura profesional edo asoziatibo bat dutenak, partaidetzazko kudeaketa bat dute, eta, horrenbestez, independenteak (banku edo aseguratzaileen taldeekiko) eta, hala badagokio, finantzaketa parekidekoak dira (autonomoentzat izan ezik); hau da, ekarpena enplegatzaileak eta langileak egiten dute. Bestalde, haren kostuak eta ekarpen-maila txikiak izaten dira. Azkenik, kolektibo oso zabalak estaltzeko gaitasuna dute, baita diru-sarrera ertain eta ertain-txikiak dauzkaten pertsonen artean.

¹ Gai honetarako, kontuan hartu dugu “Gizarte aurreikuspen osagarriaren diagnostikoa eta plana Euskadin” izeneko agiria.

Banakako sistemak konponbide osagarri bakarra dira enpleguako sistema batera edo sistema profesional edo asoziatibo batera bildu ezin diren pertsonentzat. Halakoetan, nork bere gain hartzen ditu inbertsioaren arrisku guztia ez ezik, estalduraren eraginkortasunerako gako diren erabakiak ere. Kostuei dagokienez, “Partnership in Pensions” britainiarrak honako hau baieztatzen du: *“Pentsio pertsonalak (banakakoak) komenigarriak izaten dira pertsona askorentzat, baina kostu administratibo handiak izan ditzakete.”*

Horrenbestez, konponbide bat planteatu beharra dago pentsioen erronkarako, sistema profesional, asoziatibo eta enpleguak sustatuta, izaera koloketibo eta parte-hartzailea dutenak.

- Kostu apaleko aurrezki-sistemak sustatzea erretirorako ². Botere publikoek pizgarriak eman behar dituzte pentsioen sektoreko operatzaile desberdinen kostuen efizientzia bideratzeko eta kostuak gutxitzeko.

Gardentasun/informazio publikoan oinarritutako ekimenak sustatu behar dira, baina halakoek eska dezakete konponbide eraginkorragoekin osatzea, mekanismo egoki gisa; esate baterako, kostu txikiko hornitzaileentzako eskaintzen aukeraketa-prozesuak edo besterik ezean esleipenak egitekoak, bereziki nahitaezko sistemetan edo auto-atxikipenekotan.

Pentsio sistema batzuetan, kostu-alderdiei ekin dakieke irabazi asmorik gabeko pentsio-erakundeak ezarritz; esate baterako, gizarte aurreikuspeneko mutualitateak.

- Biziarreko errentaren erako ordainketa sustatzea, bizitza-luzeraren arriskuaren aurrean ³. Ordainketa-fasean, besterik ezean, biziarreko errentaren halako maila bat ezarri beharra dago, erretirorako metatutako ondaretik datorrena, salbu eta banaketako pentsio publikoek edo zahartzarorako babes-sareak jada pentsio altuak ematen dituztenean.

^{2,3} ELGAren ibilbide-orria. Pentsioen arloko lantaldea.

Kobranta programatuen nahasketa batek (kapital partzialak), eta haiekin batera biziarteko errenta diferitu batek, erretiroaren orduan erosiak (esate baterako, 85 urterekin ordainketa hasiz), inflazioaren aurkako babesa eskain dezake, eta egokia izan daiteke beste aukerarik ez dagoenean. Biziarteko errentak susta daitezke, esate baterako hezkuntza finantzarioko ekimenak indartuz, zeinetan azpimarratuko baita aseguru-produktuak direla, norberaren baliabideen iraupenetik aurrerago bizitzeko arriskuaren aurrean babesteko diseinatuak. Kapital erako ordainketetarako pizgarriak kendu egin behar dira, salbu eta ekarpen definituko kontuen saldo txikien kasuan.

- Komunikazio eraginkorra segurtatzea eta ezagutza finantzario egokiaren ezaren arazoari heltzea.

Komunikazio eraginkorrak bere baitan biltzen du prestazioei buruzko banakako txostenen hornitze erregularra. Gainera, eskuragarri jar daitezke prestazioen proiektzio argiak, hipotesi zuhurrekin, gizabanakoei informazioa emanez ekarpen handiagoak egiteak edo erretiroa beranduago hartzeak beren prestazioetan izango luketen eraginari buruz. Planeko bazkideek hornitzaile desberdinen kostuei eta emaitzei buruzko informazio konparatiborako sarbide doako eta erraza eduki beharko dute, eta aurkeztutako materialetan erabiltzen den lengoaia ulertzen erraza izan behar du haientzat.

- Partaidetzazko tresnen eraginkortasun-gradua neurtzea.

Aseguratua babestearen arloan, sistemaren arloan kontrol gehigarrien efizientziak eta asegurdunek beraiek gobernu organoetan parte hartzeak aukera ematen dute asetze-ratiorik onena lortzeko, zeren eta erreklamazioen tasa oso txikia iristen bata mutualistari arretea emateko sailletara.

Partaidetzazko erakundeen efizientziaren neurketa ikusarazteko, organo eskudunak hiru hilean behingo txosten bat egin behar du mutualitateek, erakunde berezitu gisa, izan duten bilakaerari buruz, bestelako tresnetan ere halako txostenak badaude, tresnen efizientziari buruzko datuak jasotze aldera.

- Populazio osoak gizarte aurreikuspenetarako sarbidea izan dezan erraztea.

Ez da lortuko gizarte aurreikuspena gizarte osora zabaltzea horretarako tresna batzuk berariaz sortu gabe, kolektibo profesional, laboral edo asoziatibo bakoitzaren ezaugarrien arabera. Euskal Autonomia Erkidegoan halaxe gertatu da, zeren eta mutualitate ugari eratu baitira, eta horren bidez gizarte aurreikuspena iritsi da BPGaren % 35 egiten duen aurrezki-kudeaketako bolumen batera.

Hori dela eta, proposatzen da sustatu eta era daitezela autonomoentzako mutualitate berriak⁴ eta lanbide elkargo sektorialak enpresa-hitzarmen kolektiboan bitartez. Horretarako, araututza-baldintzak mutualitateen errealitate juridikoari egokitu beharko zaizkio.

- Europako zuzentarauen aplikazioa eta proportzionaltasun printzipioa.

Gizarte aurreikuspenaren jarduerak garatzeko aukera eduki behar du, populazio osora egoki zabaltzeko; hori dela eta, baldintza formal guztiak berrikusi behar dira proportzionaltasun printzipioan oinarrituta, mutualitateen eratzea errazteko.

- Negoziazio kolektiboa eta derrigortasun diskriminatua.

Gizarte aurreikuspen osagarria negoziatio kolektiboan garatzea, enpresak bere burua inplikatu dezan haren sustapenean. Pizgarri fiskalak ematea enpresek beren langileen alde egindako ekarpenengatik, eta haientzako sasi-derrigortasuneko sistema bat ezartzea.

Hartara, pizgarriak emango zaizkio enpresari sisteman sar dadin, eta ahaleginak egingo dira lortzeko gizarte aurreikuspen osagarria hitzarmen kolektiboetan sar dadila beste gizarte-onura baten gisara ez ezik, ordainsari zenbakarri baten modura ere.

Horretaz gainera, gure ustez estrategia nazional bat ezarri beharra dago derrigortasun diskriminatua garatzeko, zeinean zerbitzu osagarriak atxikiko baitira automatismo bat ezartzearen bidez, salbu eta interesduna berariaz aurka dagoenean.

⁴ Autonomoen elkarteek sustatuak.

- Erreforma fiskalak.

Beharrezkoa da pentsio-sistema guztiek parekatze bat izan dezatela sozietateen gaineko zergaren karga-tasan; karga-tasa hori gizarte aurreikuspeneko mutualitateentzat % 25ekoa da eta beste sistema batzuentzat, berriz, zerokoa.

Aurrezki finalista sustatzeari begira, gizarte aurreikuspeneko sistemen ekarpenaren mugak eta zergadunaren PFEZaren zerga-oinarriaren murrizketen gehieneko muga fiskalak bereiz aplikatu beharrekoak dira, eta zenbateko desberdinak izan behar dituzte, zergadunen banakako ekarpenen zenbatekoak direla-eta eta langileek eta enpresek haien alde egindako enpresa-ekarpenak direla-eta. Nolanahi ere, ekarpenaren muga finantzarioak igo behar dira, halako moduz non aurrezkiari/aurreikuspenari zenbateko handiagoak gehitu ahalko zaizkion lan-bizitzaren azken urteetan.

Halaber, berreskuratu egin beharko litzateke enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa diharduten gizarte aurreikuspeneko mutualitateei enpresek enpleguko pentsio-planerako egindako ekarpenengatik edo desgaitasuna duten pertsonentzako ondare babestuetarako ekarpenengatik aplikatzen zen sozietateen gaineko zergaren kuota osoaren kenkaria, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera kenduta dago.

- Gizarte aurreikuspeneko sistemak sustatzen dituzten sentsibilizazio-eta instrukzio-kanpainak.

Modu sistematikoan pentsioen sistema publikoaren ezaugarrien zabalkundea egiteko kanpainak ezarri behar dira, eta haietan, ezaugarri finantzarioei erreparatuta, informatu beharko da zein baldintzatan den bideragarria hura banaketa-sistema baten bitartez gauzatzea, eta bideragarritasun hori kapitalizazio-araubidean sistema osagarri bat garatzearen menpe dagoela.

Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-lana egin beharra dago pentsioen sistema publikoari eusten dion errealitateari buruz eta administrazioek egiten duten ahaleginari buruz; izan ere, ez dago gai finantzarioaren eta aktuarialaren arloko prestakuntza egokirik, gauden egoeraren analisi kritiko eta arrazoitua egiteko moduan.

Komenigarria dirudi, halaber, herritarrek informazioa eta instrukzioa jaso dezatela populazioaren piramidean oinarritutako banaketa-sistemaren funtzionamenduari buruz, hartan oinarritzen baita gure pentsio publikoen sistema.

Orobat, informatu beharra dago Espainiako legediak sistema pribatu osagarriak direla-eta ezartzen dituen kaudimen-betekizun handiei⁵ eta berme finantzarioei buruz, haien alde egin duten pertsonen aurrezkiak babestuta egon daitezen.

- Pentsio-sistema publikoari eta sistema pribatu osagarriari buruzko azterlan independente bat egitea.

Txosten horrek arazoarentzako erantzun batzuk jaso beharko lituzke, horren barnean direla erretiroako pentsio publikoaren zenbatekoaren bilakaera, faktore demografikoei erreparatuta, eta pentsioen sistema publikoak ordezkapen-tasa bati eusteko behar dituen diru-sarrerak; esan genezake ehuneko 70ekoak direla horiek.

Sistemaren bideragarritasun erreala egiaztatu beharko litzateke gaurko terminoetan, eta haren erreformak proposatu beharko lirateke, etorkizuneko ondorioak modulatzeko.

Sistema pribatuei dagokienez, azterlanak honako hauek jaso beharko lituzke: kudeaketa-gastuen inpaktua eta amaierako prestazioan duen eragina; azken bosturtekoan tresnek izan dituzten errentagarritasunak; erreklamazioen tasa eta efizientzia-tasa, eta sistemaren arabera erretiroko prestazioak eduki beharreko batez besteko zenbatekoa.

Bukatzeko, aipatu nahi dut nolako urgentziaz jardun behar dugun jada aipatutako egiturazko nahiz koiunturazko erreformak egiteko, bai pentsio-sistema publikoan, bai sistema osagarrian ere. Sinetsita nago adostasunak herritarrengan etorkizunari buruzko konfiantza sortuko duela, eta gaur zalantzan dagoen sistema publikoaren sendotasuna indartuko dela, eta gaur egun aurkitzen ditugun desoreka sozialen aurrean sistema osagarriak sustatu eta garatuko direla.

⁵ ELGAren ibilbide-orria. Pentsioen arloko lantaldea.

Mutualitateak lagungarri gerta daitezke desoreka horiek arintzeko edo haiei konponbidea emateko, pertsonen bizitzaren une garrantzitsuenetako batean, nola baita haien erretiroarena; izan ere, ezegonkortasun horiek une horretan gertatzen dira modu nabarmenenean.

Pedro Muñoz Pérez jn.

Espainiako Mutualitateen Konfederazioako ohorezko presidentea

4. Kapituluia

Gizarte aurreikuspen osagarria Euskadin eta haren orokortzea

Gizarte aurreikuspen osagarria Euskadin eta haren orokortzea” BGAEen egungo mundua osatzen duten azken datuen bilduma bat da. Zenbateko horiek iragan bat eta etorkizunaren beharra duen orainaldi bat badauzkate. BGAEek bultzada bat behar izaten dute aldizka hedabideetan, eta herritarrengandik hurbilago egon behar dute pentsioak osatzeko tresna gisa.

- Gogorazarpen bat.
- Errealitate bat.
- Etorkizun bat.

Gogorazarpen bat

35 urte. 25.000 milioi euro. 1 milioi bazkide. Urtean 600 milioi euro prestaziotan. Euskal Autonomia Erkidegoaren BPGaren % 33.

Zenbateko horiek itxuraz bertigoia eragiteko modukoak dira 1982an eskualdatu zen eskumen autonomiko batekoak izateko, eta etengabe hazten jarraitzen dute. Arrakastak jota hiltzea da jada helmuga batera iristea lortu dutela uste dutenei gertatzen zaiena. Finkatzeak eta, batez ere, hazten jarraitzeak, laguntzak gehien behar dutenei orokortuz, izan beharko lukete helburu bakarra.

Gizarte babesari buruz eztabaidatzen duten forotan barna mugitzen garenean, Euskadiko gizarte aurreikuspen osagarria eredutzat jartzen da, orokortzearen eta estaldura orokortuaren eredutzat.

Euskadiko gizarte aurreikuspen osagarria, ordea, ez zen 80eko hamarkada loriatsuan sortu. Azken 35 urteetako garapenaren zati handi batek herentzia historikoan du jatorria. Eta antzinako foru tradizio hori, gizakiarengandik datorren ia oro bezala, beharrian eta beldurretatik beraietatik dator.

Basoak, baserriak, itsasontziak eta gainerako ondasunak, laneko eta bizitzako jarduerarekin batera, bat-bateko ezbeharren kasuan bermatu beharko lirateke: suteak, haizeteak, enbatak eta abar. Eta bermerik onena da “bakoitzak hainbeste” ordaintzea, hau da, anaitasun, kofradia, montepio edo sozietate bateko bazkide, bizilagun, kofradiakide edo parte-hartzaile guztien artean ordaintzea.

Heriotzaren aurreko berdintasuna ere solidarizatu egin zen, eta, hartara, elizate askotan, antzinako foru eskubide zibilei eutsiz, biztanleek indarrak batu zituzten beren hiletak ordaintzeko; hori bai, guztiak berdin, behartsuen eta aberatsen arteko desberdintasunik gabe.

Hartara, ezbeharrek solidarizatuz, gure arbasoek lehenengo aurreikuspen-erakundeen ernamuina jarri zuten, Europa erdian gremioek egin zuten bezala. Erabilera historiko hori ohitura bilakatu zen, eta zorigaiztoen aurka babesteko beharra zimendatu zuen.

Eta anaitasun horiek, zeinetatik batzuek gaur egun indarrean jarraitzen baitute, elkarri sorospena ematearen, laguntzaren eta gizarte aurreikuspenaren beste tresna modernoago batzuen elkartasunaren bidea zabaldu zuten.

Errealitate bat

Gutxi gelditzen da bazkide solidario eta parte-hartzaile haietatik antzinako anaitasunen kudeaketan eta erabaki-hartzeetan. Gaur egun, gure mundu indibidualista txikiak joera du aurrezkia, kalteak eta prestazioak pertsonalizatzeko, eta, ahal dela, erakundeen gobernu-organoetan parte hartu behar izan gabe.

Duela 35 urte, ohitura eta anaitasun horiek gizarte aurreikuspen boluntarioko erakundeen araudian sartu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko autonomia estatutuak bere gain hartu ondoren 10.23 artikuluan jasoa zuen eskumen hori. Kofradiekin eta montepioekin batera, enplegu-modalitateko erakundeak sortu ziren, gizarte segurantzaren ernamuina; halakoek lan-bizitzarekin lotutako beharriaz erantzuten diete: erretiroa, baliaezintasuna, langabezia, aldi baterako ezintasun, gaixotasuna eta abar.

Azkenik, foru ogasunek tresna horiei emandako bultzada fiskalari esker, banakako modalitateko erakundeak sortu eta garatu dira, gizabanakoen aurrezki finalista erraztu dutenak.

Funtsezko premisa bat badago ulertzeko nolako munduan mugitzen ari garen. Prestazio **osagarri**ei buruz hitz egiten dugu beti: Zeren osagarriak? Gizarte Segurantzaren pentsioen osagarriak, lehenengo zutabeak edo oinarriko zutabeak deitutako osagarriak. Prestazio horiek beti diru-sarreraren funtsezko oinarria izan behar dute edozein ezustekoren aurrean, baina, egia da, era berean, haren arreta-gaitasuna ez dela ez infinitua ez absolutua. Nola gaude Euskadin lehenengo zutabeari dagokionez?

Ez dira sartzen kotizazio gabeko pentsioen eta LISMItik datozen datuak; haien pisua, halere, garrantzi txikikoa da. ¹

PENTISIO-MOTA	ESPEDIENTE-KOPURUA	PENTISIOA BATEZ BESTE €	GASTUA, GUZTIR € Miliotan	GASTUA, %
KOTIZAZIARIK GABEKO PENTISIOAK	547.677	1.152	8.665,4	99,6
Ezintasun iraunkorra	42.958	1.202	707,3	8,1
Erretiroa	351.645	1.325	6.386,9	73,4
Alarguntza	135.321	775	1.452,4	16,7
Zurztasuna	15.447	453	97,4	1,1
F. familiarra	2.306	663	21,4	0,2
KOTIZAZIO GABEKO PENTISIOAK (2)	11.717	373,5	30,9	0,4
Erretiroa	5.405	352,3	26,3	0,3
Baliaezintasuna	6.312	391,7	34,9	0,4
GUZTIRA	559.394		8.696,3	100,0

Iturria: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala eta IMSERSO.


¹ Ez dira sartzen kotizazio gabeko pentsioen eta LISMItik datozen datuak; haien pisua, halere, garrantzi txikikoa da. Urteko batez besteko datuak.

Prestazioen maila Estatuko batezbestekotik gora dago, beste arrazoi batzuen artean batez besteko soldata gorago dagoelako, horrek dakartzan kotizazio altuagoekin eta kotizazio-karrera luzeengatik.

Hala eta guztiz ere, ezinbestez “ordezkapen-tasa” deitutakoa ezagutu behar da; hau da, nire azken soldatatik zein ehuneko kobratuko dudan erretiroa hartzen dudanean. Eta hor hasiko gara osagarritasunaren beharra ikusten.

Ordezkapen-tasari edo batez besteko pentsioen eta batez besteko soldataren arteko ratioari dagokionez, haren bilakaerak adierazle horren igoera argia erakusten du. EINek² argitaratutako soldatei buruzko datuak aipagai ditugula eta Gizarte Segurantzaren pentsioen batez besteko zenbatekoak kontuan hartuta, lortu dugu ordezkapen-tasa 2016an % 57,1ekoa izatea Euskadin. Ehuneko hori, berriz, % 65,7raino igotzen da soilik erretiro-pentsioak aintzat hartuz gero.

Ordezkapen-Tasaren Bilakaera (Erretiro-Pentsioa) Euskal Autonomia Erkidegoan, 2008-2016 Aldian



Horrenbestez, erretiroa hartu aurretik geneukanaren antzeko bizi-maila edo -kalitatea mantendu ahal izateko, alde hori gainditzeko neurriez edo jarduketaz pentsatu beharko dugu; izan ere, alde hori, jada gaur egun, nabarmena da, baina datozen urteetan handiagoa izango da, identifikatzen errazak ez diren hainbat arrazoi tarteko: pentsio publikoa prezioen garestitzearen azpitik birbaloratzea, jasagarritasun-faktoreak, zeinek pentsioen gutxitze bat aplikatzen baitute bizi-esperantza berrien arabera, eta abar.

² Soldaten Egiturari buruzko Urteko Inkesta (SEUI).

Herritar bakoitzak hautatu beharko du, ahal badu, bere etorkizuneko pentsioa osatzeko formula: higiezinak, akzioak, era askotako inbertsioak, aurrezkiak. Halaber, gizarte-aurreikuspen osagarria (GAO). Formula horrek, gainera, bere abantailak dauzka (zalantzan jar daitezkeenak ala ez) funts horiek Euskadin kudeatzen dituen oinarritzko tresnari — BGAEak— egiten zaizkion ekarpen ekonomikoen arabera.

Etorkizuneko pentsioa (erretirokoa zein baliaezintasuneko) osatzeko beharizan hori, ikusi dugun bezala, gero eta handiagoa da, eta eragin du, jasotako herentzia historikoarekin batera, Euskadiko milioi bat herritarrek beren erretirorako aurrezteko hautua egitea.

Gaur, 1983ko lehenengo lege hartatik 35 urte iragan ondoren, BGAE handienak pentsioak ematen dituztenak dira, gutxienez ere erretirokoak. Honako hauek dira zenbateko garrantzitsuenak:

BGAE kopurua, modalitatearen arabera. 2018

MODALITATEA	Erakunde kopurua	%, guztizkoaren gainean
BGAEak aurreikuspen-planekin	77	64%
Elkartua	2	1,6%
Enplegu ez-lehentasunezkoa	44	36,0%
Banakakoa	31	26,4%
BGAEak aurreikuspen-planik gabe	43	36%
Heriotzak	30	24,0%
Suteak	1	0,8%
Beste batzuk	12	11,2%
GUZTIRA	120	100%

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2018ko aurreikuspen-planak dituzten bgaeen magnitude nagusien laburpena

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Baskideak	Balantze-Zifra	Planen Ekarpenak	Planen Prestazioak	Erreskateak
BGAEak aurreikuspen – planekin	77	1.135.778.5.778	24.826.018.696	727.207.826	634.923.273	154.346.120
Elkartua	2	1.488	21.228.524	294.791	287.430	10.203
Enplegu ez lehentasunezkoa	44	485.936	13.409.480.995	318.631.762	418.939.071	2.215.570
Banakakoa	31	648.354	11.395.309.176	408.281.272	215.696.771	2.215.570

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza.

Magnitude handiek okerreko triunfalismoetarako bidea eman dezakete; hori dela eta, zenbateko batzuk xehakatuko ditugu, etengabeko egokitze-bidean dagoen errealitatea hobeki ulertzeko.

Pertsonak. Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen bazkide kopurua. 2017

MODALITATEA	Erakunde kopurua	Gizonezko bazkideak	%, guztizkoaren gainean	Emakumezko bazkideak	%, guztizkoaren gainean	Bazkideak, guztiras
BGAEEK aurreikuspen-planekin						
Elkartua	2	1.298	0,2%	229	0,1%	1.527
Enplegu ez-lehentasunezkoa	45	268.974	42,4%	191.443	38,8%	460.417
Banakakoa	33	363.557	57,4%	301.590	61,1%	665.147
GUZTIRA	80	633.829	100,0%	493.262	100,0%	1.127.091

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2017an, 1.127.091 pertsona zeuden aurreikuspen-planak dituzten BGAEen barruan. Azterketa genero-ikuspegitik eginez gero, gizonak bazkide kopuru osoaren % 54 ziren; emakumeak, berriz, % 46.

2017an, aurreikuspen-planak zituzten BGAEek batez beste 14.089 bazkide zituzten. Banakako BGAEek batez beste 20.156 bazkide zituzten; enpleguokoei, berriz, 10.231. Nahiz eta banakako BGAEen batez besteko balantzea enplegukoaren oso antzekoa izan, banakako BGAEen batez besteko bazkide kopurua enplegukoaren ia bikoitza da.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ekarpenak eta prestazioak. 2017

MODALITATEA	Zenbat	€ Ekarpnak	%, guztizkoaren gainean	€ Prestazioak	%, guztizkoaren gainean
BGAEEK aurreikuspen-planekin					
Elkartua	2	342.460	0,05%	302.208	0,05%
Enplegu ez-lehentasunezkoa	45	289.303.478	41,50%	407.510.038	65,50%
Banakakoa	33	407.549.034	58,46%	214.293.714	34,45%
GUZTIRA	80	697.194.974	100%	622.105.961	100%

Iturria:Finantza Politikako Zuzendaritza.

Taulan ageri diren datuak aurreikuspen-planak dituzten BGAEtan kontingentzia jakin batzuetarako egindako ekarpen eta prestazioei buruzkoak dira: erretiroa, heriotza, mendekotasuna, baliaezintasuna, iraupen luzeko langabezia eta gaixotasun larria, hain zuzen; hau da, aurreikuspen-planen bidez eman daitezkeen prestazioak. Datu horietan ez dira ageri, beraz, beste gizarte-prestazio batzuk jasotzeko egiten diren ekarpen eta prestazioak, hala nola aldi baterako ezintasuna, enplegurako laguntzak eta zenbait prestazio mediko. Enplegurako BGAE batzuek ematen dituzte horrelako prestazioak, baina ezin har daitezke bigarren edo hirugarren zutabekoen multzokotzat.

Bestalde, erreskateak ere ez daude taulan jasota, 10 urte baino gehiagoko antzinatasuna duten ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzea ez baita prestazio bat.

Genero-ikuspegitik, sistemari egiten zaizkion ekarpenen kopuru osoaren % 60 gizonek egin dituzte (419.218.099,23); emakumeek, berriz, ekarpenen % 40 egin dituzte (277.976.874,86). Horrek esan nahi du emakumeen ekarpenak, osotasunean hartuta, bazkide kopuruari dagokionez duten banaketa portzენტuala baino % 6 txikiagoak direla.

2017. urtean aurreikuspen-planak dituzten BGAEek, osotasunean hartuta, prestazioetan izandako gastu osotik % 75 erretiro-kontingentziarekin lotuta zeuden, eta % 17 bazkide arrunt baten heriotzaren ondorioz jaso zuten onuradunek.

Bestetik, prestazio guztien % 67 (414.321.303,91) gizonek jaso dituzte; emakumeek, berriz, prestazioen % 33 jaso dituzte (207.784.657,32). Jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 10.164,30 € izan da. Baina azterketa generoaren arabera eginez gero, emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (7.846,85 €) gizonek jasotakoa (11.931,50€) baino nabarmen txikiagoa da.

Prestazioen xehakitzea, 2017

ERRETIROA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak €		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
25.224	10.735	35.959	352.472.352,17	111.470.105,39	463.942.457,56

EZINTASUN IRAUNKORRA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
4.946	1.619	6.565	36.541.076,18	10.825.546,00	47.366.622,18

MENDEBASUNA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
5	12	17	22.475,30	64.695,82	87.171,12

IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
643	515	1.158	2.763.474,78	1.902.331,60	4.665.806,38

GAIXOTASUN LARRIA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
43	46	89	538.807,91	254.250,43	793.058,34

BAZKIDE PASIBOAK, GUZTIRA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
30.861	12.927	43.788	392.338.186,34	124.516.929,24	516.855.115,58

HERIOTZA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
3.864	13.553	17.417	21.983.117,57	83.267.728,08	105.250.845,65

BAZKIDE PASIBOAK/ONURADUNAK, GUZTIRA					
Bazkide kopurua			Zenbatekoak		
Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
34.725	26.480	61.205	414.321.303,91	207.784.657,32	622.105.961,23

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Baldin eta azterketa egiten bada prestazioak jasotzeko moduaren arabera, ikusiko da prestazioen zenbateko osoaren % 39 errenta aktuarial gisa jaso dela (239.640.115,07), % 11 finantza-errenta gisa (71.169.112,87) eta % 45 kapital gisa (278.014.307,84). Horrek esan nahi du jasotakoaren ia % 50 kapital gisa jaso dela, nahiz eta erakunde horien sozietate-helburua izan Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen aldizkako pentsioak behar adina osatzea.

Etorkizun bat

Abiapuntuko egoerak elementu positiboak ditu, bai eta zailtasunak ere.

Elementu positiboen artean, arauketa substantibo egonkor eta egoki bat daukagu, zeinak berariaz arautzen baititu gizarte aurreikuspeneko lehentasunezko erakundeak. BGAEen modalitate hori baldintza batzuk dituen formula bat da —esate baterako, prestazioak errenta moduan kobratzea, ekarpen partekatuak, ezin erreskatatzea eta abar—; hori dela eta, tresna egokitzat har daitezke behar adinako pentsioak lortu ahal izateko.

Enplegu-sistemek abantaila ukaezinak dakartzate gizarte-aurreikuspena errenta ertain eta errenta ertain-baxuko segmentuetara hedatzeari dagokionez: sistema horiek ekarpenen hasiera goiztiarra eta jarraitutasuna bermatzen dute; momentuz, sistema horiek dira errenta erako prestazioak masiboki eta gehien ematen dituztenak, eta horiek dira batez besteko biztanleriaren beharrianetara hobeto egokitzen direnak eta, batez ere, egokituko direnak. Horrez gain, gizarte-erabilerari, askitasunari, eraginkortasunari eta kostu fiskalari begira balantze ona eskaintzen dute.

Halaber, BGAEei buruzko legeak Gizarte Aurreikuspenaren Euskal Kontseilua (GAEK) sortu zuen, zeina kide anitzeko organo bat baita. Bere egitekoa da gizarte-aurreikuspena aztertu, sustatu, hedatu eta babestea, eta sistemari eragiten dioten gai guztietako aholkulari izatea.

Organo honetan honako hauek ordezkaturik daude: EAEko Administrazioa eta foru administrazioetako ordezkariak, erakunde sindikalak, gizarte aurreikuspeneko federazioak eta arloan eskumen egiaztatua duten pertsona independenteak. Organo honen lehenengo

bilera 2016ko maiatzaren 30ean egin zen. Eta espero da hemendik gutxira berriz biltzea.

Araugintzako eskumenen barruan, azpimarratu beharra daukagu, era berean, Euskadik badauzkala gizarte aurreikuspen osagarriari bultzada ematea ahalbidetu ahal duten eskumen fiskalak.

Bestalde, Euskadin aipatzeko moduko esperientzia badago enplegu-sistemak direla eta, baina haien garapena ez da homogenea lurralde guztietan.

Horrenbestez, egun eskuragarri dauden datuekin, eta epe ertain eta luzera oinarrizko helburua izanik pentsio publiko eta osagarriaren arteko ordezkapen-tasa egungo parametroetan mantentzea, ezinbestekoa da borondatezko Aurreikuspen Osagarria bultzatzeko mekanismoak finkatzea.

Azkenik, oinarrizko adostasun bat badago eragile sozialen artean; izan ere, ados daude esaterakoan lehenengo zutabeari eutsi behar zaiola, baina hori ez da eragozpena eragile horiek beraiek onartzeko GAOa bigarren zutabearen bitartez orokortu beharko litzatekeela.

Bestalde, zailtasunak ere badaude.

Gizarte aurreikuspen osagarri baten beharra dela-eta herritarren kontzientziazio gero eta handiagoa azaldu bada ere, gizarteak, oro har, oraindik ere ezagutza falta handia dauka gizarte aurreikuspeneko sistemen xedeari eta funtzionamenduari buruz, eta, askotan, aurrezki fiskalean zentratutako produktu finantzario batekin identifikatzen dute, eta ulertzen dute GAOa orokortzeak arlo honetako babes-sistemen pribatizazioa dakarrela. Errealitatetik oso urrun dago hori. Lehenengo zutabearen defentsa, beharrezkoa den defentsa hori, eztabaidaezina da. Baina ez da gutxiagoa egia, gizarte segurantzari buruzko legediaren egungo erreformarekin, lehen zutabearen estaldura ehuneko nabarmen batean gutxituko dela.

Beste faktore negatibo bat azken urte hauetan pairatu den krisi ekonomikotik dator, zeinak berekin ekarri baitu, besteak beste, aurrezki-gaitasuna gutxitzea, bereziki gazteagoen kasuan.

Azkenik, baina garrantzi-maila berarekin, aipatu beharra dago GAOari aplikatzen zaion fiskalitatea ez dela iritsi nahi ziren helburuetara. Pizgarriak ez dira nahikoak izan, eta ez dira eraginkor gertatu GAOa areagotzeko. Ez da garatu “lehentasunezko” BGAEentzako esparru fiskal berariazkorik; hori dela eta, ez dira garatu.

Enplegatzailearen ekarpenak soldata geroratua dira eta, ondorioz, soldata-gastua. Hori dela eta, argi dago, batez ere ezarritako mugekin, gastu kengarriaren izaera mantendu beharko litzaiokeela.

Enpresaburuak funtsezko alderdia dira estrategia honetan. Horrela bada, kostuak nolabait arintzea bat etorriko litzateke enplegu- eta sektore-sistema horiek ezartzea sustatzeko lehentasun nagusiarekin. Gauza bera esan daiteke beren lehentasunezko enplegu-aurreikuspeneko sistemetarako langileek egiten dituzten ekarpenen ahaleginari buruz.

Bestalde, zenbatekoaz gainera, tokia irabazten ari den gogoeta-modu orokorra da pizgarri horiek “fokalizatuta” egon behar dutela beren erretirorako bestela aurreztuko ez luketen pertsona eta kolektiboengan.

Horretaz gainera, aplikatutako neurri fiskalak ez dira denboran egonkorrak izan, eta horrek eragotzi du GAOaren plangintza zuzena egitea; halaber, aitortu beharra dago ezen arau fiskalen arloko aldaketa batzuk gizarte aurreikuspen osagarritik kanpoko faktoreek eragin dituztela, eta eragin negatiboa ekarri diotela gizarte aurreikuspen osagarriaren eta, zehazki, enpleguko BGAEen garapenari. GAOa bultzatzearen aurkako aldaketa fiskalak ere egin izan dira (sozietateen gaineko zergen ekarpenen kenkaria deuseztatzea).

Azaldutako egoera abiapuntutzat hartuta, zein izango litzateke estrategiarik egokiena Euskadin GAOa orokortzearen helburua lortzeko, prestazio-maila egoki batekin eta lehenengo zutabearen izaera osagarriarekin?

GAOaren prestazio-maila egokitzea hartzeko, 2006-2014 aldirako Eusko Jaurlaritzak onetsitako Aurreikuspen Planean jada aipatzen zen beharrian orokor bat bazegoela, aurreikuspenak gutxienez ere amaierako soldaten % 20 betetzekoa, euskal gizarteak lan-errenten ordezkapen-tasa batzuk izan ditzan eta haien bitartez bizi-kalitateari

etsi ahal izateko, errenta horiek jasotzeari uzten zaion unetik aurrera. Horretarako, urtero soldataren % 6 inguruko ekarpena egin beharra dago (enpresak eta langileak partekatutako ekarpena) pertsonen lanbizitza osoan zehar.

Abiapuntua da, jada aipatu dugun bezala, daukagun arauketan jasota daudela orokortzeko eta estaldura-maila egokitzeko lehentasunezko BGAE aproposenak. Baldintza horiek betetzeko, honako ezaugarri hauek eduki behar dituzte:

- Enpresako langile guztiei eskaini behar zaizkie.
- Enpresaburuen eta langileen ekarpen partekatuak behar dituzte.
- Ezin izango dira erreskatatu gizarte aurreikuspenaz beste xede batzuetarako.
- Prestazioak, nagusiki, errenta moduan eman beharko dira, hartara pentsio publikoa osatuz.
- Gainera, enplegatzailearekin gizarteko eta laneko loturarik ez duten kolektiboek aplikatzekoa zaien tresna bat beharko da; horixe da, hain zuzen, langile autonomoen kasua: horiek ere enpleguko lehentasunezko BGAEak eratu ahalko dituzte. Hartara lortuko da tresnak langileen multzo osoa hartzea.

EUne hauetan, BGAE desberdinak daude, lehentasunezko BGAEen eredian ahokatzen direnak, baina ez dute halakotzat kalifikatzea eskatu, zeren eta eskatzen diren estandarrak bete arren, ez baita lehentasunezko BGAEetarako berariazko esparru fiskalik garatu.

Hala eta guztiz ere, tresna hori ez da nahikoa. Jendeak ezagut dezan behar da, eta, gainera, GAOa artikulatzeko tresna on baten gisara balora dadila, bai langileentzat, bai enpresaburuentzat.

Horrenbestez, funtsezkoa da argi azal dadila pentsio publikoen etorkizuneko egoera, azpimarra jarritz pentsiodunentzat epe ertain eta luzean izanen duten ordezkapen-tasan, eta, aldi berean, adieraziz aurreikuspen osagarria badagoela ordezkapen-tasa txikiago hori

arintzeko, eta, bereziki, hura orokortzeko tresnarik egokiena lehentasunezko BGAEak direla.

Halaber, oso garrantzitsua da etorkizuneko pentsio osagarriaren zenbatespenei buruzko aldizkako informazioa ematea, bai eta bigarren hezkuntzako eta unibertsitate-hezkuntzako zentroetako pentsioei buruzko prestakuntza ere, eta, horrekin batera, publiko osoari zuzendutako informazio-kanpainak: Hori guztia halako moduz eginga non nahi den eragina sortuko baitu; hau da, arazoari buruz kontzientziatzea, baina behar ez diren alarmak sortu gabe.

Hala eta guztiz ere, ez da nahikoa izango populazioa, orokorrean, kontzientziatzea; izan ere, berariaz kontzientziatu beharko dira eragile sozialak, enpresaburuak eta sindikatuak, zeinak izango baitira GAOa enpresetan artikulatzeaz arduratuko direnak. Horretarako gakoa da eragile sozial horiek kontzientziatzea, enpresa- eta sindikatu-erakundeen ordezkaritza-bideak erabiliz (CES, CRL, Elkarrizketa Sozialaren Mahaia...), ekarpen partekatu egoki eta jasagarriak egiteko beharrari buruz, balioan jarritz GAOa enpresen garapenerako positiboa dela: egonkortasuna, konpromisoa, parte-hartzea, inplikazioa, kudeaketa korporatiboa...

Aipamen berezia merezi du langile autonomoen kolektiboak, zeren eta, dauzkaten ezaugarri bereziak direla-eta neurri handi batean negoziazio kolektibotik kanpo baitaude eta, gainera, errealitatean, GAOa bereziki behar duen kolektiboa baita. Horri dagokionez, eta kolektibo horrentzat, nolabaiteko laguntza instituzionala planteatu beharko da berariaz kolektibo horrentzat diren lehentasunezko BGAEak sortzeko.

Jada aipatu den bezala, GAOaren garapenerako funtsezko faktore bat aplikatzekoa den tratamendu fiskalari dagokiona da.

Gaur arte, aplikatu den fiskalitateak ez du aukerarik eman GAOa orokortzeko. Horrenbestez, gogoeta bat egin beharra dago nahi den orokortzearen helburua erdiesteko tributu-tratamendu egokienari buruz.

Eta banakako modalitateko BGAEei buruz hitz egitea falta zaigu. Bistan da funtsezko betekizun bat izan dutela epe luzeko aurrezkiaren

garapenean, pentsio bat osatzeko helburuarekin. Bistan bada ere ezen, neurri handi batean prestazioen kapital-erako kobrantzei (eta ez errenta-erako kobrantzari) ematen zaien aldeko tratamendu fiskalari esker, pentsio publikoaren osagarritasunaren funtsezko alderdia ez da desio zena izan. Hori dela eta, formula batzuk aztertu beharko dira, BGAEen modalitate honetan bazkideen aldizkako kobrantzak aldeztuko dituztenak, betiere ekarpen egonkorrei eta denboran iraunkorrei lotuta. Eta, gainera, espazio hori bete behar dute, eta hartara ezin izango dira joan beren enpresari lotutako enplegu-sistematik ez duten eta etorkizuneko pentsioa osatzeko kontzientzia duten pertsonak.

Esparru-akordio fiskal bat eduki gabe, GAOak ezin izango ditu bere helburuak bete. Gainera, sustapenean eraginkorra izan nahi bada, neurri fiskalek sinple, garden eta bidezkoak izateaz gain, gizarteari orientatuta egon behar dute eta gizartearen onarpena probokatu behar dute, kontuan izanda foru ogasunentzako kostua arrazionalizatzeko beharra. Zerga-gastua arrazionalizatu nahi da, birbanatu, etorkizunean gizarte- eta finantza-arazo larriak egotea saihesteko.

Azkenik, orokortzeak eta BGAEa abian jartzeko orduan inplikaturako eragile eta erakunde guztientzako erraztasunak batera joan behar dute. GAOa sustatzeko interesa dutenengana hurbildu beharra dago, gauzak erraztu behar zaizkie eta prestakuntza eman behar zaie, eta erantzukizun hori erakunde horiek gainbegirutzen eta arautzen dituenak hartu behar du bere gain. Erreferentea izan nahi izateak egokitzea eta umiltasuna eskatzen ditu. Eta horretan ari gara.

Luis Carlos Izquierdo Goikoetxea jn.

Eusko Jaurlaritzako Gizarte-Aurreikuspen Osagarriaren arduraduna

5. Kapitulu

Aurreikuspenaren arloko konpromisoa negoiazio kolektiboan

Egileak, bere azalpenean, negoiazio kolektiboan zentratzen da, sektore pribatuko eta publikoko enplegu-planak sortzeko tresna den aldetik, eta haren inguruan gogoeta batzuk egin nahi ditu, guztiz maila pertsonalean azalduak, nagusiki eta zentzu zabalean hartuta lan-harremanen (besteren konturako zerbitzu-ematea) eduki natural baten moduan garatu den gizarte-aurreikuspeneko eredu bati buruz.

Ikuspegi horretatik, egileak ulertzen du negoiazio kolektiboak, bereziki oinarri sektoriala duenak, borondatezko planen zabalpen kuantitatiboa lortzeko behar diren baldintzak betetzen dituela soldatapeko populazio okupatua osatzen duten langile gehienen artean, bai eta, gizarte segurantzako nahitaezko maila publikoarekiko duen “konexioa”ren bitartez, babestutako kontingentziei dagokienez, halako homogeneotasun bat bermatzeko oinarritzko prestazioen eta prestazio osagarrien artean ere, hartara, gainera, gizarte babesaren eredu osoari koherentzia emanez.

- Sarrera eta kokapen kontzeptuala.
- Oinarri negoziatuko planen aldeko apustua besteren konturako enpleguaren esparruan.
- Euskadiko gizarte aurreikuspen osagarri negoziatuari buruzko hurbilketa deskribatzailea.
- Enpleguko aurreikuspen osagarriaren ezaugarri batzuk, negoiazio kolektiboan babestua, gizarte babesa zabaltzeko tresna gisa. Dazkan ahalmenen aurrean ageri diren mugak.

- Lehentasunezko gizarte aurreikuspenaren aldeko apustua gure autogobernu-gaitasunetik abiatuta eta euskal BGAEen berariazko erregulazioaren bitartez.
- Profesioen arteko eta profesioaren esparruko negoziazio kolektiboaren tarte, enpleguko gizarte aurreikuspen osagarriaren garapen negoziaturako esparru gisa.

Sarrera eta kokapen kontzeptuala

Lan hau, funtsean, negoziazio kolektiboan zentratzen bada ere, hura enpleguko gizarte aurreikuspen osagarriaren aktibaziorako eta finkapenerako palanka nagusi moduan hartuta, hasi beharra dago zehazten gizarte-babesaren bigarren zutabea eta negoziazio kolektiboa, tresna sortzaile moduan, bai eta, hein handi batean babes osagarriko espazio horren autoerregulaziorako neurri moduan ere, ez direla errealitate baliokideak. Lehenbizi, enplegu-plan deitutako guztiak ez direlako ituntzen besteren konturako soldatapeko enpleguaren esparruan, eta, bigarrenik, haien jatorria ez delako, ezta ere, beti negoziazio-autonomiako ekintza bat, hau da, lan-baldintzak zehazteko itun kolektibo bat, gizarte segurantzarenaz beste prestazio osagarri batzuk ukitutako langileen alde ezartzen dituen.

Bigarren zutabe honek bilatzen duen funtsezko helburua zabalagoa da, egiazki: nahitaezko pentsio publikoen osagarri diren prestazioen maila indartzea, enpleguari lotuta, ulertuta azken hori lan-okupazio profesionalizatu bat dela, baina onartuta, gisa berean, ezen lana garatzeko erabiltzen den formula juridikoa ez dela, nolana ere, besteren konturako lan-harreman bat (edo funtzionario-harreman bat), eta haren iturriak ez duela zertan izan irismen kolektiboko borondateen akordio bat. Enpleguko gizarte aurreikuspen osagarriak, horrenbestez, sektore eta jarduera profesionalen unibertso bat hartzen du, zeina lan kooperatibora eta profesional autonomoen beste kolektibo batzuetara ere hedatzen baita, eta enplegu-plan itunduen aukera zabal baten bitartez egituratzen da aldi berean, hala akordioak nola bazkide sustatzaileen beste erabaki alde bakarreko batzuk biltzen dituzten hainbat formula juridikoren bitartez.

Horri dagokionez, baieztatu daiteke ezen, babesaren bigarren zutabeak benetan bereizgarri duena dela hartara bazkide gisa sartzearren arrazoiak lotuta dagoela beti besteren konturako edo norberaren konturako langilearen nolakotasunarekin¹. Horrenbestez, oinarri profesionaleko planak dira, eta haien muga naturala ezartzen da, nolabait ere, modu negatiboan, mutur batean babes publikoaren aurrean (lehen zutabea) eta, beste muturrean, aurreikuspen osagarria izan eta banakako izaera eta irismen hutsa duten beste formula batzuen aurrean (hirugarren zutabea)².

Hori esanda, uste dut baieztatu daitekeela, nolanahi ere, Euskadiko gizarte aurreikuspen osagarriaren historia berriaren bereizgarriak, gutxienez ere, bi inguruabar berezi badituela, halako azpisistema propio batez hitz egiteko aukera ematen dutenak. Lehenengoa eskumenak direla eta daukagun berezitasuna da, zeinak bultzatu baitu babes boluntarioaren berariazko sektore baten premia egotea gizarte aurreikuspeneko erakunde (BGAE) inguruan, eta Estatuarekin alderatuta kudeaketa-eredu berezitua eratzen duena³, baina bigarrena da, hain zuzen ere, bigarren zutabeko planen (enpleguak) kopuru nahiko handia ere badagoela, negoziazio kolektiboaren bitartez bultzatuak, bai enplegu pribatuaren sektorean, bai enplegu publikoan ere. Eta, aldi berean, bigarren bereizgarri hori da, segur aski, legegile autonomikoa eraman duena kudeaketa-tresnari buruzko bere eskumen arautzaileak garatzera, lehentasuneko segmentutzat definitzera aurreikuspeneko erakunde batzuen; eta erakunde horien artean toki nabarmena betetzen dute negoziazio kolektiboan hitzartutako planak kudeatzen dituztenak⁴.

¹ Ikus 2003/41/EE Zuzentaraua, norberaren konturako edo besteren konturako laneko jarduerak bat garatzeari lotutako oinarri okupazionalen pentsio-plani dagokienez.

² Banakako aurreikuspen osagarria, batez ere, aurrezki-tresna baten gisara erabili da, eta aukera eman du zergadunen zama fiskalak geroratzeko funtsean zerga-sistema modernoaren izaera progresiboari lotutako pizgarriak erabiliz.

³ Eredu hori oinarrituta dago EAEri bere autonomia estatutuaren 10.23 artikuluan esleitutako eskumen osoan, gizarte segurantzaren sartu gabeko mutualitatei dagokienez, eta, horrekin batera dago EAEko Autonomia Estatutuaren 11.2.a) artikulua aipatzen duen aseguru-jardueraren oinarrien gaineko legegintza-garapeneko ahalmena; araudiaren ikuspuntutik, berriaz, 5/2012 Euskal Legearen eta 203/2015 Dekretuaren bitartez garatutako erregelamenduen bitartez artikulatzen da.

⁴ Gizarte aurreikuspeneko lehentasuneko erakunde deitutakoak dira, beren aldetik, lehentasuneko enplegu-planak kudeatzen dituztenak, eta haiek definitzen dituzten ezaugarriak 5/2012 Legearen 14. artikuluan zehaztuta daude.

Oinarri negoziatuko planen aldeko apustua besteren konturako enpleguaren esparruan

Horrenbestez, orain negoziazio kolektiboan zentratuko naiz, hura sektore pribatuko eta publikoko enplegu-planak sortzeko tresna den aldetik, eta haren inguruan gogoeta batzuk egin nahi ditut, bistan denez guztiz maila pertsonalean azalduak, nagusiki eta zentzu zabalean hartuta lan-harremanen (besteren konturako zerbitzu-ematea) eduki natural baten moduan garatu den gizarte-aurreikuspeneko eredu bati buruz.

Sarreran jada iradoki dudan bezala, uste dut oinarri okupazionalako enplegu-planen aurreikuspen osagarriko gure sistema propioaren barruko garrantzia ez dela soilik kuantitatiboa, euskal BGAEek kudeatzen dituzten guztien barruan baliabideen bolumen oso nabarmena hartzen duten neurrian⁵, zeren eta kualitatiboa ere bai baita, bitarteko bereziki egokia delako gizartearen kohesioa areagotzeko eta, azken batez, pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko.

Izan ere, badirudi nekez eztabaida daitekeela ezen gizarte babeseko maila egoki bat, batez ere, adin-arrazoiengatik edo ezintasunagatik pertsonen lan-bizitza aktiboa uzten dutenean, nahitaezko baldintza bat dela herritarrek osotasunez jardun ahal dezaten.

Ikuspegi horretatik, nire iritzia pertsonala da negoziazio kolektiboak, bereziki oinarri sektoriala duenak, borondatezko planen zabalpen kuantitatiboa lortzeko behar diren baldintzak betetzen dituela soldatapeko populazio okupatua osatzen duten langile gehienen artean⁶, bai eta, gizarte segurantzako nahitaezko maila publikoarekiko duen “konexioa”ren bitartez, babestutako kontingentziei dagokienez, halako homogeneotasun bat bermatzeko oinarritzko prestazioen eta prestazio osagarrien artean, hartara, gainera, gizarte babesaren eredu osoari koherentzia emanaz.

⁵ Eusko Jaurlaritzaren Finantza Zuzendaritzaren datuen arabera, enpleguko BGAEen ondarea, 2016. urtearen amaieran, haien guztizko ondarearen % 53,6koa zen (datua Lan Harremanen Kontseiluak “2017ko II. seihilekoko Euskadiko gizarte- eta lan-egoera”ri buruzko txostenean jaso zen).

⁶ Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) datuen arabera, soldatapeko populazioa EAEko populazio okupatuaren guztizkoaren % 83 da.

Hori bai, lehenengo unetik argi utzi beharra dago ezen helburu hori ez dela soilik betetzen planen zabaltzen kuantitatibo baten bitartez, ukitutako pertsonen terminoetan. Izan ere, nahitaezko baldintza bat da hori, baina ez nahikoa.

Enpleguaren aurreikuspen osagarriaren orokortze progresiboak, izan ere, eskatzen du, lehenengo eta behin, eragile sozialek bere egin eta barnera dezatela borondatezko planei buruzko akordioek beren negoziazioen edukiaren zati bat izan behar dutela, baina haren azken xedea da, jada adierazitakoaren ildotik, bermatzea ordainpeko lan-jarduerari uzten diotenek ordezkapen-errenta gehigarri batzuk izan ditzatela, zeinek prestazio publikoei lotuta, aukera emango baitiete duintasunez bizitzen jarraitzeko.

Maiz baieztatzen da eta onartzen da, nire ustez modu akritiko samarrean, pentsio-sistema osagarriak aldezteko egiazko arrazoa nahitaezko gizarte segurantzako sistemen krisia dela, eta horren bidetik, arlo pribatua indartu nahi dela arlo publikoaren kaltetan. Argudio horien aurrean, azpimarratu behar da ezen enpleguko gizarte aurreikuspen borondatezkoa kontzeptualki eta funtzionalki konektatuta dagoela, batez ere, gizarte moderno, efiziente eta arrazoiz orekatuen kohesioa mantentzeko eta segurtatzeko helburuarekin⁷. Horrenbestez, plan osagarrien aldeko apustuak ezin du inolaz ere ekarri arlo publikoan dagoen babes sektore pribatura aldatzea, ezta partzialki ere, edo haren gutxitze edo ahultze bat. Hala eta guztiz ere, agerikoa da sistema publikoetako ordezkapen-tasak, kasu eskuzabalenetan ere⁸, nahikoak direla jarduneko ordainsarien pareko errentak sortzeko. Eta agerikoa da, era berean, baita ikuspegi ideologikoago batetik ere, enpleguko sistema osagarrien mantentzea, ordainsari geroratuaren bidez finantzatuak eta irismen orokorreko itun kolektiboen bidez artikulatuak, arrazoizko aukera bat dela arrakala hori gutxitzeko eta pertsonen etorkizuneko ongizatea bermatzeko.

⁷ Europar Batasuneko 2003/41/EE zuzentzarak honako hau gogorarazten du “...*pentsio okupazionalak (edo enpleguak), bigarren zutabeak berezko dituenak, etorkizunean, gero eta neurri handiagoan, zabartzararen bizimodu-maila egoki bat bermatzeko osagarri baten gisara hartu beharko lirateke, eta baieki garatu egin beharko dira; horrek, balere, ez du esan nahi zabalantzan jartzen denik Gizarte Segurantzaren pentsioen araubidearen garrantzia, gizarte babes seguru, iraunkor eta eraginkor gisa.*”

⁸ Europako Batzordeko Directorate-General for Economic and Financial Affairs-en “2015 Ageing Report Economic and budgetary projections for the 28 Member States (2013-2060)” azterlanaren arabera, pentsio publikoen ordezkapen-tasarik eskuzabalena (zeina, EBren kasuan, zehazki, Espainiar Estatuarena baita) jarduneko aldian jasotako azken ordainsariaren % 79 ingurukoa da.

Hori esanda, uste dut argitasun edo erabatekotasun nahikorik ez dagoela baieztatzerakoan, printzipio moduan, enpleguko borondatezko babes sistema publikoak indartzera zuzendu behar dela, eta ezin dela izan nahitaezko babes bermatuaren alternatiba bat, edo eredu publikoaren krisiari aurre egiteko tresna-erako baliabide huts bat, eta argitasun edo erabatekotasun falta hori dago gizarte eragile batzuegan batzuetan eragiten dituen errezeloen oinarrian.

Euskadiko gizarte aurreikuspen osagarri negoziatuari buruzko hurbilketa deskribatzailea

Euskadiko enpleguko BGAEen tipologiak aukera zabala erakusten du, eta horren barruan sartzen dira kooperatiben munduaren funtsezko zati batetik hasi eta besteren konturako langileentzako sektore pribatuko hitzarmen kolektiboen sare nahiko zabal batera bitarte, administrazio publikoen hiru mailetako —orokorra, forukoa, eta tokikoa— enplegu publikotik igarota⁹.

Baina, aurrez ohartarazi dugun bezala, zorrotz hartuta, soldatapeko enpleguaren esparruan onetsitako planak baizik ez daude konektatuta oinarri kolektiboko negoziazio-dinamikekin. Hori dela eta, eta Euskadiko kooperatiben munduaren eta, beraz, haren inguruan sortutako aurreikuspen-egituren garrantzia aitortzeari utzi gabe¹⁰, besteren konturako enpleguaren segmentuan sortutako eta itundutako aurreikuspen osagarria baizik ez dut aipatuko. Eta hala egingo dut ez produkzio-jardueraren esparru bataren eta besteren artean alde kualitatiborik egoteagatik, baizik eta nire helburua delako soilik berariazko gogoeta batzuk egitea nahitaezko gizarte babes hobetzeko kudeaketa-egiturak eta enpleguko plan osagarriak, lan-baldintzen inguruko akordioen bitartez, sartzearen komenigarritasunari buruz.

⁹ Lagun Aro, Geroa, Elkarkidetzeta eta Itzarriren artean, antzinako aurrezki kutxek sustatutakoekin batera, enpleguko BGAEen ia % 90 hartzen dute, eta babestutako pertsonen % 92ra arte biltzen dute (Eusko Jaurlaritzako Finantza Zuzendaritzaren datuak, aipatutako CRL txostenean jasotakoak).

¹⁰ Kooperatiben sektoreari lotutako BGAEa den Lagun Aroren ondarea enpleguko BGAE guztien % 50eraino iristen da ia (CRL txostena).

Bada, aldeaz aurretik argibide hori emanda, honako hauek dira, nire ustez, Euskadiko jatorri konbentzionaleko nahiz negoziatuko enpleguko aurreikuspen osagarriaren ezaugarriak:

- Estaldura-maila nabarmena, Estatuarekin alderatuz gero.

Enpleguko gizarte aurreikuspen osagarria —eta horren barruan besteren konturako soldatapeko enpleguarena— nabarmen garatu da Euskadin, Estatu osoarekin alderatuta behinik behin¹¹.

Enplegu publikoan estalduraren tasa ia % 100ekoa den bitartean, negoziazio kolektiboaren peko sektore pribatuko langileen laurden batek, gutxi gorabehera, enpleguko plan bat badauka, aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan itundua¹².

Enplegu-plan osagarriak sartzen dituzten hitzarmen kolektiboaren artean, bereziki nabarmendu behar dira esparru sektorialekoak, gure negoziazio kolektiboaren egitura zein den ikusita; izan ere, egitura hori funtsean, enpresez gaindiko akordioetan oinarritzen da¹³. Izan ere, gure produkzio-ehunduraren osaera dela eta, enpresa asko daude edo hitzarmen kolektibo propioak ezin egin ditzaketanak, haietan langileen ordezkari-tza-organorik ez dagoelako, edo negoziazio-prozesu luze eta konplexuei zuzenean ekiteko egiturarik eta bitartekorik ez dutenak.

Agerikoa dirudien bezala, bide horrek ez du baztertzen enplegu-planak abian jartzea esparru enpresarialeko hitzarmen edo akordio kolektiboetan¹⁴. Halere, nire ikuspuntutik, eta jada aipatu den

¹¹ Estatu osoaren egoerari buruzko analisi xehakatu bat nahi bada, honako azterlan guztiz osatu hau kontsulta daiteke: “Las mejoras voluntarias de la seguridad social en la negociación colectiva”, Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzak (Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa) argitaratua. Azterlane-ko ikertzaile nagusia Carolina Gala Durán da. ¹² Esparru sektorialeko negoziazio kolektiboaren peko sektore pribatuko soldatapeko populazioaren % 28 inguruk badauzka enplegu-planetarako ekarpen osagarri buruzko klausulak biltzen dituzten hitzarmenak. (CRL txostena).

¹³ EAE osoan, negoziazio kolektiboaren peko sektore pribatuko soldatapeko pertsonen ia % 78k esparru sektorialeko hitzarmen bat dute (www.crl-lhk.es) “negociazio kolektiboaren egiturari buruzko datuak” izeneko atala, “negociazio kolektiboa” epigrafearen barruan).

¹⁴ Enpresek hitzarmen bitartez zuzenean bultzatutako enplegu-plan, akordio kolektibo edo enpresaburuen alde bakarreko erabakiak guztien % 10 inguru dira (CRL txostena).

bezala, gizarte aurreikuspena langileen artean eraginkortasunez hedatzeko helburuak egingarria dirudi soilik aurrez enpresez gaindiko negoziazioa sendotuz, zeren eta horixe baita Euskadiko langileen hamarretik zortziri aplikatzen zaion arauketa-tresna.

- Garapena, ordea, desberdina da hiru lurralde historikoetan.

Nahitaez aitortu beharra dago, dena den, kolektiboki negoziatutako borondatezko gizarte aurreikuspenaren garapen nahiko zabal horren ondoan, lurralde-terminoetan desoreka handi bat dagoela indarrean diren planei dagokienez, zeren eta enplegu-plan bat sartzan duten hitzarmen sektorial guztiak Gipuzkoako Lurralde Historikoari baitagozkio. Horri dagokionez, hitzarmen sektorial baten estalduraren pean lan egiten duten Gipuzkoako langileen % 85 baino gehiago enplegu-plan osagarri baten barruan daude. Errealitate horrekiko kontraste nabarmenean, Bizkaiko Lurralde Historikoan bi hitzarmen sektorial¹⁵ baino ez dago non halako ezaugarriak dituen plan bat baitago; Araban, berriz, hitzarmen bat bera ere ez.

- Eta ordezkapen-tasak oraindik ere eskasak izaten dira kasu gehienetan.

Gure enpleguko aurreikuspen osagarriaren sistemaren egungo egoera, halaber, oso desberdina da hitzarmen kolektiboaren bidez konprometitutako ekarpenei dagokienez; izan ere, kasuren batean % 4tik goraxeago daude; beste batzuetan, berriz, ia ez dira % 0,4ra iristen⁶. Zenbatespenak desberdinak diren arren eta, logikoa denez, planaren bizitzan zehar espero diren errendimenduen arabera diren arren, kalkulatzan da pertsonen jardun aktiboaren amaieran pentsio osagarriko % 15 sortzeko behar diren ekarpenen maila soldata bidezko ordainsarien % 4 ingurukoa dela.

¹⁵ Hitzarmen horiek “Bizkaiko enpresa kontsignatarioen, zamaketarien eta bitartekoen” hitzarmena eta “Bilboko Portuko zamaketariez besteko langileen” hitzarmena dira.

¹⁶ Gipuzkoako industria siderometalurgikoaren hitzarmenak % 4,6ko ekarpena aurreikusten du (% 2,3 langileen kargura eta % 2,3, berriz, enpresaren kargura); bulego eta langelen arloko hitzarmenean, berriz, % 0,4ko baterako ekarpenak aurreikusten dira.

Aurreko ataletan egindako deskribapenetik abiatuta eta Euskadiko aurreikuspen osagarri negoziatuaren egungo errealitatea osatzen duten elementu positiboetako batzuk aitortzeari utzi gabe, badirudi aipatu beharra dagoela azken horrek eskatzen duela bere estaldura-tasak lurraldeetan areagotu eta maila berean jartzea ez ezik, ematen duen babesa kualifikatu eta homogeneousatzea ere.

Enpleguko aurreikuspen osagarriaren ezaugarri batzuk, negoziazio kolektiboan babestua, gizarte babesa zabaltzeko tresna gisa. Dauzkan ahalmenen aurrean ageri diren mugak

Lehen ere aipatu dut negoziazio kolektiboak nolako gaitasun potentziala duen enplegu-plan osagarriak hedatzeko helburuan aurrera egiteko. Eta, bereziki, oinarri sektorialeko negoziazioa horretarako tresna egokien moduan; izan ere, horixe da sektore pribatuko soldatako langile gehieneri aplikatzen zaien lan-baldintzak arautzeko tresna.

Orain, xehetasunez aztertuko dugu bide horrek dakartzan arazoen parte bat, bai eta muga batzuk ere, zeinak lotuta baitaude, alde batetik, enplegu-planen egungo arauen konplexutasunarekin eta dispartzioarekin, eta, bestetik, negoziazio kolektiboaren lege-esparruarekin eta negoziazio-dinamiken berezitasunekin; izan ere nolabaiteko desdoitzeak eragin ditzakete izaera osagarria duen gizarte babeseko eredu baten funtzionamenduan.

Lege-esparru konplexu eta barreiatua, borondatezko enplegu-plan boluntarioen bitartez gizarte babesaren bigarren zutabe gotor bat sortzeko segurtasunik gabeko testuinguru gisa

Lan honen helburua ez da gizarte babesaren bigarren zutabearen egungo arauak bere osotasunean aztertzea; halere, ez da alferrik izango gogora ekartzea askotarikoak direla haietan eragiten duten arauak, eta, horrenbestez, komeni dela nolabaiteko argitasun kontzeptuala ematea gizarte aurreikuspen osagarriaren —eta, zehazki, ereduaren bizkarrezurra diren enplegu-planen— legezko araubideari.

- Gai honetan, lehenbizi arau autonomikoak eta estatukoak biltzen dira, zeinek, eskumen-titulu desberdinetan oinarrituta egon arren, balizko talka-eremuak badauzkaten; izan ere, bere garaian horrek eragin zuen Estatuak aurkaratzea Euskadiko Borondatezko

Gizarte-aurreikuspeneko Erakundeen otsailaren 23ko 5/2012 Legearen arau ugari.

Izan ere, alde batetik, izaera osagarriko aurreikuspenaren eremuko euskal esperientzia Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuan jasotako borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeen eskumen-erreserban oinarritzen da, kudeaketa-tresnari dagokionez, gizarte segurantzaren sarturik ez dauden mutualitateak diren aldetik, zeinak ez baitira, jakina den bezala, pentsio-funtsak, baizik eta arauketa berezia duten egitura propioak¹⁷. Bestalde, halere, prestazio osagarriak artikulatzen dituen tresna juridikoa, materialki, Estatuko legeak araututako pentsio-planen antzeko figura bat da, zeina, horrenbestez, konektatuta baitago bestelako eskumen-titulu batekin, Konstituzio Auzitegiak zehaztu duen bezala¹⁸; horrek, izan ere, nabarmen gutxitzen du Euskadin bultzatzen diren eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeen sarearen bitartez kudeatzen diren planak direla-eta arautze propioa edukitzeko tartea.

- Gizarte aurreikuspen osagarriaren araugintza-blokearen zati bat dira, halaber, gizarte segurantzaren “borondatezko hobekuntzak” deitu izan direnak, zeinak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren lehen testu artikuludunean sartu baitziren eta ia aldaketarik gabe mantentzen baitira indarreko araudian (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 238. eta 239. artikulua). Zalantzarik gabe, gizarte segurantzaren sistema publikoaren borondatezko hobekuntzek — zeinak oso modu orokorrean definitzen baitira kotizazio-oinarriak norberaren borondatez handitzera edo lehen mailako prestazio publikoak zuzenean hobetzera bideratutako akordioen gisara¹⁹ — espazio zabalago bat osatzen dute enplegu-planek, hertsiki, osatzen dutena baino, baina enbor berekoak dira. Nolanahi ere den, oinarri kolektiboko akordioen analisiari dagokionez, borondatezko gizarte aurreikuspena aktibatzeke palanka diren neurrian, kasu bakarra da

¹⁷ Ikus aurreko 3. oharra.

¹⁸ 5/2012 legeari errekurtsua aurkeztu zioten Konstituzio Auzitegiaren aurrean, eta auzitegi horrek 97/2014 epaian deklaratu zuen haren arau jakin batzuk deusezak zirela, izaera eskusiboz edo oinarrizko izaeraz Estatuari esleitutako beste eskumen-titulu batzuk inbaditzen zituztelako.

¹⁹ Suposatu beharra dago zentzua zuela soilik oinarri tarifatuen sistema batean, eta hura gero gainditu zela, eta haren ordez ordainsari errealean gaineko kotizazio-eredu bat ezarri zela.

hori non legeak negoziazio kolektiborako espazio bat gaitzen baitu, gizarte segurantzaren sistema publikotik orokorrean kanpo utzita²⁰. Ikuspegi horretatik, agerikoa da borondatezko hobekuntzen eta jatorri kolektiboko enplegu-planen arteko konexioa.

- Bestalde, Langileen Estatutuaren 85. artikulua honako erreferentzia orokor eta ireki hau jasotzen du, negoziazio kolektiboaren eduki naturalaren gisara: “...enplegubaldintzei eta langileek... dituzten harremanei eragiten dieten beste gai guztiak”; izan ere, horrek, negoziazio kolektiborako oinarritzko eskubidearekin lotuta, lan arloko doktrinari ahalbidetu dio zalantzarik gabe hitzarmenaren jatorriari heldzea, hobekuntza ezartzeko titulu gisa²¹, eta nahikoa izan da, nolanahi ere, gizarte segurantzaren nahitaezko mailako borondatezko hobekuntzen aukera zabala babesteko.

Gizarte Segurantzaren borondatezko hobekuntzak, zabal hartuta, negoziazio-prozesuen gai natural bat direla egiazta daiteke indarrean diren hitzarmenen errepaso soil bat eginez, baina, era berean, guztiz berretsita geratzen da hori borondatezko hobekuntza horiek jasota daudelako Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluko zerrendan, alegia, hitzarmen bat ezin aplikatzearen prozeduraren xede izan daitezkeen zerrendan.

- Azkenik, borondatezko hobekuntzen eraginkortasuna segurtatzera bideratutako bermeen zati handi bat lan-arloko eta gizarte segurantzaren arauetatik kanpo taxutu dira, eta aseguruaren ordenamendu orokorrari dagozkio. Zehazki, bere garaian prestazio osagarrien multzo heterogeneo hori “kanpoan kontratatze” betebeharra ezarri zuten arauak buruz ari naiz, betebeharra enpresaburuarengandik egiaztatutako aseguru-erakundeetara aldatzen duten tresna juridikoen bitartez. Horien artean,

²⁰ Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 43.2 artikulua honako hau ezartzen du: “*borondatezko hobekuntzak ezartzeaz beste salbuespenik gabe, aurreko zenbakian aurreikusitakoari jarraituz, Gizarte Segurantzaz ezingo da modu kolektiboan kontratatu*”.

²¹ Duran Gala, Carolina, “Las mejoras voluntarias de la seguridad social en la negociación colectiva” (59. orrialdea).

lehentasunezko tokia betetzen dute erakunde espezializatuekin itundutako enplegu-planek²².

Arauen dispertsio eta konplexutasun horri lotutako distortsio aipagarrienetako batzuk

Aurreko atalean deskribatutakoaren antzeko araugintza-panoramak eragindako ondorio eta disfuntzioak ugari eta maila askotakoak dira, eta orain ezin ditugu ez guztiak, ez gehienak analizatu. Alabaina, gus-tatuko litzaidake nabarmentzea, adibide aipagarri moduan, logika ju-ridiko desberdinetakoak diren arauen talkaren ondorioz gertatzen di-ren distortsioetatik gutxienez ere bi, zeinak oinarrituta baitaude beti elkarren artean bateragarri ez diren printzipioetan.

- Horietatik, lehenengoa borondatezko hobekuntzen izaera bateratuari buruzko gizarte segurantzaren arauen²³ eta negozioazio kolektiboaren arloko modernotasun-printzipioa, hitzarmena gaitzen duena guztiz xeda dezan aurreko erregulazio konbentzionalean ezarritakoa, deitutakoaren artean gertatzen diren interferentziei dagokie²⁴.

Arazo hori Auzitegi Gorenaren 4. Salaren 2003ko uztailaren 16ko epai ezagunean planteatu zen, eta haren ondotik zentzu bera zuten beste batzuk etorri ziren²⁵. Eztabaidatutako gaiak erreferentzia egiten zien jada sortuta zeuden eta enpresaren antzinako hitzarmen batean ezarri ziren prestazio osagarriei, zeinak enpresa zuzenean

²² Legegintza-historia konplexu bat da, zeina abiatzen baita Pentsio-plan eta -funtsei buruzko 8/1987 Legearen 1. xedapen gehigarrian jasotako aseguru pribatuaren ordenamenduari buruz 30/1995 Le-gean egin zen aldaketarekin; horren helburua zen barneko araudia egokitzea Europako 80/987/EE Zuzentarauaren betekizunetara, zeinak aldi iragankor bat ematen baitzuen pentsioen konpromiso osa-garrietarako tresnak ezartzeko. Hori, halere, luzatzen joan zen ondoz ondoko garapeneko xedapenen bitartez, eta amaieran, hamar urte geroago, pentsio-plan eta -funtsen erregelamendua onetsi zen.

²³ Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 239. artikulua 2. paragrafoa: “... *hobe-kuntzen ezaipena enpresaburuntzat borondatezkoa bada ere, haien babesean langile batek aldiizkako prestazio baten hobekuntzarako eskubidea sortu duenean, eskubide hori ezingo da denberezatu edo gutxitu, ez bada eskubide horren aitortpena arautzen duten arauen arabera*”.

²⁴ Bestalde, Langileen Estatutuaren 82.4 eta 86.4 artikuluek argi ezartzen dute aurreko beste baten ondo-rengoa den hitzarmenak guztiz xeda ditzakeela hartan aitortutako eskubideak.

²⁵ Irizpidea berretsi egin zen, eta hartara berezko doktrina jurisprudentziala sortu zuen, 2003ko uztaila-ren 18ko epaiaren bitartez.

ordaintzen ari baitzitzaizkien erretiroa hartutako bere langileei. Auzitegiak zehazki aztertzen duena da ea geroako hitzarmen batek ken ote ditzakeen (edo ordeztu honenbesteko kopuru bat jasoz) etorkizuneko osagarriak, behin egitate kausatzailea (kontingentzia) gertatu ondoren eta, horrenbestez, onuradunak hura aldzika kobratzeko eskubidea hartu ondoren.

Bada, jakina den bezala, hitzarmen kolektiboari erabateko atzeraeraginezko gaitasuna ematen dien tesi baten alde egin zuen Auzitegi Gorenak, eta ahalbidetu zuen horiek jada finkaturik zeuden “eskubide subjektiboak” ere ken zitzala²⁶.

Nolanahi ere den, Auzitegi Gorenaren halako doktrina batek ezinbestez eragingo lukeen gizarte aurreikuspen osagarriaren esparrurako egiturazko ezegonkortasuna —izan ere, doktrinak hitzarmenaren modernotasun-printzipioa jartzen du jada kausatutako hobekuntzaren titularrarentzako iraunkortasun-bermearen gainean— neutralizaturik geratu da errealitatean geroztik legezko betebeharrak bat ezarri delako, pentsioengatik konpromiso boluntarioak kanpoan kontratatzekoa, zeinak jasotzen baititu arestian aipatu dudako negoziazio kolektiboaren bidez sartu direnak.

- Xehetasunez gelditzea merezi duen bigarren arazo-gunera gertatzen da, halaber, etiologia eta logika juridiko desberdina duten bi multzo konektatzeko zailtasunarengatik. Alde batetik, enplegu-plan batean norberaren izenean sartzearen borondatezko izaera dago, zeina pentsio-plan eta -funtsekin buruzko Estatuko araudian ezarritako oinarritzko printzipio bat baita²⁷; eta, bestetik, estatutuen negoziazio kolektiboaren irismen orokorra eta araugintza-izaera dago²⁸,

²⁶ Una crítica más extensa a esta doctrina se puede consultar en Arrieta Heras, Tomás. “El espacio para la concertación en la seguridad social básica y complementaria”, (Páginas 238 y ss) en “el Estado del bienestar en tiempos de crisis, XII jornadas de la asociación profesional del cuerpo superior de letrados de la administración de la seguridad social” (Aranzadi, 2012).

²⁷ El artículo 4.1 a) del texto refundido de la Ley de planes y fondos de pensiones declara que la integración en el plan de los sujetos afectados por el convenio depende de que estos no ejerzan su derecho de oposición, que no puede ser restringido.

²⁸ Avalada por la garantía constitucional del carácter vinculante del convenio, de acuerdo con el artículo 37 de la CE, y desarrollada por el título III del Estatuto de los Trabajadores.

hitzarmenak “ezartzen diena”, norberaren borondatea zein den ere, esparru funtzional eta lurralde-esparru bateko enpresaburu eta langile guztiei.

Bada, BGAEari buruzko euskal legeak, lehentasunezko enplegu-plan deitutakoak definitzerakoan, baldintza baten gisara sartzen du haren parte-hartzaileen arteko diskriminazio ezarena, eta deklaratzeko du ezen, estatutu-izaerako eta irismen orokorreko negoziazio kolektiboan itundutako planen kasuan, ulertuko dela hitzarmenak ukitutako langileen integrazioa automatikoki gertatu dela, banakako atxikipenen beharrik gabe eta horrek borondatezkotasun printzipioaren inongo arau-hausterik inplikatu gabe.

Jakina den bezala, Konstituzio Auzitegiak²⁹ deklaratu du baliogabea dela euskal legearen artikulua hori, zeren eta ulertzen baitu plan osagarri batean parte-hartzearen borondatezkotasuna oinarritzko arau bat dela, eta ezin dela aldatu kudeaketa-tresnari mugatutako eskumen eskusibo batez emandako lege autonomiko baten bitartez.

Nire ikuspuntutik, halere, arazoaren egiazko jatorria ez dago soilik, ez eta nagusiki ere, lege autonomikoaren eta oinarritzko izaera duen estatuko arauaren arteko balizko talkan. Arazo sortzen da, neurri handiagoan, ondoko bi hauen artean gertatzen den funtsezko kontraesanarengatik: batetik, zuzenbide pribatuak (merkataritza zuzenbidea) berezko duen eta kontratuen logikari datxekion printzipio orokor bat, zeren eta hala “borondatezko” enplegu-plan bat abian jartzea eta hari atxikitzea negozio-autonomiaren ekintzak baitira eta, horrenbestez, ezin baitira ezarri ukitutako subjektuaren borondatea kontuan hartu gabe; eta, bestetik, beste printzipio bat, berdin oinarritzkoa baina lan-zuzenbidearen arlokoa dena, zeinak autonomia kolektiboa banakakoaren gainean jartzen baitu, hitzarmenaren baliozko edukia ezarriz (betiere, Langileen Estatutuaren III. tituluan finkatutako arauen arabera negoziatzen bada eta negoziagarriak ez diren aginduzko arauak errespetatzen badira) bere aplikazio-esparruko gizabanako guztiei.

²⁹ Zehazki, langileak planean automatikoki integratzeari dagokion apartatuaren baliogabetasuna deklaratzeko argudioa, hain zuzen ere plan estatutuaren peko hitzarmen kolektibo baten bitartez ezartzen denean, “in extenso” garatzen da Konstituzio Auzitegiaren 97/2014 epaiaren 7. oinarrian.

Berez, nire ikuspuntutik, euskal legeak aitortzen duenean estatutupeko hitzarmen kolektiboak behar adinako titulua duela ukitutako langile guztiak planean automatikoki sartzeko, ez du berez efektu juridiko berritzailerik sortzen, berarenak ez diren eskumenak inbadituz; izan ere, estatutupeko negoziazio kolektibotik naturalki eratorritako ondorio bat aitortzera mugatzen da, eta horrek hitzarmen kolektiboa bera egituratzen du ukitutakoen zirkulurako eskubideak eta betebeharra sortzeko titulu baliodun moduan, Langileen Estatutuaren 3. eta 82.3 artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Legegile autonomikoak, bere eskumenez zorrozki baliatzen denean, deklaratzeko duena da, hitzarmenaren eraginkortasun orokorretik datorren eragin edo ondorio juridiko baten gisara, horrekin modu zentzudunean betetzen dela bazterketaezaren printzipioa eta, horrenbestez, plana lehentasunezkoztat deklaratzeko eskatutako legezko baldintzetako bat.

Nire ustez nahikoa arrazoi badago pentsatzeko kasu horietan ez dela borondatezkoatasun-printzipioa urratzen hitzarmenak ukitutako langilea automatikoki eta nahitaez planean integratzeagatik, zeren eta, azken batez, plan hori hitzartzeko erabakia negoziazio-egintza huts bat baita eta, horrenbestez, boluntarioa, izaera kolektiboa eduki arren.

Nolanahi ere den, Konstituzio Auzitegiaren erabakiaren irimotasunak nahitaez dakar arau autonomikoaren orde bestea arau bat edo beste arau batzuk jarri behar izatea, derrigorrean lehenetsi behar duten lehentasunezko aukeratzat adostutako planen bidea, eta, horrenbestez, tratamendu juridiko berezitua eman behar zaiena, langileek parte-hartze gero eta handiagoa izan dezaten negoziazio kolektiboari lotutako enpleguko gizarte aurreikuspen osagarriko egitura-mota horietan³⁰.

³⁰ Zentzu horretan, zuzenbide konparatuko formula batzuk badaude, langile guztien kokapen efektiborako pizgarriak ematera bideratuak, esate baterako, aldi baterako berrafiliatze automatikorako sistema bat erabiliz bereizteko beren eskubideaz baliatu direnentzat.

Negoiazio kolektiboaren berezko dinamikak

Lehenago aztertu dugun bezala, negoziazio kolektiboaren modernotasun-printzipioak, 11/1994 Legearen bidez Langileen Estatutuan sartu zenak, balio izan zuen araugintzako sostengua emateko gizarte aurreikuspen osagarriaren arloko alde aurreko hitzarmen batean adostutakoa beste negoziazio baten bidez aldatzeko edo deuseztatzeko, baita jada sortutako hobekuntzen kasuan ere, alde negoziatzaileen gaitasuna lehenesten zuen jurisprudentziari. Jarrera horren jatorrian dago, zalantzarik gabe, jurisprudentziaren eta lan-arloko doktrinaren artean oso ezarrita dagoen printzipio bati auzitegiak ematen dion prebalentzia: negoziazio kolektiboa ez da gai langileengan eskuratutako eskubide egiazkoak sortzeko. Bada, printzipio hori gaizki ezkontzen da hain zuzen ere kontrakoa bilatzen duen gizarte babeseko eredu batekin: etorkizuneko itxaropenen egiazko babesa eta, batez ere, jada sortuta dauden eta nahitaezko gutxieneko babesa osatzen duten eskubideen egonkortzea, nahiz eta arazo hori, lehen ere aipatu den bezala, gaur egun partzialki neutralizaturik dagoen, gutxienez ere bere ondorio larrienei dagokienez.

Alabaina, azken lan-erreformak, bereziki 2012koak, beste arau batzuk sartu ditu Langileen Estatutuaren III. tituluaren negoziazio kolektiboaren araugintza-ereduan, eta arau horiek turbulentzia gehigarriak eragin ditzakete hitzarmen kolektiboentzat, borondatezko hobekuntza orokorren eta, zehazki, enplegu-planen titulu eta berme eraginkor moduan. Zehazki, aipatzen ari naiz aukera egon daitekeela estatutupeko hitzarmen kolektibo bat bertan behera geratzeko legez edo konbentzioz ezarritako epean ez berritzearen ondorioz³¹, goragoko esparruko hitzarmen aplikagarriarik egon gabe ere.

Hasiera batean doktrinaren sektore aipagarri batek aldeztu zuen arren, hala adierazi izan da beheragoko epaitegi eta auzitegien ebazpen judizial nahikotxotan, hitzarmena bertan behera geratzeak berekin zekarrela, halaber, hartan ezarritako eskubideak automatikoki bertan behera geratzea, lan-arloko jurisprudentziak azkenean deklaratu zuen, 2014ko abenduaren 22ko epai ezagunean, eskubide horiek kontratu

³¹ Langileen Estatutuaren 86.3 artikulua honako hau xedatzen du: *“Hitzarmen kolektiboa salatu eta urtebetera ez bada beste hitzarmenik adostu edo arbitraje-laudorik eman, hitzarmenak utzi egingo dio indarrean egoteari, kontrarik itundu ezean, eta aplikagarri den goragoko hitzarmen kolektiboa aplikatuko da, egonez gero.”*

bidez ezarrita zeudela jatorriz, eta eutsi egiten zitzaizela, hitzarmena indarrean egon gabe ere. Interpretazio-ildo horri arrakalarik gabe eutsi izan zaio ordutik hona.

Zalantza gutxi planteatzen du, beraz, gizarte aurreikuspen osagarriko sistemei buruz hitzarmen kolektibo batean jasotako estipulazioei eutsi egiten zaiela haien jatorrizko onuradunentzat (2014ko abenduaren 22ko epaiaren logikan haiek “kontratu bidez” eskuratu zituztenentzat), haiek txertatu zituen hitzarmen kolektiboa berritu ez eta bertan behera geratzen denean. Jarrera horrek, dena den, segurtasun juridikoko elementu nabarmenak ekarri baditu ere, ez ditu arazo guztiak konpontzen. Lehenbizi, bere horretan jarraitzen du enpresan sartu berriak diren langileei negoziazio kolektibo bidez eskuratutako eskubideak aplikatzeari buruzko zalantzak, zeren eta, haien kasuan, ezin baita “kontratu bidez eskuratzear” hitz egin, zeren eta, berez, ez baitzuten hobekuntzaz gozatu hitzarmenaren indarraldian. Zalantzarik gabe, eta tesi murriztaileari eutsiz gero, arrakala nabarmen bat irekiko litzateke langile onuradunen arteko diskriminazio-ezaren printzipioan oinarritzen diren aurreikuspen osagarriko eredu negoziatuentzat; izan ere, eredu horien helburua da gizarte babes zabaltzea eta homogeneizatzea soldatapeko biztanle guztien artean³².

Bigarren arazoak zerikusia du oraindik ere teknikoagoa den gai batekin, zeina hemen apuntaturik utziko baitugu. Eskubideen kontserbazioari buruz Auzitegi Gorenak duen doktrina irizpide zorrotz batekin osatu da Langileen Estatutuaren 86.3 artikulua interpretazioari dagokionez. Artikulu horren arabera, hitzarmen bat bertan behera geratzen denean, goragoko esparrukoak hartzen du bere tokia, halakorik badago eta indarrean badago, baina ordezkatzeko hori ez da erabatekoa³³; hau da, ez dira partzialki kontserbatzen bertan behera geratu denean aitortuta zeuden eta hura ordeztzen duen goragoko esparrukoan jasota ez daudenak. Erraz uler daiteke tesi horrek nabarmen zailtzen duela aurreikuspen osagarriko tresnei eustea hitzarmen berriak (goragoko esparrukoak) haiek jasotzen ez dituenen.

³² Langileen arteko diskriminazio-ezaren printzipioa ez da lehentasuneko planen ereduaren funtsezko atal bat, 5/2012 Legearen 14. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

³³ Irizpide horren aldekoa da Auzitegi Gorenaren 2018ko ekainaren 5eko epaia.

Lehentasunezko gizarte aurreikuspenaren aldeko apustua BGAEen berariazko erregulazioaren bitartez

Enplegu-erakunde eta -planen tipologia konplexuaren barruan, 5/2015 euskal legeak hautu bat egin zuen: lehenestea —eta lehentasunezkoztat jotzea eta, horrenbestez, tratamendu eta arreta berezituaren xedetzat jotzea— ezaugarri jakin batzuk betetzen zituzten enplegu-planak kudeatzen zituzten erakunde batzuk. Funtsean, a) planaren irismen orokorra eta haren izaera ez-diskriminatzailea, hitzarmen kolektibo baten bitartez eratzen denean bermatzen dena³⁴, b) enpresak, bazkide babesle gisa, eta langileek, zenbakidun bazkide gisa, partekatutako ekarpenen araubidea, c) planaren egituratze materiala, nagusiki biziarteko errenta gisa ordaintzen diren prestazioei dagokienez, eta d) erakundearen gobernua, enpresaburuaren eta langileen ordezkariak integraturiko egitura parekideen bitartez.

Erakunde eta plan horien lehentasunezko aukera gizarte aurreikuspen osagarriaren mota jakin baten aldeko printzipioen egiazko adierazpen bat da, zeinaren barruan negoziazio kolektiboak toki nabarmena izango baitu aktibatze-palanka gisa eta autoerregulaziorako tresna gisa, bai planei, bai haien kudeaketa-egiturei dagokienez. Aurreko atalean jada aipatu dudan bezala, uste dut aukera politiko bat dela, araugintzaren ikuspuntutik goreneko maila duen lege-testu baten bidez artikulatua, zeina ez baitago gure esperientzia zehatzetik eta Euskadin oinarri negoziatuko aurreikuspen-eredu propio bat garatu izatetik kanpo; izan ere, eredu horren helburu berariazkoa honako hau izan da: akordioa bultzatzea, enpresaburuak eta langileak planen sostengu finantzarioan konprometitzea eta haiei eginkizun protagonista eta determinantea ematea erakunde kudeatzaileen gobernuan.

Nire ikuspuntutik, komenigarria izango litzateke printzipioen adierazpen hori bigarren graduko araudi batera aldatzea, lehentasunezko plan eta erakundeetan oinarritutako erdu hori bultzatzeko balioko duten abantailak, babesak eta pizgarri zehatzak xehekiago garatzeko.

³⁴ 4/2012 Legearen 14. artikulua arabera, integrazioa dator estatutupeko hitzarmen kolektiboaren eraginkortasun orokorretik, edo gerta daiteke, era berean, eraginkortasun mugatua duten itunen bitartez; baina, kasu horretan, plana lehentasunezkoztat jotzeko, eskatzen da hari atxiki dakizkiokeen gutxienez ere ukitutako kolektiboaren bi heren.

Jabetuta nago, nolanahi ere, horretarako dauden zailtasunez. Batzuk, profil teknikoagoa dutenak, lan honen aurreko ataletan aipatu dira jada; beste batzuk, nabarmena denez, lotuta daude ordezkariak duten eragile sozialek kasuko konpromisoak negoziazio kolektiboaren bidez bultzatu eta garatzeko daukaten borondatearekin. Litekeena da lehenengo urratsa emateko aurrez oinarri negoziatuko enplegu-planak zabaldu, homogeneousatu eta indartzearen bideragarritasunari eta aukera errealei buruz gogoeta egitea, oraindik ere geratuta egotearen aztarna agerikoak dituzten negoziazio kolektibo batzuen testuinguruan³⁵.

Bitartean, nire ustez egokia da gogoratzea ezen, gutxienez ere ikuspegi formal batetik, tarterik badagoela, akordioaren bidetik, negoziazio kolektiboan oinarritutako aurreikuspen-eredu bat eraikitzen jarraitzeko.

Profesioen arteko eta profesioaren esparruko negoziazio kolektiboaren tartea, enpleguko gizarte aurreikuspen osagarriaren garapen negoziaturako esparru gisa

Nire ikuspuntutik, gizarte aurreikuspen osagarriaren arloko konpromiso desberdinak hartzeko aukera bi planotan egikari liteke, eta horietako bakoitzean hainbat maila gerta daitezke.

- Lehenengo eta behin, nire iritziz, gogoeta partekatu bat irekitzeko modua egongo litzateke eta desiragarria litzateke, eta gogoeta horren amaieran nahitaezko izaera izango lukeen akordio bat egongo litzateke, hau da, arau-izaerako eraginkortasunik gabea, eta enpleguko gizarte aurreikuspen osagarriko eredu bereki baterako oinarri teorikoak ezartzeko aukera emango lukeena. Akordio hori, zeina egongo bailitzateke negoziazio kolektiboaren arloan “negoziatzeko akordioa” esapidiaz ezagutzen denaren barruan, zalantzarik gabe halako potentzialtasun bat edukiko luke negoziazio-prozesuen % 90en protagonista diren sindikatueta

³⁵ Ikus “Avance de datos sobre la situación social laboral en Euskadi a la finalización del 2018”, Lan Harremanen Kontseiluak argitaratua eta haren web-orrian eskura daitekeena. Aurrerapen horren arabera, 2018. urtearen amaieran, aplikatzekoak ziren hitzarmen kolektiboak % 47,3 bainik ez zeuden berrituta eta gaurkotuta (ukitutako pertsonen terminoetan adierazita).

eta enpresetako subjektuen gailurretik bultzatzeko enpresez gaindiko hitzarmenetan nolabaiteko homogeneotasuna duten enplegu-plan desberdinen onespina, betiere sektore bakoitzak berezko dituen aukera, behar eta erritmoen arabera. Aldi berean, izaera hori duen akordio bat aukera on bat izango litzateke gogoeta egiteko eta, kasua bada, aurreko paragrafoetan aipatu diren arazo tekniko eta zalantza batzuk argitzeko.

- Bigarrenik, eta ikuspuntu juridikotik trinkoagoa den esku hartzeko plano batean, tokia dago, halaber, arau-eraginkortasuna duten irismen orokorreko akordioak egiteko eta haien bitartez, berariaz, negoziazio kolektiboa erabiliz, Euskadin enpleguko gizarte aurreikuspen osagarriaren eremua babestu eta indartzeko.

Bigarren plano horretan, eta negoziazio kolektiboaren egitura antolatzen duten arau konplexuak ikusita, nire ustez hiru maila bereiz daitezke:

- Guztiz jakina den bezala, Langileen Estatutuaren III. tituluan garatutako negoziazio kolektiboaren araugintza-ereduaren barruan, berariazko arlo batera mugatutako akordioak negoziatu eta izenpetzeko aukera jasotzen da. Arlo jakin bati buruzko akordioak deitutakoak dira, Langileen Estatutuaren 83.3 artikuluan jasotakoak. Akordio horiek eraginkortasuna dute, eta estatutupeko hitzarmen kolektiboen tratamendu juridikoa ematen zaie; hori dela eta, Langileen Estatutuak bere baldintzen eta betekizunen arabera negoziazioaren multzoari buruz aldarrikatzen duen arau-izaera eta eraginkortasun orokorra dauzkate.

Lehenengo maila horretan, eta ikuspuntu ez hain teoriko batetik, ez da zalantzarik, Langileen Estatutuaren 83.3 artikuluan Estatuan eta autonomia erkidegoan ordezkartza handiena duten eragile sozialei negoziaziorako ematen zaizen gaikuntza ikusita, EAE osorako gizarte aurreikuspen osagarriaren arloko akordio bat izenpetzeko aukera, jardueraren sektore guzti-guztiak hartuko lukeena.

Aukera horrek, bere ziurtasun juridikoaz gainera, abantaila gehigarri bat badauka irismenari dagokionez, zeren eta bide horretatik lortutako konpromisoak lotesleak izango bailirateke sektorearen eremurako ez ezik, enpresen esparrurako ere; izan ere, enpresa-hitzarmenaren prebalentzia funtzionalak (arlo jakin batzuei dagokionez), zeina Langileen Estatutuaren 84.2 artikuluan jasotako 2012ko erreformaren (3/2012 Legea) bidez sartu baitzen eta goragoko esparru bateko edozein hitzarmen edo akordio ordezkari baitezake, ez ditu gizarte segurantzaren hobekuntza boluntarioak biltzen³⁶.

- Esparru autonomikoko gai bati buruzko berariazko akordioak erdiesteko aukera, betiere haiek jardueraren sektore jakin batera mugatuta, formalki babes liteke, halaber, Langileen Estatutuaren 84. artikuluen 3. eta 4. apartatuetan. Aurreko atalean ez bezala, gaitasun hori ez zaie esleitzen ordezkaritza handiena duten eragileei, baizik eta zuzenean sektorean negoziatzeko zilegitasuna dutenei, hau da, behar adinako ordezkaritza duten sindikatuak eta patronalaren erakundeei. Arau haietan ezarritakoari jarraituz, akordio horiek, sinatzen direnetik, gai jakin batzuetan izan ezik —eta horietan ez dira sartzen gizarte segurantzaren prestazio osagarriak—, Estatuko hitzarmen kolektiboak ordezkatzeko gaitasuna izango dute.

Egia da Langileen Estatutuaren 84. artikuluen 3. eta 4. paragrafoen irismen errealak, indarrean diren Estatuko akordioen aurrean negoziazio-espazio autonomiko propio bat zedarritzeari dagokionez, arazo askoz gehiago eragiten dituela aurreko atalean aztertutakoak baino³⁷, baina, zalantzarik gabe legez baliatzea daitekeen beste aukera bat da eremu sektorialean borondatezko gizarte aurreikuspen osagarriaren arloko akordioen bidea lantzeko.

³⁶ Hobekuntza horiek salbuesteko aukera soilik hitzarmenaren aplikazio-ezaren (kausala) kasuan jasotzen da Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluan.

³⁷ Epai batzuek, esate baterako Audientzia Nazionalak 2016-09-28an emandakoak, deklaratu dute Langileen Estatutuaren 84. artikuluen paragrafo horiek antolamendu arloko lehentasun bat ematen dietela negoziazio mailetan, printzipioz baldintzarik gabea, Estatu mailako hitzarmenei.

- Azkenik, nire ustez berariaz aipatu beharra dago EAEko negoziazio kolektiboaren Egiturazko Lanbidearteko Akordioa, zeina 2017ko urtarrilean izenpetu baitzuten sindikatueta eta patronaleko ordezkaritza handiena zuten eragile sozial guztiek. Akordio horrek gizarte aurreikuspen osagarria berariaz aipatzen ez badu ere, Euskadin garatutako negoziazio kolektibo sektorialari aplikaziorako lehentasun bat emateko titulu juridiko bat da, eta, horrenbestez, bere edukiak babesteko birtualitatea ere badu, harekin kontraesanean dauden hitzarmen bidezko erregulazioen aurrean.

Ikuspegi horretatik, aplikaziorako lehentasun hartatik soilik Langileen Estatutuaren 84.4 artikuluan aipatzen dituen gaiak salbuesten dituen euskal akordioa —gai horien artean ez dira sartzen, ikusi den bezala, gizarte segurantzaren arloko hobekuntzak eta prestazio osagarriak— ez da berez enpleguko gizarte aurreikuspen osagarria bultzatzera eta antolatzen orientatutako tresna bat, baina tresna bat bada Euskadin negoziatutako eta izenpetutako hitzarmen kolektibo sektorialetan lortutako konpromisoak juridikoki babesteko, kontraesana dakarten hitzarmen bidezko erregulazioen aurrean.

Tomás Arrieta Heras jn.
Euskadiko Lan Harremanen Kontseiluko presidentea

6. Kapitulu

Prestazio definituko sistemak: desiraren eta errealitatearen arteko bidegurutzea

Prestazio definituko sistemak, oro har, pentsioen arloko sistemarik egokienak direla uste ohi da, zeren eta beren onuradunei pentsio ezin hobeak ematen baitizkiete. Hala eta guztiz ere, kudeatzen oso zailak izaten dira, konprometitutako prestazioen betetzea segurtatzeko erakundeek beren gain hartu behar dituzten arriskuen maila kontuan hartuta. Hori dela eta, haien izateko arrazoia eta babestutako pertsonetikiko konpromisoa galdu gabe, haietan egungo errealitatearen betekizunei eta aukerei hobeki egokitzen zaizkien ereductarako halako bilakaera gradual bat gertatzen ari da.

- Pentsio-sistemak: behin betiko prestazioa vs. ekarpen definitua.
- Prestazio definituko sistemen arrisku inplizituak.
- Prestazio definituko sistemen bilakaera.

Pentsio-sistemak: behin betiko prestazioa vs. ekarpen definitua

Pentsio-sistema batean, onuradunek jaso beharreko prestazioen zenbatekoa aldezturik zehaztuta dago termino absolutu edo erlatiboetan, soldataren, antzinasunaren edo beste aldagai batuen arabera. Hartara, behin jaso beharreko prestazioa definituta, eta prestazio hori, normalean, biziartekoa da, ekarpenak doitzen, handitzen edo gutxitzen joaten dira erakundeak une bakoitzean

dauzkan betebeharren arabera, prestazio definitu edo bermatuari aurre egin ahal izateko.

Bestela esanda, sistema batzuk dira zeinetan onuradunak jaso beharreko prestazioa definitzen baita (normalean erakunde edo enpresa bateko langilea), eta zeinetan erakunde edo enpresa ekarlearen bizkar gelditzen baita langilearekin hartutako konpromisoa betetzeko behar diren kuotak ordaintzea.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoetan aipatutako prestazio definituko sistema pribatuez harago, zeinak gero eta gutxiago baitira, gehien ezagutzen diren prestazio definituko sistemak gizarte segurantzaren sistema publikoak berak dira, halakoetan ezarritako sarbide-baldintzak (adina, gutxieneko kotizazio-aldiak...) betetzen dituzten erretirodunek eskubidea baitute biziarteko prestazio jakin bat eskuratzeko. Prestazio horrek, izan ere, zenbait aldagairen (inflazioa, ekonomiaren bilakaera, kasuko sistema publikoaren egoera...) arabera bilakaera izan ohi du.

Pentsio-eredu horiek kontrastean daude ekarpen definituko ereduarekin, zeinak orokortuago baitaude eta zeinetan esku hartzen duten aldeek egingo duten ekarpena definitzen baitute. Kasu horietan, pentsioaren zenbatekoa jarritako kuoten menpean eta metatutako ondare-funtsaren inbertsioetik lortzen diren errendimenduen menpean egongo da.

Hartara, ondoriozta dezakegu prestazio definituko sistemen eta ekarpen definituko sistemen arteko alde garrantzitsuenak dela nork hartzen dituen bere gain eredu bakoitzaren berezko arriskuak. Ekarpentzat definituko sistemetan (inongo interes-tasarik edo prestaziorik bermatzen ez dutenez) pentsio-itxaropenak ez erdiesteko arriskua pertsonak/parte-hartzaileak bere gain hartzen duen bitartean, prestazio definituko sistemetan arriskua Estuaren gain geratzen da (baldin eta gizarte segurantzako sistema publikoa bada) edo enpresa sustatzaileen gain (baldin eta plan pribatua bada), zeren eta beraiek baitira konprometitutako prestazioak ekarpen bereziekin bermatu behar dituztenak, beharrezkoa bada.

Horrenbestez, prestazioaren onuradunaren ikuspuntutik, prestazio definituko sistemak erakargarriagoak dira, zeren eta pentsio-maila jakin bat bermatzen baita, horrelako ereduarekin eragina duten parametroen

bilakaera edozein dela ere. Gainera, sistema-mota horrek biziarteko prestazioak eskaini ohi ditu.

Aitzitik, estatuen edo prestazio definituko sistemak sustatzen dituzten enpresen ikuspuntutik, eredu-mota hori oso konplikaturik da, kontuan hartzen bada konprometitutako prestazioen betetzea segurtatzeko beren gain hartu behar dituzten arriskuen maila.

Prestazio definituko sistemen arrisku inplizituak

Zehazki, honako hauek dira prestazio definituko sistemen arrisku aipagarrienak: bizitza-luzera, inflazioa eta errentagarritasuna.

Bizitza-luzeraren arriskua

Bizitza-luzeraren arriskuaz hitz egiterakoan, aipatzen ari gara pertsonak gero eta denbora luzeagoz bizi ohi direla; hori, berez, albiste on bat da. Nolanahi ere, bizi-itxaropenaren handitzeak, zeina azken hamarkadetan etengabe gertatzen joan den fenomeno bat baita, tentsio handiak eragiten ditu prestazio definituko sistemetan, zeren eta kasu gehienetan biziarteko prestazioak eskaintzen baitituzte.

Hau da, bizi-itxaropena luzeagoa izateak eragiten du baliabideen kopuru handiagoak metatu behar izatea kotizazio-aldian (metaketa), onuradunekin hartutako konpromisoei prestazioaren unean erantzuna eman ahal izateko behar diren hornidurak eratuta eduki ahal izateari begira.

Arrisku hori arintzeko xedez, historian zehar egokitzen joan dira une bakoitzerako heriotza-tasen taulak. Horrek eragin du, heriotza-tasen taula aldatu den bakoitzean, beti bizi-itxaropen luzeagoak proiektatzen dituztenez, elikaduraren, osasungintzaren, bizi-ohituen eta abarren bilakaerarekin bat etorriz... biziarteko prestazioak ematen dituzten erakundeek diru-kopuru handiagoak jarri behar izatea beren konpromisoei erantzun ahal izateko.

Horrenbestez, heriotza-tasen taulen aldizkako aldaketak, erakunde arautzaile eskudunek eragindakoak, tentsioak eragin izan ditu beti erakundeetan. Izan ere, batzuetan, ekarpen definituko sistema bilakatu behar izan dira.

Ohar positibo gisa, aipa daiteke ezen, azken garaietan, erabilitako teknika desberdin samarra izan dela, eta erabiltzen diren heriotza-tasen taulak “belaunaldiz belaunaldiko taulak” deitutakoak izan direla; izan ere, taula horiek bizi-itxaropen desberdin bat proiektatzen dute belaunaldi bakoitzerako (jaiotza-urte bakoitzerako), eta bizi-itxaropen hori handiagoa da, esate baterako, urtebete geroago jaiotako pertsona batentzat.

Horrekin, aurreko teknikatik —zeinean bizi-itxaropenaren taulek bizi-itxaropen bera proiektatzen baitzuten pertsona guztientzat, zein urtetan jaioak diren begiratu gabe— beste teknika batera iragan gara, zeinean pertsona bakoitzak jaiotza-urtearen arabera bizi-itxaropena baitauka (bizi-itxaropen handiagoa, beraz, belaunaldi gazteagoentzat).

Nolanahi ere den, metodologia berri hori, zeina hasieran fidagarriagoa ematen baitu aurrekoa baino, konponbiderik gabe uzten du erkidego zientifikoa gero eta indar handiagoa hartzen ari den gai bat, bizi-itxaropenaren igoera progresiboarena, eta horrek prestazio definituko sistemak garestitzea eragin du.

Horrek berekin ekarriko du ekarpen-aldia (35 eta 40 urte artekoa) jasotze-aldiaren oso antzekoa izatea, eta eragin dezake eskainitako prestazioa nahikoa ez izatea, erakundeak aitortutako prestazioa heriotza-tasen taula dinamikoen arabera egokitzen doan neurrian.

Inflazio-arriskua

Honelako pentsio-sistemei lotutako bigarren arriskua inflazioarena da, eta zerikusia du sistema gehienetan, prestazioa sortu ondoren, azken horrek inflazioaren arabera urtez urteko bilakaera bat izatearekin.

Horrenbestez, inflazioaren parametro horrek, zeinak pentsio-sistemen jardueratik guztiz kanpokoak diren faktoreen, lehengaien prezioa (funtsean, petrolioa), soldatak, elikagaiak, etxebizitza..., arabera bilakaera baitu, determinatzen du erakundeak une bakoitzean mantendu behar dituen horniduren kopurua.

Horri dagokionez, egia bada ere azken urteetan inflazioa maila oso txikitari egon dela Espainian (gauza bera gertatzen da Europa osoan),

ondoren aurkezten dugun seriean ikusiko dugu azken hamar urteetan 2010eko % 3,00tik lau urte geroagoko % -1,00ra bitarte aldatu dela, eta horrek argi islatzen du zenbateko hegakortasuna izatera irits daitekeen.

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
0,80%	3,00%	2,40%	2,90%	0,30%	-1,00%	0,00%	1,60%	1,10%	1,20%

Horrenbestez, pentsioak inflazioaren arabera gaurkotzearen lotura inplizituak, zeina ohikoa izaten baita honelako pentsio-sistemetan, tentsio nabarmena eragiten du sistema horietan, zeren eta parametro horrek gorabehera ugari izaten baititu kanpoko alderdien arabera, erakundearen kudeaketatik edo kontroletik kanpo.

Arrisku hori arintze aldera, azken garai honetan pentsio-eskubideak gaurkotzeko hainbat sistema edo metodologia asmatu dira. Hartara, adibidez, batzuetan gaurkotzea inflazioarekin ez ezik, erakundearen edo pentsio-planaren berariazko beste parametro batzuekin ere lotu izan da; esate baterako, kaudimen-mailarekin, diru-sarreraren eta gastu errealean mailarekin eta datozen urteetarako zenbatetsi direnen mailarekin...

Beti ere, arrisku horrek pentsio-sistemen mota horretan ziurgabetasun-dosi handiak eragiten jarraitzen du, batez ere inflazio handia dagoen testuinguruetan.

Errentagarritasun-arriskua

Pentsio-sistemen finantzaketaren ikuspuntutik, argi bereizitako bi eredu badaude: banaketa eta kapitalizazioa.

Beren finantzaketarako banaketa-sistema bat erabiltzen duten sistemetan urte batean lortzen diren diru-sarrerak balio dute urte horretan bertan dauden pagamendu eta prestazioak ordaintzeko, eta testuinguru batzuetan nolabaiteko erreserbak sor daitezke, diru-sarreraren eta gastuen artean etorkizunean gerta litezkeen desbideratzeak estali ahal izateko. Kasu horietan, funtsezkoa da zergadunen eta

pentsiodunen arteko erlazioa, zeren eta lehenengoak baitira urteko ekarpenekin bigarrenen prestazioak ordaindu behar dituztenak. Banaketa-sistema horiek berezkoak dira pentsio-sistema publikoetan: horrelaxe gertatzen da Espainian Gizarte Segurantzaz.

Bestetik, pentsio-sistema pribatuak kapitalizazio-sistema baten bidez finantzatzen dira. Kasu horietan, prestazio definituko sistemak izan nahiz ekarpen definituko sistemak izan, diru-sarreraren iturriak ordaindutako ekarpenak edo kuotak baizik ez dira (enpresek/erakundeek ordaindutakoak eta, batzuetan, onuradunek beraiek), bai eta, kasu batzuetan, erakundeen ondarea inbertitzeko merkatu finantzarioetan lortzen diren errendimenduak ere (ondare-funtsa deitutakoa).

Horrenbestez, kapitalizazio-sistemen kasuan, gakoa eta funtsa haien ondarearen inbertsioaren kudeaketa da.

Alderdi horrek funtsezko garrantzia hartzen du prestazio definituko sistemetan, zeinetan helburu-erako prestazio bat ezarri baita, hipotesi batzuetan oinarrituta, eta hipotesi horien artean funtsezko direnetako batek zerikusia du denboran zehar modu jarraituan lortuko dela uste den errentagarritasun batekin (sistema-mota horretan erabiltzen den kontzeptu batekin lotzen da hori, interes-tasa teknikoak deitu ohi denarekin).

2008an krisi ekonomiko eta finantzarioa hasi zenetik, inbertsioen kudeaketa oso konplikatu izaten ari da, zeren eta banku zentral garrantzitsuenek (Amerikako Erreserba Federala, Europako Banku Zentrala...) aplikatutako moneta-politikek maila izugarri baxuetan jarri baitituzte interes-tasak.

Gainera, interes-tasen gutxitze horrek, zeinak epe laburrean zorroan mantentzen diren aktiboak baloratzerakoan eragin positiboa baitu, baina epe ertain-luzean prestazio definituko sistemetan behar den errentagarritasuna lortzeko eszenatoki zailagoan jartzen baikaitu, inbertsio-zorroen birbalantzatzeko bat eragin du.

Kreditu-kalitateko errenta finkoko aktiboek (herrialde batzuen zor publikoa eta enpresa kaudimendunen jaulkipenak) behar diren

errendimenduak lortzeko errentagarritasun erakargarria eskaintzen ez duten neurrian, inbertsio-zorroetan errentagarritasun hori eskain dezaketen aktiboak sartzen joan dira inbertsio-zorroetan, arrisku inplizitu eta hegakortasun handiagoarekin (gorabidean dauden herrialdeen zorra, errenta aldakorreko maila handiagoak, azpiegituren funtsak, dibisekiko esposizio handiagoa...).

Errealitate berri horrek berekin dakar prestazio definituko sistemek kaudimen- edo segurtasun-marjina nahikoak eduki behar izatea (baliabide gehigarriak) ezarritako helburuak betetzen ez diren urteetarako. Era berean, horrek eskatzen du erakundeek beren buruari ematea hartutako arrisku-maila kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema efizienteak.

Azken urte hauetan pairatzen ari garen testuinguru makroekonomiko zailaren emaitza gisa, eta horri maila geopolitikoko tentsio batzuk gehitu behar zaizkio: merkataritza-arloko tentsioak, Brexita, Venezuelako egoera, Irangoa..., finantza-merkatuen hegakortasun-gradua handitu egin da, eta inguruabar horren isla argia da merkatu horiek 2018ko abenduan izan duten bilakaera; izan ere, burtsa-adierazleen beherakada orokorrak gertatu dira mundu-mailan, eta errenta finkoko aktiboen balorazioak doitu egin dira.

Testuinguru horretan, pentsio-sistemen jasangarritasunari eta etorkizuneko kaudimenari buruzko sentiberatasuna handitu egin da, interes-tasa txikien eszenatokiak denboran luzatu izanak oso baldintzatua, eta horrek ondorio negatiboak dauzka pentsio-funtsetan.

Jasangarritasunarekiko sentiberatasun handiago hori eragiten ari da erregulatzaileak gero eta zorrotzagoak izatea pentsio-sistema pribatuen jarduketa-esparrua zehazterakoan, dela erakundeek erabil dezaketen interes tekniko zehazteari dagokionez, dela kaudimen-baldintzen erregulazioari dagokionez (hornidura teknikoetarako baliabide gehigarriak).

Prestazio definituko sistemen bilakaera

HAurreko atalean aipatutako arriskuak kontuan hartuta —horietako batzuk 2008an hasitako krisi ekonomiko-finantzarioarekin larriagotu dira—, prestazio definituko sistemak denboran egokitzen joan dira.

Horrela, zenbait herrialdetan, esate baterako Erresuma Batuan, gisa honetako sistema pribatu gehienak, enpresa handiei lotutakoak, ekarpen definituko sistema bihurtzen joan dira (baita krisia baino lehenago ere), zeren eta denborarekin beren inbertsioen kudeaketa okerra izan zela demostratu izanak haiek eraman baitzituen hartutako konpromisoak beren ondareekin ezin estaltzera.

Inguruabar horrek eragin zuen ezen bai erregulatzailerak, bai erakundeetako administratzaileak beraiek ere azentua nabarmenago jarri zutela hartutako arriskuen kudeaketa eta neurketa egokian; horrek, izan ere, eragin du gaur egun kasu gehienetan erabilitako hipotesiak zuhurragoak eta errealtateari doituagoak izatea duela bi hamarkadetan egiten zirenak baino.

Azken urteetan gertatutakoan zentraturik, erakundeak beren eruedetan ihesbide jakin batzuk sartzen joan dira muturreko kasuetan —hain zuzen ere, behar adina baliabide ez dauden kasuetan edo kaudimen-maila legez ezarritako gutxienekotik behera dagoen kasuetan—, onuradunekin hartutako konpromisoak egokitu ahal izateko.

Horrela, ereduak berez prestazio definituak izateari uzten diote, zeren eta une zailetan onuradunei erakundeak bere gain hartutako arriskuaren zati bat eskualdatzeko elementuak sartzen baitituzte, hartara gehiago hurbilduz ekarpen definituko sistemetan gertatzen denera.

Erakundeek beren gain hartutako konpromisoaren maila mugatzearen ildo beretik, halaber, erakundeek kasu batzuk badaude zeinetan ekarpen-fasean zehar ekarpen definituko sistema baten gisara funtzionatzen baita, egindako ekarpenen arabera kapital bat metatuz. Halakoetan, lortutako errentagarritasuna prestazioa eskuratzeko unean bilakatzen da prestazio definituko sistema bat, normalean biziarteko izaerakoa.

Konklusio gisa, badirudi bistan dela prestazio definituko pentsioen sistema pribatuek gero eta zailtasun handiagoak dituztela beren definizio eta ezaugarriei eusteko, eta, aldi berean, badirudi zaila dela kapitalizazio-sistemen bitartez errepikatzea pentsio-sistema publikoek eskaintzen dituztenen antzeko biziarteko prestazioen ereduak.

Hori dela eta, gehienetan, prestazio definituko sistemak, funtsa, filosofia eta babestutako kolektiboarekiko konpromisoa mantenduz ere, bilakaera bat izaten ari dira, beren gaitasunen barruan, eredu posibilistagoetara eta testuinguru berriari eta egungo errealitateari egokituago dauden ereduetara iristeko.

Era berean, legegintza- eta erregulazio-esparruak errealitate hori hartu behar du aintzat, zeren eta sistema horiekiko izugarri zorrotza (zorrotzegia) den testuinguru batek eragin baitezake biziraupenerako zailtasun handiagoa izatea, nahiz eta horiek diren gizartearen eskakizunei hobekien erantzuten dieten sistemak

José Carlos Maza Guzmán jn. eta Idoia Atxa Uribe and.
LagunAro, Enpleguko BGAEa

7. Kapitula

Gizarte aurreikuspen pribatuaren zeregina

Artikulu honetan gizarte aurreikuspeneko sistema desberdinei buruzko ikuspegi orokor bat eman nahi dugu, haien ezaugarriak labur azalduz eta haien indargune eta ahulgune handiagoak aipatuz.

Artikulua nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte aurreikuspenaren esparruan zentratzen da, baina hainbat ataletan estatu mailako eta nazioarteko informazioa erabili da.

- Gizarte aurreikuspenaren kontzeptua eta motak.
- Aurreikuspen osagarri publikoa. Lehenengo zutabea. Gizarte Segurantzaren Espainia.
- Bigarren zutabea: Enplegu-planak.
- Hirugarren zutabea. Banakako planak.

Gizarte aurreikuspenaren kontzeptua eta motak

Hauxe da gizarte aurreikuspenaren definizioa: gizarte bateko kideen beharrezko erantzutara bideratutako bitarteko eta ekintzen multzoa. Haren helburua da lortzea biztanleriaren baldintza sozial, ekonomiko eta humanoak hobetu daitezela gizabanakoak babestuz pobreziatik, gaixotasunetik, langabeziatik, desgaitasunetik edo zahartzaroak dakartzan arazoetatik.

Kudeaketaren eta ezaugarrien ikuspuntutik, hiru talde desberdinetan sailka dezakegu gizarte aurreikuspena, zeinei, normalean, gizarte aurreikuspenaren hiru zutabeak deitu izan baitzaie:

- Lehenengo zutabea: Gizarte Segurantza, Gizarte aurreikuspenaren sistema publikoa: haren ezaugarri nagusia da “banaketa” sistema batez finantzatzeko delat. Sistema horretan, langile aktiboek beren kotizazioekin finantzatzeko dituzte pasiboak jasotzen dituzten prestazioak.
- Bigarren zutabea: Enplegu-planak Gizarte aurreikuspeneko sistema pribatuak dira, zeinetan integratzen baitira planen sustatzaile diren enpresak eta haien langileak. Enpresetako itun edo hitzarmenen bidez araututa daude. Enplegu-planak kapitalizazio-sistema batez finantzatzeko dira.

Langileak, beren lan-bizitzan zehar, enpresa-ekarpenekin (enpresek egindako ekarpenak), langilearen beraren ekarpenekin eta horiek guztiek sortutako errendimenduekin osatutako eskubide batzuk eratzen joaten dira.

Eratutako eskubideek aukera emango dute prestazioak finantzatzeko; nagusiki, erretiroarena, behin horretara helduta.

- Hirugarren zutabea: Banakako planak: Aurreikuspeneko Sistema Pribatua, zeinean pertsona fisikoak, banaka, integratzen baitira. Banakako planak, halaber, kapitalizazio-sistema batez finantzatzeko dira.

Plan horietako kideek, beren banakako ekarpenen bitartez eta beraiek sortutako errendimenduen bitartez, eskubide ekonomiko batzuk eratzen dituzte, zeinek aukera emango baitute prestazioak, nagusiki erretirokoak, finantzatzeko.

Aurreikuspen osagarri publikoa. Lehenengo zutabea. Gizarte Segurantza Espainian

Gizarte Segurantzaren Sistemak Espainian dauzkan indarguneak eta ahulguneak aztertuko ditugu, eta gero hari buruzko ondorio batzuk aterako ditugu.

Indarguneak

- Nahitaezkoa da. Nahitaezko izate horrek aukera ematen du herritarren artean oso orokortua dagoen babes-sistema bat finantzatzeko.
- Botere publikoek sistemaren kudeaketa ona, eraginkortasuna eta jasangarritasuna bermatzeko betebeharra dute.
- Sistema solidario bat da, zeinean gaurko langileek finantzatzen baitituzte beren bizitza aktiboa abandonatu dutenen prestazioak.

Ahulguneak

Alde txarrak datoz herrialdeko gaur egungo eta —aurreikusten denaren arabera— etorkizuneko egitura sozial eta ekonomikotik, zeinak jasangarritasun zailtasun handiak eragiten baitizkio sistemari.


Honako hauek izango lirateke, xeheki:

- Izaera demografikoko faktoreak:
Edozein aurreikuspen sistemari eusteko garrantzitsuenak dira, baina are gehiago sistema banaketakoa bada, lehenengo zutabea gertatzen den moduan.

Honako hauek nabarmen ditzakegu:

- Biztanleriaren zahartzea: Herritarren batez besteko bizi-itxaropena handitzen joaten da urtetik urtera.

Espainiako 65 urteko batez besteko bizi-itxaropena




Iturria: INE.

2003an, 65 urtera iritsita batez besteko bizi-itxaropena 81,8 urtekoa zen gizonentzat eta 85,8 urtekoa emakumeentzat. 2026rako, berriz, 85,4 urtekoa izango da gizonentzat eta 89,1 urtekoa emakumeentzat.

- Jaiotza-tasak: Jaiotza-tasen garrantzizko jaiotsiera..

2003an, 1.000 biztanle bakoitzeko jaiotzak 10,44 ziren; 2008an, 11,28ra igo zen, eta 2017an, 8,41era arte jaitsi da.


Jaiotza tasa



Iturria:EIN. Unitateak: mila biztanle bakoitzeko jaiotakoak.

Bi faktore horien elkarrekin alderantzikatutako populazio-piramidea sortzen du 2031rako, eta are nabarmenagoa 2066rako.

Espainiako biztanleriaren piramideak



Iturria: EIN.

Adin-taldeen populazio-piramideari erreparatuz gero, gaur egun pertsona gehien dituen taldea 40 eta 44 urte artekoa da. Baina, bai 2031n, bai 2066an populazio-talde handiena 55 eta 59 urte artekoa izango da, eta 2066an, nabarmentzekoa da 85 eta 89 urte arteko taldeak hartzen duen garrantzia.

Populazio-egitura horren ondorioz, benetan kezkarriak dira etorkizunari begira aurreikusten diren mendekotasun-tasak. 2031n, 10 pertsonatik 4 fase aktiboan egongo dira eta 6 ez. Horrek iradokitzen digu oso zaila izango dela populazio aktiboak populazio pasiboaren prestazioak mantentzea.

Mendekotasun-tasa proiektatua


Años	Mayores de 64 años (%)	Menores de 16 años (%)	Total (menores de 16 y mayores de 64 años) (%)
2012	26,1	24,1	50,1
2013	26,7	24,3	51,0
2014	27,6	24,5	52,1
2015	28,3	24,7	53,0
2016	28,8	24,7	53,5
2021	31,6	23,9	55,5
2026	35,8	21,9	57,7
2031	41,4	20,8	62,2
2041	56,7	22,2	78,9
2051	68,2	24,7	92,9
2061	66,5	23,4	89,9
2066	64,9	22,8	87,7

Iturria: EIN.

- Izaera ekonomikoko faktoreak
Faktore demografikoei faktore ekonomikoak gehitu behar zaizkie.

Horretarako, 16 eta 64 urte arteko populazioaren jarduera-tasak aztertu ditugu.

16 eta 64 urte bitartekoen jarduera globalaren tasa



Iturria: EIN.

Jarduera-tasen proiektzioak ezartzean du 2026an jarduera-tasa % 75,5ekoa izango dela.

Adin potentzialki aktiboan dagoen populazio guztia errealitatean aktibo ez dagoenez, aipatutako faktore demografikoen eta ekonomikoen konbinazio bat behar da arazoa bere osotasunean hartzeko.

Mendekotasun-tasa eta jarduera-tasa konbinatuz, ikusiko dugu 2026ko ekitaldiaren emaitza dela guztizko populazioaren % 31,93 aktiboan egongo dela (16 eta 64 urte arteko populazioaren % 42,3ren jarduera-tasaren % 75,5), populazioaren % 35,8ren erretiro-prestazioak estaltzeko.

% 31,93 horrek berak adingabeen populazioaren % 21,9ren beharrak ere estali beharko ditu, bai eta adin aktiboan egon arren lan egiten ez duten % 10,36ren beharrak ere.

Guztira, aurreikusten denaren arabera, langile aktibo batek 2026an 1,1 erretirodun, 0,7 adingabe eta 0,3 ez-aktibo finantzatzeko ditu.

Gainera, kontuan hartu beharko da ezen, faktore ekonomikoen artean, ez direla sartu beste faktore ekonomiko batzuk, nola baitira enpleguaren behin-behinekotasunarena, soldata-gutxitzeak, besteren konturako kontratuen ordez zerbitzu-prestazioko kontratuak erabiltzea eta beste batzuk, zeinek planteatutako egoera larriagotuko bailukete.


Ondorioak

Gure ustez, lehenengo zutabea oinarritzkoa da gizarte aurreikuspenaren estaldurarako, gizarte aurreikuspenaren garrantzi soziala eta haren izaera orokorra kontuan hartuta.

Hala eta guztiz ere, faktore demografiko eta ekonomikoek planteatutako eragozpenak ikusita, haien jasagarritasuna bermatzeko eta haien orokortasuna arriskuan ez jartzeko, komenigarria da ordezkatzeko publikoaren egungo tasaren murrizketa bat aplikatu dadila.

Ordezkatze publikoaren tasaren murrizketa hori, zeina gure ingurunean beste herrialde batzuetan gertatu baita, saihetsezina izango da gure

herrialdean; izan ere, erantsitako irudiaren arabera, 2015ean tasarik handiena zuena da.




Gizarte aurreikuspen pribatua= Gizarte aurreikuspen osagarria

Lehenbizi, kapitulu honetan sartu baino lehen, eta aurreko kapituluan egindako laburpenaren ondoren, ondorioztatu beharko genuke ezen, gizarte aurreikuspen pribatutzat ulertzen duguna gizarte aurreikuspen osagarria dela, eta hori hala da zeren ea ulertzen baitugu haren egitekoa ez dela inolaz ere gizarte aurreikuspen publikoa ordezkatzearena, baizik eta hura osatzearena.

Horrenbestez, ulertzen dugu gizarte aurreikuspen osagarriaren eginkizuna sortzen dela gizarte aurreikuspen publikoaren gabeziak, aurreko kapituluan aipatutakoak, estaltzeko, eta, halaber, ahalbidetzeko herritarrek bizi-kalitate hobea izan dezatela lanaren ikuspuntutik pasiboa den bizitzako etapan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren gizarte aurreikuspen osagarria, nagusiki borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeek osatzen dute, eta erakunde horiek 2018ko ekitaldiaren amaieran 24.000 milioi euroko ondarea dute; kopuru horrek bertako BPG osoaren % 31,4 egiten du.


Pentsio-funtsen ondarea BPGren arabera (%) 2017an



Fuente: INVERCO, con datos OCDE

Iruditik ondorioztatzen da ezen, ehuneko hori Estatuko batez bestekoaren oso gaineretik badago ere, % 9,5 gaineretik (2017ko datua), oraindik ere asko gelditzen zaiola ELGAko herrialdeen batezbesteko haztatura, % 56,1era (2017ko datua), iristeko.

Halaber, datuak daukan garrantzi handia dela eta, nabarmendu beharra dago Euskadiko BGAEek ordaindutako prestazioak 887 MM eurokoak izan direla 2018an.



Iturria: Euskadiko BGAEen Federazioa.

Grafikoan ikus daiteke prestazioen kopuru handiena 2013ko ekitaldian izan zela, orduan 1.000 MMtik gorakoak izan baitziren, eta azken urteetan 900 MM euro ingurukoak izan direla.

Bigarren zutabea: Enplegu-planak

Lehenago aipatu dugun bezala, bigarren zutabea enplegu-planek osatzen dute.

Enplegu-planak beren jarduera-eremuaren arabera bereiziz gero, Euskal Autonomia Erkidegoaren jarduketa-eremua dutenak aurkituko ditugu. Honako hauek dira:

- Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Planak (Enpleguko BGAEetan sartuak).
- Enpleguko Lehenatasunezko Gizarte Aurreikuspeneko Planak (Enpleguko Lehenatasunezko BGAEetan sartuak). Haien erregulazioa berriki egin da, eta oraindik ez dira funtzionamenduan hasi, baina ulertzen da etorkizunean gizarte aurreikuspen osagarria orokortzeko biderik eraginkorrenetako bat izango direla. Haien erregulazioa, gainbegiratzeara eta kontrola Eusko Jaurlaritzari dagozkio, eta zehazkiago haren Finantza Politikako Zuzendaritzari.

Eta estatu mailakoetan, enpleguko pentsio-planak daude, pentsio-funtsetan sartutakoak. Haien erregulazioa, gainbegiratzeara eta kontrola Estatuko Gobernuari dagozkio, eta zehazkiago Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiari.


Euskal Autonomia Erkidegoan, bigarren zutabeari, nagusiki enpleguko borondatezko gizarte aurreikuspeneko planek eusten diote, eta azken horiek enpleguko BGAEetan sarturik daude.

Haien ondarea nabarmen hazi da azken 20 urteetan, eta pasatu dira 2001ean 5.148 MM euroko ondarea eta 201.000 bazkide edukitzetik, 2018an 12.735 MM euro eta 472.000 bazkide baino gehiago edukitzera.

Hala eta guztiz ere, azken urteetan, enpleguko BGAEen ondarea geraldiki batean daude, eta hori kezkarri gertatzen da, zeren eta gure ustez sistema heldutasunera iristetik eta bere xederako beharrezkoa den ondare-bolumena lortzetik urrun baitago.

Horien artean, garrantzitsuenak LagunAro BGAEa da, Mondragon Talde Korporatiboarena, zeinak 2018-12-31n 6.000 MM euroko ondarea baitauzka, hau da, sektoreko ondarearen % 48.

Enplegu Sailaren bilakaera



Iturria: Euskadiko BGAEen Federazioa.

Haren indargune eta ahulguneak ikusi eta konklusio batzuk aterako ditugu

Indarguneak

- Diskriminaziorik ezaren printzipioa:

Enpresaren plantilla osoak BGAEan sarturik egon behar du edo sartzeko baldintzetan egon behar du. Ezaugarri hori enpleguko BGAE askotan dago, eta nahitaezkoa da lehentasunezko BGAEetan.

Baldintza horrek errazten du langile ia guztiak BGAEan sartzea enpresan lanean hasten diren unean; horrenbestez, ekarpen-aldi luzeak lortzen dituzte, eta hori funtsezkoa da erretiroaren garaian behar adinako eskubide batzuk erdiesteko.

- Ekarpen partekatuak:

Ezaugarri hori, halaber, enpleguko BGAE askotan dago, eta nahitaezkoa da lehentasunezko BGAEetan.

Ezaugarri horrek aukera ematen du finantzaketaren zama enpresen eta langileen artean partekatzeko, eta pizgarri bat da ekarpen horiek behar den askitasun-gradura irits daitezen.

- Errenta formako prestazioak:

Gizarte aurreikuspen osagarriaren funtsezko helburua denez errenta-moduan ematen diren pentsio publikoak osatzea, badirudi logikoa dela ondorio gisa ateratzea ezen prestazio osagarria jasotzeko modurik egokiena, halaber, errentarena dela.

Jasotze-modu hori, gaur egun dagoen araudi fiskala ikusita, kasu gehienetan zergetan zigortzen ditu prestazioa errenta moduan jasotzen duten bazkideak, prestazioa kapital moduan jasotzen dutenekin alderatuta; hori dela eta, egiazki abantaila bat baino gehiago eragozpen bat da, zergetako inpaktua ikusita.

- Administrazio-gastuak:

Beren sorrerako, funtzionamenduko, bazkideekiko harremanetako eta arretako ezaugarriak direla-eta, BGAE gehienetan administrazio-

gastuak nahiko doitu daude, eta horrek, teorikoki, aukera ematen du bazkideentzako errendimendu garbi handiagoak sortzeko.

Ahulguneak

- Negoziazio kolektiboa, zeina enplegu-planen eraketan eta garapenean funtsezkoa baita, une hauetan jarduera-maila oso apaletan dago.

Negoziazioa berriz aktibatzen ez bada eta hartan gizarte aurreikuspen osagarriaren arloko eskaerak sartzen ez badira, enplegu-planak ez dira bideragarriak.

- Une hauetan, langileek eta enpresaburuek ez daude argiro kontzientziaturik gizarte aurreikuspen osagarriaren beharra dela eta.

Oro har, lehentasuna eman ohi zaio soldata-hobekuntzak edo igoyerak eskudiruan gauzatzeari, gizarte aurreikuspen osagarriko formularen batean gauzatu beharrean.

- Enpleguko BGAEen ondarearen % 80 lau BGAEetan pilatzen dira 2018. urtearen amaieran.
- Kostu handiagoa ekartzen die enpresei, eta ez dago hura konpentsatuko duen pizgarri fiskalik.
- Enplegu-plan guztiak orokortuz gero ere, horrek eragina izanen luke besteren konturako langileengan, eta langile autonomoak hartatik kanpo geratuko lirakeke, nahiz eta azken hori etengabe hazten ari den kontratazio-formula bat izan.
- Errenta finkoko interes-tasa oso txikiak —are negatiboak ere— erakusten dituen egungo egoera makroekonomikoak, eta horrekin batera errenta aldakorreko merkatuen hegortasun handiak, eragiten dute aurrezkoa oso erakargarria ez izatea.
- Planen errentagarritasun apalak, nagusiki aurreko puntuaren ondorioa denak, ekarpen handiagoak eskatzen ditu prestazio berak estaltzeko edo arrisku handiagoak hartzeko.

- Enplegu-planen fiskalitatea, zeinak PFEZean laneko errenta diferituaren tratamendua izan baitu (ez dute tributatzen eskubidea edo enpresaren ekarpena edo kontribuzioa sortzen denean, baizik eta hura prestazioaren unean jasotzen denean), konplexua eta progresibotasun eskasekoa izaten da.
- Aipatu berri dugun konplexutasun horrek eragozten du etekin edo kostu fiskalak argi ezagutzea, bai langileentzat, bai ogasunentzat, zeren eta kontaketa bikoitza eskatzen baita (bata ekarpenen fasean eta bestea prestazioenean), eta bi faseetan zergadunaren PFEZaren tasa marjinalaren gainean kalkulatuta, gainera. Prestazioen fasean, gainera, kontuan hartu beharra dago errendimenduek PFEZaren tasa marjinalaren gainean tributatzen dutela.

Ondorioak

- Pentsio publikoen egungo egoera, eta batez ere etorkizunekoak, kontuan hartuta, enplegu-gizarte aurreikuspen osagarria beharrezkoa eta funtsezkoa da herritarrei, beren erretiroan, bizikaltatea bermatzeko.
- Eragile sozialak, enpresak, sindikatuak eta herritarrak kontzientziatu behar dira enplegu-gizarte aurreikuspen osagarri bat edukitzearen beharraz.
- Funtsezkoa da negoziazio kolektiboa aktibatzea eta gizarte aurreikuspeneko eskaerak negoziazioetan txertatzea.
- Administrazioek pizgarri fiskalak eta beste jite batekoak ezarri behar dituzte, enplegu-planen sorrera bultzatuko dutenak eta hein batean haren kostua arinduko dutenak.
- Halaber, komenigarria izango litzateke ogasunek errenta-moduan kobratzen diren prestazioetarako pizgarriak ematea, herritarrek kobrantza-mota hori hauta dezaten, eta egungoa baino tributazio-sistema errazagoa ezartzea.

Konponbidea kuotako kenkaria izan liteke, murriztapenik gabe eta enpresaren ekarpen edo kontribuzioak zerga-oinarrian integratu gabe, eta errendimenduak ondare-irabazi moduan tratatzea.

Hirugarren zutabea. Banakako planak

Banakako planek gizarte aurreikuspenaren hirugarren zutabea deitutakoa osatzen dute.

Enplegu-planekin egiten genuen bezala, jarduketa-eremuaren arabera jokatzuz, honako hauek bereiz ditzakegu: jarduketa-eremua Euskal Autonomia Erkidegoan duten planak, borondatezko gizarte aurreikuspen plan banakakoak, banakako BGAEetan integratuak, zeinen erregulazioa, gainbegiratzeta eta kontrola Eusko Jaurlaritzaren esku baitago, eta zehazkiago, haren Finantza Politikako Zuzendaritzaren esku.

Eta estatu mailakoetan, banakako pentsio-planak daude, pentsio-funtsetan sartutakoak. Haien erregulazioa, gainbegiratzeta eta kontrola Estatuko Gobernuari dagozkio, eta zehazkiago Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiari.

Euskadin, hirugarren zutabeari nagusiki banakako BGAEek eusten diote.

Enpleguko BGAEetan gertatu den bezala, banakako BGAEen ondarea nabarmen hazi da azken 20 urteetan, eta pasatu dira 2001ean 3.782 MM euroko ondarea eta 476.000 bazkide edukitzetik, 2018an 11.276 MM euro eta 669.000 bazkide baino gehiago edukitzera.


Enpleguko BGAEetan gertatzen zen bezala, azken urteetan banakako BGAEen ondarea geraldiki batean dago, eta enplegukoetan aipatzen genuen bezala, kezkarik gertatzen da hori, zeren eta sistema ez baita bere heldutasunera iritsi, ez eta bere xederako beharrezkoa den ondare-bolumena ere.

Bankako BGAEen barruan, garrantzitsuenak Baskepensiones da, Kutxabank-ek sustatutako banakako BGAEa, zeinak 2018-12-31n 5.252 MM euroko ondarea baitauka, hau da, sektoreko ondarearen % 47.

Haren helburua da aurrezkia – aurreikuspena sustatzea da bazkideen artean, eta horretarako banakako aurreikuspen plan batzuk jartzen ditu

haien esku; horien artean kudeaketa profilatua dutenak daude. Horrek aukera ematen du pertsona-mota desberdinentzako aurreikuspen planen eskaintza berezitua egiteko, haien errentagarritasun-itxaropenen, profil-arriskuaren, ezagutza finantzarioen eta denborazko horizontearen arabera.

Banakako Sailaren bilakaera



Iturria: Euskadiko BGAEen Federazioa.

Haren indargune eta ahulguneak ikusi eta konklusio batzuk aterako ditugu

Indarguneak

- Herritarren autonomia beren plana edo planak kontratatzeari buruzko erabakia hartzerakoan.
- Beren eskubide ekonomikoak zein BGAEtan mantenduko dituzten libreki hautatzea.
- Beren eskubideak libreki hautatutako beste BGAE batera eraman ahal izatea planaren bizialdiaren edozein unetan.
- Beren beharretara hobekien egokitzen zaizen ekarpen-modalitatea hautatzeko aukera: kuotak ordainduz (hilekoa, hiruhilekoak, urtekoak) edo ekarpen bereziak eginez.

- Prestazioak erakargarrien edo komenigarrien iruditzen zaien modalitatean jasotzeko aukera: kapital osoa edo partziala, edo bazkideak egokitzen jotzen duen epea edo zenbatekoa duten errentak, edo haiek edozein unetan eten edo aldatzeko aukera izatea.
- Kanal anitzeko erraztasunak ematea eragiketak modu errazago, azkarrago eta eraginkorrago batez egiteko.
- Kanal anitzeko informazio ematea planen ezaugarriari, iraganeko bilakaerari, etorkizunerako aurreikuspenari eta arriskuei buruz, inbertsiorako aukera zabalak emanez, zeinek aukera emango baitute bazkide bakoitzaren beharrak asetzeko eta haien egoera zehatzari egokitzeko.
- Prestakuntza egokia duten pertsonen lantaldeak, bazkideekin harreman zuzen eta aldizkakoa dutenak.
- Kudeaketan laguntzeko tresnak erabiltzea; esate baterako, pensionen simulagailuak eta profila ezartzeko inkestak.
- Inbertsio estrategia adinaren, arriskuarekiko higuinaren eta une bakoitzeko koiuntura ekonomikoaren arabera hautatzeko aukera.
- Bizi-zikloaren estrategia duten planak hautatzeko aukera; horietan, izan ere, bazkideak atxikiko zaizkio BGAEaren ustetan haien adinaren arabera egokiena den planari, eta haien eskubideak bizitzan zehar aldatuko dituzte une bakoitzeko adinaren arabera dagokien planera edo dagozkien planetara.
- Gizarte aurreikuspen osagarriarako aukera bakarra da langile autonomoztat, enpleguko aurreikuspen planik ez duten besteren konturako langileentzat eta, halakorik edukita ere, beren ustez erretirorako eskubide ekonomiko handiagoak eskuratu nahi dituztenentzat.

Ahulguneak

- Enplegu-planekin gertatzen zen bezala, errenta finkoko interes-tasa oso baxuek —are negatiboak ere— erakusten dituen egungo egoera makroekonomikoak, eta horrekin batera errenta aldakorreko

merkatuen hegakortasun handiak, nabarmen zigortzen dute aurrezkia.

- Ikusten da errentagarritasuna-arriskua binomioan banakako planetako bazkideek argiro egiten dutela arriskua gutxitzeko aukeraren alde, eta errentagarritasun are txikiagoa lortuta ere, arrisku txikiagoko planetan kokatzen direla argi eta garbi.
- Planen errentagarritasun apalak, nagusiki aurreko puntuaren ondorioa denak, ekarpen handiagoak eskatzen ditu prestazio berak estaltzeko.
- Enplegu-planei buruz komentatzen genuen bezala, PFEZean laneko errentaren tratamendu diferitua konplexua da eta ez oso progresiboa, eta eragozten du onura edo kostu fiskalak argitasun osoz ezagutzea, bai bazkideentzat, bai ogasunentzat ere, hartara zigortuz, gainera, PFEZaren tasa marjinalaren arabera tributazio batekin lortutako errendimenduak.
- Banakako BGAEak oso sentiberak dira aldaketa fiskalak direla eta. Gure historia berrian, 2012ko eta 2014ko ekitaldietan hartutako neurri fiskalek sisteman sarrera garbi ia nuluak eragin zituzten eta eragiten jarraitzen dute eta, horrenbestez, ondare-bolumenaren hazkundera geraraztea.
- Administrazio-gastuak: aurreko puntuan banakako planen alde on eta indargune moduan azaldutakoak (besteak beste, honako hauek: planen aniztasun handiagoa, haiek eramangarriak izatea, inbertsioei eta eragiketei buruz banakako aholkua emateko gaitasuna, pertsonalizatzea, gardentasun informatiboa, bizikloa duten planak hautatzeko aukera eta abar) berarekin dakar horiek, oro har, enpleguak baino administrazio-gastu handiagoak izatea; halere, bi eredu arteko desberdintasunak direla eta, nekez izan daitezke konparagarriak.

Hala eta guztiz ere, haren gehienekoa arauen bidez mugatuta dago, eta BGAEetan muga hori pentsio-planena baino txikiagoa da.

Ondorioak

- Hirugarren zutabea gizarte aurreikuspen osagarriaren gizarte aurreikuspen osagarria dela esan genezake; hau da, haren helburuak izan behar du bigarren zutabeak —dela garapen-faltarengatik, dela herritarrek (autonomoak) hartara iristerik ez dutelako, dela erretiro hobea nahi delako— estaltzen ez duen hutsunea estaltzea.
- Aipatutako indarguneetatik, ondoriozta daiteke banakako aurreikuspen planek bazkideen beharrei egokitzeko malgutasun handia dutela, eta horretara bitarteko aukera zabala bideratzen dela.

Gaur egun, aipatutako arrazoi fiskalak tarteko, banakako BGAEek prestazio gehienak kapital-moduan ordaintzen dituzte, bazkideek halaxe eskatzen dutelako.

Baldin eta etorkizunean, bazkide gehienek prestazioak errenta-moduan eskatuko balituzte, BGAEek horrela ordainduko lituzkete prestazioak, eta, gainera, errenta-modalitateen aukera zabala eskainiko lukete, haiek beren beharretara egokitzeko.

- Enpleguko BGAEei buruz aipatu dugunaren haritik, komenigarria izango litzateke ogasunek errenta-moduan kobratzen diren prestazioetarako neurri pizgarriak hartzea, herritarrek kobrantza-mota hori hauta dezaten, eta, halaber, egungoa baino tributazio-sistema errazagoa eta progresiboagoa ezartzea BGAEentzat.

Konponbidea kuotako kenkaria izan liteke, ekarpenetan murriztapenik egin gabe eta haiek gero zerga-oinarrian integratu gabe, eta errendimenduak ondare-irabazi moduan tratatzea.

Azken batean, amaierako mezu gisa, esan genezake gizarte aurreikuspen osagarriaren (pribatua) eginkizuna oso garrantzitsua dela egungo gizartearen, eta are gehiago etorkizuneko gizartearen, ongizatea laguntzeko, zeren eta haren egungo prestazio- eta ondare-maila garrantzitsua bada ere, oraindik ere bide luzea geratzen baita etorkizuneko gizartearen ongizatean

ekarpen efektiboa ahalbidetzeko behar diren mailetara iristeko, eta hori ezin izango da lortu gai honetan inplikaturako eragile guztien ezinbestekoa den laguntzarik gabe.

Pedro Unamuno Bidasoro jn.
Baskepensiones, banakako BGAEko zuzendaria

8. Kapituluia

Gizartearekiko Arduratsua den Inbertsioa

Gizartearekiko Arduratsua den Inbertsioaren (GAI) merkatua nitxo bat izatetik makrojoera bat izatera igaro da. GAIaren sektorea ontzen ari da: GAI politiken arabera kudeatutako aktiboak hazten doaz, eta gero eta estrategia sofistikatuagoak erabiltzen dira. Azken hamarkadan hartu dute protagonismo gehien inbertsio-zorroen eraketan ingurumenaren, gizartearen eta gobernu onaren (IGG) ikuspegiaren araberako irizpideek.

Aurrerapen hori honako hauen zuzeneko ondorioa da: klima-aldaketaren inguruko kontzientzia sozial gero eta handiagoa; lan-baldintza zuzenetan oinarritutako hazkunde jasangarria, eta enpresen gobernu korporatiboak baldintza batzuk betetzeko beharra. Hori guztia nazioarteko erakundeen hainbat lege eta ekimenetan jaso da, nola baitira Inbertsio Arduratsuaren Printzipioak (IAP), Parisko Ituneko Akordioa, Garapen Jasangarriaren Helburuak edo Europako Batzordearen Ekintza Plana, besteak beste.

- Sarrera.
- Zer da gizartearekiko arduratsua den inbertsioa?
- Zer dira I, G eta G?
- GAIaren zazpi estrategiak.
- Ekimen garrantzitsuenak.
- Konklusioak.

Sarrera

Gizartearekiko Arduratsua den Inbertsioarena ez da kontzeptu berria. Jada 1800ean, herrialde anglo-saxoietako talde erlijioso batzuek, kuakeroek, esate baterako, gizartearekiko arduratsuak diren inbertsioetarako (GAI) jarraibideak ezarri zituzten, zeinek esklabotasunarekin lotutako merkataritza baztertzen baitzuten. Hirurogeiko hamarkadan, inbertsio-funtsen sektorea orokortzen hasi zenean, GAIak garai horietako arazo sozialak islatzen zituen; esate baterako, eskubide zibilen aldeko mugimenduaren gorakada. 70eko hamarkadan, Estatu Batuetan, PaxFund-ek Vietnamgo Gerratik onurarik ateratzen zuten konpainiak baztertzen zituen. 80ko hamarkadan, Txernobyngo edo Exxon Valdezen hondamendiek urte hauetan zehar finkatzen joan den ingurumen-kontzientzia bat bultzatu zuten. 90eko hamarkadatik, gizartearekiko arduratsua den inbertsioa (GAI) hazi eta hazi egin da, baina azken hamarkadan gertatu da ingurumenaren, gizartearen eta gobernu onaren (IGG) ikuspegiaren araberrako irizpideek protagonismoa hartu dutela inbertsio-zorroen sorkuntzan.

Aurrerapen hori honako hauen zuzeneko ondorioa da: klima-aldaketaren larritasunari buruzko kontzientzia sozial gero eta handiagoa; hazkundea jasangarria izatearen garrantzia, eta enpresen gobernu korporatiboak baldintza jakin batzuk betetzeko beharra.

Nazioarteko erakundeen legedi eta ekimen desberdinak; esate baterako, “IAP” deitutakoek, “Parisko Ituneko Akordioak” “Garapen Jasangarriaren Helburuek” edo “Europako Batzordearen Ekintza Planeko Gomendioek”, besteak beste, eragin dute GAIa nitxo bat izatetik makrojoera bat izatera pasatzea. 2008an GAIaren guztizko zenbatekoa munduan bost bilioi dolarrekoa¹ bazen ere, 2018aren hasieran zenbatekoa 30,7 bilioi dolarrekoa zen².

Honako hau da Spainsifek argitaratutako “2018ko azterlana: Inbertsio jasangarria eta arduratsua Espainian” azterlanaren emaitza: GAIaren


¹ Robeco and Booz & Company. Responsible Investing: A Paradigm Shift –From Niche to Mainstream. 2009.

² Global SustainableInvestmentAlliance: “Global SustainableReview 2018”. 2019.

nazio-mailako merkatua ontzen ari da; hazkunde-tasa sendotzen ari da, eta GAIaren kalitateak hobera egin du erabilitako estrategiak sofistikatu izanaren ondorioz.

GAIen merkatua 185.614 milioi eurokoa izatera iritsi da; horrek % 46ko kuota bat egiten du Inbertsio Kolektiboko eta Pentsio Funtsen Erakundearen merkatu nazionalan.

Pentsioen merkatuari dagokionez, Espainian IGGen banakako funtsak merkaturatzen hasi dira, baina haien presentzia oraindik testigantza hutsezkoa da. Guztiz desberdina da enpleguko pentsio-funtsen egoera, zeren eta eragile garrantzitsuen izaten jarraitzen baitute nazio mailako GAIen merkatuan, non guztien % 72k IGG irizpideak jasotzen baitituzte; horrek, izan ere, 28.000 milioi euroko ondarea egiten du.



Erakunde finantzario nazionalen (Spainsif) IGG irizpideekin kudeatutako aktiboaren bilakaera

Zer da gizartearekiko arduratsua den inbertsioa?

Gizartearekiko arduratsua den inbertsioak (GAIa), analisi finantzarioaz gainera (errentagarritasuna-arriskua), finantzez kanpoko analisia (IGG-Ingurumena, Gizartea eta Gobernu Ona irizpide deitutakoak) eta jabetza

aktiboaren jarduna (enpresekiko elkarriketa aktiboa eta akziodunen batzarretan botoaz baliatzea) jasotzen ditu, inbertitzen deneko konpainien arriskuen ebaluazioan efizientzia handiagoa erdiesteko, honako helburu honekin: epe ertain eta luzeko errentagarritasun handiagoak modu jasangarrian lortzea, konpainien politika arduratsuak sustatuz (Spainsif).

GAIak alde interesdun guztien interesak hartzen ditu kontuan (langileak, kontsumitzaileak, hornidura-katea eta abar) eta, hartara, gizartean eta ingurumenean eragin positiboa sortzen du, errentagarritasun txikiagoa lortu gabe³.

Gainera, arriskuak kudeatzeko tresna bat da, eragiketetarako eta izen onerako arriskuak gutxitzen dituen: burtsan kotizatzen duten enpresen balioen jaitsiera handia eragin duten oraintsuko eskandalu handi gehienek nolabaiteko lotura bat dute gobernantzaren, ingurumenaren edo gizarte politikaren arloetako gabeziekin, eta horrek eragin dezake IGGan errendimendu okerrean duten enpresek balizko akziodunen kopuru txikiagoa izatea eta finantzaketa-zailtasunak edukitzea, dela eskaerak huts egiteagatik, dela inbertitzaileek haiei arrisku-prima gehigarri bat eskatzeagatik.

GAIa aplikatzekoa zaie inbertsio-funtsei, pentsio-funts eta -pentsioei, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei (BGAE), aseguruai, arrisku-kapitaleko sozietate eta funtsei eta bestelako produktu eta tresna finantzarioei. Oro har, esaten da halakoek gizartearekiko arduratsua den inbertsioko (GAI) politika bat dutela beren inbertsioetan ingurumeneko, gizarteko eta gobernu oneko (IGG) alderdiak aintzat hartzen dituztenean eta beren azalpenetarako liburuxkan edo antzekoetan berariaz hala jasotzen denean.

³ 2015ean Gunnar Friede, Timo Busch eta Alexander Bassenek honako azterlan hau argitaratu zuten: “ESG and Financial Performance: Aggregated Evidence from More than 2000 Empirical Studies”. Azterlan horretan, IGG irizpideen eta betekizun finantzario korporatiboaren arteko erlazioa aztertzen duten 2.200 inguru banakako azterlan akademikoren aurkikuntzak konbinatu zituzten. Azterlanen % 90 inguruk erakusten du IGGaren eta jardun finantzarioaren arteko erlazioa positiboa edo deuseza izan zela: kasuen % 10ean baizik ez zen negatiboa izan.

Zer dira I, G eta G?

- I, Ingurumen gaiak. Honako xede hau dute: ingurumenean eragin positiboa nahiz negatiboa duen enpresa-jardunaren edozein alderdi.

G, Gizarte arazoak, erkidegoarekin, lan-baldintzekin eta giza eskubideekiko atxikipenarekin, diskriminaziorik ezarekin eta interes-taldeen parte-hartzearekin lotutako alderdiak.

G, Gobernantza alderdiak. Enpresa baten kudeaketaren kalitateari, kulturari, arrisku-profilari eta beste ezaugarriei dagozkie.

Hurrengo taulan alderdi batzuk erakusten ditugu, zeinetan ingurumeneko, gizarteko eta gobernu oneko alderdien balorazioa jaso baita.

I: Ingurumen arlokoak	G: Gizarte arlokoak	G: Gobernu Ona
Klima-aldaketa: arriskuak eta aukerak	Giza eskubideak	Kontseiluaren eta jabetzaren egitura
Berotegi-efektuko gasen isurketa	Lan-harremanak	Ordainsari-politikak
Energia berriztagarriak	Aukera-berdintasuna	Eroskeria, ustelkeria eta diruzuritzea
Energia-efizientzia	Dibertsitatea eta inklusioa	Arauak betetzea
Airearen kalitatea	Soldaten, garapenaren eta sustapenaren arloko politikak	Etika eta gardentasuna
Energiaren kudeaketa	Osasuna eta segurtasuna	Akziodunen eskubideak
Uraren kudeaketa	Hornidura-katea	Pizgarrien egitura
Hondakinen kudeaketa	Enpresa/erkidegoa harremanak	Arriskuen kudeaketa
Baliabide naturalen erabilera	Bezeroen ongizatea	Istripuen kudeaketa
Dibertsitatean duen inpaktua	Datuen segurtasuna eta pribatutasuna	Horniduren kudeaketa
Produktu eta zerbitzuen bizi-zikloan duen inpaktua	Gardentasuna eta etiketatzea	Fiskalitatea
...	Marketinaren eta ikerketaren arloko politika arduratsuak	...
	...	

GAlaren zazpi estrategiak

Eurosifek, inbertsio jasangarriaren foro europarrak, GAIa zazpi estrategiaren arabera sailkatzen du. Maiz gertatzen da inbertitzai-leek planteamendu desberdinen konbinazio bat erabiltzen dutela.

- Produktua / jarduera / sektorea / herrialdea dela-eta bazterketa egitea.
- Arauetan oinarritutako bazterketa.
- Best in Class.
- IGG faktoreak integratzea analisi finantzarioan.
- Jasangarritasunarekin lotutako gaiak.
- Eragina alderantzikatzea.
- Aktibismoa eta boto-politikak

Baztertze-estrategiak, zeinei iragazki negatiboko estrategia ere deitu izan baitzaie, bereziki gomendagarriak dira beren onuradunek ontzat ematen dituzten portaeren edo jardueren ikuspegi argia duten inbertitzaileentzat eta haiek direla-eta izen ona galtzeko arriskutik babestu nahi dutenentzat. Hala eta guztiz ere, jarduera, sektore bat edo konpainia bat kanpo uzteak zorroen dibertsifikazioa ukitzen du eta eragina izan dezake haren errentagarritasunean / arriskuan.

- Produktua / jarduera / sektorea / herrialdea dela-eta bazterketa egitea: zaharrena, oinarrizkoena eta kudeaketaren pean aktibo gehien dituen estrategia da. Funtsean, honetan oinarritzen da: inbertsioaren unibertsotik sistematikoki baztertzea produktu, jarduera, sektore edo herrialde batzuk, IGG irizpide jakin batzuen arabera. Armak, tabakoa, pornografia, jokoa, energia nuklearra, ikatza eta genetikoki eraldatutako produktuak izan ohi dira gehien baztertzen diren jarduerak.

Zor publikoko inbertsioetan, bazterketa-irizpide ohikoenak izaten dira diktadura-erregimenak baztertzea, ingurumen-akordioak ez berrestea, erakundeen ustelkeria, ez ugaritzeko itunak urratzea, heriotza-zigorra edo energia nuklearra laguntzea.

- Arauetan oinarritutako bazterketa: nazioan edo nazioartean aitortutako estandar, arau edo konbentzioak urratzen dituzten konpainiak baztertzean datza; honako arau eta konbentzioak urratzen dituztenak, esate baterako: giza eskubideen babesa, ingurumenaren babesa, Nazio Batuen mundu ituna, LANEren printzipioen adierazpena, enpresa nazionalen buruzko ELGAren araudia eta abar.

- Best in class:

beren sektorean edo merkatuan IGG sailkapen onena duten konpainiak eta jaulkitzaileak hautatzen dira. “Tragazki positiboa” izenaz ere ezagutzen da. Eredu horretarako bi aldagai badaude:

- Best in universe delakoa: inbertsioaren unibertso guztia hartuta IGG puntuazio onena duten konpainia eta jaulkitzaileak hautatzen dira.
- Best-effort: IGG aurrerabide onena duten konpainien alde egiten da, haien bilakaera aurrerabidea hobetzeko bidean sustatzeko.

Estrategia mota horrek, ahalegin handiagoa eskatzen dio inbertitzaileari. Lehenbizi, baloratu beharreko IGG irizpideak definitu behar dira, bai eta irizpide horiek neurtzeko modua ere. Hurrena, zerrenda hierarkizatu bat sortu beharra dago, enpresen IGG sailkapenaren arabera, horren barrenean pisu sistema bat ezarriz, IGG irizpide desberdinen arabera, materialtasunari erreparatuta, hau da, sektore bakoitzean edo partaide diren sektore edo industria bakoitzean izan lezaketen eraginari erreparatuta. Eta, azkenik, ezarri beharra dago zein betetze-mailatik aurrera den konpainia bat hura zorroan sartzeko gai. Horrenbestez, inbertitzaileek estrategia hori erabili ahal dezaten, enpresen IGG balorazioa edo sailkapena lortu behar dute. Informazio hori nagusiki hiru estrategiaren bidez lor daiteke:

- Lehenbizi, aktiboen kudeatzaileak IGG talde bereki bat izan dezake, bere estandar propioen arabera analizatu eta haztatuko duena zorroan sar daitezkeen enpresen IGG informazioa. Estrategia hori, kostu handiagoa badu ere, moldaerrazena eta emaitzarik onenak lortzen dituen da, zeren eta edozein aldaketa edo berezitasuna balorazioaren arabera doitu ahal baitezake.

Konpainia bat baloratzeko IGG informazioa lortzea zaila izan daiteke, edo konpainiak berak ez duelako, edo hura argitaratzen ez duelako edo estandarizatu gabe dagoelako. Konpainiak gero eta jakitunagoak dira beren oroitidazkietan eta komunikazioetan gardenak izateko beharrari dagokionez, jasangarritasuneko eta SASB (Sustainability Accounting Standards Board) edo GRI (Global Reporting Initiative) moduko ekimenetako terminoetan;

izan ere, halakoei aukera ematen dute argitaratutako informazioa materialtasun mapen bitartez estandarizatzeko, mapa horiek industria bakoitzaren alderdi garrantzitsuenak identifikatu eta erreferentziako esparru bat sortzen baitute konpainiek beren esposizioa eta haiengan eragina duten IGG faktoreak komunikatzeko moduari dagokionez.

Datu horiek lortu eta analizatzearen konplexutasuna dela eta, kudeatzaile batzuek IGG taldea kanpoan bilatzen dute; izan ere, zerbitzu horretarako hornitzaile bat kontratatzen dute, enpresek eta estatuek IGG irizpideak betetzei buruzko informazioa emango diona, dauzkan beharren arabera.

- Bigarrenik, aktiboen kudeatzaileak Best-in-Class estrategia bat har dezake, inbertsioaren unibertsoa osatuko duten enpresak hautatuz jasangarritasuneko burtsa-adierazle batek emandako informazioaren bitartez. Adierazle batzuk badaude beren osagaiak erregioaren, sektorearen, IGG jokabidearen edo gaiaren arabera bahetzen dituztenak. Metodo honek aukera ematen du zorroa modu pasiboan kudeatzeko, adierazle horien errepikatzea den inbertsio-zorro bat sortuz. Horixe da kostu txikiena duen estrategia, baina hartan inbertitzaileak galtzen du IGGaren garrantzia eta erabil daitekeen IGG irizpideak hautatzeko gaitasuna.
- Azkenik, kudeatzaileak bere Best-in-class estrategia gauza dezake IGG sailkapen-agentziek argitaratutako rating eta rankingetan oinarrituta, agentzia horiek jasangarritasun terminotan ebaluatzen baitute “performance” korporatiboa. Agentzia horiek IGG sailkapena zuzenean ematen dute, eta horrek nabarmen errazten du inbertitzailearen zeregina. Aitzitik, IGG kalkulurako neurketa pertsonalizatzeko aukerarik ez du inbertitzaileak. Aipatu beharrekoa da rating agentzia bakoitzak kalkulurako bere metodologია erabiltzen duela; hori dela eta, % 30-% 40 bitarteko aldeak aurki daitezke konpainia beraren ratingean.

- IGG faktoreak integratzea analisi finantzarioan.
Estrategiarik aurreratuena da. Honako honetan datza: IGG irizpideen analisisa sartzearak erakundeak inbertsio-erabakiak hartzerakoan egiten duen analisi finantzarioan.
- Jasangarritasunarekin lotutako gaiak.
Estrategia honek aukera ematen du inbertsioa sektore zehatzak finantzatzera bideratzeko. Normalean, errenta aldagarriko inbertsio-funtsen bitartez bideratzen da, nahiz eta hasia den errenta finkoko funtsen aukera zabala garatzen. Hautaketa-estrategia hori zuzenean lotuta dago jasangarritasunean eragina duten gaiekin: klima-aldaketa, uraren kudeaketa, energia berriztagarriak eta abar.

Hartara, honako hauen modukoak badaude: bonu berdetan baizik inbertitzen ez duten inbertsio-funtsak; uraren kudeaketa arduratsuekin lotutako enpresa eta proiektuak hautatzen dituzten funtsak; karbono gutxiko ekonomian oinarritutako funtsak, garapen jasangarriaren helburuetan zentratutako funtsak, eta abar.

Gaiaren araberako inbertsioak jasangarriak izan daitezten, IGGaren hiru ikuspegiak bete behar dituzte, eta ez horietako bakar bat.

- Eraginari begirako inbertsioa.
Estrategia honek errendimendu finantzario lehiakor bat lortu nahi du eta ingurumenean edo/eta gizartean eragin positibo bat sortu nahi du. Eragin horren neurketak zenbakarria izan beharko du, hartara gizarte arazoan edo/eta ingurumen-arazoan konponbidean aldaketa aipagarriak lortzeko.

Era askotako proiektuak finantzatzeko erabiltzen da; esate baterako, osasunarekin, hezkuntzarekin, ingurumenarekin edo klima-aldaketarekin lotutakoak. Eraginari begirako inbertsioek inbertsioaren errentagarritasuna zenbatzen dutenez, bai itzulkin finantzarioen erara, bai ingurumen-eraginaren edo/eta gizarte-eraginaren arloko itzulkinen erara, inbertitzaileak informaziorik badu bere diruak ingurumen-aldaketa edo/eta gizarte aldaketa positiboak sortzeari begira daukan eraginkortasunari buruz.

Produktu finantzario jasagarritzat hartzeko, IGG irizpideei erreparatu beharko die.

Eraginari begirako inbertsioen hiru mota badaude:

- Gizarte enpresak: gizarte-eragin eta ingurumen-eragin positiboa sortzen duten ondasun eta zerbitzuen eskakizunari erantzuten diote. Enpresen jardueren artean, aipa daitezke kolektibo jakin batzuen laneratzea, garraio garbia, etxebizitza soziala, ekintzailetzaren sustapena...
- Gizarte-bonuak: gizarte-berrikuntzako tresna bat dira. Jaulkitzailea nazioz gaindiko ente bat, estatu bat edo erregio bat izan daiteke, gizarte-zerbitzuak hornitzen dituen erakunde batekin akordio batera iristen dena gizarte-arazo jakin baten konponbidearen inguruan, etekin jakin batzuekin. Honelako bonuetan inbertitzen duten inbertitzaileek, zenbat eta hobeki landu arazo hori aurrez ezarritako helburu eta neurketen arabera, orduan eta errendimendu handiagoak lortuko dituzte.
- Bonu berdeak: bonu berdeen jaulkipena proiektuak finantzatzeko edo klima-aldaketaren eraginei galga jarri edo haiek arintzeko. Bonu bat bonu berdetzat hartua izateko, ICMaK bonu berdeei buruz dituen printzipioen lau zutabeak bete beharko ditu: hartutako funtsen erabilera, proiektuak hautatu eta ebaluatzeko prozesu bat egotea, funtsen erabilera eta reportinga.
- Aktibismoa eta boto-politikak jasagarritasunarekin lotutako gaitan.


Bere eginbehar fiduziarioaren atal gisa, aktiboek kudeatzaileek ahaleginak eginen dituzte inbertitzen duten konpainiei buruzko jokabide arduratsua sustatzeko.

- Akziodunen batzarretan botoa ematea: boto unitarioaren bidez edo bloke bat osatuz, eragin handiagoa lortu ahal izateko. Inbertitzaileak gero eta aktiboago ikusten dira beren eskubideen defentsan, eta akziodunen batzarretan IGG irizpideekin lotutako galderak egiten dituzte, edo administrazio kontseiluaren

erabaki batzuen aurka bozkatzen dute. Azken horri akziodunen aktibismoa deitzen zaio.

- Engagement edo elkarriketa aktiboa deitutakoa: estrategia hori zentratuta dago inbertitzailearen eta enpresaren arteko komunikazio-ildo bat irekitzean, IGGaren arloko gatazkak saihesteko edo zuzentzeko.

Spainsifen edo Eurosifen 2018ko GAIa txostenei jarraituz, nabarmendu beharra dago GAI merkatua bilakaera bat izaten ari dela. Bazterketa kudeatutako aktiboen arabera estrategia nagusia izaten jarraitzen du; halere, ikusten da joera-aldaketa argi bat dagoela GAI estrategia aurreratuagoen bidean —esate baterako Best-in-class edo IGG irizpideen integrazioa—, neurketa-sistemen hobekuntzari eta informazioaren teknologiaren aurrerapenei esker. Inbertsio-joera berriak, nola baitira gai jasangarrietako inbertsioak edo eraginaren arloko inbertsioak, indar handiagoa hartzen ari dira, hurrengo irudietan ikus daitekeen bezala:



GAI estrategien arabera kudeaketa duten aktiboak Europan eta Espainian (euroak, milioitan).
Iturria: Eurosif.

Ekimen garrantzitsuenak

EInbertitzaileek, erakundeetako nahiz banakako, inbertsio jasangarri eta arduratsuengatik duten interesa handitu izana bat dator nazioarteko

erkidegoaren ekimenekin, karbono gutxiko ekonomia bateranzko edo enpresen erantzukizuneranzko ingurumen- eta gizarte-politiken garapena sustatzekoekin. Ekimenen artean, honako aueknabarmen daitezke:

1999. Nazio Batuen mundu ituna (UN Global Compact)

Enpresei egindako dei bat da, beren estrategiak eta eragiketak giza eskubideei, laneko araei, ingurumenari eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko hamar printzipioren arabera lerroka ditzaten. Ekimenarekin bat egiten duten enpresek 10 printzipio horiek onartzen dituzte, eta konpromisoa hartzen dute haiek barne-mailan ezartzeko eta aurrerabideari buruzko txosten bat argitaratzeko, non agerian jarriko baitira enpresek haiek betetzeko aurrera eramaten dituzten ekintza eta politikak.

Hamar printzipio horiek, askotan, erreferentziako esparru bat dira kudeatzaile askorentzat zorroan parte hartzera sar daitezkeen enpresei buruzko hasierako iragazkiak jartzeko.

Mundu itunaren 10 printzipioak

Giza Eskubideak

- 1.a Giza eskubideen babesa lagundu errespetatzea.
- 2.a Eskubideen inguruko gehiegikerien konplizea ez izatea.

Lan-eremua

- 3.a Elkartzeko askatasunaren eta sindikatuen askatasunaren printzipioak babestea, bai eta negozioazio kolektiborako eskubidea ere.
- 4.a Nahitaezko eta derrigorrezko lana desagerraraztea.
- 5.a Haurren lanaren mota oro abolitzea.
- 6.a Enpleguaren eta okupazioaren arloko diskriminazioa desagerraraztea.

Ingurumena

- 7.a Ingurumenaren aldeko prebentzio-ikuspegi bat edukitzea.
- 8.a Ingurumenaren arloko erantzukizun handiagoa sustatzen duten ekimenak bultzatzea.
- 9.a Ingurumenarekiko errespetua duten teknologien garapena eta hedapena erraztea.

Ustelkeriaren aurkako jarduna

- 10.a Enpresek eta erakundeek ustelkeriaren mota guztien aurka lan egin beharko dute, estortsioa eta eroskeria barne.

2006. Inbertsio arduratsuaren printzipioak (PRI)

PRIen ekimena, Nazio Batuek babestu dutena, mundu mailako katalizatzaile nagusia izan da, gizartearekiko arduratsua den

inbertsioaren irizpideak ezartzeari dagokionez, erabaki finantzarioak hartzerakoan, eta lagungarri gertatu da GAIari buruzko ebaluazio-adierazle eta -metodologiak garatzeko.

PRI terminoa erabiltzen da publikoki inbertsio arduratsuaren 6 printzipioak betetzeko konpromisoa adierazi duten inbertitzaileen nazioarteko sarea aipatzeko. Inbertitzaile horiek elkarrekin lan egiten dute sistema finantzario orokor jasangarri bat lortzeko, haiek ezartzeko printzipioak eta lankidetzak bultzatuz, eta gobernantza egokia, integritatea eta gardentasuna sustatuz.

Inbertsio arduratsuaren 6 printzipio horiek honako hauek hartzen dituzte kontuan: inbertitzaileen epe luzeko interesak, merkatu finantzarioak, ekonomia, ingurumena eta gizartea, oro har. Honako hauek dira:

1. IGG gaiak sartzeko inbertsioaren eta erabakiak hartzeko prozesuen analisisan.
2. IGG gaiak sartzeko jabetzaren arloko jardunbide eta politiketan
3. IGG gaien zabalkunde gardena bilatzea inbertitzen den erakundeetan.
4. Inbertsioaren industriako printzipioen onarpena eta aplikazioa sustatzea.
5. Elkarrekin lan egiteko printzipioen ezarpenean eraginkortasuna handitzeko.
6. Printzipioak aplikatzeko jarduerari eta aurrerabideari buruz informatzea.

2015. Klima-aldaketari buruzko Parisko Akordioa (COP21)

Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta karbono gutxiko etorkizun jasangarri baterako behar den inbertsioa azkartzeko 196 herrialdek lortutako akordio historikoa da.

Akordioaren helburu nagusia da munduko batez besteko tenperatura 2°C-tik behera mantentzea, maila aurreindustrialetatik gora, eta ahaleginak egitea tenperaturaren igoerari 1,5°C-ko muga jartzeko.

Aldi berean, bilatzen da klima-aldaketari egokitzeko gaitasuna handitzea eta merkatu finantzarioa lerrokatzea karbono gutxiko ekonomia bateranzko trantsizio-prozesuarekin.

2015. Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)

GJHek neurriak hartzen dituzte enpresen sektorea, sektore pribatua eta sektore finantzarioa integrazteko 17 helburu betetzeko bidean; helburu horiek 169 helmugatan banatuta daude, zeinak garapen jasangarriarekin konektatuta baitaude: hazkunde ekonomikoa, ingurumenaren babesa eta gizartean barne hartzea, besteak beste. GJHek GAIrako jarduketa-esparru bat ematen dute, zeren arazo batzuk finkatzen baitituzte, eta arazo horien konponbiderako funtsezkoa baita inbertitzaileen ekarpena.



GJHek dei bat egiten diete mundu osoko enpresei garapen jasangarria susta dezaten egiten dituzten ekarpenen, garatzen dituzten konponbideen eta hautatzen dituzten jardunbideen bitartez. Hartara, helburuek garapen jasangarrirako lengoia unibertsal bat ematen dute, eta enpresentzako eta inbertitzaileentzako lengoia komuna sortzen laguntzen dute: enpresak bultzatzen dituzte beren eragin negatiboak gutxitzera eta, aldi berean, garapen jasangarriaren agendarekiko beren ekarpen positiboa hobetzen dute.

2018. Europako Batzordearen Finantza Jasangarrien arloko Ekintza Plana

Ekintza plan horren helburua da finantzen eginkizuna indartzea Parisko Akordioaren xedeekin eta GJHetan oinarritutako garapen jasangarria lortzeko Europar Batasunaren agendarekin lerrokatutako ekonomia baten garapenean.

Ekintza plana erregulazio-ekimen bat da, Finantza Jasangarriei buruzko Goi Mailako Adituen Taldeak emandako gomendioetan oinarritua; izan ere, gomendio horien helburua da kapital-fluxuak ekonomia jasangarriago baterantz bideratzea, arriskuen kudeaketan jasangarritasuna integratzea eta sektore finantzarioan gardentasuna eta epe luzeko jarduna sustatzea. Horretarako, 10 ekintza zerrendatzen ditu, sistema finantzarioaren berariazko sektoreetara zuzenduak.

Kapital-fluxuak berrorientatzea ekonomia jasangarriago baterantz:

1. Ekintza: Europar Batasunaren sailkapen sistema bat —Taxonomia— bat egitea jarduera jasangarrietarako.
2. Ekintza: Arauak eta etiketak sortzea produktu finantzario berdeetarako.
3. Ekintza: Proiektu jasangarrien arloko inbertsioa sustatzea.
4. Ekintza: Jasangarritasuna jasotzea aholku finantzarioa eskaintzerakoan.
5. Ekintza: Jasangarritasun-erreferentziako parametroak egitea.

Arriskuen kudeaketan jasangarritasuna integratzea:

6. Ekintza: Jasangarritasuna hobeki integratzea kreditu-sailkapenetan eta merkatuko azterlanetan.
7. Ekintza: Inbertitzaile instituzionalen eta aktiboen kudeatzaileen betebeharrak argitzea.
8. Ekintza: Jasangarritasuna jasotzea bankuen eta aseguru-etxeen zuhurtasunezko baldintzetan.

Gardentasuna eta epe luzeko jarduna sustatzea:

9. Ekintza: Jasangarritasunari eta kontabilitate-arauak egiteari buruzko informazioaren zabalkundea sendotzea.
10. Ekintza: Gobernu korporatibo indartsu bat sustatzea epe laburreko jarduna gutxitzea kapital-merkatuetan.

Inbertsio-zorrotik karbonoa kentzea

Datozen hamarkadetakako erronka handienetako bat izango da merkatu finantzarioa lerrokatzea karbono gutxiko ekonomia bateranzko trantsizio-prozesuarekin. Kudeatzaileek gai izan beharko dute energia-aktiboak bideratzeko karbono-dioxidoko sorreran inpakturik gabeko edo inpaktu ahal den txikieneko teknologietara.

Helburu horrekin, nazioarteko hainbat ekimen eta araudik bultzatu dute aktiboen kudeatzaile askok konpromisoa har dezatela beren jaulkipenak neurtzeko, argitaratzeko eta ahal den guztian gutxitzeko, zorrotik karbonodun jarduerak kenduz. Honako hauek aipa daitezke:

- CDP (lehen Carbon Disclosure Project): zabalkundeko sistema orokor bat eskaintzen du, zeinak aukera ematen baitu enpresek, hiriek, estatuak eta erregioek ingurumenean duten inpaktua neurtu eta kudea dezaten.
- Montrealgo Akordioa, 2014an PRIk abiatua. Hartan sinatzaileek konpromisoa hartu dute beren zorrotako karbono-aztarna urtero neurtu eta argitaratzeko.
- Frantziako Trantsizio Energetikoko Legea, zeinak 500 milioi eurotik gorako kudeatzaileak behartzen baititu urteko txosten bat argitaratzera beren zorrotan presente dauden berotegi-efektuko jaulkipenenei buruz.

Hiru ikuspegi nagusi daude zorro bat deskarbonizatzeko:

- CO₂ jaulkipen handienak dituzten sektoreak kanpo uztea: utilities deitutakoak, materialak, energia eta ikatza. Estrategiarik errazena da. Alde txar nagusia da zorroaren dibertsifikazioa gutxitzen duela eta arrisku finantzarioaren maila handitu dezakeela.
- “Karbono gutxiko” deitutako adierazle pasiboetan inbertitzea. Adierazle horien helburua da CO₂ jaulkipenak erdira gutxitzea erreferentzia puntu bat hartuta. Horretarako, jaulkipen handiak dituzten enpresak baztertzeko dira eta tokia egiten zaie jaulkipen txikiak dituztenei.

- Ingurumenaren arloko sektoreko liderrak hautatzea, energia berriztagarrien erabilera handiago baten aldeko ahaleginak egiten dituzten enpresak bilatuz, energiaren ikuspuntutik efizienteak direnak; halaber, enpresa horiek energia berriztagarriaren ekoizpen katean parte hartzen duten enpresak sustatuko dituzte.

Konklusioak

Azken urte hauetan Gizartearekiko Arduratsua den Inbertsioak aurrea egin badu ere, bai bolumenean, bai erabilitako estrategien kalitatean, bide luzea dago ibiltzeko. Jasangarria zer den argi definiturik ez egoteak, heterogeneotasunak eta IGGaren balorazioan erabilitako metodo, irizpide edo datuak direla-eta gardentasuna falta izateak nahasmena sorten dute. Esparru horretan, badirudi Europako Batzordearen Ekintza Plana, bere ekintzen bitartez, lagungarri gerta daitekeela sektorea homogeneizatu eta estandarizatzeko, hain zuzen ere jarraibide batzuk sortuz inbertitzaileak bermeak izan ditzan inbertsioaren xede den produktua egiazki Gizartearekiko Arduratsua den Inbertsioa izateari buruz, marketin hutsa izan beharrean.

Iratxe Castaño Markiegi and.
Geroa Pentsioak, Enpleguko BGAEko GAI arduraduna

Erreferentziak

- Eurosif. “European SRI Study 2016. 2017.
- Eurosif. “European SRI Study 2018. 2019.
- Funds People.” Inversión sostenible. Historia, Desafíos y 10 Casos Prácticos de ISR”. 2019.
- Friede, Gunnar and Busch, Timo and Bassen, Alexander, ESG and Financial Performance: Aggregated Evidence from More than 2000 Empirical Studies (October 22, 2015). Journal of Sustainable Finance & Investment, Volume 5, Issue 4, p. 210-233, 2015, DOI: 10.1080/20430795.2015.1118917.
- Global Sustainable Investment Alliance “Global Sustainable Review 2018”. 2019.
- <http://www.cop21paris.org/>
- <https://www.cdp.net>
- https://ec.europa.eu/info/business-economy-euro/banking-and-finance/sustainable-finance_es#action-plan
- https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:52018DC0097&from=EN_blank.
- <https://www.pactomundial.org>
- Robeco and Booz & Company. “Responsible Investing: A Paradigm Shift –From Niche to Mainstream”. 2009.
- Spainsif. “Estudio 2016: La inversión sostenible y responsable en España”. 2017.
- Spainsif. “Estudio 2018: La inversión sostenible y responsable en España”. 2019.

9. Kapituluia

Inbertsio alternatiboak

Inbertsio alternatiboak aktibo finantzarioen hiru talde handietako batean sartzen ez direnak dira: bonuak, akzioak eta moneta-aktiboak. Aktibo alternatibo horiek aukera ematen dute zorroaren arriskua dibertsifikazioaren bidez gutxitzeko eta errentagarritasun gehigarri bat lortzeko likideziaz ezaren sari moduan. Aktibo finantzarioen errendimenduen erortzearen ondorioz, aktibo tradizionaletatik aktibo alternatiboetara aldatzea gertatzen ari da pixkanaka. Aktibo errealak (higiezinak, azpiegiturak, baso- eta nekazaritza-baliabideak), Hedge Funds deitutakoak (Global Macro, Event Driven, Relative Value eta Equity), Lehengaiak (energia, metalak, nekazaritzakoak) eta Private Equity izenekoak (Buyout, Arrisku Kapitala).

Euskal BGAEek inbertsio alternatiboak erabiltzea lagungarri gerta daiteke ingurune hurbilena garatzeko, aberastasuna eta lanpostuak sortuz edo erkidegoaren etorkizun ekonomikorako garrantzi bizikoak diren azpiegiturak garatuz.

- Zer dira guretzat inbertsio alternatiboak.
- Zergatik inbertitu aktibo alternatiboetan.
- Aktibo errealak.
- Hedge Funds.
- Lehengaiak.
- Private Equity (Kapital pribatua).
- Inbertsio alternatiboak eta Euskadi.

Zer dira guretzat inbertsio alternatiboak?

Inbertsio alternatiboei buruzko definizio argirik eta behin betikorik ez dago. Izan ere, definizioetan adostasun handiena lortzen duena, eskusio bidez egindako bat da: inbertsio alternatiboak dira tradizionalak ez diren inbertsioak. Horrenbestez, hizketagai izango genituzke finantza-aktibo tradizionalen hiru talde handietako bakarrean ere sartzen ez diren inbertsioak: errenta finkoa, errenta aldakorra eta moneta-aktiboak.

Honako hauek dira aktibo alternatiboen mota nagusiak: aktibo errealak, Hedge Funds deitutakoak, lehengaiak eta Private Equity izenekoak.


Honako hauek dira aktibo bat alternatibotzat hartzera eraman gaitzaketen ezaugarriak:

- Inbertsioaren errendimenduak azpiko aktiboen esposiziotik datoz, zeinetan eskudiruaren fluxuak ez baitatoz bat akzio eta bonu tradizionalak sortzen dituztenekin.
- Errendimendua dator palankatzerako erabiltzen diren estrategia konplexuetatik, laburreko salmentetatik edo deribatuen erabilerarik, eta estrategia horiek ohiz kanpoko arrisku-esposizioak dakartzate, nahiz eta azpiko aktiboa tradizionala izan.

Normalean epe luzeko inbertsioak dira, likidezia gutxikoak; beraz, ez dira egokiak inbertitzaile-mota guztientzat. Pentsa dezagun, esate baterako, Private Equity funtsetan, zeinetan inbertitzailea inbertsioaren pean baitago 10 edo 12 urtez. BGAEen kasuan, hori ez da ezinbestez arazo bat, zeren eta haien denbora-horizontea epe luzekoa baita eta aukera ematen baitie aktibo-mota horretarako sarbidea izateko, likideziazik ezaren ondoriozko errentagarritasun-primaren bila, zeina, teorikoki behinik behin, beraiek ordaindu behar baitute.

Zergatik inbertitu aktibo alternatiboetan?


Aktibo alternatiboek aukera ematen dute zorroko arriskua dibertsifikazioaren bidez gutxitzeko. Horretaz gainera, aukera ematen dute errentagarritasun hobetua lortzeko inbertsioen eta estrategien multzo zabalago baterako sarbidearen bitartez, zeren eta kudeatzaileek askatasun handiagoa baitute (palankatzea, laburreko salmentak, inbertitzaileari likidezia eman behar izatearen ondoriozko baldintzatze txikiagoa...). Baina, batez ere, inbertsio alternatiboen gorakada gertatzen ari da errenta finkoko errendimenduak eta, oro har, aktibo finantzario guztiak, gainbehera daudelako; horrek, izan ere, diru-sarreraren eta errentagarritasunaren iturrien beharra eragiten du. Espainiako Estatuko 10 urterako bonu batek 2007an % 4,0 eta % 4,5 bitarteko errendimendua eskaintzen zuen; 2019ko martxoan, ordea, % 1era jaitsi da etekin hori. Hartara, errenta aldakorrerako % 4,5eko arrisku-prima batekin, errenta finkoko % 70 eta errenta aldakorreko % 30 dituen zorro batek 2007an % 5,35eko errentagarritasun-itxaropena zuen; 2019an, ordea, itxaropen hori % 2,35era jaitsi da, hau da, urteko % 3 gutxiago arrisku-maila berarekin.



Kontua da pentsio-funtsek beren ondarearen zati gero eta handiagoa eskaintzen dietela inbertsio alternatiboek. Willis Tower Watsonen “Global Pension Assets Study 2018” azterlanaren arabera, pentsio-

bolumenaren arabera munduko 7 herrialde handienak direnen pentsio-funtsen zorroetan aktibo alternatiboek duten pisua duela 20 urte % 7 izatetik gaur egun % 26 izatera pasatu da. Datu hori kontrastean dago Espainiako pentsio-funtsek inbertsio-mota horri dedikatzen dioten % 5-6arekin.

2018ko aktiboen esleipena



Iturria: Willis Tower Watson, Thinking Ahead Institute.

Gure ingurunean haien ezarpena beranduago iritsi bada ere, pentsatzekoa da aktibo-mota horrek BGAEen zorroetan izango duen pisua pixkanaka handitzen joango dela datozen urteetan. Horretatik datoz BGAE horien bazkideak eta gobernu-organoak aktibo-mota horiek ezagutzen joateko beharra eta haien funtzionamendua, ezaugarriak eta arriskuak ulertzeko beharra.

Aktibo errealak

Aktibo ez-finantzarioak dira.

- Lurzorua: hirigintzaren ikuspuntutik garatu gabeko lurzorua, hirikoa, merkataritzakoa zein industrialak izan.

- Nekazaritza eta basozaintza baliabideak: nekazaritza-produktuen uztetarako, abereen elikadurarako edo zuraren produkziarako erabilitako lurzorua. Bi arrisku-mota dauzka: zoruaren prezioaren aldaketa eta ekoizten diren nekazaritzako edo basozaintzako produktuen prezioaren aldaketa. Normalean, inflazioaren aurkako babes on bat izaten dira, zeren eta diru-sarrera lotuta baitago lehengaien prezioarekin, eta korrelazio positiboa baitute inflazioarekin.
- Azpiegiturak: gizarte batek funtziona dezan beharrezkoak diren funtsezko zerbitzuak ematen dituzten instalazioak dira; esate baterako, aireportuak, sare elektrikoak, autobideak eta abar. Hona hemen azpiegituren ezaugarriak:
 - Aktibo fisiko handiak. Askotan monopolio naturalak dira, sarrerako barrera handiak dituztenak.
 - Epe oso luzeko aktiboak dira.
 - Kutzako fluxu aurreikusgarri, egonkor eta epe luzekoak dituzte.
 - Krisietan nolabaiteko babesa dute, zeren eta funtsezko zerbitzuak baitira.
 - Prezio arautuak dituzte, eta askotan inflazioari lotuak.
 - Errendimenduak ez daude erlazionaturik.

Azpiegiturak hainbat motatakoak izan daitezke:

- Garraioa: autobideak, portuak, aireportuak, tunelak, trenbideak eta abar.
- Energia: gasa eta elektrizitatea banatzeko sareak, fuel-biltegiak, uraren tratamendua eta kanalizazioa, eta abar.
- Komunikazioak: datu-transmisiorako dorreak, kable-sarea eta abar.
- Soziala: hezkuntzako, kiroleko, aisiako, hondakinen tratamendurako eta abarretarako instalazioak.

Azpiegiturak direla-eta erabiltzen den beste sailkapen batek haiek honako hauetan banatzen ditu:

- Greenfield: azpiegiturak zerotik hasita eraikitzea edo azpiegituren aktibo berriak garatzea dakarten proiektuak dira, eta horien

arrakasta eta sor dezaketen errendimendua direla-eta ziurgabetasun-maila handia dago, zeren eta eskaeraren eta eskuragarritasunaren arriskua ere hartzen baita. Adibidez, autobide berri baten eraikuntza eta ustiaketa.

- Yellowfield: lehendik dagoen aktibo batean konponketa edo lehengoratzeko handien jarduketetan egindako inbertsioak dira. Halakoetan, arriskuak greenfield proiektuetan baino zeharrituago daude. Adibide bat izan daiteke lehendik dagoen eta ustiatzeko ari den autobidea batean hirugarren erreia egitea.
- Brownfield: lehendik dagoen eta cash flow ezaguna duen azpiegitura-aktibo baten ustiaketa dakarten proiektuak dira. Inbertsio horiek arrisku apalagoa dute. Adibidez: bidesaria duen autobide heldu bat erostea.
- Higiezinak: Azpiegiturekin gertatzen den bezala, inbertitzaile askok higiezin-aktibo ez-likidoetan inbertitzen dute dibertsifikazioa ekartzen dutelako, zorro baten errentagarritasun-arriskua binomioa hobetzen laguntzen dutelako, denboran kutxa-fluxu egonkorrak sor ditzaketelako (adibidez, errenten/alokairuen kobrantzak) eta inflazioaren aurka babesgarriak direlako.

Higiezinaren merkatua produktu finantzario tradizionalen merkatutik bereizten da alderdi askotan: merkatu zentralizaturik ez dago; haien transakzioei eta transakzio-prezioei buruzko informazio publiko eta gardenik ez dago; produktuak ez dira homogeneoak (higiezinak bakarrak dira beren ezaugarriei eta kokapenari dagokienez); produktuaren eskaintza finkoa da (gutxienez ere, epe laburrean) eta transakzioak konplexuak dira, akordio luze eta kostu handikoekin (lege-, hirigintza- eta zerga-alderdiak, besteak beste).

Aktibo finantzarioen motak:

- Motaren arabera: industrial-logistikoa, bulegoak, merkataritzakoa, etxebizitzetakoak, hotelak eta gizarte arlokoa.
- Kokapenaren arabera: lehen mailako merkatuen kategoria eman ohi zaie (5 MM biztanle baino gehiago edo/eta higiezin-jarduerak)

handia) edo bigarren mailakoa (biztanleria edo/eta jarduera moderatua) edo hirugarren mailakoa (biztanleria mugatua edo/eta jarduera mugatua).

- Estiloa:

- Core: kokaleku onenetan dauden higiezinetan egindako ondare-inbertsioak, epe luzeko kontratuekin eta kaudimena duten maizterrekin. Helburua da epe luzean errenta seguru eta errepikakorrak izatea.
- Balio erantsia: azpierzarabilta, hutsik edo zaharkiturik dagoen aktibo bati, erreforma, zaharberritzea edo birmerkaturatzea erabiliz, balioa gehitu nahi dioten inbertsioak dira.
- Oportunista: errendimendu handiak lortzea bilatzen duten estrategiak dira; esate baterako, landa-lurzoruak edo garapen bidean daudenak erosiz, erabilerak aldatuz, gorabidean dauden merkatuetan eragiketak eginez...

Higiezinetan inbertitzeko moduak:

- Zuzenekoa: aktiboaren gaineko kontrol zuzenaren alde ona du. Aitzitik, alde txar gisa likideziazirik eza eta zorro dibertsifikatu bat lortzeko ezintasuna ditu, inbertitzailea oso handia ez bada.
- Zeharkakoa:
 - kotizatua: kapital-arrisku erako bitartekoak, higiezinetan inbertitzen dutenak.
 - kotizatua: bitarteko kotizatuen bidezkoak; esate baterako, Erresuma Batuko REITak edo Espainiako SOCIMIak.

Hedge Funds

Tradizionalek ez bezala, inbertsio-politika malguagoak dituzten inbertsio-funtsak dira, palankatzea erabil dezaketenak edo/eta

epe laburreko salmentak egin ditzaketenak edo/eta arriskuarekiko esposizioa azkar alda dezaketenak. Normalean, aktibo kotizatueta operatzen dute, hala nola akzio, bonu, dibisa, lehengai edo deribatuetan. Merkatuaren edozein inguruetan, goranzkoetan zein beheranzkoetan, errentagarritasuna sortu nahi duten estrategia desberdinak erabiltzen dituzte; hau da, funts tradizionalena ez den errentagarritasun/arriskua binomioa erabiltzen dute. Teorian, bonuekiko edo errenta aldakorrarekiko korrelazioa txikia da, baina hori aplikatutako estrategien araberakoa da.

Hedge funds deitutakoen kudeatzaileak ahaleginak egiten dituzte errentagarritasunak lortzeko gainerako inbertitzaileen artean hain erabiliak ez diren arlo edo estrategietan, edo merkatuko efizientziarik ezak ustiatzen saiatzen dira.

Hedge fund-en lau kategoria handi daude: Macro y Managed Futures, Event Driven, Relative Value eta Equity Hedge.

Macro eta Managed Futures Hedge Funda

Beren ikuspegi makroekonomikoaren arabera inbertitzen dute. Normalean, posizio luzeak (erosleak) edo laburrak (saltzaileak) hartzen dituzte, eta ahaleginak egiten dituzte aktibo-mota desberdinen arteko diru-fluxuen aldatetei aurrea hartzeko. Akzio, bonu, dibisa, interestasa edo lehengaiekin operatzen dute, eta horretarako produktu deribatu, kotizatu eta likidoak erabiltzen dituzte. Honako hau da bi azpikategorien arteko aldea:

- Funts makroek joera dute diskrezionalagoak izateko; joerei aurrea hartzen ahalegintzen dira; kontzentratuak dira eta funtsezko analisia erabiltzen dute (adibidez, banku zentralek egingo dutenaren analisia eginez, eta analizatuz, halaber, jarduketa horrek nolako eragina izango duten dibisen eta bonuen kotizazioetan).
- “Managed futures” erako funtsek joera dute sistematikoagoak, erreaktiboak eta dibertsifikatuak izateko, eta analisi teknikoa erabiltzen dute (normalean, trading sistema matematiko propioak erabiliz, zeinak ahalegintzen baitira merkatuko joerak detektatzen datu eta patroik historikoetan oinarrituta).

Event Driven Hedge Funds

Datozen hilabeteetan aldaketa handiak —esate baterako, erosketa, bat-egitea, eszisia edo hondoa jotzea bezalako gertakizunen ondorioz— izatea espero diren enpresetan inbertitzen dute.

Honako hauek dira horrelako funts-motetan aurki ditzakegun azpikategoriak:

- Bat-egiteen arbitrajea: normalean posizio luze bat (eroslea) hartzen dute xedeko konpainian, eta posizio labur bat (saltzailea), berriz, erosketa-eskaintza egiten duen konpainian; hartara, ahaleginak egiten dituzte erosteko/bat egiteko eragiketa batean sarturik dauden enpresek kotizazioan erabiltzen duten prima irabazteko. Estrategia horren arriskurik handiena da operazio korporatiboa azkenean sekula ere ez gertatzea eta kasuko prima desagertzea.
- Aktibistak: ahaleginak egiten dituzte erabaki korporatiboetan eragina izateko, beren eskubide politikoez baliatuta (Akziodunen Batzar Nagusiko botoa, Kontseiluan beren presentzia ezarriz eta abar) akziodunarentzako balioa sortzeko. Adibideak: enpresak behartzea dibidendu gehiago banatzera, kudeatzaileen desioaren aurka, uste dutenean enpresa kutxa gehiegi metatzen ari dela, edo enpresaren arlo desberdinak bereiztea eta modu independentean kotizatzea proposatuz, haren ezkutuko balioa azalarazteko.
- Distressed: hondoa jota dauden edo egoera horretan egotetik hurbil dauden enpresetan inbertitzen duten funtsak dira. Errendimenduak sor ditzakete baldin eta gai badira enpresaren berroneratze-balioa hobeki ebaluatzeko merkatuaren gainerakoak baino.
- Estrategia anitzeko event driven deitutakoak: aurreko estrategietako batzuk konbinatzen dituzten funtsak dira. Ikuspegi honek daukan alde ona da askotan estrategiek, beraien artean, alderantzizko korrelazioa edukitzen dutela. Adibidez, bat-egiteen arbitraje-funtsek ongi funtzionatzen dute errenta aldakor indartsua dagoen garaietan, zeren eta orduan bat-egiteen eta eskuratzeen operazio korporatibo asko izaten baitira; “distressed” erako funtsek, ordea, hobeki funtzionatzen dute zikloa beheranzkoa denean eta enpresak arazo finantzarioak edukitzen hasten direnean.

Balio erlatiboko funtsak

Elkarrekin antzekoak edo elkarrekin erlazionatuta dauden balioen prezioen arteko elkargunea bilatuz inbertitzen dute. Normalean, merkatu-baldintza egonkorren onurak hartzen dituzten estrategiak dira, bereziki beheranzko hegakortasuna dagoenean edo kreditu-diferentzialak estutzen direnean.

- Bihurgarrien arbitrajea. Bonu bihurgarriak dira gehigarri moduan enpresaren akzioen gaineko erosketa-aukera bat dutenak. Oro har, bonu normalek baino likidezia eskasagoa dute, eta konplexuagoak dira; hori dela eta, aktiboaren azpiklase bat izaten dira, zeinean balorazio-akats gehiago sortzen baitira. Horrelako funtsen estrategia tipikoa da bonua erostea, zeren eta biltzen duen aukera minusbaloratuta baitago, eta aldi berean, konpainiaren akzioak laburrean saltzea, hartara, onura jasoz baldin eta a posteriori gauzatutako hegakortasuna handiagoa bada erosketa-aukeraren prezioan inplizituki zegoena baino.
- Hegakortasun-arbitrajea: hegakortasun inplizituen eta egindakoen arteko desberdintasunetatik probetxua ateratzea bilatzen da. Ohiko estrategia bat izaten da aukera minusbaloratuak erostea, aukera gainbaloratuak saltzea eta posizioak azpikoetan kontrakoak diren posizioekin estaltzea.
- Errenta finkoko arbitrajea: posizio luzeak (erosleak) eta laburrak (saltzaileak) hartzen dituzte Estatuko bonuetan edo bonu korporatiboetan, haien errendimendu-tasen mugimendu erlatiboetatik onura hartzeko. Horren adibide tipikoak dira tasen kurba zelaitzearen ondoriozko apustuak, epe desberdinetako tresnak erosiz tasa luzeen versus tasa laburren mugimendu erlatibotik probetxua ateratzeko. Asko erabiltzen den beste estrategia bat “carry trade” deitutakoa da, zeina honako honetan baitatza: errendimendu handiko bonuak erostea eta Estatuko bonuak saltzea, kreditu-diferentzialak egonkor mantentzearen edo estutzearen itxaropenarekin eta errendimendu handiko bonuen portaera erlatibo hobearen bidetik irabazi bat lortzeko itxaropenarekin.

Equity Funds

Posizio luzeak (erosleak) hartzen dituzte beren ustez azpibaloratuta dauden balioetan, eta posizio laburrak (saltzaileak), berriz, beren ustez gainbaloratuta dauden balioetan.

- Long short: gehienek merkatuan esposizio luzea edukitzeko joera dute; horrek esan nahi du haien posizio luzeak (erosleak) handiagoak direla haien posizio laburrak (erosleak) baino. Adibidez, bere ondarearen % 100eko posizio erosleak eta % 60ko posizio saltzaileak dituen funts bat, zeinean, azkenik, merkatuko esposizio garbia % 40koa baita. Kudeatzailearen abileziarekiko esposizio gordina % 160koa da.
- Market Neutral: ahalegina egiten dute zorroaren zati luzea eta zati laburrak antzekoak izan daitezen esposizioan/arriskuan, halako moduan non merkatuko esposizio garbia deuseza izango baita.
- Short Selling Funds: esposizio garbi negatiboa duten funtsak dira; hau da, haietan, posizio laburra (saltzaile) handiagoa da posizio luzea (eroslea) baino. Funts horiek onura har dezakete posizio laburretan posizio luzeetan baino lehiakortasun txikiagoa egoteagatik, horrek aukerak sor ditzakeelako.

Nola inbertitu hedge funds deitutakoetan?

- Estaldura-funtsen zuzeneko zorroa. Arazoa da ezen, dibertsifikazio egokia nahi bada eta funtsek eskatutako gutxieneko zenbatekoak kontuan hartuta, beharrezkoa izango litzatekeela ondare handi bat izatea zorro bat egin ahal izateko. Horretaz gainera, analisiko eta beharrezko diligentziako lanak konplexuak dira, eta baliabide asko kontsumitzen dituzte.
- Funtsen funtsa. Dibertsifikazio egokia ahalbidetzen du. Arazoa da komisioren bigarren geruza bat gehitzen dela berez jada nahiko garestiak diren produktu batzuen gainean (“hedge fund” baten komisiio tipikoa % 2koa izaten da, eta arrakasta-komisiioa % 20koa).

- Estrategia anitzeko funtsa. Funts bakarrean inbertitzean datza, zeinean kudeatzaileak estrategia guztien artean dibertsifikatzen baitu. Kostuak aurrezten ditu (funtsen funtsaren geruza ekiditen du, eta zuzeneko zorroaren edo funtsen funtsaren arrakasta-komisioak ez garbitzearen arazoa deusezta dezake). Haren alde txarra da arrisku kudeatzailea eta operatiboa izen bakarrean kontzentratzen duela.

Lehengaiak

Aktibo fisiko homogeen edo suntsikorrak dira, kopuru handitan eskura daitezkeenak eta beste ondasun edo zerbitzu batzuk ekoizteko input gisa erabil daitezkeenak.

- Soft commodities:
 - Nekazaritza-produktuak: garia, artoa, kafea, azukrea, kotoia, kakaoa, soja eta abar.
 - Abeltzaintzako produktuak.
- Hard commodities:
 - Industrialak: kobrea, beruna, zinka, aluminioa, nikela, eztainua, altzairua...
 - Bitxiak: urrea, zilarra, platinoa, paladioa.
- Energia-produktuak: Petrolio, gas naturala eta beste.
- Eraikuntzako materialak.

Lehengaien inbentario fisikoak mantentzea ez denez praktikoa banakako inbertitzaileentzat, inbertsioa oso maiz etorkizuneko bidez bideratu ohi da, hau da, erosleak eta saltzaileak lehengai baten kopuru jakin bateko operazio bat ixtea erabakitzen duten kontratuen bidez; lehengaiaren kopuru hori etorkizuneko data jakin batean entregatuko da, gaur finkatutako prezioan.

Honako hauek izan daitezke inbertsio-estrategiak:

- Estrategia pasiboak: adierazle bat jarraitu edo errepikatzean dautza:
 - Etorkizuneko saskia edo index swaps deitutakoak.
 - ETFak: errepikatze fisikoaren bidezko lehengaiekiko esposizio bat bilatzen duten funts kotizatuak; hau da, fisikoki erosten dute lehengai (normalean, modalitate hori metal preziatuetara mugatzen da) edo bide sintetikotik, deribatuak erabiliz (funtsean, etorkizunekoak).
- Estrategia aktiboak: lehengaien mugimenduen gaineko apustuak dira, “long only” izan (soilik posizio erosleak), “long short” izan (posizio erosleak eta saltzaileak, baina normalean eroslearen aldeko alborapenarekin) edo “market neutrala” izan (posizio erosleak eta garbi bihurtutako posizio saltzaileak):
 - Apustu direkzionalak: lehengai bakoitzak indizean dauzkan pisuekiko gainetik edo azpitik haztatuz.
 - Spread apustuak: etorkizuneko muga-egun desberdinen artean (esate baterako, ekainean erosi eta martxoan saldu), merkatuen artean (esate baterako, Brent petrolio erosi eta WTI petrolio saldu) edo *commoditi-en* artean (esate baterako, gasolio erosi eta petrolio gordina saldu).

Honako abantaila hauek dauzkate:

- Inflazioaren aurkako babesa. Lehengaiak prezio-indizeen osagai garrantzitsu bat dira; hori dela eta, korrelazio positibo bat badago.
- Dibertsifikazioa. Hemen eskaintzen duten abantaila apalagoa da, zeren eta, atzeraldi ekonomikoko ingurune batean, lehengaien eskaerak behera egingo baitu eta, agian, haien prezioak ere behera egingo baitu, zorroko gainerako aktibo finantzarioek bezala; hartara, dibertsifikazio eskasa eskainiko dute.
- Roll Yield: lehengaien merkatuetan espero izatekoa da haien ekoizleek salmenta-prezioak segurtatu nahi izatea eta beren

ekoizpenaren gaineko etorkizunekoak saltzea. Aitzitik, lehengaien erabiltzaileek kezka txikiagoa izaten dute lehengaien etorkizuneko prezioari buruz, eta ez dute hainbeste jotzen etorkizunekoak erostera beren burua segurtatzeko; hori dela eta, etorkizuneko eskakizuna haien eskaintza baino indar gutxiagokoa izango da. Horrek normalean “backwardation” deitu ohi den egoera eragiten du (etorkizuneko prezioak txikiagoak izatea konturako prezioak baino). Hartara, baita konturako prezioei aldaketarik gabe eusten zaienean ere, etorkizunekoetan inbertitzen duenak errendimendu bat lortuko du (roll yield), zeren eta etorkizunekoek gora egin beharko baitute muga-egunean etorkizuneko prezioen eta konturako prezioen nahitaezko elkargunera iristeko.

- Epe luzeko itzulkinak: lehengaiak mugatuak/mugagabeak dira; hazkunde ekonomiko eta demografikoak, berriz, epe luzera, eskaera jarraitu bat irudikatzen du, zeinak azkenean prezioak gorantz bultzatzen baititu. Hala eta guztiz ere, beste analista batzuek adierazten dute teknologiak produktibitatea hobetzen duela, eta horrek eragiten du lehengaiaren epe luzeko prezioek ere behera egitea (pentsa dezagun, esate baterako, duela 50 urte tona bat gari ereiteko eta biltzeko behar izaten ziren lanorduez, gaur egun behar denarekin alderatuta).

Private Equity (Kapital Pribatua)

Honako honetan datza: partaidetzak eskuratzean inbertitzean, aldi baterako eta, oro har, modu minoritarioan, Burtsan kotizatzen ez duten enpresen kapitalean. Private Equity direlakoetan inbertitzen duenaren ikuspuntutik, honako hauek dira aktibo-mota gisa dauzkan ezaugarri nagusiak: epe luzeko inbertsioa, likideziaz gabea, kutxa-fluxu irregular eta aurreikusten ezinezkoak eta beste aktiboekiko korrelazio eza.

Nola funtzionatzen du Private Equity funts batek? Private Equity baten bizitzaren aldi estandarra 10 urtekoa izan daiteke, 2 urteko luzapenarekin. Hasierako fasean, kudeatzaileak inbertitzaileen interesa jasotzen du “zenbateko konprometitua” moduan adierazitako funtsean. Konprometitutako zenbateko hori ez da hasieran ordaintzen. Behin kudeatzaileak bere estrategia garatzeko beharrezkotzat jotzen duen

guztizko bolumenera iristen denean, funtsa itxi eta hainbat urtez iraun ohi duen inbertsio-fasea hasiko da. Kudeatzaileak enpresak erosten doan neurrian, bazkideei eskatzen zaie beren konprometitutako kapitalaren zati bat jartzen joan daitezen. Nahiko ohikoa da inbertsio-aldia 5 urtekoa izatea, nahiz eta enpresaren batean gerta daiteke denbora luzeago batez luzatzen diren jarraipen-inbertsioak egotea. Azkenik, desinbertsio-fasea hasten da, eta hartan kudeatzailea zorroko enpresak saltzen eta kapital pribatuko bazkideei dirua itzultzen joaten da.

Honako hauek dira Private Equity funts baten eta errenta aldakor kotizatuko funts tradizional baten arteko alde nagusiak:

- Funts itxiak dira.
- Ez dute eguneroko likidazio-baliorik.
- Inbertitzaileak ez du zenbatekoa ordaintzen hasieran, baizik eta kudeatzaileak eskatzen dion neurrian (“capital calls”).
- Kutzako fluxuak aurreikusten ezinezkoak dira denborari eta zenbatekoari dagokienez.
- Inbertitzaileak ezin du ordaindu nahi duenean; muga-egunera arte itxaron behar du edo bigarren mailako merkatuko salmenta-eragiketa bat bilatu behar du.
- Desinbertsio-fasean, inbertitzailea ordainketak (banaketak) jasotzen joango da kudeatzailea zorroa osatzen duten enpresak likidatzen doan neurrian.
- Batzuetan, bereziki arrisku-kapitaleko funts amerikarren kasuan, ordainketa espeziean egin ahalko da (funtsak bere inbertitzaileei konpainia baten akzioak ematen dizkie, dirua eman beharrean).

Private Equity funtsen sailkapen tradizionalan bi talde handi aurkituko ditugu:

- Arrisku-kapitala
 - Enpresa gazteak, start up deitutakoak.
 - Enpresa txikiaren balioa.
 - Enpresak teknologia berriak garatzen edo aplikatzen.
 - Etekinak gutxitan edukitzen dituzten enpresak (askotan salmentarik ere ez dute izan oraindik).
 - Parte-hartze minoritarioa.
 - Ez da palankatzea erabiltzen.
- Buyout:
 - Enpresa helduak.
 - Enpresa handiaren balioa.
 - Teknologia ez du garrantzirik izaten.
 - Etekinak eta kutzako fluxu positiboak sortzen dituzten enpresak.
 - Inbertitzen den enpresaren kontrola hartzen du.
 - Banku-zorra erabiltzen da (palankatutako eragiketak).

Beste sailkapen batzuk:

- Lehenengoen funtsak: halakoetan inbertitzaileen dirua erabiltzen da funts berriak edo enpresetako zuzeneko inbertsioak erosteko.
- Bigarrenen funtsak: funts hauek erabiltzen dira beste inbertitzaile batzuek beste private equity funts batzuetan edo kotizatu gabeko enpresetako zuzeneko inbertsioetako zorroetan dauzkaten posizioak erosteko.
- Koinbertsioen funtsak: koinbertsioa inbertsio minoritario bat da, konpainia operatibo batean zuzenean egindakoa, esponsor finantzario batek edo beste private equity bateko general partnerren laguntzarekin edo harekin batera.

Inbertsio alternatiboak eta Euskadi

Euskal BGAE baten ikuspuntutik, inbertsio alternatiboak erabiltzeak dauzkan alde onetatik bat da ezen gutxienez modalitate batzuek aukera ematen dutela ingurune hurbilena garatzen laguntzeko, aberastasuna eta

lanpostuak sortuz, berrikuntzari lagunduz edo erkidegoaren etorkizun ekonomikorako garrantzi bizikoak diren azpiegiturak garatuz. Hartara, inbertsio alternatiboak modu oso eraginkor bat izan daitezke gizarteari itzultzeko bere eragile eta aurreztaileek beren erretirorako aurrezkien bitartez egiten dituzten ahaleginen zati bat.

Askotarikoak dira inbertsio-mota horien adibideak:

- Zuzeneko inbertsioa euskal enpresen ingurune sozietate kotizatu gabeen kapitalean. Gure enpresen tamaina txikia eta Burtsan kotizatutako konpainien eskasia ikusita, bide ezin hobeia izan daiteke ingurune hurbilenean inbertitzeko. Inbertsio-mota horren adibide argiak izan daitezke beren jarduera nazioartera eramateko edo inbertitzeko nahiz tamaina handitzeko laguntza behar duten enpresen kapital-zabalkuntzak (gogora dezagun tamaina txikia dela euskal enpresak ingurune globalizatu batean dauzkan arazo handienetako bat).
- Kapital-arriskuan edo “seed capital” deitutakoan inbertitzea ekintzailatza eta berrikuntza laguntzeko; izan ere, arlo horiek, bestela laguntzarik gabe geratuko lirateke, horrelako inbertsioak Euskadin aldeztuko duen ingurunea falta baita.
- Erkidegorako garrantzi bizikoak diren eta arlo publikoaren eta arlo pribatuaren arteko lankidetzarekin bazik ezin gauza daitezkeen azpiegituren finantzaketa.
- Populazioaren segmentu jakin batzuetarako beharrezkoak diren azpiegitura sozialak: ikasleentzako egoitzak, osasun zentroak, zaharrentzako egoitzak eta abarrekoak ezin izanen lirateke egin BGAE bakar batekin, aktibo finantzario tradizional eta kotizatueta inbertsioaren bitartez.

Zentzu horretan, askotarikoak dira inbertsio alternatiboko modalitate batzuek eskain ditzaketen abantailak.

Alde batetik, aukera ematen diete inbertitzen deneko enpresetan epe luzeko ikuspegi bat edukitzeko, inbertsio finantzario tradizional hutsaren epe laburreko ikuspegiaren ez bezala. Epe laburrean akziodunen

presiorik ez dagoenez, enpresek ahalegin handiagoa egin dezakete inbertsioan, eta horrek produktibitatea hobetzen laguntzen du, hartara lanpostuak sortzeko beharrezkoa den epe luzeko etorkizuneko hazkundearen oinarriak jarritz.

Bestalde, askotan balio kotizatuen kasuan gertatzen direnak baino kapital-egiturako partaidetza adierazgarriagoak izaten direnez, ikuspegi aktibistagoa dago BGAE inbertitzailearen aldetik, zeina gehiago inplikatzan baita kudeaketan akzio kotizatueta inbertsio tradizionala baino, azken horretan ikuspegia pasiboagoa eta finantzario hutsa baita. Inplikazio handiago horren bidez, halaber, lor daiteke eragin handiagoa izatea enpresetan, gizartearekiko arduratsua den inbertsioaren printzipioekin lerroka daitezela (gizarte-alderdiak, ingurumenekoak eta gobernu korporatibokoak).

Aurrekoarekin bat, BGAEek laguntza eman dezakete inbertitzen duten enpresetako gobernu korporatiboa hobetzen. Dauzkaten aukeren neurrian, inguruko enpresa kotizatu gabekoetako inbertsioekin batera, haien gobernuan ere esku hartu dezakete, jakintza, esperientzia, kontaktuak eta parte hartutakoen arteko harremanak jarritz, horien bitartez sinergiak sortu eta ezagutza partekatu ahal izateko.

Bere aldetik, Venture Capital erako inbertsioa ekintzailatza eta berrikuntza laguntzeko modu on bat da, zein角度an inbertsio-ahalegina bideratzen baita patenteak eta teknologia berriak sortzera; halakoek, izan ere, erkidegoan eragin biderkatzailea izan dezakete, zeren eta beste eragile eta enpresa batzuentzako eremu eta merkatu berriak irekitzen baitituzte.

Azken batez, inbertsio alternatiboak aukera ematen die BGAEei epe luzean itzulkin hobeak sortzeko, eta itzulkin horiek etorkizunean bazkideentzako pentsio hobeak ekarriko dituzte; aldi berean, bide on bat izan daiteke ingurune ekonomiko hurbileneko ahalegin dinamizatzailea bideratzeko, hartara Euskal Autonomia Erkidegoaren hazkundera sendoago eta jasangarriago izan dadin lagunduz.

Jon Aresti Bengoetxea jn.
Elkarkidetzan, enpleguko BGAEko inbertsioen arloko zuzendaria

Erreferentziak

- Property Portfolio Management.
- Nigel Dubben eta Sarah Sayce.
- Alternative Assets. Investments for a post crisis world.
- Guy Fraser-Sampson.
- Wiley Finance.
- Private Equity as an Asset Class. Second Edition.
- Guy Fraser-Sampson.
- Wiley Finance.
- Beyond the J Curve.
- Managing a Portfolio of Venture Capital and Private Equity Funds.
- Thomas Meyer – Pierre-Yves Mathonet.
- Wiley Finance.
- Alternative Investmentes – a Primer for Investments Professionals.
- Donald R. Chambers - Keith H. Black - Nelson J. Lacey.
- CFA Institute Research Foundation – CAIA Association.
- Barómetro de las Pensiones Privadas en España – 2019ko otsaila.
- Amundi-AXA.
- Seeking an alternative.
- Understanding and allocating to Alternative Investments.
- Blackstone – 2015eko azaroa.
- Brookfield Global Infrastructure Securities Strategy.
- Brookfield Investment Management Inc. – September 2017.
- 2013 Pan-European Private Equity Performance Benchmarks Study.
- EVCA & Thomson Reuters.
- Exploring the impact of private equity on economic growth in Europe.
- Frontiers Economic. 2013ko maiatza.
- Commodities as an asset class.
- Invesco White Paper Series.
- Portfolio Management: the tale of the mattress.
- Partners Group Research Flash – June 2013.
- Public Pension Fund Analysis - October 2014.
- Private Equity Growth Capital Council – Bison.

- Global Pension Assets Study 2019.
- Thinking Ahead Institute research.
- Willis Tower Watson.
- The Right Ingredients - Pension Fund Indicators 2016.
- UBS – july 2016.
- CAIA Level I: An introduction to core topics in Alternative Investments.
- Wiley Finance 2012.

10. Kapitulu

Bizi-zikloa aurrezkian

Espainiako pentsio-sistema publikoak banaketa-sistemaren arabera funtzionatzen du. Horrek esan nahi du enplegatuek gaur egungo erretirodunen pentsioak finantzatzen dituztela, Gizarte Segurantzaren beren ekarpenen bidez. Sistema hori oinarrituta dago belaunaldien arteko konfiantza-itun batean, zeinaren bitartez gazteek, beren kotizazioekin, ekarpena egiten baitute erretirodunen pentsioak ordaintzeko.

Hala eta guztiz ere, sistemak, krisi ekonomikoak gorabehera, ongi funtzionatu duen arren, ez da ahaztu behar nolako arriskuak dauzkan azpian; esate baterako, bizi-itxaropena handitu izana, gure biztanleria-piramidea buruz behera jarri izana (erretirodunak pixkanaka handitzen joan dira) edo azken urteetako soldaten gutxitzea (Gizarte Segurantzarako kotizazio txikiagoak).

Hori dela eta, ez da burugabea, erretiroa urrun ikusten dugunontzat, prestazio publikoen osagarriak eta independenteak izango diren diru-sarreraren beste iturri batzuk bilatzea, gaur egungo gure aurrezki-aukerei egokitzen zaizkienak, hartara erretiroaren garaian bizitzaren beharrianak estaltzeko.

Erretirorako gure aurrezkia planifikatzea zail gerta dakiguke, aldeztatik aurretik begiratuta. Halere, urrats batzuk egin daitezke plangintza finantzario zuzen bat lortzeko eta aurrezki-tresna egokiena hautatzeko, eta horiek errazago egingo dute prozesua. Artikulu honetan, horri buruzko adibide batzuk ikusiko ditugu; esate baterako, Euskadiko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak (EPSV) edo pentsio funtsak, eta, bereziki, beren inbertsio-estrategiak bizi-zikloaren ereduari, *“life cycle”* edo *“target date”*, izen anglo-saxoia erabiliz, oinarritzen dituztenak.

- Plangintza finantzarioa.
- Bizi-zikloaren teoria.
- Bizi-zikloaren etapak.
- Bizi-zikloko estrategietan oinarritutako aurrezki-sistemak.
- Bizi-zikloaren tipologia eta ereduak.
- Bizi-zikloaren ereduaren abantailak.
- Bizi-zikloari buruzko araudia.
- Konklusioak.

Plangintza finantzarioa

Erretiroa gure bizitzako mugarri garrantzitsuenetako bat da, baina, aldi berean, egoera konplexu bat izan daiteke, zeren eta lan egiteari uzten diogunean, bizitzaren eraldaketa bat gertatzen delako eta, horrek, maila pertsonal, familiar, sozial eta batez ere ekonomikoan aldaketa batzuk ekartzen dituelako, diru-sarrera gutxi-asko egonkorrak eta nolabaiteko aldizkakotasuna dutenak gutxitzean. Plangintza finantzario egoki batek aukera emango digu gure erretiroa babesteko.

Etapak horretan, kontuan eduki behar dugu pentsio publikoa, kasu gehienetan diru-sarreraren iturri nagusia izango dela eta, horrenbestez, pentsio publikoaren eta helburu dugun bizi-mailaren arteko aldea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izan beharko duela erretiro adinean eduki beharko dugun aurrezkiak. Aurrezki horiek aukera emango dute alde hori estaltzeko pentsiodun gisa bizitzen garen urte guztietan. Hau da, labur esanda, erretiroa babesteko plangintza finantzarioa prozesu bat da, zeinean pertsona bakoitzak zehazten baititu lan-bizitza amaitu ondoren jasoko dituen diru-sarrerak eta haiek lortzeko aurrera eramane beharko dituen aurrezki- eta inbertsio-erabakiak. Prozesu horrek hainbat urrats biltzen du: bizitzaren kostuen zenbatespena egitetik diru-sarreraren iturria identifikatzera bitarte; aldi berean, inplikatzeko du pertsonen bizi-estiloari buruzko erabakiak hartzea, non biziko diren, non emango duten aisia edo noiz hartu nahi duten erretiroa.

Bestalde, beste alderdi sozioekonomiko batzuk hartu behar dira kontuan; honako hauek, esate baterako:

- Erretirorako legezko adina.

Erretirora arte gelditzen zaigun denbora da erretiroaren plangintza egiten hasteko kontuan hartu beharreko lehenengo alderdietako bat. Hartara iristeko adinera arte gelditzen zaizkigun urteak dira. Logikoa denez, erretiroaren plangintza aurrez egiten hasten bagara eta goiz aurrezten hasten bagara, txikiagoa izango da urtero egin beharreko aurrezpen-ahalegina. Hartara, tarte handiagoa lortuko dugu aurrezkia erretiro-adinera arteko urteetan banatzeko. Gainera, goiz aurrezten hasteko garaian, diruaren denbora-balioa gure aldekoa izango da. Azken batean, zenbateko ahalegin-intentsitatearekin aurreztu beharko dudana ezarriko du.


Adibidez, 45 urteko langile bat urtean 1.000 euro aurrezten hasten bada eta aurrezki horien urteko batez besteko errentagarritasuna, 67 urte betetzen dituen arte, % 3koa bada, 30.536 euro metatzeari lortuko du. Aitzitik, erabaki hori 30 urte dituen unera aurreratzen badu, metatutako aurrezkia 66.174 eurokoa izango da, % 117 gehiago (bi balako baino gehiago).

- Bizi-itxaropena.

Gakoetako bat da erretiroaren plangintza egiteko, zeren eta esan nahi du erretirodun gisa zenbat urte bizitzeko itxaropena dugun. Aldagai hori honela definitzen da: jaioberri bat zenbat urte bizitzera irits daitekeen, jaiotzen den unean nagusi diren adinen araberrako heriotza-tasaren patroiek bere bizitzan zehar aldatu gabe mantentzen badira. Azken hamarkadetan bizi-itxaropena handitu izana zor zaio, zalantzarik gabe, bizi-baldintzen hobekuntzari eta osasun-laguntza biztanleria osoari zabaldu izateari, bai eta osasun- eta farmakologia-arloetako teknologia berriak garatu izanari ere. Horri dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoaren ezaugarri bat da bizi-itxaropen altua duela, eta bizi-itxaropen hori nabarmen handitu da gainera, Eustatek (Euskal Estatistika Erakundea) argitaratutako azken adierazle demografikoek erakusten duten bezala; 80,4 urte gizonetzkoen kasuan eta 86,3 urte emakumezkoen kasuan, 2017ko ekitaldiaren

itxierara arte. Zalantzarik gabe, albiste pozgarria da, baina erronka sozial eta pertsonal garrantzitsuak dauzka arlo ekonomiko eta finantzarioetan.

EAEko bizi-itxaropena jaiotzean




Iturria:EUSTAT. Adierazle demografikoak.

- Soldaten bilakaera.

Gehienetan, gizabanakoen diru-sarrera nagusia beren lanetik datozen errentak dira. Erretiroaren plangintza egiteko, kontuan hartu behar da soldatek nolako bilakaera izango duten lan-bizitzan zehar. Oro har, soldatak hazten joango dira erretirotik gutxi-asko hurbil dagoen adin jakin batera arte, eta hortik aurrera egonkortu edo are gutxitu ere egin ahalko dira. Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratutako azken datuen arabera (2018ko datuak dira), biztanleria osoa 2.180.449 pertsonena da, eta honako hau da haren lan-errentaren adin-tarteen arabeko xehakatzeara:

Urteko batez besteko irabaziaren bilakaera (€ langile bakoitzeko Adinaren arabera eta sexuaren arabera



Iturria: INE.

- **Gastuen bilakaera.**
Diru-sarrerak bezala, gastu-maila ere kontuan hartu behar da, gaur egungoa eta etorkizunekoa, zeren eta biek determinatuko baitute erretirorako erabili ahalko den aurrezkia. Zenbat eta handiago izan erretirora iritsi ondoren eduki nahi den bizi-maila, orduan eta aurrezki handiagoa metatu beharko da erretirorako. Hori guztia dela eta, gastuen zehaztapena norberaren eta familiaren egoeraren arabera izango da, bai eta erretirora iritsi ondorengo bizi-mailaren arabera ere.

Espainiako erretiroaren aurreko eta ondorengo gastu arruntenen rankinga


Principales gastos antes de la jubilación			Principales gastos una vez jubilado	
1	Vivienda	32%	Vivienda	45%
2	Ocio, cultura y turismo	18%	Alimentación y bebidas	18%
3	Transporte o comunicaciones	17%	Ocio, cultura y turismo	10%
4	Alimentación y bebidas	15%	Transporte o comunicaciones	10%
5	Vestido y calzado	6%	Salud	4%

Iturria: INE.

- **Inflazioa.**

Metatutako kapitalaren erosahaltenaren galera zehazten du. Inflazioa da normalean kontsumitzen diren ondasun eta zerbitzuen (Kontsumoko Prezioen Indizearen saskia) prezioaren urteko igoera. Aurrezkiak, erosahalmena gal ez dezaten, inflaziotik babestu behar dira, prezioen igoerak berekin baitakar haiek balioa galtzea. Horrenbestez, edozein inbertsioren helburuak izan behar du errentagarritasun nominal bat jasotzea, zeina gutxienez ere inflazioaren berdina izango baita; horrek berekin dakar errentagarritasun erreala negatiboa ez izatea.

KPI orokorraren bilakaera (%)



Iturria: INE.

- **Aurrezkien errentagarritasuna.**

Errenta finkoko aktiboek (zor publikoa, enpresa-bonuak) arrisku elkartu txikiagoa dute errenta aldakorrekoei (burtsan kotizatzen duten akzioak) baino; izan ere, azken horiek historikoki erakutsi dute hegakorragoak direla, baina epe luzean errentagarriagoak. Errenta finkoa, ordea, egonkorragoa izan ohi da, baina errentagarritasun-ahalmen txikiagoa dauka. Normalean, zenbat eta arrisku handiagoa,

orduan eta balizko irabazi handiagoak. Hori dela eta, finantza-aholkulariek gomendatzen dute inbertsioaren denbora-tartea zenbat eta handiagoa izan orduan eta arrisku handiagoa hartzea, zeren eta balizko galeren kasuan aurretik denbora gehiago baitago haiek konpentsatu ahal izateko. Horrenbestez, aurrezkietatik espero den errentagarritasuna kontratatzen diren produktuen arabera eta hartzen den arriskuaren arabera izango da. Zenbat eta handiagoa izan hartzen den arriskua, orduan eta handiagoak izan daitezke irabaziak, baina baita galerak ere. Errentagarritasuna, halaber, kontratatzen diren produktu finantzarioen komisioren edo kudeaketa-gastuen arabera izango da. Gainera, garrantzitsua da inflazioa kontuan hartzea (aurreko puntuan azaldu dugu). Izan ere, inflazioa baldin bada, ez da nahikoa izango errentagarritasun jakin bat lortzea. Azken batean, gure inbertsioetatik espero den errentagarritasuna ezartzeko garaian, bi kontzeptu hauek bereizi behar ditugu: errentagarritasun nominala eta errentagarritasun erreala. Lortutako errentagarritasuna inflazioa baino handiagoa bada, horrek esan nahi du aberastasuna termino errealean handitzen ari dela; txikiagoa bada, berriz, gure aurrezkiak erosahalmena galtzen ari dira.

- Arriskuari higuin.

Inbertsioak direla-eta onartzen den arriskua bizitzan zehar gertatzen diren aldaketen arabera aldatzen doa. Zenbat pertsona, hainbat arrisku-profil aurkituko ditugu, bakoitzak bere berezitasun eta kontuan hartu beharreko aldagaiak baitauzka. Honako hau izan liteke sailkapen erraz bat:

Ahorrador conservador	Busca preservar el capital evitando riesgos.
Ahorrador moderado	Puede incurrir en algo de riesgo buscando una rentabilidad algo superior.
Ahorrador decidido	Tiene margen de maniobra para asumir riesgos notablemente mayores a la espera de obtener rentabilidades más elevadas.

Orokortu ezin bada ere, gazte-garaietan inbertsioen profila ausartagoa izaten da, errenta aldakorreko produktu gehiagorekin; urteak betetzen joan ahala moderatzen joaten da, eta amaieran kontserbadoreagoa da. Erretiroaren aurreko urteetan, helburu nagusiak izan behar du bizitza osoan zehar metatutako aurrezkiak babestea. Arrazoi hori dela eta, garrantzitsua da aurrezkiak produktu kontserbadoreagoetara eramatea, errentagarritasun jakin bat bermatzen dutenetara, nahiz eta hori moderatuagoa izan. Hartara, saihesten da hain aldekoak edo aldakorrak ez diren merkatu finantzarioen inguruneetan galerak gertatzea metatutako aurrezkian, erretiro-adinetik hurbil dauden aldietan dirua berreskuratzekeo tarterik utzi gabe.

Baina alderdi horietaz gainera, gure pertsonaz kanpoko beste alderdi batzuk ere aintzat hartu behar ditugu; adibidez, pentsio publikoen egoera eta Gizarte Segurantzaren gure sisteman, gure herrialdeko bizi-itxaropenaren igoerari eta biztanleriaren zahartzeari aurre egiteko, egiten ari diren erreformak, sistemaren jasangarritasun finantzarioa bermatzeko helburua dutenak. Azken datu estatistikoen arabera — esate baterako, Eustatek (Euskal Estatistika Erakundea) 2018ko itxieran argitaratutakoak—, Euskal Autonomia Erkidegoko gizonezkoen zein emakumezkoen bizi-itxaropena handitu egin da, lehenengoen kasuan 80,4 urteraino eta bigarrenen kasuan 86,3 urteraino. Horrek esan nahi du gutxi gorabehera 10 urteko igoera bat gertatu dela azken 40 urteetan. Bizitza-luzera handitu izatetik datorren beste fenomeno bat mendetasun-tasa handitzearena izan da; azken horrek 65 urtetik gorakoan eta lan egiteko adinean dauden pertsonen arteko erlazioa neurtzen du. Proiekzioen arabera, 2050. urterako tasa hori honako hau izango da: lan egiteko adinean dauden 100 pertsonatatik 65 urtetik gorako 77,5 pertsona (Europako handiena). Adituen arabera, etorkizuneko pentsioek ez dute gaur egun ezagutzen dugun diru-sarreraren estaldura-maila emango, eta erretiro garaiko diru-sarrerak osatzeko modu bakarra izango da aurrezki-maila bat edukitzea, 20 urtez edo gehiagoz, erretirodun gisa biziko garen aldian, errentak sortzea bideratuko diguna.

Hala eta guztiz ere, ELGAren azken txostenaren arabera —“OCDE *Perspectivas de Pensiones 2018*”—, Espainia atzeratuta dago erretiroa prestatzeari dagokionez. Oro har, espainiarrek nolabaiteko erantzukizuna aitortzen dute erretiroa prestatzeari dagokionez eta etorkizuneko

ezustekoetarako prestatuta egoteari dagokionez; alabaina, ekintzetara pasatzea zail gertatzen zaie. Hori dela eta, erantzukizun handiagoa hartu beharra daukagu epe luzeko aurrezkiari eta pentsioei dagokienez, eta ildo horretan funtsezkoa da plangintza finantzario optimoa egitea gure bizitzako etapa desberdinetan, bai eta gure beharretarako tresna finantzario egokia hautatzea ere.

Bizi-zikloaren teoria

Bizi-zikloan zehar aurreikuspenak egiteko beharrian hori, 1985ean Ekonomiako Nobel sariduna izan zen Franco Modigliani italiar-amerikarrak enuntziatu zuen lehenengo aldiz berrogeita hamarreko hamarkadan, eta ordurako bizitzari buruzko hipotesi bat ezarri zuen, zeinaren arabera aldi aktiboan, pertsonak ekonomizatu egiten duten eta kapital bat osatzen duten, gero beren erretiroan kontsumituko dutena; horri “*Life Cycle Hypothesis of Saving*” (bizi-zikloko aurrezkien hipotesia) deitu zion, eta azaltzen du nola pertsonak saiatzen diren bizitza osoan zehar kontsumo-maila egonkorra edukitzen. Hala eta guztiz ere, gure bizitzan zehar diru-sarrerak konstanteak ez direnez, ekintza batzuk behar dira (aurrezkia, inbertsioa) kontsumoan gerta daitezkeen inpaktuak gutxitzeko. Horrenbestez, gure diru-sarrerak halako moduz banatzen ditugu non ahaleginak egiten baititugu diru-sarrera horiek handiagoak diren garaiak konpentsatzen diru-sarrera urriagoak ditugun beste batzuekin, azken horietan gure aurrezkiak kontsumitu beharrean aurkituko baikara. Horixe da erretiro-garaian gertatzen dena.

Egoera finantzario netoa bizi-zikloan zehar



Gaur egun, bizi-zikloaren aurrezkiaren teoria horrek balioa izaten jarraitzen du pertsona guztien bizi-beharrak zehazteko; halako beharrak honela sailkatzen dira: kontsumokoak, aurrezkikoak, babesekoak eta aurreikuspenekoak.

- Kontsumoko beharrak. Ondasun eta zerbitzuen erabilerarekin eta gozamenarekin lotutakoak dira. Bizitza osoan zehar, kontsumoko behar desberdinak izaten ditugu, eta behar horiek, bai eta kategorietako bakoitzerako behar ditugun bolumenak ere, bizitzako etapa desberdinetan zehar aldatzen joango dira. Hala eta guztiz ere, kontsumoko behar orokorra bizitza osoan presente dagoen konstante bat da.
- Aurrezkiko beharrak. Kontsumoaren monetaren binperra da, hau da, aurrezkia behar baten modura hartzeak berekin dakar kontsumoari buruzko erabaki bat geroratzea beranduagoko une batera arte, eta hartara aukera ematen die pertsonen kontsumoa modu homogeneoan banatzeko beren bizitzan zehar, ongizate-maila uniformeago batez goza dezaten. Horretaz gainera, aurrezkia lagungarri gertatzen da aberastasun- maila jakin bat sortu eta mantentzeko, etorkizuneko diru-sarreraren ziurgabetasun-arriskuak estaltzeko edo/eta seme-alabei legatu bat uzteko.
- Babesteko beharrak. Guran edo gure ondarearengan eragina izan dezaketen balizko arriskuen aurrean segurtasuna izatea bilatzen dutenak dira.
- Aurreikuspeneko beharrak. Zahartasun, baliaezintasun edo biziraute kasuetan beharrian ekonomikoak estaltzera bideratutakoak dira.

Artikulu honetan zehar, azken horietan zentratuko gara bereziki, hau da, aurreikuspeneko beharretan. Horretarako aintzat hartuko ditugu, berariaz, erretiro-egoera zehatz baterako aurrezkia metatzeari erreferentzia egiten diotenak. Behar horietako batzuk oinarrituta egon daitezke aldaketa demografikoetan, azterlan ugarian ikusten baita aldaketa demografikoek, azken urteetan, zuzeneko eragina izan dutela erretirorako aurreikuspen-beharretan. Beste behar batzuk etor daitezke pentsio-sistema publikoetan gertatzen diren aldaketa eta erreformatatik (esate baterako, gure pentsio-sistema publikoan eta Gizarte Segurantzian).


Adibidez, 2012tik Gizarte Segurantza erreserba-funtsa erabiltzen ari da pentsioen ordainketari aurre egiteko, eta horrek eragin du berriki, abenduaren 23ko 23/2013 Legearen bitartez, erreforma batzuk sartzea; esate baterako *jasangarritasunaren faktorea edo pentsioen errebalorizazio-indizea*. Neurri horiekin sistema epe luzean jasangarria izatea bermatu nahi da, eta horrek berekin dakar ordezkapen-tasa (pentsio publikoaren eta kotizatzailearen soldataren arteko erlazioa) pixkanaka gutxitzen joatea.

Azken batean, alderdi demografikoak edo sozioekonomikoak lagungarri gertatzen dira mendekotasun-tasa handitzeko eta, horrenbestez, pentsioen sistema publikoaren erreformarako, haren jasangarritasuna bermatze aldera. Egindako erreformak, berekin dakar, ezinbestean, ordezkapen-tasa pixkanaka gutxitzen joatea, eta, horrekin batera, bigarren eta hirugarren zutabeetako sistema osagarrien beharra.

Bizi-zikloaren etapak

Aurrez komentatutako aurreikuspen-beharra pertsona bakoitzaren bizi-zikloan zehar eboluzionatzen joaten da. Horren arrazoia da ezen, gure bizitzetako une desberdinetan, pertsonak kontsumoko, babesteko, aurrezkiko eta, jakina, aurreikuspeneko helburu desberdinak dituztela, bai eta denbora-horizonte desberdina eta arrisku-profil desberdina ere.

Horiexek dira pertsona baten bizitzan zehar bereiz ditzakegun etapa nagusiak, estali beharreko beharrian desberdinak kontuan izanda.



- Metatze-etapa.

Lehenengo enplegutik hasi eta familia bat jada osatu den helduaroko adinera arte (25 eta 35 urte arteko gazteak) hartzen duen etapa da. Kontsumorako joera handiagoa dago produktu jakin batzuetan; esate baterako, ibilgailuaren erosketan eta aisiako zerbitzuetan. Aurrezki beharrei dagokienez, nabarmendu beharra dago, batez ere etapa horren lehenengo urteetan, batez besteko diru-sarrerara onargarri batzuk dakartzan lan bat izanez gero, soldatatik aurrezkirako ehuneko erlatiboki handiena bidera daitekeela, garai horretan ez dagoelako hurrengo etapetan agertuko den familia-zamarik. Etapa horretako aurrezki-gaitasuna, halaber, lehenengo etxebizitzaren erosketan fokaliza daiteke.

Bizi-zikloaren denbora-horizontea luzea denez, arrazoizkoa izango litzateke aurrezkiak arrisku handiagoko profila edukitzea errentagarritasun handiena lortzeko. Gauzak horrela, errenta aldakorreko aurrezkiak, proportzioan, handiagoa izan beharko luke errenta finkoko aurrezkiak eta likideziak baino. Bizi-zikloaren fase horretako denbora-horizontea kontuan hartuta, interesgarria da kontzientziazioa hartzea eta erretirorako aurrezpen sistematiko bat bideratzen hastea.

- Kontsolidazio-etapa.

Helduaroko etapari dagokio, oro har pertsonak familia bat osatu duenetik erretiroa iristen denera arte hartzen duena. Urteak betetzen goazen neurrian, kontsumora bideratzen ditugun diru-sarreraren proportzioak gora egiten du, eta etapa horren helburu nagusia seme-alaben hezkuntza eta, oro har, familiaren mantentzea dira. Aurrezki kontsolida daiteke lehenengo etxebizitza eskuratzean, eta kapitaleko inbertsioak egiten jarraitzen da, baina, adinak aurrera egiten duen neurrian, oro har, arrisku apalagoko profila duten produktuetan inbertitzen da, bizi-zikloaren denbora-horizontea gero eta txikiagoa delako. Hori dela eta, bizi-zikloaren aldi horretan, pixkanaka, errenta aldakorreko inbertsioetara bideratutako ondare-proportzioak behera egiten du, eta aurrezki-inbertsioko produktuak nagusitzen hasten dira, profil mistoarekin edo/eta aurrezki bermatuarekin.

Oro har, adin ertaineko pertsona horiek, termino absolutuetan, aurreko etapan baino diru-sarrera handiagoak izaten dituzte, bai beren lanetik heldutakoak (lanbidean aurrera egin dute eta beren soldatek gora egin dute), bai beren ondareak sortutako errendimenduen ondorioz. Aurrekoa gorabehera, nabarmendu beharra dago ezen, etapa horretako lehenengo urteetan, batez besteko segmentu baterako, diru-sarrera gehienak seme-alaben hezkuntzarako eta hipotekaren amortizaziorako konprometituta daudela, arestian aipatu dugun bezala, halako moduz non soldataren zati bat aurrezki-inbertsiorako bideratzeko ahalmena txikiagoa den aurreko etapan baino.

Babes-beharrei dagokienez, etapa horretan familia-unitatearen ondare-oreka larriki kalte dezaketen gertakarien aurka aseguratzeke kezka dago; esate baterako, lagun maite baten heriotza, etxebizitzan sutea izatea, istripu bat izatea, enplegua galtzea eta abar.

Azkenik, aurreikuspen-beharrei dagokienez, etapa horretan, pertsonak erretiro-adina hurbilago ikusten hasten dira, eta horregatik interes handiagoa dute erretiroari begirako epe luzeko aurrezki-produktuak direla eta. Hala eta guztiz ere, aurrez aipatu dugun bezala, aurreikuspeneko aurrezki hori goizago hasi bada, egindako ekarpenek kapitalizazio-aldi luzeagoa edukiko dute eta, horrenbestez, aurreikuspeneko aurrezkiaren helburura iristeko behar den zenbatekoa txikiagoa izango da.

- Desmetatze-etapa.

Erretiroaren ondotik hasi ohi den etapari dagokio. Kontsumo-beharrak bizi-beharrei egokitutakoak dira, eta aisiako jardueretan eta zerbitzuen kontsumoan zentratzen dira. Oro har, pertsonak, etapa horretan, kontserbadoreago bilakatzen dira, eta aurrezkian kapitala galtzea dela-eta tolerantzia oso txikia dute, denborahorizontea laburra delako. Babes-beharrei dagokienez, interesdunak etapa honetan jada erretiroa hartuta daude, eta, horrenbestez, bilatzen dute beren aurrezki-produktuek erretiro-pentsioa osatzeko errendimenduak sortzea, errenta finkoko tresnetan edo errendimendua segurtatzen dutenetan oinarrituta. Aurretik aipatu dugun bezala, aurreikuspeneko aurrezkiak goiz hasi

bada, bizitzaren etapa honetan erretiro-pentsiorako osagarri bat eskaintzen duten kapitalizatutako errendimenduez goza daiteke, zehaztutako helburuei jarraituz.

Behin ikusita plangintza finantzarioko prozesuak nola funtzionatzen duen gure bizitzako etapa desberdinetan, ondorioa da aurrezki-sistema desberdinak behar izango ditugula denborak aurrera ahala, eta, horrenbestez, erretiro-adinera hurbildu ahala. Horren adibidea tresna finantzarioak dira, zeinak erretirorako aurrezkira orientatuta egoteaz gainera, gure bizitzako etapa desberdinei egokitzen baitzaizkie eta beren inbertsio-estrategia bizi-zikloan oinarritzen baitute.

Bizi-ziklo ko estrategietan oinarritutako aurrezki-sistemak

Gaiari ekin baino lehen, komeni da esatea asko direla beren inbertsio-estrategia bizi-zikloaren erduan oinarritzen duten aurrezki tresnak; esate baterako, inbertsio-funtsak edo pentsio-funtsak, aurrezki aseguruak eta abar. Halere, artikulua hau berariaz zuzenduta dagoenez Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) esparruan operatzen duten Borondatzeko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei (BGAE), saiatuko gara azken horietan zentratzen, eta, gainera, banakako modalitatearen pean, hartara azaltzeko nolakoa izan den bizi-zikloaren erdurantz doazen inbertsio-estrategia konbentzionalenen bilakaera.

Historikoki, erretirorako aurrezkira bideratutako tresna horietatik askok beren inbertsio-estrategiak etiketatu izan dituzte aurreztaileen arrisku-profilaren arabera; BGAE, pentsio funtsak eta abar, horren bidez aurki dezakegun aurrezki-aukeren aniztasunari erantzun bat ematen saiatzeko. Profil hori definitzen da pertsona bakoitzak bere gain hartzeko prest dagoen arriskuen eta lortu nahi dituen errendimenduen arteko erlazioaren arabera. Sailkapen estandarren arabera, hiru aukera daude: kontserbadorea, moderatua eta ausarta.

- Profil ausarta.

Arrisku-profil hau aurrezten goiz hasten diren pertsonen orientatuta dago. Helburua da inbertsioak dibertsifikatzea epe luzean errentagarritasun handiena duten aktiboen bitartez, nahiz eta epe laburrean hegakor samarrak izan.

- Profil moderatua.

Aurreztaile moderatuaren helburu nagusia da egonkortasunaren eta ondare-hazkundearen arteko oreka izatea; hori dela eta, arriskuaren aurrean tarteko esposizio bat onartzen du. Aurrezkia, nagusiki, errenta finkoko aktibotan jarriko da, eta diruaren % 35 inguru burtsara eta antzeko arriskua duten beste aktibo batzuetara bideratzen da. Garrantzi txikiagoa ematen zaie errentagarritasunaren epe laburreko gorabeherari, eta inbertsioaren horizontea epe luzean jartzen da. Oro har, erretirotik profil ausarta dutenak baino hurbilago daudenak dira.

- Profil kontserbadorea.

Helburu nagusia ondare-egonkortasuna da, baina, halaber, inflazioaren aurkako babesa bilatzen da; hori dela eta, arriskuaren aurrean esposizio txikia onartzen da. Erretirotik oso hurbil dauden aurreztaileak dira, edo erretiroan daudenak.

Estrategia konbentzional hauek aurreztaileari planteatzen dioten arazo nagusia da onar daitekeen arrisku-maila zehaztea. Arrisku desegoki batek, dela gure profila zuzen zehaztu ez dugulako, dela gure profila ezagututa produktuak harekin bat ez datozelako, ezusteko bat baino gehiago ekar diezaguke. Bestetik, gure profila aldeztu aurretik ezagutzea zaila izan daiteke, zeren eta eskatzen baitu elementu subjektiboak baloratzea, eta halakoak kuantifikatzen zailak dira, eta gerta daiteke aurreztaileak berak ziurtasunez ez ezagutzea. Gainera, beste faktore batzuk badaude —esate baterako denborak aurrera egitea (denbora-horizontea), gure egoera finantzarioaren aldaketak eta gertatzen joaten zaiguna (esate baterako, burtsan esperientzia txar bat izatea)— gure profila aldatzen joatea eragiten dutenak. Hori guztia dela eta, gure arrisku-profila alda daiteke.

Puntu hori bereziki garrantzitsua da erretirorako plangintzari eta aurrezki-produktu optimoa hautatzeari begira. Izan ere, ebidentzia

horrek gutxienez bi arazo planteatzen ditu: Lehenbizi, aurreztaileek nolabaiteko apatia bat izaten dute aurrezki-erabakiak direla eta, eta horrek ekartzen du aurrezteko planak mugarik gabe geroratzea. Horri “*orainaldiaren isuria*” esaten zaio, erabakitasun faltari edo inertziari lotuta, eta horretarako baldintza izaten da pertsonak beharrian hori ez sentitzea. Aurrezteari begirako gure jokabidean eragina duen beste isuri bereizgarri bat da “*galerak izateko biguina*”; hau da, erretirorako aurrezkia estatusa galtzarekin identifikatzen dugu. Horrek guztiak erakusten du hartzen ditugun erabakiak ez direla beti izaten irizpide arrazionalen arabera, jokoan aldagai psikologikoak ere sartzen direla, eta aldagai horiek erabaketan eragina dutela.

Bigarrenik, aurreikuspeneko planen bitartez aurreztea zaila izaten da, askotan ez baitira ulertzen errazak, eta ez baitira egoten ongi profilaturik arriskua dela-eta daukagun tolerantziaren arabera. Horrek eragin dezake “*errendimenduaren pertsekuzioa*” deitu izan dena (ezagutza finantzarioko maila eskasak eta jokabideko —portaerako— aurreiritziek erabaki desegokiak hartzea eragin dezakete).

Jardunbide horrekiko kontrastean, bizi-zikloaren ereduak seinalatzen du aurreztaileak inbertsio gisa hautatzen dituen planen profila gradualki aldatu behar dela zahartu ahala, profil oldarkor batetik, gazte-garaietako profiletik, helduaroko profil moderatu batera pasatuz eta, azkenik, profil kontserbadorera, erretiro-adinera hurbildu ahala. Eredu honen funtsezko beste ezaugarri bat da estrategiarako data finko bat finkatu eta arrisku-aktiboetako parte-hartzea gutxitzen joatearena, data horretara hurbiltzen garen neurrian. Bizi-zikloko eredu honekin bila daitekeen amaierako helburua oso zabala izan daiteke; halere, estrategia oso egokia da aurrezkia bideratzeko amaierako data bat badagoenean; esate baterako, erretirorako aurrezten ari garenean. Hau da, eredu honekin pasatzen gara arrisku-profilean oinarritutako inbertsio-estrategia konbentzional batetik aurreztailearen adinean oinarritutako beste eredu batera, zeinean inbertsio-zorroaren osaera mailaz maila doituko baita erretiro-adinera arte gelditzen den inbertsio-horizontearen arabera.

Aurreztailearen ikuspuntutik, arrisku handiagoko aktiboetarako esposizio handiagoa izatea bideratzen dio lan-bizitzaren hasierako etapan, baina, aldi berean, aukera ematen dio hegakortasuna dela-eta sor

litezkeen galerak lausotzeko, erretiroaren garaia hurbiltzen den neurrian arriskuak gutxitzen joaten baitira. Abantaila da ez dela aurreztailea berrerekatze hori egiten duena, baizik eta BGAEaren kudeaketaz eta administrazioaz arduratzen dena, hartan integratuta baitago plan hau. Horrela, aurreztaileari aktiboen errendimenduarengatik balizko kezka kentzen zaizkio, eta aldaketengatik erretirora arteko aldian produktu finantzarioan gerta daitezkeen arriskuak saihesten dira; halaber, balizko kostu elkartuak gutxitzen dira —bitartekaritzarena (erosketa-salmenta) eta merkatuen likidezia arriskuarena, esate baterako—, hartara sistemaren efizientzia hobetuz eta balizko komisioak gutxitzen lagunduz.

Azken batean, eredu berri honek aukera ematen dio aurreztaileari bere arrisku-profila definitzen duten aldagaien aniztasuna bazter uzteko, aldagai bakar bati erreparatzeko: adinari. Norberaren adinaren arabera plan zehatzari atxiki ondoren, inbertsio-estrategia planeko aktibo desberdinak automatikoki birbalantzatzeko ditu, beheranzko arrisku-ibilbide batean jarritz. Helburua da aurreztaileari inbertsio-estrategia bat bermatzea, epe luzeko horizonte batekin, *inbertsio-ibilbide edo Glide Path* bat planteatuz aktibo-mota bakoitzerako, etorkizuneko makro erako ikuspegiari oinarrituta.

Bizi-zikloaren kudeaketa-eredu horri hobekien egokitu ahal zaizkion definizioetako bat inbertsio malgu eta dinamikoko estrategiarena da, zeina honako honetan baitatza: erakunde kudeatzaile/ administratzaileak kudeatutako aktiboak birbalantzatzea, helburu honekin: aktibo-mota desberdinen ehunekoak egokitzea aurreztailea erretiro-adinera hurbiltzen den neurrian, aurrez ezarritako estrategia bati jarraituz. Estrategia horri “Glide Path” edo inbertsioaren ibilbidea esaten zaio.

Kudeaketaz eta administrazioaz arduratzen diren finantza-erakundeek produktuaren arriskua eta beste estrategia konbentzional batzuen diskrezionalitatea modu progresibo eta antolatuan gutxitzeko erabiltzen duten tresna da inbertsio-estrategia hori. Ezaugarri garrantzitsuenak da, hobeki planifikatutako birbalantzatzeko bat ahalbidetzen duena, aurreztaileari eskainiko zaion bizi-zikloaren eskemaren izaera eta helburuak zehazten baititu. Inbertsio-ibilbidearen diseinu horrek aurreztailearen aldagai soziodemografikoak hartu behar ditu kontuan;

esate baterako, haren adina, soldata eta abar, eta BGAEaren edo pentsio funtsaren arabera alda daiteke. Hala eta guztiz ere, industriak, oro har, nagusiki mekanismo estandar bati erantzuten dio, 3 etapatan oinarrituta dagoen eta oso antzekoa den diseinu bat duena.

- 1. etapa- Adin goiztiarra.

Abarca aproximadamente hasta los 40 años de edad. Permite in 40 urte bete arteko aldia hartzen du, gutxi gorabehera. Aurreztaile gazteei aukera ematen die arriskuko aktiboen esposizioa handitzeko, % 90eraino. Bizi-zikloaren eskema baten arabera, arriskuko aktiboen esposizioa handiagoa da hasierako aldian, eta aukera ematen du errenta aldakorreko ehuneko hori handitzen joateko, nahi gabeko efektuak edo efektu negatiboak sortu gabe. Hala eta guztiz ere, “hazi” erako aurreikuspeneko planak sortzen joan beharra dago, aurreztaile gazteagoen kolektibo horri zuzenduak. Metatze-etaparen hasieran arriskuaren esposizio garrantzitsu bat edukitzearen abantaila da baliabide gehiago metatzeko aukera ematen duela, esperotako errendimenduen kapitalizazio-efektuaren ondorioz.

- 2. etapa – Trantsizioa.

40 urtetik hasi eta erretiro-adinera arte. Hartan, mailaz maila gutxitzen joaten da errenta aldakorrekiko esposizioa, gutxi gorabehera % 50eko asignazio bat lortu arte. Aurreztailea mantso-mantso gutxitzen doa arriskuko aktiboekiko esposizioa. Arriskuaren gutxitze marjinal horrek aukera ematen du, esate baterako, geroko merkatuaren errebotearen abantaila lortzeko, krisi-garaietan. Aitzitik, plan batetik bestera pasatzerakoan arrisku-profila errotik aldatzeak, arrisku-aktiboetan ehuneko desberdinak hartuz, eragin dezake ezen, traspasoa baino lehen muturreko gertakariak izanez gero, gerta litekeela aurreztailea sekula ez errekuuperatzea aurreko planean izan zituen galeretatik.

- 3. atala.– Erretiroa.

Etaparen helburua da inflazioaren arriskua estaltzea, eta horri dagokionez pixkanaka gutxituko du arrisku-aktiboekiko esposizioa, profil kontserbadore batera iritsi arte; azken horren ezaugarria da zorro dibertsifikatu bat duela, neurri handi batean errenta finko indexatuko tresnek, epe labur eta ertainekoek, osatua,

errendimendu egonkorren bila. Erretiro-adinean iritsiko ginateke horretara. Horrela, aurreztaileek erretiroaren ondoren galera garrantzitsu bat izateko probabilitate txikiagoa dute, eta inflaziotik gorako errendimenduak lortu ahalko dituzte, arrisku-aktiboekiko esposizio mugatuari eutsita.

Erretiro-adinaren amaierako puntu gisa definitzen dena aurreztailearen etapa aktibotzat hartzeaz gainera, BGAEak eta pentsio funtsak topa ditzakegu, zeinak, aurrez deskribatutako etapez gainera, laugarren etapa bat bilduko duten, desmetatzea edo deitu izan dena, erretiro-adinaren ondorengoa.

Bizi-zikloaren tipologia eta ereduak

Bizi-zikloaren arabera bi BGAE mota bereiz ditzakegu, beren diseinuari dagokionez.


- Lehenengoak “*target date*” deitutako plan bakar baten bueltan kudeatzen dira, eta ideia da aurreztaileak plan bakar bat izan dezan. Ez du plan hori hautatzen, besterik adierazi ezean esleitzen zaio adinaren arabera; eta, esan dugun bezala, ez du zertan planez aldatu. Plan horien beste ezaugarri bat da xedeko data baten arabera antolatzen direla, zeinean erakunde kudeatzaileak arrisku-aktiboak esleitzen baititu data horretara hurbiltzen goazen neurrian; data, bistan denez, planari atxikitako aurreztaileen kolektiborako aurreikusita dagoen erretiro-urtea da. Hori dela eta, hura osatzen dutenen kolektibo osoak gutxi gorabeherako erretiro-data bat partekatu behar du. Plan-mota hori, oro har, merkatu garatueta gehien erabiltzen dena da, eta, horrenbestez, Espainian ia finantza-erakunde guztiek eskaintzen diete beren bezeroei, besterik adierazi ezean, adinaren arabera.

“Target date” ereduaren funtzionamenduaren adibidea.

Finantza-erakundeek web-orri batzuk aztertuta “target date” ereduaren funtzionamenduari buruzko bonako adibide hau aurkitu dugu, zeinak biru plan desberdin ezartzen baititu aurreztailearentzat, besterik adierazi ezean, daukan adinaren arabera.

Aurreztaile gazteenentzat (adibidez, 1968tik aurrera jaiotakoentzat) “Plan Jubilación 2040” deitutakoa, zeinaren helburuko data 2040 baita; hau da, besterik adierazi ezean plan honen aurreztaile izango diren kolektiboak aurreikusia du erretiroa hartzea 2040. urtearen inguruan. Aktiboen hasierako osaera orokorra da (tokiko merkatuetan eta nazioartekoetan), aktibo-mota desberdinekin: errenta aldakorrek, iraupen jakin bat duten errenta finkoak, kreditu-kalitate handiko kreditua eta high yield erakoa, zorroa inflaziotik babesteko tresnak, dibisak eta abar. Ezarritako horizontea hurbiltzen den neurrian (2040. urtea), arrisku-maila profil kontserbadoreago baterantz bideratuko da, zeinean segurtasuna lehenetsiko baita errentagarritasunaren gainetik.


Banaketaren bilakaera teorikoa aktiboen arabera



Bigarren plan bat badago, “2030erako Erretiro Plana” deitutakoa, zeinak aurreikusten baitu hantan sartzea 2030aren inguruan erretiro-adinera iristen diren aurreztaileak. Aktiboen osaera, halaber, orokorra da (tokiko merkatuetan eta nazioartekoetan), aktibo-mota desberdinekin: errenta aldakorrek, iraupen jakin bat duten errenta finkoak, kreditu-kalitate handiko kreditua eta high yield erakoa, zorroa inflaziotik babesteko tresnak,


diribisak eta abar. Aurreko planarekiko aldea da kontserbadoreagoa dela eta, planak ezin izango duela errenta aldakorrean inbertitu guztizko esposizioaren % 65etik gora (inbertsio-estrategiaren hasieran). Finkatutako inbertsio-horizontera iristeko epea 5 urtetik beherakoa denean, errenta aldakorreko inbertsioa ezingo da izan guztizko esposizioaren % 30etik gorakoa.

Banaketaren bilakaera teorikoa aktiboen arabera



Eta hirugarrena “2025eko Erretiro Plana” da, zeinaren helburua baita 2025. urtea, urte horren inguruan erretiroa hartzea aurreikusten duten aurreztaileen kolektiboarentzat. Helburua da, 2025. urtean finkatutako inbertsio-horizonte batekin, aurreztaileari ematea onartutako arriskuaren araberrakoa errentagarritasun bat, munduko errenta finkoko eta errenta aldakorreko aktibotan dibertsifikatutako inbertsio baten bitartez. Denborak aurrera abala, arriskuaren profila beherantz joango da, arriskua gutxituz. Planak guztizko esposizioaren % 0 eta % 45 artean kokatu ahalko du errenta aldakorrean. Finkatutako inbertsio-horizontera iristeko epea 5 urtetik beherakoa denean, errenta aldakorreko inbertsioa guztizko esposizioaren % 30 bitartekoa izan ahalko da.

Banaketaren bilakaera teorikoa aktiboaren arabera



- Bizi-zikloko bigarren BGAE mota planen arteko “atxikipen anizkoitza” erabiltzen dutenak dira; halakoak plan multzo bat dira (gutxienez 3 plan eta gehienez 5 plan), guztiak ere BGAE berean integratuta eta arrisku-konbinazio desberdinekin, eta aktibo-mota desberdinak esleitzen dituzte aurreztailearen adina kontuan hartuta. Lehenengoak ez bezala, bizi-zikloko eredu honetan, aurrezkoa aldatzen joaten da hobekien egokitzen den planera, urteak eta etapak pasa ahala. Aldaketa automatikoa da, eta erakunde kudeatzailea da planen arteko aldaketaz arduratzen dena.

Kudeaketari dagokionez, bizi-zikloko ereduak bi taldetan bana daitezke: inbertsio aktiboko estrategia dutenak eta inbertsio pasibokoa dutenak. Estrategia pasibokoetan, inbertsioen erreferentzia merkatuko indize bat da. Adibidez, inbertsio pasiboko estrategia bat izango litzateke Espainiako Ibex 35 burtsa-indizea errepikatzea. Estrategia aktiboan, ordea, kudeatzailea/administratzailea erreferentzia-indizetik (edo benchmark) gorako errendimendu bat lortzen saiatzen da, alfa izenaz ezagutzen dena, horretarako estrategia desberdinak erabiliz. Estrategia pasiboaren abantaila nagusia da merkeagoa dela ezartzen, aldi berean, pasiboak diren azpiko elementuak erabiltzen baititu (kudeaketa-ahalmen txikiagoak eskatzen dituzte). Kudeaketa/administrazio aktiboak, ordea, eskatzen du inbertsio-gaitasun sofistikatuak eraiki daitezela, aukerako aktiboekiko, aktibo deribatuekiko eta abarreko espesioa jasoko dutenak.

Bizi-zikloaren ereduaren abantailak

Bizi-zikloaren eredu honek eskema tradizionalenak direla-eta eskaintzen dizkigun abantaila nagusiak honako hauek dira:

- Epe luzeko ikuspegia.
Helburua gainerako aurreztaileen adinekin lerrokatzen da, eta denbora-horizontea erretiroarena da; hori dela eta, epe luzeko ikuspegi batean oinarritzen da.
- Arrisku txikiagoak.
Eskema tradizionaletako arriskua deuseztatzen du, zeren eta jada ez da planen arteko aldaketarik izango (erabaki desegokiak hartzeko arriskua deuseztatzen du), eta, horrenbestez, merkatuaren likidezia-arriskua ere deuseztatzen da, tresna finantzarioen salmentaren ondorioz.
- Balizko errendimendu handiagoa.
Aukera ematen du hasierako aldian arriskuko aktiboekiko esposizioa handitzeko, eta aurreztaileari segurtatzen dio aktibo horiekiko esposizioa pixkanaka jaitsiko dela, balizko minusbalioetatik errekuperatzea eragotziko dion ezustekorik gabe. Bermatzen du J kurba irudikatzen duten tresnetatik (tresna alternatibo tipikoak) errendimenduak ateratzea.

Zenbait ikerketa akademikok aipatzen du bizi-zikloaren estrategiak hobeki babesten duela aurreztailea erretirotik hurbil gerta daitezkeen muturreko gertakarien aurrean. Adinean oinarritutako inbertsioa, non zorroaren osaera gradualki doitzen den erretirora arteko inbertsioaren horizontearen arabera, eta arriskuan oinarritutako inbertsioa konbinatzeak balio erlatiboa gehitzen dio esposizio finkoa duen asignazio bati. Hala eta guztiz ere, ahots kritiko batzuk ere badaude, zeren eta erretiroan zorro oso defentsibo batean irautea baitakar, eta hori negatiboa izan baitaiteke erretiroaren ondoren pertsona bat bizi daitezkeen garaia luzea izan daitekeelako, eta garai horretan aurreztutako ondareak errendimenduak sortzea behar baita. Are gehiago oraingoa bezalako ingurune batean, non interes-tasak txikiak baitira errenta finkoko merkatuan.

Bizi-zikloari buruzko araudia

Arestian aipatu dugun bezala, bizi-zikloan oinarritutako aurrezki-produktuak ez dira berriak. Bizi-zikloaren erdua, aurrezkiari lotuta dagoena eta, zehazkiago, erretirorako aurrezkiari, Estatu Batuetan sortu zen 90eko hamarkadan, banakako aurrezkirako alternatibagisa, pentsio-sistema publikoaren erreformaren ondoren. Ordutik, eredu hori integratu da bai BGAEtan, bai inbertsio- eta pentsio-funtsak, aurrezki-aseguruak eta abarrekoak bezalako produktuetan, eta halakoak modu jarraituan hazten joan dira, bai tamainan, bai munduko ekonomia nagusietan daukaten garrantzian ere.

Hala eta guztiz ere, arlo honetan Espainian indarrean den araudiak ez du berariazko kapitulurik garatu. Haren erregulazioa kokatuta dago pentsio-plan eta -funtsei buruzko araudi orokorraren barruan, nahiz eta arestian aipatu dugun bezala, ia erakunde finantzario guztiek jada gaur egun planak merkaturatzen dituzten bizi-zikloaren estrategia horren pean.

Horri dagokionez, ELGAk ibilbide-orri bat badauka, *“ELGAren printzipioak, pentsio-funtsak erregulatzeak”*, zeinean bete beharreko helburuak zehazten baitira, misioari eta epe luzeko helmuga horretara, erretirora, iristean lortutako emaitzei dagokienez. Bizi-zikloko pentsio-funtsak, besterik adierazi ezean, banakako sistemetarako nahiago izaten den estrategia dira. Ibilbide-orri horren babesean, ELGAko kide diren herrialde batzuek berariazko araudiak garatu dituzte bizi-zikloan oinarritutako pentsio-funts horiei buruz, eta bete beharreko eskakizunak eta ezaugarriak ezarri dituzte, hala nola aktiboen dibertsifikazioa eta birbalantzatzea, galera handien, kostu-politikaren eta abarren arriskua gutxitzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko BGAEen kasuan, aipagarriagoa da hori, zeren eta otsailaren 23ko 5/2012 Legeak indarra hartzearekin, pentsio publikoa osatzeko banakako aurrezkiko produktuen diseinua hobetzeko ELGA bezalako erakundeek (*ELGA, Pentsioetako Perspektibak*) emandako gomendioei jarraituz, konpromiso handiagoa hartu zuten bizi-zikloaren garapenarekin banakako BGAEen pentsio planetan.

Urriaren 27ko 203/2015 Dekretuan, nahitaezko gisa ezarri zen BGAEen bitartezko banakako aurrezki-sistema horretan 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sartzen ziren pertsona guztientzat, besterik adierazi ezean bizi-zikloaren eredu horren arabera sartu beharra zeukatela. Hau da, erakunde kudeatzailea/administratzailea izango da aurreztaile bakoitzari, bere adinaren arabera, plana esleitzeko ardura izango duena, erretirorako bere horizonteari hobekien egokitzen zaion bizi-zikloaren ereduaren barruan (halakotzat ulertuta 65-67 urteko adina).

Konklusioak

Aurrezkiak aukera emango du gure erosahaltenari egonkor eusteko gure bizitzako etapa desberdinetan. Hala eta guztiz ere, ez da planteatu behar kapitalaren metatze huts baten gisara, zeren eta alde zaurgarriagoa plangintza bat eta prozesuan eragiten duten funtsezko aldagaien analisi bat eskatzen duen prozesu bat baita; hona hemen aldagai horietako batzuk: denbora-horizontea (lehenago aurrezten hasten diren pertsonak aukera izango dute ahalegin txikiagoa egiteko) eta finkatutako aurrezki-helburua betetzeko norbera hartzeko prest dagoen arriskua (ez da gauza bera urrutiko erretiro baten plangintza egitea, zeinean nolabaiteko arriskua hartu ahalko baitugu).

Eta aurrezki erretiroaren osagarri gisa erabiltzen badugu, plangintza finantzarioa oraindik ere garrantzitsuagoa izango da, ingurune aldakor bati egokitu beharko baitzaio, urteetan zehar gure bizi- eta lan-baldintzak aldatuko direlako ez ezik (seme-alabak edukitzea, gaixotasunen bat izatea, langabezian geratzea, lanpostuan gora egitea...), joera demografiko orokorrekin ere eragina dutelako; izan ere, azken horiek populazioaren zahartze handiagoa erakusten dute, bizi-itxaropen luzeagoa eta gure gizartean aurreikuspenaren kulturak gero eta garrantzi handiagoa duela. Gainera, garrantzitsua da kontuan izatea pentsio publikoa, gaur egun, erretirodunen diru-sarreraren iturri nagusia dela. Hala eta guztiz ere, faktore demografiko horiek desoreka finantzario garrantzitsuak eragiten ari dira Espainiako Gizarte Segurantzaren sisteman. Adibidez, erretiro-adinean dagoen populazioaren hazkunde neurrigabeak, jardunean den populazioarekin alderatuta, defizit bat sortzen du pentsio-sisteman, enpresaburuen eta langileen ekarpenak

ez baitira aski gure zaharren pentsioak ordaintzeko. Hori dela eta, erretirora bideratutako aurrezkia izan daiteke gure bizitzako plangintza finantzarioko mugarri garrantzitsuenetako bat.

Horri dagokionez, erretirorako banakako aurrezki planak oso presente daude herrialde garatu gehienetan, aurreikuspen sozialeko sistema publikoak osatzeko helburuarekin.

Aurreikuspen-planen eta BGAEen gure ereduan, bi funtsezko aldagai daude: batetik, aurreztailearen arrisku-profilean oinarrituz etiketatutako planak (kontserbadorea, moderatua eta ausarta) —plan tradizionalak dira—. Eta bestetik, bigarren mota bat, bizi-zikloan oinarritua. Aurreikuspen-plan tradizionalak ez bezala, bizi-zikloaren eredu honek aukera ematen dio aurreztaileari arriskuko aktiboetako partaidetza mailaz maila egokitzen eta gutxitzen joateko, erretiro-adinera hurbiltzen den neurrian, planez aldatu behar izan gabe. Tresna bat aurrezkia bideratzeko izugarri egoki egiten du horrek, aurrezki horretarako amaierako data bat badagoelako. Erretirorako aurrezkiaren kasua da, esate baterako. Horrela ulertu izan dute herrialde batzuek, zeinek posible diren aukeretako baten moduan hautatu baitituzte nahitaezko ekarpeneko planak edo, halaber, gure herrialdean, Eusko Jaurlaritzak, BGAEen jarduera arautu baitu; izan ere, guztiek banakako BGAEetako bizi-zikloaren estrategian oinarritutako plan horiek egotearen nahitaezotasuna aipatu dute, bai eta estrategia hori, besterik adierazi ezean, beren bazkideei aukera moduan eskaintzeko beharra ere.

Juan María Pérez Morán jn.
Norþensión, Banakako BGAEko zuzendaria

11. Kapituluia

Inbertsioen arriskuaren kudeaketa Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeetan (BGAE) eta Inbertsio Printzipioen Adierazpena (IPA)

- Sarrera.
- Arrisku-iturriak.
- Aktibo-motak eta haien errentagarritasun historikoa.
- Inbertitzeko Printzipioen Adierazpena (IPA).

Sarrera

BGAE batean inbertitzea erabakitzeko orduan egin beharreko lehenengo galderetako bat da zenbateko arriskua hartu nahi den. Galdera garrantzitsua da, errentagarritasuna eta arriskua batera baitoaz beti: zenbat eta arrisku handiagoa hartu, orduan eta epe luzeko errentagarritasun handiagoa.

Tradizionalki, BGAEak hainbat kategoriatan banatu dira, betiere beren gain har dezaketen arriskuan oinarrituta:

- Epe laburrerako errenta finkoa: ez ditu errenta aldakorreko aktiboak barne hartzen bere eskudiruko zorroan, ezta eratorririk ere bere azpikoa errenta finkokoa ez denean. Zorroaren batez besteko iraupena bi urtekoa edo gutxiagokoa izango da.
- Epe luzerako errenta finkoa: ez ditu errenta aldakorreko aktiboak barne hartzen bere eskudiruko zorroan, ezta eratorririk ere bere

azpikoa errenta finkokoa ez denean. Zorroaren batez besteko iraupena bi urte baino gehiagokoa izango da.

- Errenta finko mistoa: zorroaren % 30 baino gutxiago izango da errenta aldakorreko aktiboetakoa.
- Errenta aldakor mistoa: zorroaren % 30 eta % 75 bitarte izango da errenta aldakorreko aktiboetakoa.
- Errenta aldakorra: zorroaren % 75 baino gehiago izango da errenta aldakorreko aktiboetakoa.

Liburuaren kapitulu honetan, kategoria horietako bakoitzak zer esan nahi duen ulertu ahal izateko behar diren kontzeptu guztiak berrikusiko ditugu, bai eta haiekin lotutako kontzeptuak ere: konturakoa, eratorriak, errenta finkoa, errenta aldakorra, iraupena...

Kategorizatze hori BGAE baten inbertsio-politikaren laburpen bat da. BGAE batek zertan inbertitu dezakeen zorroztz ezagutu ahal izateko, “Inbertsio Printzipioen Adierazpena” (IPA) jo beharra dago. Agiri horretan, inbertsio-politikaren xehetasun guztiak ezagutu ahal dira.

Agiri horrekin jakin ahal da zenbatekoa den errenta finkoko zorroaren kreditu-kalitatea, zein muga geografiko dauden inbertsiorako edo inbertsio sozialki arduratsuaren printzipioak kontuan hartu diren.

Halaber, xehetasun guztiak emango ditugu inbertsio-printzipioen adierazpen (IPA) batek tratatu beharko dituen puntuei buruz.

Beste ezer baino lehen, ordea, inbertsio-produktu desberdinak ulertu ahal izateko, ezagutu beharko ditugu bere bazkideei errentagarritasuna emateko BGAE baten kudeatzaile batek hartzen dituen arrisku finantzarioen iturri desberdinak.

Horrenbestez, honako hau izango da ikusiko dugun eskema:

- Lehenbizi, arrisku finantzarioaren iturri desberdinak ezagutuko ditugu, eta haiei lotutako arriskua kuantifikatuko dugu.

- Bigarrenik, aktibo-mota desberdinak ezagutuko ditugu, bai eta haien arrisku historikoa eta errentagarritasun historikoa ere.
- Eta, hirugarrenik, inbertsio-printzipioen adierazpen (IPA) baten xehetasunak ezagutuko ditugu.

Arrisku-iturriak

Atal honetan, merkatu-arriskuaren¹ iturri nagusiak aztertuko ditugu. Merkatu-arriskua defini daiteke esanez balore baten prezioa zehazten duten kanpoko faktoreen (kotizazioak eta abar) aldaketen ondorioz gerta daitekeen galera dela. Zehazki, dibisen, interes-tasen, kredituen, errenta aldakorren eta lehengaien arriskueta zentratuko gara.

- Dibisa-arriskua

Dibisa-arriskua truke-tasa flotatzaileen (adibidez, euroa/dolarra) aldagarritasunari dagokio, bai eta moneta finkoen debaluazio-arriskuari ere (esate baterako euroa/Suediako koroa). Honako hauek jasotzen ditu horrek: moneta zehatzaren hegakortasuna, moneten bitarteko korrelazioak eta debaluazio-arriskua.

Zer dela-eta aldatzen dira dibisen truke-tasak? Lehenbizi, bi ekonomien arteko ziklo ekonomikoan gertatzen diren aldeak. Bigarrenik, dibisen ordainsarrietan gertatzen diren aldaketak, banku zentraletako bakoitzak ezartzen dituenak; eta, azkenik, dibisen arteko fluxuak (zeinak aurreratu edo zenbatesten ezinezkoak baitira).

¹ Merkatu-arriskuaz gainera, erakunde finantzario batean beste arrisku batzuk topatu ahalko ditugu, hemen aztertuko ez ditugunak. Horien artean, honako hauek daude:

- Likidezia-arriskua: inbertsioa desegin behar izanez gero kapitala bizkor berreskuratzeko, balore baten prezioak izan dezakeen penalizazioa da.
- Eragiketa-arriskua: baloreak erosteko nahiz saltzeko aginduak transmititzean eta exekutatzean bitarteko erakundeek akatsak egiteko arriskua da.
- Eredu-arriskua: produktu konplexuetan balorazio okerra egiteko arriskua da.

Dibisa ugari gehituz gutxitu daitekeen arrisku-mota bat da, zeren eta, normalean, horien arteko mugimenduek korrelaziorik ez baitute.

- Interes-tasen arriskua

Interes-tasen denbora-egituran mugimenduren bat gertatzeko arriskua da. Interes-tasen denbora-egiturak irudikatzen du zer erlazio dagoen, une jakin batean, bonu-multzoaren errendimenduari — zeinak kaudimengabeziaren arrisku bera eduki behar baitu — eta haiek muga-egunera iristerako geratzen den denboraren artean. Hau da, konparatzen dira urtebeteren buruan muga-egunera iritsiko den bonu baten errendimendua eta ezaugarri berak dituen baina muga-eguna bi, hiru edo urte gehiagoren buruan izango duen beste bonu bat.

Epe laburreko tasak banku zentralak erabakitzen ditu, eta banku zentralak zaintzen du inflazioa aurrez zehaztutako tarte batean mantentzea. Bestetik, inbertitzaileen itxaropenak dira epe luzeko tasak mugitzen dituztenak (besteak beste, etorkizuneko epe laburreko tasenak).

Oro har, epe luzeko eta epe laburreko tasak elkarrekin mugitzen dira, nahiz eta epe laburreko tasak aldakortasun handiagoa daukan. Epe luzeko tasaren eta epe laburreko tasaren arteko aldea tasen diferentziala da. Oro har, atzeraldi-garaiak bat etorri ohi dira tasen diferentzialak gora egitearekin.

- Kredituaren spread-arriskua (diferentzial-arriskua)

Kreditu-arriskua duen bonu baten eta Altxorreko beste baten (arriskurik gabea) errendimenduak modu desberdinean mugitzeko arriskua da. Kreditu-spreadak irudikatzen du ez-ordaintzearen ondoriozko galerarengatik konpentsazio bat, gehi, agian, inbertitzaileen arriskurako biguna islatzen duen arrisku-prima bat.

Kreditu-diferentzialen arloko posizio bat ezar daiteke krediturako sentiberak diren bonuetako inbertsioen bitartez; esate baterako, korporazioak, agentziak, hipotekek bermatutako baloreak (titularizazioak) eta Altxorreko bonuetan posizio laburra edukitzea, iraupen egokiarekin.

Diferentziala handitzen bada, galera bat gertatuko da. Kreditu-diferentzialak ezin direnez negatiboak izan, haien banaketa asimetrikoa da. Tarteak oso doituta daudenean (horixe da 2019ko kasua), kreditu-spreadetako posizioak galera handiak pairatzeko esposizioa edukiko dute.

Zeri zor zaizkio kreditu-diferentzialetako aldaketak? Nagusiki, honako hauei: funtsean egoera ekonomiko orokorraren arabera mugitzen diren ez-ordaintzeen probabilitateen aldaketei, sektorearen bilakaerari, gertakari korporatiboei eta palanka-efektuan gertatutako aldaketari.

Halaber, garrantzia du berreskurapen-tasaren bilakaerak (zenbat berreskuratzen duzun norbaitek ordaintzen ez dizunean; bilakaera hori ziklo ekonomikoaren eta kreditua babesten duten aktiboen kalitatearen arabera da.

- Errenta aldakorraren arriskua.

Errenta aldakorraren arriskua sortzen da akzioen prezioaren balioan gerta daitezkeen mugimenduetatik; azken hori, oro har, etekinen proiektzioetan gertatutako aldaketen, kaudimenaren aldaketaren eta egoera makroekonomiko orokorraren arabera izaten da. Zenbat eta auresaten errazagoa izan enpresa baten etekinen proiektzioa, orduan eta txikiagoa izango da errenta aldakorraren arriskua.

Normalean, errenta aldakorraren arriskua honela deskonposatzen da: batetik, konpainiaren berariazko arriskuak (zeina akzio asko metatuz gero, diluituta gertatzen baita) eta bestetik merkatuaren arriskua (zeina ez baita desagertzen enpresa askotan inbertituta ere).

- Lehengaien arriskua.

Oinarrizko gaien kontratuen balioetan gerta daitezkeen mugimenduetatik sortzen da; gai horien artean, nekazaritza-produktuak, metalak eta energia-produktuak daude.

Lehengaien prezioetik datorren arriskua eskariaren eta eskaintzaren arabera izaten da, biltegiarazte- eta ekoizpen-tekniketako aldaketen arabera, klimatologiaren arabera eta ziklo ekonomikoaren arabera.

Aktibo-motak eta haien errentagarritasun historikoa

Aurreko atalean, existitzen diren merkatu-arriskuen mota desberdinak ikusi ditugu; kapitulu honetan, berriz, aztertuko dugu zer inbertsio-produktu edo aktibo mota existitzen diren, nolako errentagarritasuna eskaini duten iraganean eta zein arrisku agertzen diren produktuetako bakoitzean.

Honako aktibo-mota hauek aztertuko ditugu:

Aktibo-motak

ERRENTA FINKOA	Zor publikoa
	Hipoteka-zedulak
	Obligazioak eta bonuak
	Obligazio bihurgarriak
	Enpresa-ordaindukoak
	Titularizazioak
ERRENTA ALDAKORRA	
GORDAILUAK	
INBERTSIO-FUNTSAK	Higiezinetako Inbertsio-funtsak
	Kotizatuak
	Inbertsio-funts Librea
	Kapital Aldakorreko Inbertsio-sozietatea (SICAV)
PRODUKTU ERATORRIAK	Geroakoak
	Aukerak
	Swap-ak
	Warrant-ak

Kasu bakoitzean, aktibo motaren definizio labur bat ikusiko dugu, bai eta haren ezaugarri nagusiak ere.

Errenta finkoa

- Definizioa:

Balore negoziagarriak dira, enpresa pribatuek zein erakunde publikoek jaulkitzen dituztenak. Balore negoziagarria da merkatu antolatutako batean eskura daitekeen inbertsioa.

- Ezaugarriak:
Erakunde jaulkitzaileek inbertitzaileengandik jasotzen dituzten maileguak adierazten dituzte.
- Errenta finkoko ohiko produktuetan, maileguaren interesak modu zehatzean ezartzen dira jaulkipen-unetik muga-egunera arte. Gaur egun, berriz, aukera sofistikatuagoak ere badaude; esate baterako, merkatuko erreferentziako tasei lotutako interes aldakorreko kupoiak, burtsa-adierazleei lotutakoak...
- Aldizkako kupoiak sor ditzakete tituluaren bizitzan zehar, edo bukaeran ordainketa bakar bat itzul dezakete (“zero bonu kupoiak”)
- Motak:
Definizio orokor horren barruan, honako sailkapen hau erabili ohi da, errenta finakoaren tipologiaren edo jaulkitzailearen arabera:
- Zor publikoa: Estatuak, autonomia erkidegoek eta beste erakunde publiko batzuek jaulkitako baloreak dira. Oso balore likidoak izaten dira, eta kreditu-arrisku baxukoak. Epearen eta ezaugarrien arabera, estatuaren zorraren barruan altxorren letrak eta Estatuaren bonuak eta obligazioak daude.
- Hipoteka-zedulak: soilik kreditu-erakundeek jaulkitako errenta finkoko baloreak dira, oro har beren hipotekadun mailegu-zorroak babestuen; haietan, erakunde jaulkitzaileak beretzat gordetzen du jaulkipena haren bizitzan zehar partzialki nahiz osoki aldeztu aurretik amortizatzeko ahalmena, Hipoteka-merkatua arautzen duen Legean ezarritakoarekin bat.
- Enpresen obligazioak eta bonuak: enpresek jaulkitako epe ertain eta luzeko errenta finkoko baloreak dira. Haien ezaugarriak asko alda daitezke jaulkitzaile batetik bestera.
- Enpresa-ordaindukoak: deskontuarekin jaulkitako zero kupoiak errenta finkoko baloreak dira, eta, beraz, haien errentagarritasuna erosketa-prezioaren eta amortizatzeko datako balio nominalaren arteko diferentziatik lortzen da.

- Titulizazioak: titulizazioa enpresak finantzatzeko metodo bat da, eta hainbat aktibo, etorkizuneko kobratzeko eskubideak barne, hirugarren bati saltzean edo lagatzean oinarritzen da; hirugarren horrek, aldi berean, erosketa finantzatzen du, inbertsiogileen artean banatzen diren baloreak jaulkiz.
- Obligazio trukagarri edo/eta bihurtzeko: errenta finkoko jaulkipenak dira, beren jabeari eskubidea ematen diotenak haiek akzioekin trukatzeko, data jakin batean. Bihurtzeko data arte, edukitzaileak aldizkako kupoiak kobratuz jasotzen ditu interesak. Akzioak eskuratzeko bi aukera daude: trukea esaten zaio baldin eta akzio bihurtzeko jaulkitzailearen autozorroko akzio zaharrak ematen badira trukean; bihurtzea esaten zaio, berriz, akzio berriak ematen badira trukean. Akzioen prezioaren arabera direnez, inbertsio horiek errenta aldakorren nolabaiteko arriskua daukate; horrenbestez, inbertsio misto bat dira.

Errenta aldakorra

- Definizioa:

Akzioak (edo errenta aldakorra) sozietate baten kapital sozialaren zati proportzionala dira; horrenbestez, sozietatearen bazkide jabearen izaera ematen diote edukitzaileari, bakoitzak duen partaidetzaren proportzioan. Bazkide izateak eskubide batzuk ematen ditu, baina baita erantzukizunak ere.

- Ezaugarriak:

- Sozietatea likidatzeko kasuan, hartzekodunak (bonudunak edo mailegu-emailak) lehentasuna izango du bazkideen aurretik eta, horrenbestez, akzioek beti arrisku handiagoa izango dute enpresa-bonuek baino.
- Akziodunak eskubide politiko batzuk edukiko ditu, eta halako eskubideez baliatzeak konpromiso handiagoa eskatzen du sozietate-bizitzaren garapenarekiko: erabakien jarraipena, Akziodunen Batzar Nagusian parte hartzea edo botoa beste norbaiten esku uztea, eta abar.

Inbertsio-funtsak

- Definizioa:

Inbertsio-funtsak inbertsio kolektiboko erakundeak dira, eta haien emaitza indibidualak inbertsiogile-talde batek lortutako errendimenduen araberakoak izango dira. Inbertitzaile askoren inbertsioak multzotan biltzeko modurik onenetako bat da.

- Ezaugarriak:

- Funtsa nortasun juridikorik gabeko ondare bat da; hori dela eta, sozietate kudeatzaile bat badago haren aktiboak kudeatzen dituen eta administrazio- eta ordezkaritza-eginkizun guztiak betetzen dituen (komisio baten truke).
- Finantza-erakunde batek ere parte hartu behar du, funtsaren ondarearen gordailuzain gisa.
- Erakunde kudeatzaileak hainbat aktibo finantzariotan inbertitzen du BGAEak ekarritako dirua (errenta finkoan, errenta aldakorrean, eratorrietan, banku-gordailuetan...), eta horiek osatzen dute funtsaren ondarea. Aktibo horiek balore-merkatuetan duten bilakaerak erabakiko du lortzen diren emaitzak positiboak ala negatiboak diren.

- Motak:

Inbertsio-funtsen mota bat baino gehiago badago, haien ezaugarriak eta inbertsio-politikak zein diren:

- UCITS funtsak: “Collective Investment in Transferable Securities” ingelesezko siglak dira. Europar Batasuneko zuzentarau bat du aipagai. Zuzentarau horrek ezartzen du estatu kide batean helbideratuta dagoen funts bat zein baldintzatan bana daitekeen estatu kide guztietan. Etiketa hori duten funtsek inbertsioen arloko erregelamenduak badituzte, inbertitzailearen babesa areagotzen dutenak. Normalean eguneko likidezia izaten dute, baina asteko likidezia ere izan dezakete.
- Higiezinetak Inbertsio-funtsak: ondasun higiezinetan — etxebizitzak, lokalak edo aparkaleku-plazak, esate baterako— inbertitzen duten funtsak dira. Normalean likidezia oso mugatua duten funtsak izaten dira.

- Funts kotizatuak (EFTak): merkatu antolatuetan negoziatzen diren inbertsio-funtsak dira, zeinak, horrenbestez, egunean zehar erosi eta sal daitezkeen.
- Inbertsio libreko funtsak (Hedge Funds): inbertsio-politika oso zabal eta lausoa duten inbertsio-funtsak dira, zeinetan, normalean, inbertitzaile profesionalek baino ezin duten inbertitu.
- Inbertsio-sozietateak (SICAV): inbertsio-funtsen oso antzekoak dira. Alde bakarra da nortasun juridiko propioa duten sozietateak direla eta, horrenbestez, inbertsio-erabakien azken arduraduna administrazio-kontseilua dela (eta ez kudeatzailea).
- Arrisku-kapitaleko funtsak: heldutasun estadio desberdinetan (enpresa berrietatik hasi eta burtsara ateratzeko zorian dauden enpresetara bitarte) dauden enpresa ez-kotizatueta inbertitzen duten inbertsio-funtsak dira. Epe oso luzeko inbertsioak dira (normalean, 10 urte), eta likidezia eskasa dute.

Produktu eratorriak

- Definizioa:
Produktu eratorriak dira beren prezioa beste aktibo batek merkatuetan lortzen duen kotizazioaren arabera dutenak; beste aktibo horri azpikoa deitzen zaio, eta mota askotakoa izan daiteke (akzioak, akzio-saskiak, errenta finkoko baloreak, dibisak, interes-tasak, lehengaiak...).
- Ezaugarriak:
 - Agente batzuen arriskua (agente horiek saldu nahi baitute arriskua) beste batzuei (erosi nahi dutenak) aldatzeko balio dute, edo zorro edo funts baten galera-arriskua guztiz edo partzialki mugatzeko.
 - Aukera ematen dute inbertsio bati arriskua gehitzeko, hartara errentagarritasun handiagoak lortzeko.

- Palanka-efektua: zenbateko berarekin, eratorriekiko eragiketaren galera nahiz irabazi posibleak handiagoak dira azpiko aktiboekin zuzenean negoziatuz gero lortuko liratekeenak baino.
- Eratorri bat erabil daiteke estaldura bat gauzatzeko (zorroaren arrisku orokorra gutxitze aldera) edo inbertsio-helburu batekin (zorroaren arrisku orokorra areagotze aldera).
- Motak:
 - Alderdi eroslearen eta saltzailearen betebeharren edo aukeren arabera, honako eratorri-mota hauek zehatz daitezke:
 - Etorkizunekoak:
 - Etorkizunekoak merkatu antolatu batean negoziatutako kontratuak dira; halakoetan, alderdiek balore baten (azpiko aktiboaren) zenbateko zehatz bat salerostea hitzartzen dute etorkizuneko data jakin batean, eta aldeaz aurretik hitzartutako prezioan.
 - Aukerak:
 - Aukerak azpiko aktiboaren zenbateko jakin bat erosteko edo saltzeko eskubidea eskaintzen duten kontratuak dira, prezio jakin batean (ekitaldiko prezioan) eta ezarritako epean.
 - Erosleak muga-egunean saltzeko edo erosteko eskubidea du, baina ez betebeharra.
 - Aukeraren saltzailea (edo jaulkitzailea), berriz, behartuta dago erostera edo saltzera, erosleak bere eskubidea baliatu nahi izanez gero.
 - Aukeraren prezioa erosleak eskubide hori lortzeagatik ordaintzen duena da, eta prima izenez ezagutzen da.
 - Behin muga-eguna iritsita, erosleari baliatzea interesatuko zaio ala ez, eragiketarako finkatutako prezioaren (ekitaldiko prezioaren edo “strike”aren) eta azpikoak une horretan eskurako merkatuan duen prezioaren arteko diferentziaren arabera.

- Warrant-ak: aktibo (azpiko) bat erosteko edo saltzeko eskubidea ematen duten balore negoziagarriak dira, ekitaldiko prezio jakin batean. Warrant-aren erosleak azpikoa muga-egunean erosteko edo saltzeko eskubidea du, baina ez betebeharra. Normalean diferentzien arabera likidatzen da, eta bi prezioen arteko diferentzia ematen zaio edukitzaileari.
- Finantza-trukeak edo swap-ak: Finantza-trukeen kontratuetan, etorkizunean diru kopuru jakin batzuk trukatzea hitzartzen dute bi alderdik. Normalean, etorkizuneko diru-trukeak interes-tasekin erreferentziatuta daude, eta IRS izena ematen zaie (Interest Rate Swap); halere, modu generikoagoan pentsa daiteke swap bat dela etorkizuneko edozein ondasun- edo zerbitzu-elkartruke, edozein aldagai behagarriari erreferentziatuta.
- Egituratuak: errenta finkoko jaulkipenak dira, zeinen errentagarritasuna eratorri batekin lotuta baitago. Horrenbestez, egituratu baten arriskua errenta finkoko bonu baten (normalean banku batek igorria) eta kasuko eratorriaren “batura” da.

Aktibo-moten hegakortasuna eta errentagarritasun historikoa

Aktibo-mota bakoitzari buruz, jakin nahi dugu zein den balio-aldaketaren hein tipikoa, eta zein diren balorea mugiarazten duten arrazoiak. Hau da, jakin nahi dugu zenbat erori edo igo daitekeen errenta aldakorreko inbertsio bat eta zein arrazoi direla-eta igo edo jaisten den.

Arriskua neurtu nahi dugunean aurre egin behar diogun lehenengo arazoa da nola kuantifikatuko dugun. Aktibo baten arriskua neurtzeko modu erabilgarri bat da hegakortasunean oinarritzea. Hegakortasuna aktibo baten errentagarritasunen dispertsioaren neurketa da, bere batez besteko errentagarritasunarekin alderatuta. Normalean, termino portzentualetan eta urtekoetan adierazten da. Adibidez, Estatu Batuetako burtsaren hegakortasuna % +20 ingurukoa izaten da. Horrek esan nahi du Estatu Batuetako burtsaren urteko aldagarritasunaren heina urtean % +/- 20 izaten dela.

Zenbat eta zailagoa izan aktibo batek etorkizunean sortuko dituen ordainketak zenbatestea, orduan eta hegakorragoa izango da aktibo hori. Hartara, seguru baldin bagaude bonu alemaniar batek urtebeteren buruan 100 € itzuliko dizkigula, inbertsio horrek gaur egun duen prezioa gutxi aldatuko da. Alabaina, enpresa baten akzioetako inbertsioa hegakorragoa da, zailagoa delako zenbatestea enpresa horrek etorkizunean ordainduko dituen dibidenduak.

Hain hegakorrak ez diren aktiboak espero den errentagarritasun txikiagoarekin alderatu ahalko dira. Hau da, seguru baldin bazaude aktibo batek urtebeteren buruan 100 € ordainduko dizkizula, litekeena da hura 99 €-tan erostea. Baina guztiz seguru ez bazaude, orduan gutxiago ordaintzeko prest egon beharko zenuke. Horrenbestez, errentagarritasuna eta arriskua elkarren eskutik doaz.

Ondoren, aktibo-moten zerrenda bat ikusiko dugu, beren hegakortasunaren arrazoiekin, hegakortasun tipikoarekin eta kasu bakoitzaren errentagarritasunarekin batera:

Aktibo-motak	Hegakorra izateko arrazoiak	Hegakortasun tipikoa	Errentagarritasun historikoa
Kreditu-arriskurik gabeko epe laburreko zor publikoa	Epe laburreko interes-tasak Banku Zentralak finkatzen ditu. Gerta daiteke inbertitzaileak ados ez egotea etorkizuneko tasa-alaketak direla-eta, inflazio-itxaropenen, ekonomia-hazkundearen itxaropenen eta abarrekoen arabera.	% 1	% 2
Enpresen epe laburreko bonuak, kreditu-arriskua dutenak	Bonuaren jaulkitzaileak ordaintzeko probabilitateak denborarekin alda daitezke. Enpresa batek ez ordaintzeko probabilitatea egoera ekonomiko orokorraren, sektorearen bilakaeraren, gertakari korporatiboen eta palanka-efektuaren aldaketaren arabera izaten da, besteak beste. Gerta daiteke inbertitzaileak ados ez egotea faktore horietako edozeinekin, nahiz eta epe laburretan gutxi aldatuko diren.	% 3	% 3
Kreditu-arriskurik gabeko epe luzeko zor publikoa	Epe luzeko interes-tasak merkatuak finkatzen ditu, kasuko eperako Banku Zentralak epe laburrerako finkatzen dituen tasen itxaropenen arabera. Inbertitzaileen desadostasuna gehiago etorriko da 5 urteren buruan epe laburrean egongo den tasatik eta inflazio-itxaropenetatik, epe luzean ekonomiak izango duen hazkundetik baino.	% 5	% 4

Pentsioen gaur egungo egoera eta etorkizuneko gakoak

Enpresen epe luzeko bonuak, kreditu-arriskua dutenak	Bonu baten jaulkitzaileak ordaintzeko dauden probabilitateak denborarekin alda daitezke, eta bonua epe luzekoa denez, askoz ere aukera gehiago daude aldaketak egon daitezen.	% 10	% 6
Dibisak	Bi dibisen arteko truke-tasa honako hauek markatuta dator: ziklo ekonomikoko aldeak, dibisen ordaintetaren aldaketak (moneta tradizionalaren politika), moneta politika ez-konbentzionala (QE), hondamendi naturalak eta moneta-fluxuak. Inbertitzaileek iritzi oso desberdinak eduki ahalko dituzte faktore horiek etorkizunean izango duten bilakaerari buruz.	% 8	% 0
Banakako akzioa, aurreikus daitezkeen mozkinekin	Akzio baten prezioa, mozkinak direla-eta, aurreikusten diren proiektzioen itxaropenen arabera alda daiteke, bai eta talde kudeatzailearen kalitatearen eta egoera makroekonomiko orokorraren arabera ere. Enpresak errepikatzen diren mozkinak baldin badauzka, inbertitzaileek adostasun handiagoa izan ahalko dute etorkizuneko bilakaerari dagokionez, baina beti izango dute ordaintzea finkoa duten bonuek baino arrisku handiagoa.	% 15-25	% 10
Banakako akzioa, nekez aurreikus daitezkeen mozkinekin	Kasu hau aurrekoaren antzekoa da, baina nekez aurreikus daitezkeen mozkinak dituen enpresa bat denez, inbertitzaileak maizago aldatuko dira iritiz, eta hori dela-eta prezioa hegakorragoa izango da.	% 25-40	% 12
Akzioen adierazleak	Akzioen adierazle batek beti izango du arrisku txikiagoa banakako akzio batean inbertitzeak baino, zeren eta konpainia jakin baten (talde kudeatzailea, esate baterako) menpekoa den arriskua deuseztatzen baita eta soilik arrisku ez-dibertsifikagarriari eusten baitzaio (makro egoera). Horrenbestez, inbertitzaileek desadostasun-iturri izan daitezkeen gai gutxiago daukate eta hegakortasuna txikiagoa izango da.	% 15-20	% 10
Lehengaiak	Lehengaiak, diru-sarreraren iturri bat ez dutenez, birtualki baloratzen ezinezkoak dira. Inbertitzaileak prezioa dela-eta azkar alda daitezke iritiz, balioa ainguratuko duen inongo ordaintetarik ez baitago.	% 30-40	% 5



Inbertitzeko Printzipioen Adierazpena (IPA)

Inbertsio-arriskuak jada ezagutzen ditugunez, bai eta inbertitzeko aktibo-mota desberdinak ere, uler dezakegu nola funtzionatzen duen inbertitzeko printzipioen deklarazio batek.

IPA baten edukia

Euskal legediak arautzen du IPA batek landu beharreko gutxiengo edukia. Zehazki, BGAEen jardura zehatz batzuk egikaritzea arautzeko maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretua da eduki hori arautzen duena.

Dekretu horren arabera, IPA batek gutxienez ere BGAE baten inbertsio-politikaren honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Arriskuen neurketa, hau da, arriskuak nola neurtuko diren.
- Arrisku horiek kontrolatzeko ezarritako prozedurak, inbertsio-politikaren mugak barne direla. Erregulatzailerak alderdi horren barruan eskatzen diren gutxiengo baldintzak zehaztuko ditu.
- Inbertsio-estrategia (izaera, epea eta konpromisoen iraupena), betiere honako hauek aztertuz:

- Helburuaren eta arriskuen arteko kongruentzia.
 - Aurreikuspen-planeko ondarea zein aktibotan inberti daitekeen.
 - Tresna eratorriekin eragiketak baimentzeko zehaztapenak.
 - Eratorrien izaera (estaldura edo negoziazioa).
 - Tresna horien erabilerak arrisku-profilean dauzkan ondorioak eta, kasua bada, kontratatutako tresna eratorrietatik heldu diren konpromisoen zenbatekoa.
- Espero den errentagarritasunaren urteko helburua.

Horretaz gainera, araudiak ezartzen du, gutxienez ere, honako segurtasun-baldintza hauek beteko direla:

- Plan bakoitzaren aktiboaren % 70, gutxienez, honako hauetan inbertituko da:
 - Errenta finkoko eta aldakorreko baloreak, ELGAk araututako merkatuetan kotizaziora onartutakoak.
 - Europako Esparru Ekonomikoan ezarritako inbertsio-funtsak (haien tituluak negoziatzeko onartuta badaude).
 - Ageriko gordailuak, 12 hilabetetik beherako muga-eguna dutenak.
 - Higiezineta aktiboak.
 - Lehen hipotekaren gaineko hipoteka-kredituak.
 - Merkatu antolatuetako eratorri negoziatuak.
- Aktiboak, batik bat, merkatu arautuetan inbertituko dira; eta inbertsioen exekuziorako kontuan hartuko diren irizpideak segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, barreiadura, kongruentzia monetarioa eta helburuetarako epe egokiak izango dira.

- BGAEetako aktibo guztiak bazkide arrunten eta onuradunen intereserako inbertituko dira soilik, eta inbertsioa bazkideen interesa soilik defendatuz egingo da.

Planeko inbertsio-profilen definizioa

Halaber, 92/2007 Dekretuak ezartzen du ezen BGAEaren Gobernu Batzordeak erakundearen inbertsio-politika onetsiko duela inbertsio-printzipioei buruzko idatzizko adierazpen baten bitartez; adierazpen hori hiru urtez behin berrikusiko da, eta hartan arriskuko, errentagarritasuneko, dibertsifikazioko, epeko, likideziako, kongruentzia monetarioko eta interes-tasetako irizpideak ezarriko dira.

Ondoren irizpide horiek banan-banan azalduko ditugu, bai eta Gobernu Batzordeak IPA bat idazteko orduan erabaki beharreko gaiak ere.

Arriskua - Errentagarritasuna

- Errentagarritasuna:
Lortutako irabazien eta irabazi horiek lortzeko egindako inbertsioaren arteko harremana da. Honako hauek jasotzen ditu: interesak + dibidenduak + prezioak merkatuan izandako errebaloizazioa edo balio-galera.
- Arriskua:
Aktibo jakin baten bilakaerari buruzko segurtasun falta da, hau da, inbertsio batek hasieran espero ziren errendimenduak ez sortzearen aukera.
- Erabaki beharrekoak:
Atal honetan, Gobernu Batzordeak honako gai hauei buruz erabaki behar du:
 - Errentagarritasun-helburua - epe luzeko arriskua. Horrekin lotuta, hautatu beharko da BGAEa, arriskua dela-eta, zein kategoriatan kokatuta dagoen: monetarioa, errenta finkoa, errenta finko mistoa, errenta aldakor mistoa, errenta aldakorra edo bermatua.

- Helburua lortzeari begira aktibo-mota bakoitzak izango duen pisuari mugak ezartzea.
- Benchmark-ak (edo erreferentziako indizeak) ezartzea, BGAEen errentagarritasuna eta arriskua haien arabera neurtzeko.
- Zehaztea aktiboen pisuen gaineko kudeaketa modu aktiboan ala pasiboan egingo den.

Errentagarritasunari - arriskuari buruzko erabakia IPAaren erabaki garrantzitsuena da, epe luzeko errentagarritasuna zein izango den definitzen baitu. Errenta finkoko BGAE baten kudeatzaile onenaren epe luzeko errentagarritasuna txikiagoa izango da errenta aldakorreko BGAE baten kudeatzaile txarrenak lortutako errentagarritasuna baino. Epe luzera, errentagarritasuna markatzen duena esleipen estrategikoa da.

2000. urtean, Ibbotsonek eta Kaplanek azterlan bat egin zuten, non aktiboen esleipen estrategikoaren garrantzia aztertzen baitzuten. Azterlanean ondorioztatu zuten ezen aktiboen esleipenak funtsen bitartezko errentagarritasunaren aldaketaren % 40 azaltzen duela, eta funtsen errentagarritasun-mailaren ia % 100 azaltzen duela. Hau da, funts baten etorkizuneko bilakaera hobekien azaltzen duena esleipen estrategikoa da.

Dibertsifikazioa

- Kontzeptua:
Arriskuak kontrolatu eta gutxitu daitezke, baldin eta inbertitu nahi den zenbateko globala errentagarritasun eta arrisku igurikimen desberdinak dituzten produktuen artean banatzen bada.

Elkarren aurkakoak (edo partzialki elkarren aurkakoak) diren arriskuen aktiboak integratuz, arrisku horiek maila desberdinetan konpentsa daitezke, eta, horrela, arrisku agregatua txikiagoa da.

- Erabaki beharrekoak:
BGAEaren Gobernu Batzordeak honako hauei buruz erabaki behar du:
 - Inbertsioaren geografia: orokorra, Euro gunea, Espainia...

- Aktibo inbertigarrien motak: errenta aldakorra, errenta finkoa, kreditua, titularizazioak, funtsak, higiezinaren sektorea...
- Kontzentrazioarako mugak, aktiboaren, industriaren, herrialdearen eta abarren arabera.
- Legezko mugapenak: ezartzen diren dibertsifikazio-minimoek dibertsifikazioa dela-eta legeak ezartzen dituen betekizunak bete beharko dituzte; taula honetan ageri direnak dira:

Límite Máximo	5%	Activos emitidos por una misma empresa cotizada
	10%	Activos emitidos por empresas del mismo grupo
	2%	Valores no admitidos a cotización por una misma empresa (incluso aunque sean los promotores del plan)
	4%	Valores no admitidos a cotización emitidos por empresas del mismo grupo
	20%	Inmuebles y derechos reales inmobiliarios
	10%	Por inmueble
	20%	Fondos de inversión
	20%	del total de la emisión (en valores nominales)
	20%	Valores o participaciones emitidos por sociedades o fondos de capital riesgo

Epea

- Kontzeptua:
Hasierako inbertsioa berreskuratzeko beharrezkoa den denbora tartea. Zenbat eta luzeago izan epea, orduan eta handiago izango da BGAEak onartzen duen arriskua.
- Erabaki beharrekoak: Arriskua - errentagarritasuna atalean azaldutako berak.
- Errenta finkoko zorroaren iraupenari buruzko mugak: Zenbat eta luzeagoak izan errenta finkoko zorro baten muga-eguneratzeak, orduan eta handiago izango da espero den errentagarritasuna, baina baita interes-tasen arriskua ere. Errenta finkoko zorro baten iraupenak ideia bat ematen du onartzen ari diren interes-tasen arriskuari buruz. 2 urteko iraupena duen zorro batek arrisku txikiagoa du 5 urteko iraupena duen zorro batek baino (bai eta itxarotako errentagarritasun txikiagoa ere).

Likidezia

- Kontzeptua:

Likideziak inbertsio jakin bat berehala eskudiru bihurtzeko erraztasuna adierazten du. Horrek esan nahi du baloreak berehala eros eta sal daitezkeela, kontrapartidarik ezak eragiketaren prezioan eraginik izan gabe.

Oro har, esan dezakegu kotizatutako baloreak likidoagoak direla kotizatzen ez dutenak baino, aukera gehiago daudelako kontrapartidak arrazoizko prezioan aurkitzeko.

Oro har, aktibo ez-likidoek aktibo likidoen gaineko prima bat ordaintzen dute. Horrek esan nahi du aktibo ez-likido batek gehiago ordaindu beharko lukeela haren berdina den baina likidoa den beste batek baino (bestela, inork ez bailuke inbertitutako lehenengoan).

- Erabaki beharrekoak:

- BGAEaren likidezia-beharrak. Hemen, garrantzitsua da BGAEaren heldutasun-maila zenbatekoa, bai eta ekarpenen eta prestazioen egungo eta etorkizuneko ratioa ere.

- Aktibo likidoetako inbertsioaren gutxieneko chunekoak.

Kongruentzia monetarioa

- Kontzeptua:

Bazkideen ekarpenak gauzatzen diren inbertsioen ezaugarriek elkarren antza izan behar dute, epearen eta monetaren aldetik, erakundeak etorkizunean aurre egin behar izango diela espero duen ordainketekin.

- Erabaki beharrekoak:

- Etorkizuneko pasiboen modelizatzea (bereziki garrantzitsua prestazio definituko planetarako).

- Dibisa eta iraupena direla-eta egon daitekeen esposiziorako mugak.

Interes-tasak (Kreditua)

- Kontzeptua:
Tasak igotzean, merkaturatzen diren jaulkipen berriek ordainketa erakargarriagoa eskaintzen dute. Zaharrak prezioa gutxituz gero bakarrik negoziatuko dira, erosleari jaulkipen berriek eskainitako errentagarritasunaren antzekoa bermatuta (eta alderantziz).
- Erabaki beharrekoak:
 - Zorroko kredituaren arriskurako mugak (errendimendu handiko eta arrisku handiko bonuen pisua).
 - Rantingen araberako mugak ezartzea. “Ranting”ak kreditu-agentziek jaulkitzaileen kaudimenari jartzen dizkieten notak dira.

Unai Ansejo Barra jn.

Itzarri, Enpleguko BGAEko inbertsioen kudeatzailea

12. Kapitulu

BGAE-en kontabilitate irizpideak

Kolaborazio honen helburua da agerian jartzea zeinen garrantzitsua den ongi egindako kontabilitate zehatz, azkar eta efiziente baten bitartez lortzen den informazioa, bai enpresa-sektore desberdinen maila orokorrean, bai bereziki borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde

Erakunde batean sortzen den eta zuzendaritzaren esku jartzen den informazio-kopuru izugarritik, eraginkorrena, zentzuzkoena, egiazkoena eta iraunkorrena hautatu beharra dago, haren eginkizuna betetze

- Sarrera: kontabilitatea informazio-iturri moduan.
- Kontabilitate-prozesuaren eskema.
- BGAEen urteko epeen, auditoretzaren eta berriemate ofizialen eskema.
- Aurreikuspeneko BGAE baten jardueren eskema.
- Kudeaketa integral baterako software egokia.
- BGAEei aplikatzekoa zaien kontabilitatearen erregulazioa.
- BGAEen Kontabilitate Plana (bost atal).
- Kudeaketa-txostena.
- Kontabilitateak ematen duen informazioaren analisia.

Sarrera: kontabilitatea informazio-iturri moduan

Enpresen munduan, zeinean arrakasta erabakiak hartzeko aukeraren eta egokitasunaren menpean baitago, berebiziko garrantzia hartzen du ulertzeko gai denak edo direnek eskura dezaketen informazioak. Erakunde batean sortzen den eta zuzendaritzaren esku jartzen den informazio-kopuru izugarritik, eraginkorrena, zentzuzkoena, egiazkoena eta iraunkorrena hautatu beharra dago, haren eginkizuna betetzeari buruzko konklusioak ateratzeko. Esan daiteke kontabilitatea dela informazio-iturri guztietatik baldintza horiek betetzen dituen bakarra.

Kontabilitatearen metodoaren bidez, enpresaren egitate ekonomikoak antzematen dira, eragiketa horiek baloratzen dira, kontabilitatearen lengoaiara ekartzen dira, agregatu finantzarioen sistema batez sintesia eginez, eta egoera-orri batzuk lortzen dira, zeinek modu antolatuan erakusten baitute, fideltasunez, enpresaren errealitate ekonomikoa. Kontabilitatearen bidez enpresaren bizitzan gertatzen diren eta moneta-unitatetan adieraz daitezkeen egitateak erregistratu, sailkatu eta laburbiltzen dira.

Kontabilitatearen bidez lortutako informazioak muga bat badu, zeina ondorioztatzen baita aurreko paragrafoan adierazitakotik: moneta-unitatetan adierazitako gertakariak jasotzen ditu soilik, bai eta beste gertakari batzuk ere, zeinek, zalantzarik gabe, garrantzi handia izan baitezakete erakundearen bizitzarako baina kontabilitate-sisteman jasotzen ez baitira; esate baterako, gako diren pertsonak izan ditzaketen gaixotasun edo arazo pertsonalak, erakundearen giro soziala edo alderdi sentimentalak.

ERABILTZAILEAK	TALDEAK	INFORMAZIO-MOTA
BGA-EKIKO KONTRATU-HARREMANAK DITUZTEN KANPOKOAK	Bazkideak Bankuak (Mailegu-emaileak) Enplegatuak (Komiteak) Bezeroak Hornitzaileak / Hartzekodunak	PUNTUALA IZAN BEHAR DU
BGA-EKIKO KONTRATU-HARREMANIK EZ DUTEN KANPOKOAK	Bazkideak Bankuak (Mailegu-emaileak) Enplegatuak (Komiteak) Bezeroak Hornitzaileak / Hartzekodunak	ALDIZKAKOA IZAN BEHAR DU (hilerokoa, hiru hilean behingoa, urterokoa)
BGA-Earen BARNEKOAK	Kudeatzaileak eta zuzendariak Tarteko agintariak	DJARRAITUA IZAN BEHAR DU, INFORMAZIO GEHIGARRIAREKIN

BGAEn urteko epeen, auditoretzaren eta berriemate ofizialen eskema

Periodicidad: Las cuentas anuales se realizarán con una periodicidad de **doce meses**. (Salvo en los casos de constitución, modificación de la fecha de cierre de ejercicio social o disolución). Se considera como fecha de **cierre de ejercicio** habitual el **31/12/año T**.

En las EPSV lo normal es hacer cierres contables **diarios**, para calcular el **valor liquidativo**, pero no cuentas anuales completas.

Formulación: Las cuentas anuales deberán ser formuladas (elaboradas) por los administradores (**Junta de Gobierno de la EPSV**), en el plazo de **tres meses** a contar desde el cierre del ejercicio social. Es decir, el **31 de marzo** del ejercicio siguiente. Los administradores responderán de la veracidad. Las cuentas deberán firmarse por todos los administradores y si faltase alguno se mencionará la causa.

Se traslada a la firma de **auditoría** las cuentas anuales formuladas y tendrán un plazo de **un mes** para elaborar su informe.

Aprobación: Las cuentas anuales deberán ser aprobadas por la **Asamblea General de la EPSV**, en el plazo de **cuatro meses** a contar desde el cierre del ejercicio social. Es decir, el **30 de abril** del ejercicio siguiente.

Reportes a realizar

Gobierno Vasco

(Cuentas Anuales,
hasta 30/04/año T+1)

**Depósito de Cuentas en
Registro Mercantil**

(Cuentas Anuales, 30 días
desde aprobación)

**Legalización de Libros
Contables.**

(Registro Mercantil, hasta
30/04/año T+1)

Interesa duen edozein irakurlerentzat oso garrantzitsua da ezagutzea zein motatakoa den auditoretza-enpresak BGAEaren urteko kontuari buruz duen iritzia. Horri dagokionez, ondoren azaltzen ditugu hobekien ezagutzen diren lau iritzi-motak. Nabarmendu beharra dago BGAEaren erantzule guztiek eta, zehazkiago, Gobernu Batzarrak, zaindu beharko dutela iritzi hori aldekoa izan dadila, erreparorik gabea.

Aldeko iritzia, erreparorik gabea

Aldeko iritzi garbi edo erreparorik gabeak esan nahi du auditorea ados dagoela, erreparorik gabe, finantzen egoera-orrien aurkezpenarekin eta edukiarekin. Auditoreak argi eta zehatz bere iritzia adierazi beharko du, alegia, urteko kontuek irudi fidela ematen ote duten ondareari eta finantza-egoerari buruz, eragiketen emaitzei buruz eta ekitaldian zehar lortutako eta aplikatutako baliabideei buruz, eta adieraziko du ea kontabilitate-printzipio eta -arauak modu uniformean aplikatu diren.

Iritzia, salbuespenekin

Salbuespenak jasotzen dituen iritzia, zeinari “iritzi kalifikatua edo kualifikatua” ere esaten baitzaio, adierazi nahi du auditorea ados dagoela finantzen egoera-orriekin, baina erreparo batzuekin. Iritzia eman aurretik, auditoreak iritzi horretan eragina izan dezaketen faktoreak baloratuko ditu.

Kontrako iritzia

Kontrako iritzia, zeinari aurkako iritzia nahiz iritzi negatiboa ere esaten baitzaio, adierazi nahi du auditorea ez dagoela ados finantzen egoera-orriekin eta baieztatzen duela haiek ez dutela egoki islatzen auditatutako sozietatearen egoera ekonomiko-finantzarioa. Auditoreak iritzi-mota hori agertuko du urteko kontuek, oro har, ez dutenean irudi fidelik ematen auditatutako erakundearen ondareari, finantza-egoerari, eragiketen emaitzari edo finantza-egoeraren aldaketei buruz, oro har onartuta dauden kontabilitate-printzipio edo -arauei jarraituz. Auditoreak jarrera hori har dezan, identifikatu beharko du zein akats eta orokorrean onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauren zein ez betetze gertatu diren, bere iritziz urteko kontuetan eragina dutenak, zenbateko edo kontzeptu oso adierazgarri batean.


Ezezko iritzia

Azkenik, ezezko iritzia, edo iritzi-abstentzioak, adierazi nahi du auditoreak ez duela inongo irizpenik ematen finantzen egoera-orriei buruz. Ez du esan nahi haiekin ados ez dagoenik; esan nahi du, besterik gabe, behar adina iritzi-elementu ez duela aurreko iritzi-mota horietatik bakarra ere osatzeko. Ezezko iritzia, halaber, auditoretzaren norainokoari buruzko mugen garrantziarengatik edo tamainarengatik edo/eta ziurgabetasunarengatik sor daiteke.

BGAE baten aurreikuspen-jardueren eskema

Orientabide moduan bada ere, BGAE baten aurreikuspen sozialaren jarduerak laburbil ditzakegu, haren cash flow delakoaren bidez irudikatuta.

Kontabilitatean, jarduera horiek sortzen dituzten kontabilitate-idazpe-
nen bitartez erregistratuko litzateke, halakoak kontabilitate-planean ze-
haztuta dauden moduan.



Kudeaketa integral baterako software egokia

BGAEEK aplikazio informatiko efizienteak eduki beharko dituzte, barneko kontrol egokia bermatu ahal izateko, bai eta prozesuak direla-eta behar den automatizazioa ere; izan ere, horren bidez, zehaztasunez eta azkartasunez egingo dira eguneroko likidazio-balioaren kalkulua eta bazkideentzako partaidetza-kopuruaren egozpena.

Kudeaketa integraleko softwareak bete beharreko oinarriko ezaugarriak:

- BGAEaren inbertsio-zorroa eguneraturik mantentzea, finantza-merkatuen eguneroko kotizazioen-kapturak bideratuz, Bloomberg gisako informazio-plataforma estandarren bitartez.
- BGAEaren bazkide-kolektiboaren partaidetzen kopurua eguneraturik mantentzea, ekarpenak, prestazioak eta mobilizazioak direla-eta gertatu diren mugimenduak jasota.
- Kontabilitatea eguneraturik mantentzea, idazpen automatikoetan oinarrituta, eskuzko idazpenetan oinarritu beharrean.
- BGAEaren eguneroko likidazio-balioa sortzea, aurreko hiru puntuetan oinarrituta.
- Behar diren berriemateetarako informazioa sortzea; honako hauetarako, adibidez:
 - BGAEaren zuzendaritzari ematekoa
 - Bazkideei informazioa ematekoa
 - Erakunde gainbegiraleari informazioa ematekoa (DEC)
 - Likidazio fiskalak egitekoa
 - Auditoretza-prozesuetarako
 - Estatistikak egitekoa (Euskadiko BGAEen Federazioa, prentsa...)

BGAEEi aplikatzekoa zaien kontabilitatearen erregulazioa

Puntu honi begira, Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundeen otsailaren 23ko 5/2012 Legean adierazitakoa irakurri beharra dago; zehazki, honako honetan jasotakoa: “61. artikulua.- Kontabilitatea, kontuen auditoretza eta informazio estatistiko eta kontabilitatekoa”.

Europako eta Estatu Batuetako Kontabilitate-printzipioen alderdi batzuei buruzko interpretazio desberdinek iraganean sortutako arazoaren aurrean, planteatu izan da akordio batzuetara iritsi beharra dagoela erakundeek merkatuetan, oro har, lan egiteko irizpideak batzeko, baldintza berdinetan jardun dezaten eta beren urteko kontuak ez ditzaten bereiz egin behar, kasuan kasuko estatuaren irizpideei egokitze aldera. Kontabilitate-arauen harmonizazio-prozesu horretatik, honako hauek sortu dira Europar Batasunean:

- Kontabilitate Plan Orokorra, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsia.
- Aseguru-erakundeen Kontabilitate Plana, uztailaren 24ko 1317/2008 Errege Dekretuaren bidez onetsia.
- Aseguru-erakundeen Kontabilitate Plana Euskal Autonomia Erkidegoko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen bereizgarrietarako egokitzea, martxoaren 16ko 86/2010 Dekretuaren bidez onetsia.

Hiru plan horiek ondoren adierazten ditugun bost atal berdinak dauzkate. Haien xehetasunetan, ordea, ez gara sartuko, zeren eta oso zabalak baitira, eta Planaren BGAEetarako egokitzapen horretan irakurri eta azter daitezke. Nabarmendu beharra daukagu, ordea, nahitaez aplikatzekoak direla.

BGAEEen Kontabilitate Plana (bost atal)

- Kontzeptu-esparrua
- Erregistratzeko eta baloratzeko arauak

- Urteko kontuak
- Kontu-taula
- Kontabilitateko definizioak eta erlazioak

Puntu horri dagokionez eta lan honetarako markatutako helburua kontuan izanda, luzera mugatua eduki behar baitu, soil-soilik aipatuko ditut nire ustez interes handiena dutenak, BGAEtan eragina duten kontabilitate-gaici dagokienez. Gainerakoetan, aipatutako Planaren testu osoa kontsultatu beharko genuke. Hemen topa daiteke: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2010/06/1002919a.pdf>

Lehenengo zatia. Kontzeptu-esparrua

Nire ustez, kontzeptu-esparruan kontabilitate-zientzian lan egiteko orduan kontuan hartu beharko dugun muin edo funtsa deskribatu eta garatzen da. Azken batean, tamainako puntuak lantzen dira; honako hauek, besteak beste:

- Urteko kontuak. Irudi fidela
- Urteko kontuetako informazioaren betebeharrak
- Kontabilitate-printzipioak
- Urteko kontuetako elementuak
- Urteko kontuetako elementuak erregistratzeko edo aintzatesteko irizpideak
- Balorazio-irizpideak
- Oro har onartutako kontabilitateko printzipio eta arauak

Bigarren zatia. Erregistratzeko eta baloratzeko arauak

Erregistro- eta balorazio-arauek aurreko puntuan —Kontabilitatearen kontzeptu-esparrua— aipatutako kontabilitate-printzipioak eta bestelako xedapenak garatzen dituzte. Bertan sartzen dira transakzio edo gertaera ekonomiko mota bakoitzari eta zenbait ondare-elementuri aplikatu beharreko irizpideak eta arauak. 22 arau daude, eta nabarmentzen da nahitaez aplikatzekoak direla, eta horietatik, eskematikoki bada ere, zortzigarren arauari erreparatuko diot, tresna finantzarioei buruzkoari.

Erakunde batean aktibo finantzario bat sortzen duen eta, aldi berean, beste erakunde batean pasibo finantzario bat edo ondare-tresna bat sortzen duen kontratua da tresna finantzarioa.

BGAE batek finantza-tresna bat kontabilizatuko du bere balantzean, kontratu edo negozio juridikoko alderdi behartu bihurtzen denean.

BGAEn egoera-balantzeko aktiboaren ikuspuntutik, badakigu garrantzitsuena aktibo finantzario deitutakoak direla. Beren xedearen eta balorazioaren arabera, ondoko kategoria hauetako batean sailkatzen dira:

- Maileguak eta kobratzeko partidak
- Muga-egunera arte mantendutako inbertsioak
- Negoziatzeko mantendutako aktibo finantzarioak
- Galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan baloratutako bestelako aktibo finantzarioak
- Aktibo finantzario salgarriak
- Inbertsioak taldeko enpresetan, talde anitzetan eta elkartuetan

Alderdi oso garrantzitsuak daude BGAE bakoitzerako hautatutako inbertsio-kudeaketaren eremuan; izan ere, eredu hori, neurri handi batean, araututa dago bere Inbertsio-printzipioen Deklarazioan, zeinak berekin ekarriko baitu BGAEaren egoera-balantzeko aktiboak pisu handiagoa izan dezala azaldutako sei kategorietako batzuetan edo besteetan. Orientabide moduan, honako hauek aipa daitezke:

- Erakundeak jarraitzen duen inbertsio-estrategia eta politika, bilatzen den errentagarritasuna & arriskua binomioari dagokionez.
- Bazkide arrunten eta onuradunen adin-profila, bizi-zikloen estrategia, inbertsioen iraupenaren eta aurreikusitako prestazioen artean epeak direla-eta koherentzia egon dadin.
- BGAEaren modalitatea, banakakoa, elkartua edo enplegukoa bada.

BGAEn jarduera zehatz batzuk arautzeko maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuak, 11. artikuluan (Inbertsio-arauak) eta, zehazki, 6. puntuaren

d) letran, aipatzen du enplegu-modalitateko aurreikuspen-planetarako errenta finkoko balorazio arau berariazkoak ezarri ahalko direla, aurreikuspen-planeko aktiboan irauteari begira. Horri dagokionez, enplegu BGAEak dira errenta finkoko beren zorroak kostu amortizatuaren arabera balora dezaketen bakarrak, eta horretarako “Muga-egunera arte mantendutako inbertsioak” deitutakoak erabiliko dituzte. Eraitzen hegakortasuna gutxitzen du horrek, baina errenta finkoko inbertsioen muga-egunak ahal den modurik onenean egokitu beharko dituzte, bai eta beren kupoien kobrantzak ere, kolektibo jakin hori dela-eta aurreikusitako prestazioekin, eta, gainera, aurreikusi gabeei aurre egiteko behar adinako likidezia-chuneko bat eduki beharko dute. Horretarako, garrantzitsua da kolektiboaren ondareen —edo eskubide ekonomikoen— profila, adinen arabera, ezagutzea.

Ondoren, taula moduan, aktiboaren tresna finantzarioen kategoria desberdinei aplikatzekoa zaien kontabilitate-esparruaren laburpen-eskema bat ematen dugu:

Categorías	Finalidad	Características	Valor inicial	Valoración posterior	Rendimientos	Deterioro	Reversión deterioro
Negociación	Rentabilidad a corto plazo	Derivados + cualquier activo con valor de mercado estimable	Valor razonable	A valor razonable => Pérdidas y Ganancias	Pérdidas y Ganancias	-	-
Otros activos financieros VR PyG	Híbridos, Asimetrías, Coberturas	Cualquier enfoque atiende a su finalidad	Valor razonable	A valor razonable => Pérdidas y Ganancias	Pérdidas y Ganancias	-	-
Disponibles venta	Situación intermedia: Negociación / Vencimiento	Cualquier activo - los derivados	Valor razonable	A valor razonable => Reservas. Y activos sin valor de mercado estimable al coste	Pérdidas y Ganancias	Pérdidas y Ganancias	Instr.Patrimonio=> Reservas; Instr.Deuda=> PyG; activos al coste no revierte.
Vencimiento	Vencimiento	Titulos con vencimiento cierto y flujos determinados o determinables + negociados en mercado activo. Intención y capacidad de mantener hasta vencimiento	Valor razonable	Coste amortizado (TIR)	Pérdidas y Ganancias	Pérdidas y Ganancias	Pérdidas y Ganancias
Préstamos y Partidas a cobrar	Saldos comerciales + instrumentos de deuda no negociables	Titulos con flujos determinados o determinables + no negociados en mercado activo. No apalancado.	Valor razonable	Coste amortizado (TIR)	Pérdidas y Ganancias	Pérdidas y Ganancias	Pérdidas y Ganancias
Participaciones entidades del grupos	Participaciones de control	Renta variable del grupo	Valor razonable	Coste	Pérdidas y Ganancias	Pérdidas y Ganancias	Pérdidas y Ganancias

Hirugarren zatia. Urteko kontuak

Urteko kontuek honako hauek jasotzen dituzte:

- Egoeraren Balantzea
- Galdu-irabazien Kontua
- Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera-orria
- Diru-fluxuen Egoera-orria
- Memoria

Bost dokumentu horiek batasun bat osatzen dute, eta BGAEaren ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi leiala erakusteko xedearekin idatzi behar dira, indarreko legeari jarraiki.

Urteko kontuak administratzaileek (Gobernu Batzarra) formulatu beharko dituzte, kontuen egiazkotasunaren erantzukizuna beren gain hartuz, hiru hilabeteko epean, ekitaldi-itxieratik kontatzen hasita.

Kontuak egiten dira haien balioak eurotan adieraziz, salbu eta zenbatekoen magnitudea dela-eta milaka edo milioika eurotan adierazi behar denean.

BGAEen urteko kontuak kontabilitate-planaren egokitzapenean jasotako ereduari egokitu beharko zaizkie. Eredu horien egitura osoa ikusteko, beren epigrafeekin eta hura osatzen duten kontuen multzoarekin, nire ustez ez da beharrezkoa hura lan honetan errepikatzea, bere dimentsio handia dela eta; izan ere, arestian aipatutako BGAEen kontabilitate planaren testuan kontsultatu ahalko da.

Ondoren, urteko kontuak osatzen dituzten bost dokumentuen deskribapen motz bat edo laburpen bat egingo dugu.

- Egoeraren Balantzea.
Honako hauek osatzen dute: Aktiboa (ezkerrean), Pasiboa eta Ondare garbia (eskuinean). Ondare garbia honela definitzen da kontzeptuen esparruan: erakundearen aktiboen hondar-zatia, haren pasibo guztiak kendu ondoren.

- Galduturak Kontua.

Finantzen egoera-orri hau zerrenda bat da; lehenago, ordea, “zor eta hartzeko” erako kontua zen. Horrenbestez, aitortzen joaten diren diru-sarrerak desberdinei kasuko gastuak kendu behar zaizkie, halako moduz non dagozkien marjina positibo edo negatiboak ezarriko baitira, hartara aukera emanez honako hauen analisia egiteko: diru-sarrerak eta gastu teknikoak, diru-sarrerak eta gastu finantzarioak eta diru-sarrerak eta gastu ez-arruntak, aurreikuspeneko edo aseguramenduko jardueren atxikita ez dagoen kontuak. Horrekin, elementu oso garrantzitsu bat edukiko dugu BGAEak zuzen kudeatzeko.

- Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera-orria.

Dokumentu honek antzinako oharra ordeztu zuen funts propioei buruzko oroitidazkian. Egoera-orri honek bi atal dauzka: lehenengoa “Aitortutako diru-sarreraren eta gastuen egoera-orria” eta bigarrena “Ondareko aldaketen guztizko egoera-orria”.

- Diru-fluxuen Egoera-orria.

Diru-fluxuen egoera-orrian, eskudirua eta aktibo likido baliokideak adierazten dituzten aktibo monetarioen jatorriari eta erabilerari buruzko informazioa ematen da, mugimenduak jardueren arabera sailkatuta (ustiapen, inbertsio eta finantzaketako jardueren arabera) eta ekitaldian izandako aldakuntza garbia adieraziz.

- Memoria.

Memoriak, alde batetik, urteko kontuak osatzen dituzten gainerako dokumentuetan jasotako informazioa osatu, zabaldu eta azaltzen du eta, beste alde batetik, hornidura teknikoaren estalduraren egoera-orria eta segurtasun-marjinaren egoera-orria ematen ditu.

Bete beharreko gutxieneko informazioa ematen da memoria-eremuan; hala ere, eskatzen den informazioa esanguratsua ez denean, ez da eman beharrik izango. Halaber, egoera-orri finantzarioak ulertu eta interpretatzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein informazio jaso behar da, nahiz eta epigrafe jakinik ez eduki.

Aipatu beharra daukagu ezen nabarmen handitu direla urteko kontuen oroitidazkietan eskatzen diren xehakatzeei buruzko baldintzak, haiek ulergarriago izatea eta gardentasuna izatea bermatuz.

Laugarren zatia. Kontu-taula

BGAEn plan indarduna 10 kontu-taldetan egituratuta dago (digitu bat), zeinak, beren aldetik, azpitaldetan xehakatuta baitaude (2 digitu), eta horiek, gainera, hainbat kontutan (3 digitu) eta, kasu bada, azpikontutan xehakatuta (n digitu; 10, esate baterako).

Destino de los grupos del cuadro de cuentas		
Grupo 1: FINANCIACIÓN BÁSICA Grupo 2: INMOVILIZADO E INVERSIONES Grupo 3: PROVISIONES TÉCNICAS Grupo 4: ACREEDORES Y DEUDORES POR OPERACIONES DE TRÁFICO Grupo 5: CUENTAS FINANCIERAS	Balance de Situación	
Grupo 0: RECLASIFICACIÓN DE GASTOS POR DESTINO Grupo 6: GASTOS Grupo 7: INGRESOS	Pérdidas y Ganancias	Estado de Cambios en el Patrimonio Neto
Grupo 8: GASTOS IMPUTADOS AL PATRIMONIO NETO Grupo 9: INGRESOS IMPUTADOS AL PATRIMONIO NETO		

Bosgarren zatia. Kontabilitateko definizioak eta erlazioak

Atal honetan, kontuak eta karguetarako eta abonamenduetarako haien arrazoiak aztertzen dira, hau da, kontabilitate-idazpenen sorrera xehetasunez aztertzen da, idazpenak baitira kontabilitate-teknika transkribatzeko oinarritzko metodoa, partida bikoitzaren bitartez. Kontuak edo azpikontuak erabiliz egiten dira; hau da, xehetasun-maila handienarekin, zeren eta geroztik saldoak metatzen joango baitira.

Kontu eta azpikontu horiekin, eta posible diren idazpenen konbinazioarekin, BGAEek egin ditzaketen eragiketa guztiak jaso nahi dira. Gerta liteke eragiketaren baten kasuan, oso atipikoa delako edo etorkizuneko alderdiak tarteko, kontuen eta azpikontuen zerrendan aurreikusita ez egotea; horretarako, planak ezaugarri bat badu, irekia izatearena, zeren eta aukera ematen baitu behar diren kontuak sortzeko, eta haiek libre geratzen diren digituetan kokatuko lirateke, normalean.

Adibidez, idazpen-mota horien kasuan hemen ohikoenak direnetatik batzuk aipatu ahalko genituzke; esate baterako:

- Mutua-funtsaren eraketaren hasierako erregistroa.
- Bazkide arrunten eta babesleen ekarpenak.
- Hornidura teknikoan zuzkidura, bereziki gizarte aurreikuspeneko jarduerako eragiketengatik zuzkidura.
- Inbertsioen erosketa: errenta finkokoak, errenta aldakorrekoak, inbertsio-funtsak.
- Inbertsioen balorazioa eta aurreikusitako egiazko errendimenduen sortzapenaren irizpidearen arabera aldizkakotzea.
- Inbertsioen muga-eguneratzearen edo salmentaren ondoriozko amortizazioa: errenta finkokoak, errenta aldakorrekoak, inbertsio-funtsak eta abar.
- Prestazioen eta mobilizazioen ordainketa, aurreikuspen planetan estalitako kontingentziei eta eskubideei dagokiena, eta eratuta zegoen hornidura teknikoaren dagokion deszuzkitzearekin.
- Sortzapenaren arabera aldizkakotzea, eta ezarritako administrazio-gastu finkoen ordainketa. Kudeaketa- eta administrazio-jardueri, gordailu-jardueri eta balioen zainketari, kanpoko zein barneko auditoretzei, notariotzari, erregistroari eta abarrei dagokie.
- Ekitaldiko emaitza aplikatzea, normalean erreserbei, nahitaezko segurtasun-marjina ongi eratuta edukitzeko, edo erabilera libreko erreserbak, kasua bada.
- Horretaz gainera, BGAEen kontabilitate-planak, aseguru-erakundearen planaren isla bat denez, 0 taldea uzten du izaeraren arabera gastuak destinoaren arabera gastu gisa birsailkatzeko. Hau da, administrazio-gastuak zuzenean egotzi behar zaizkio haiek sortzen dituen jarduerari edo destinoari, eta hori ezinezkoa denean, kostu-egozpeneko banaketa-irizpide analitikoak erabiliko dira; betiere, irizpide horiek arrazoizkoak, objektiboak eta egiaztagarriak izango dira, langileen arduraldian eta jarduera bakoitzari atxikitako higiezinaren oinarrituta. Ikusi dugun

errealitatea da kontuen multzo hori erabiltzen dela aseguramendu-jarduerak egiten dituzten BGAEetarako, hau da, aseguru-erakunde gisa jarduten dutenetarako. Euskal Autonomia Erkidegoko BGAE gehienek aurreikuspeneko jarduerak baizik ez dituzte egiten; horrenbestez, 0 taldea ez da erabiltzen, garrantzi txikiagoa baitu.

Kudeaketa-txostena

Kudeaketa-txostenak jasotzen ditu Gobernu Batzordeak BGAEaren egoera dela-eta egokitzen jotzen dituen azalpenak, eta haien negozioen eta BGAEaren egoeraren bilakaerari buruzko azalpen fidela erakusten du, erakundeak aurre egin beharreko arrisku eta ziurgabetasun nagusien deskribapen batekin batera, eta beste gai batzuekin batera, eta ez da urteko kontuen osagaia.

Zuzendaritza-taldeak idatzita egon ohi da, haren kudeaketaren ontasunak agerian uzteko. Ematen diren zifrak direla-eta auditoretza bat egiten da; horrenbestez, egiazkoak dira. Hitzez hitzeko atala ez da auditoretzaren xedea, iritziak direla ulertzen baita.

Aipatutako 92/2007 Dekretuan, 3. artikuluan (Urteko kontuak eta kudeaketa-txostena), txostenak jaso behar duen gutxieneko edukia ezartzen da.

Kontabilitateak ematen duen informazioaren analisia

Puntu hau oso garrantzitsua iruditzen zait, honako honetan baitatza: kontabilitate-informazioa interpretatzen jakitea eta ezagutza horri errendimendua ateratzea. Lan honen hasieran jada aipatzen zen eta azpimarratzen zen kontabilitate-prozesua dela erakundeen zuzendaritzak erabakiak hartzeko datu-iturri nagusia.

Literatura ugari dago egin daitezkeen analisi-mota desberdinei buruz, eta, besterik gabe, haietako batzuk aipatuko ditut.

Analisi ekonomikoa galera-irabazien kontuak eskaintzen dituen datuekin egiten da, bai eta oroitidazkiko horrekin lotutako ataletan emandako datuekin ere. Analisi horrekin ezagut daitezke eragiketa

arrunten emaitzak, hau da, erakundearen ustiaketari dagozkionak, bai eta diru-sarreraren eta gastuen xehetasunak ere. Hartara bada, analisi ekonomikoak helburu du ezagutzea BGAEak nolako gaitasuna duen ustiaketan esku hartzen duten betebeharrak guztiei aurre egiteko, aztertutako ekitaldiari edo ekitaldiei dagokienez.

Ondarearen gaineko analisi finantzarioa, funtsean, egoeraren balantzearen bitartez egiten da, eta horren bidez ezagutuko dugu ea erakundeak gaitasuna duen adierazitako joerari eusteko, eta, horrenbestez gai ote den bere etorkizuneko betebeharrak betetzeko. Horretarako, haren aberastasun-maila aztertuko da, bai ondareari, bai finantzei dagokienez. Printzipioz, ondoriozta daiteke ezen erakunde batek etekin jarraituak ematen baditu zenbait ekitalditan zehar, horrek esan nahiko duela sendotasun handia duela.

Ondarearen gaineko analisia erakundearen egiturari buruzko azterlan bat da, hainbat alditan eduki dituen aktiboan eta pasiboan oinarritua, ondare-masak multzotan biltzearen bitartez. Geroztik, ratioak aplikatuta, erakundearen egoerari buruzko irudi bat lortuko dugu, hainbat alderdiri dagokionez.

BGAEetan ratio baliagarrien mota asko daude, BGAE guztietan aplika daitezkeenak, eta lotuta daude honako hauekin, bestak beste: epe laburreko eta ertaineko likidezia; egoera ekonomikoA, jarduera-, hazkunde- eta produktibitate-mailaren araberakoa; prestazioak eta prestazioen likidaziorako arintasuna; kudeaketa-gastuak, hornidura teknikoak estaltzekoak eta abarrekoak.

Ratio deitutakoen esparruan, kaudimenaren analisiak garrantzi handia hartu zuen duela zenbait hamarkada, nagusiki Europako Erkidegoko zuzentzarauetan garatu zelako. Erakunde baten kaudimena zehaztasunez definitzen zaila den kontzeptua izan daiteke. Hala eta guztiz ere, kontzeptu garrantzitsu horren hurbilpen moduan, BGAEen bi kaudimen-mota bereiz ditzakegu:

- Kaudimen estatikoa, zeinak adieraziko baitigu erakundeak behar adina bitarteko badituela bere kontratu-betebeharrei aurre egiteko. Oro har, kontzeptu hori hornidura teknikoaren bolumenarekin eta haren inbertsio zuzenarekin identifika liteke.

- Kaudimen dinamikoa, zeinaren oinarria baita gizarteak zenbaterainoko gaitasuna duen bere kontratu-betebeharrei ez ezik, etorkizunean har ditzakeenei ere aurre egiteko. Istripuak gertatzeko aukera hartu behar dugu kontuan, edo teknikoki aurreikusitakoetatik gorako gastuak, eta funts propioen ondare osagarriak ez eduki. Balizko desbideratzeen mota hori estaltzeko, BGAEtan segurtasun-tartea deitutakoa dago: egoera-balantzearen ondare garbian eratutako erreserbak dira.

“Segurtasun-marjinaren egoera” deitutakoa urteko kontuen oroitidazkian sartzen da.

Eusko Jaurlaritzaren urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren azken xedapenetatik zortzigarrenaren arabera, gastuen eta prestazioen, aurreikusitakoen eta errealen arteko desbideratzeak xurgatzeko eskuragarri dagoen segurtasun-marjinaren gutxieneko zenbatekoa honako hauei dagokie:

- Prestazio definituko gizarte aurreikuspeneko planetarako, eskatzen den gutxieneko segurtasun-marjina plan horiei atxikitakoak izan eta aseguratu gabe dauden hornidura matematikoen % 4koa da.
- Bazkideak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen dituen ekarpen definituko gizarte aurreikuspeneko planetarako, gutxieneko segurtasun-marjina plan horiei atxikitako hornidura teknikoaren % 0,125koa da.

Bukatzen joateko, adieraz daiteke ezen, normalean, erakundearen kudeatzaileek eta gobernu-organismoek datu ugari edukitzen dituztela eskura beren kontrol-lana betetzeko. Beharrezkotzat benetan jotzen dena da aldagaien kopuru egoki bat edukitzea, negozioaren gakoak. Urteko kontuekin eta aldizkako kontabilitate-itxieretako egoera-orri finantzarioekin batera, azken horiek ia egunerokoak, eginkizuna betetzeko gako diren datuen sailari buruzko ezagutza gaurkotua eduki beharko du. Horixe da zuzendaritzaren “aginte integraleko koadroa”n sartzen dena (Balanced Scorecard).

Modu gehigarrian, garrantzitsua iruditzen zait nabarmentzea ezen BGAE bakoitzaren kontuen berariazko planak xehetasun-maila edo

xehatze-maila handia eduki beharko lukeela, erakundearen kasuistikaren arabera, idazpen automatizatuekin, ahal den guztian, eragiketetan arriskua gutxitzeko eta azkartasuna areagotzeko. Horrek aukera emango digu kontabilitate-informazio xehakatu eta kalitatezko batera iristeko, BGAEaren jardura guztiei buruzkoa, dela aurreikuspenaren arloari dagokionez, dela aseguru-arloari dagokionez. Gero, eraginkortasunez aztertu ahalko dugu eskura dagoen kontabilitate-informazioa, eta modu mekanizatuan nahi ditugun berariazko txostenak sortu ahalko ditugu.

Analisiaren atal honen azken puntu gisa, garrantzitsua da Dokumentazio Estatistiko eta Kontabilitatekoari buruzko aipamen bat egitea, zeina Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailera igorri behar baita hiru hilez behin. Zioen azalpenean aipatzen da BGAEen planaren indarreko egokitzapenak kontabilitate-araudiaren erreforma garrantzitsu bat ekarri zuela, bai eta dokumentazio ekonomiko finantzarioa aurkezteko ordura arteko erduetan aldaketak egitea ere.

Gerardo Arcos Jócana jn.

Kutxabank Seguros-ko arlo finantzarioa eta Biharko, Enplegu-ko BGAEko idazkaria

13. Kapitulu

Gobernu onaren politikak

Enpresen jardunbideen eta gizartearen arteko harremanak errespetuzko eta gardentasunezko bizikidetza bat mantendu behar du. Konpainietan gero eta sustraituago daude gobernu onaren politikak, eta are gehiago gureak bezalakoetan, gizarte ekonomiakoak baitira. Nahiz eta jardunbide horiek batera biltzen dituen araurik ez dagoen, enpresa kotizatuen esparruko betebeharrak batzuk badaude. Arau horiek aurrekoak diren eta une desberdinetan aldarrikatu diren kode eta arau partzial askoren bilakaera batetik datoz. Bereziki azpimarratu behar dira gobernu-organismoek gai sentiberetan dauzkaten funtzionamenduak, esate baterako interes-gatazkak daudenean, eta ahaleginak egin behar dira, gainera, informazio eskuragarri eta gardentasunerako sarbidean, interes-talde guztiei begira, bereziki bazkideei begira. Gomendagarria litzateke izan diren lorpenei buruzko txosten bat egitea.

- Sarrera.
- Arau-esparrua.
- Gobernu Batzordea eta Gobernu Ona.
- Batzar Orokorra.
- Gizartearekin elkarreragiteko politikak.
- Gobernu korporatiboari buruzko informazioa, sozietateak emana.

Sarrera

Aztertu beharreko gaiaren zabaltasuna eta garrantzia ezaguturik, ohar hauekin besterik gabe gobernu korporatiboaren atal nabarmenenak landu nahi dira, ekonomia sozialaren ikuspuntutik eta, horrenbestez, irabazi asmorik gabeko sozietateen ikuspuntutik —mutualitateak eta BGAEak—. Haien garapenerako sartzen dira, bate ere, esparru horretako gogoetak, eta kontuan hartzen da eskura dagoen informazio-materiala, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren zirkularrak eta haien egokitzapen partikularrak, gure sozietate-jardueran garatu ditugunak.

Gobernu oneko politikatzat ulertzen da enpresaren eta interes-talde desberdinen elkarreragin harmoniatu eta garden bat dakarten jardunbide, prozedura eta erabileren multzo bat. Interes-taldeak ez dira jabeak, hartzekodunak eta, oro har, gizartea baizik, zeren eta elkarreragina gaur egun globala baita. Helburuak honako hauek izango dira: jabeen helburuak batzea emandako arauak betetzearekin, bai nahitaez beste beharreko arauen kasuan, bai ezartzen diren joera etikoen kasuan ere. Historiak erakusten du irautea lortu duten enpresak direla interes desberdinen mota horien guztien artean orekari eutsi diotenak. Helburu horiek aintzat ez hartzeak erreputazio-kalte gaindiezinak ekar ditzake, baina, era berean, kontuan hartu beharra dago ezen gizartearen onura-eta errentagarritasun-helburuak ez erdiesteak haien likidazioa dakarrela. Baina, gainera, kontuan hartu beharra dago ezen, interes-taldeei buruz hitz egiten dugunean, aztergai dugunaren antzeko kasuetan, gizarte ekonomiakoak diren mutualitateak eta BGAEak, nabarmendu beharra dagoela, are gehiago, gizarte osorako interes orokorraren alderdia.

Hartara, laburpen gisa, gobernu korporatibo onaren politikek, filosofia moduan, honako hauek hartu behar dituzte kontuan:

- Jabe guztientzako tratu berdinzalea eta babesa.
- Informazioa ateratzea, ematea eta arloan gardentasuna izatea.
- Hautaketarako eta administrazioarako barneko arauak errespetatzea.
- Arriskuak identifikatu eta kontrolatzea.
- Atxikita dagoen arauak betetzea.
- Legezkoak ez diren eragiketen prebentzioa.
- Printzipio sozial eta etikoen adierazpena.

Arau-esparrua

Espainian ez dago arau bat gobernu korporatiboari dagozkion gai guztiak batera biltzen dituenik. Oinarrizko alderdiak Kapital Sozietateei buruzko Legean eta Baloreen Merkatuaren 24/1988 Legean aztertzen dira. Bestalde, Ekonomia Iraunkorrari buruzko Legeak bultzada bat eman zion gaiari, funtsean akziodunen eta, oro har, publikoaren eskura jarri beharreko urteko informazioari dagokionez. Lege horrek aldaketa garrantzitsuak egin zizkion jada nahitaezkoa zen Gobernu Korporatiboaren Urteko Txotenari; nahitaezko izaera eman zion Ordainsarien Urteko Txostenari, ordura arte Kode Bateratuak baino ez zuen gomendatzen, eta izaera normatiboa eman zien kontseilari-mota desberdinen definizioei.

Geroztik, ministerio agindu baten bitartez eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren zirkularren bidez aipatutako txostenen edukia garatu da. Gobernu korporatiboaren arloko Adituen Kontseiluak, zeina Ministroen Kontseiluak 2013ko Erreformen Plan Nazionalaren zati gisa sortu baitzuen, “Gobernu korporatiboaren arloko aldaketa normatiboen proposamenen gaineko azterlana” aurkeztu zuen 2013ko urrian. Proposamen horiek eragina dute, batez ere, Kapital Sozietateei buruzko Legean eta, neurri txikiagoan, Baloreen Merkatuaren 24/1988 Legean.

2015eko otsailaren 24an, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Sozietate Kotizatuen Gobernu Onaren Kode berria (“Kodea” deitu ohi dena) argitaratu zuen. Kode hori gobernu korporatiboaren arloko adituen batzordearen laguntzarekin egin zen eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren 2015eko otsailaren 18ko Erabakiaren bidez onetsi zen. Gobernu Korporatiboaren arloko Adituen Batzordea Ministroen Kontseiluak sortu zuen, 2013ko Erreformen Plan Nazionalaren atal gisa. Kode berriak, zeinak 2006ko Conthe Kode bateratua, 2013an eguneratu zena, ordeztu baitzuen, Espainiako gobernu korporatiboaren arau-esparruaren erreforma osatu zuen; haren lehenengo agerkaria Kapitaleko Sozietateen Legearen erreforma izan zen, Gobernu Korporatiboa Hobetzeko abenduaren 3ko 31/2014 Legearen bitartez.

ELGAren Gobernu Korporatiboaren Printzipioak funtsezko erreferentzia bat dira gai honetan. Haien lehenengo bertsioa 1999koa

da, baina 2004an berrikuspen sakona egin zitzairen. Orduetik, ELGA bere Gobernu Korporatiboaren Printzipioak berrikusten ari da, berriki gertatu den krisi finantzarioarekin agerian jarri ziren gabezia larrien ondorioz. Hori dela eta, ondoz ondoko txosten eta lan-dokumentuak argitaratu ditu, 2004ko printzipioen aplikazio-maila hobetzeko eta printzipio horiek berrikusteko. 2015eko apirilean, G20aren eta ELGAren Foroan, amaierako zirriborro bat eztabaidatu zen printzipioen testu berriarekin. 2015eko uztailaren 8an onetsi zen. Azkenik, 2015eko azaroan, Antalyako Goi-bileran, G20ko liderrek G-20aren/ELGAren Gobernu Korporatiboaren Printzipioak onetsi zituzten (“G20/OECD Principles of Corporate Governance”). ELGAren hurrengo urratsa da printzipio berrien behin betiko ezarpenaren alde lan egitea.

Kasu batzuetan —enpresa kotizatuen kasuan, esate baterako—, kezka horretatik datorren bilakaera bat badago, aspalditik datorrena, eta amaieran berariazko gomendio batzuk eman dira betetzeko, edo gomendio horiek ez betetzekotan azalpenak emateko. Zehazki, estatu mailan, honako hauek dira gobernu onaren neurriak ezartzeari begira egin diren urratsak:

- | | |
|-------------|---|
| 1996. urtea | Enpresaburuen zirkuluaren txostena. |
| 1998. urtea | Gobernu onaren kodea: Olivencia txostena. |
| 2003. urtea | Aldama txostena. |
| 2006. urtea | Gobernu onari buruzko Kode Bateratua: Conthe txostena. |
| 2013. urtea | Sozietate kotizatuen gobernu onaren Kode Bateratua Cotizadas. |
| 2015. urtea | Sozietate kotizatuen gobernu onaren Kodea. |

Hala eta guztiz ere, alderdi zehatzei buruzko arau barreiatuak egonik ere, ez dago ezer berariazkorik, ez eta zehatzik ere, ekonomia sozialaren esparruari buruz. Nire ustez, eta politketako batzuk baizik ez aipatzearren, honako politika hauek erantzuten diote gobernu onaren xedeari: sozietateen gobernu sistemei buruzko politikak, datuen babesari buruzko politikak, kapitalen zurtzearen prebentzioari

buruzkoak, inbertsio sozialki arduratsuen politikak, kode etikoak, jokabideen barne erregelamenduak edo zigorrak betetzeari buruzko politikak. Logikoa denez, gardentasuna, ohorezkotasuna eta zuhertasuna bezalako balioak politika horien buru-buruan egon behar duten printzipioak dira.

Gobernu onaren politiken bilbea gehienetan ez denez nahitaezko araudiaren esparrukoa, baizik eta autoerregulaziokoa, ahalegin handia egin behar da gobernu onaren erabilerak egokitzeko erakundearen prozedurei, dokumentuei eta politikei.

Aipatu beharra dago ezen sektorean eskakizun normatibo sendoak daudela kudeaketaren kaudimenari, ohorezkotasunari eta gardentasunari buruz, administrazioak gainbegiratuak, eta haiek per se eragiten dutela gobernu onaren estandarrak hain jasoak izatea.

Oro har, gobernu onaren buru-buruan egon behar duten printzipio eta arauak izan behar dute erakundea kudeatzen duten organoek erabakiak hartzeko prozedurei buruzkoak, eta kideek haren baitan egiten dituzten jarduketei buruzkoak.

Gobernu Batzordea eta Gobernu Ona

Zuzendaritza Batzordearen eginkizun nagusia kudeaketa orientatzea da, eta horren xedea da haren balioa ahal den handiena izan dadin, mutualisten onurarako, eta ahalegin guztia jartzea jokabide-arau batzuen arabera jarduteko; hain zuzen ere, Mutualitatean erabaki onenak hartzea eta ezartzea erraztuko duten jokabide arauen arabera.

Kontseiluen jarduketa guztien buru-buruan egon behar duten balioak honako hauek dira: profesionaltasuna, diskrezioa, gardentasuna, objektibotasuna, independentzia eta leialtasuna.

Balio horiek berekin dakartzaten jokabide-jarraibideek eskatzen dute Sozietateak eta administratzaileek elkarrenganako konpromisoa hartzea, elkarri behar duten guztia emanaz kasuko eginkizunak betetzeko; eta administratzaileek, beren aldetik, Sozietatearekiko ahal den zintzotasun handienaz jardutea.

Mutualitatearen lehen instantzietatik argitasunezko eta elkarrenganako konfiantzazko harremanak sustatuz, enplegatuei, mutualistei eta sozietateari, oro har, segurtasunezko eta lasaitasunezko irudi bat transmititu ahalko zaie, zeina egungo lanaren eta etorkizuneko negozioaren oinarria baita. Konfiantza elkarren arteko harremanaren zutabe nagusia da, eta, horrenbestez, enpresaren biziraupenerako eta jarraitutasunerako giltzarria. Ez dugu ahaztu behar ezen mutualistaren eta mutualitatearen arteko harremana oso luzea izaten dela denboran, eta kasu askotan bizitza osorakoa ere.

Zuzendaritza Batzordeko kideak hautatzea eta horretarako baldintzak

Gobernu-organoko kideek egokitasuneko (eta ez-egokitasuneko) gutxieneko baldintza batzuk bete behar dituzte, integritatean, lehiakortasunean, esperientzian eta kudeaketaren arloko profesionaltasunean maila handia bermatu ahal izateko. Modu kolegiatuan, gobernu-organismoak behar diren trebetasunak eta ezagutzak eduki behar ditu erakundearen barruan betetzen diren funtzio guztiak gainbegiratzeko eta eginkizun horiek eskuordetu zaizkion ordezkariak eta aholkulariak ere gainbegiratzeko. Halaber, ezagutzak zabaltzea bilatu behar du, prestakuntza egokiaren bitartez. Pertsona bat zuzendaritza organorako izendatua izateko desgaitu dezakeen irizpiderik izanez gero, argi zehaztu behar da araudian.

Horrela, zuzendaritza batzordeetako kideek egokiak izan behar dute bete behar duten lanpostua betetzeko. Bete beharreko baldintzak gaitasunarena eta ohorearena dira, legedi indardunaren arabera. Aurreikuspeneko erakundeetarako ez da beti erraz gertatzen aipatutako lehenengo baldintza betetzea, zeren eta berekin baitakar unibertsitaterako lizentziadun titulua edukitzea; edo ekonomian, enpresen administrazioaren arloan nahiz antzeko beste batean; edo zuzenbidean. Eta profesionalen mutualitateen kolektibo jakin batzuetan (esate baterako, ingeniarien, sendagileen, arkitektoen, aparejadoreen eta abarren artean) zaila izaten da halako ezaugarriak dituzten pertsonak hautagai edukitzea. Egia da arauaren arabera Zuzendaritza Batzordeak *oso-osorik* bete behar dituela gaitasun-baldintzak. Bistan da ohorearena ezinbestekoa dela kide guztien kasuan, bai araudiari begiratuta bai jatorriari begiratuta ere. Titulua dela-eta aipatu den baldintza ordeztu daiteke antzeko erakundeetako administrazio kontseiluetan edo

zuzendaritza batzordeetan izandako esperientziarekin. Egiaztatu beharreko esperientzia bost urtekoa izango da, gutxienez ere. Komenigarria izango da prestakuntza jarraituko ikastaroak sustatzea, lanpostuaren eta araudiaren baldintzei egokitzeko.

Zabalik dagoen beste eztabaida bat da Zuzendaritza Batzordeetako kide independenteena eta haiek hautatzeko moduarena, zeren eta haiek sartzea ez baita gauza erraza. Horri buruz, aipamen bat badago araudian, mutualitateen auditoretza batzordeei buruzkoa. Bestalde, zuzendaritza batzordeetako kideen integritatea defendatzeko, zeinak kide baitira soilik mutualitateko bazkideak direlako, esan beharra dago suposatutzat eman beharra dagoela guztien independentzia, ez baitute kapital-interesik baina bai helburu komunak. Estatutuetan figura hori orokorrean nahitaezko gisa ezartzeko aukerarako goizegi bada ere, aipatu beharra dago abantaila bat baduela, zeren eta berez beteko bailituzke egokitasuna dela-eta betebeharreko baldintza guztiak, ikuspegi desberdin eta orokorragoa izateaz gainera; alabaina, bestalde, kostuaren arazoa edukiko luke. Kontseilari independenteei beren gain hartzen duten erantzukizunaren arabera ordaintzen zaie, eta ez dugu ahaztu behar erantzukizun hori izugarri handia dela, eta era askotakoa. Gaur egun, zuzendaritza batzordeetako kideei ia ez zaie ezer ordaintzen, salbuespen gutxi batzuetan izan ezik. Figura hori ugaltzeak berekin ekarriko luke mutualitateen funtsetik zerbait galtzea, beren burua kudeatzeari eta kolektiboari buruzko intentsitate handiagoko ezagutzari dagokionez.

Aztergai dugun erakunde-motan, zuzendaritza batzordeetako kideak denbora eta aniztasun nahikoez hautatu beharko dira, karguak gehiegi luza ez daitezen eta kolektibo desberdinen ordezkagarritasuna aintzat har dadin. Horrek berekin dakar berritzeari begira muga-egun bat egongo dela, eta erakunde bakoitzak bere denborak eta beharrak haztatu beharko dituela. Ez da ahaztu behar aztergai ditugun sozietateak pertsonenak direla; hau da, gobernuari begira kapitalaren zenbatekoak (etorkizunerako metatu den prestazioa) ez du garrantzirik. Hautatutako formulak nagusi izan behar dute parte-hartzeak eta hautatuen eta haiek lortu dituzten boto-kopuruaren arteko korrelazioak. Horretarako, behar adina publizitate eman behar da, bozketarako formularekin, eta horretarako hautatu diren tokia, eguna eta ordua adierazita. Ahal den publizitate handiena emateari begira, teknologia berriak

eskaintzen dituen bitartekoek, masiboak izateaz gainera, kostu apalak edukitzen dituzte. Hartara, web-orri korporatiboan jarritako iragarkiek, mezu elektronikoez, SMSek eta sare sozialek aukera ematen dute kide gehienengana iristeko. Beste alderdi garrantzitsu bat Zuzendaritza Batzordearen tamaina da. Argi dago kide asko izateak ez duela erraztasunik ematen erabakiak hartzeko edo funtzionamendu eraginkorra izateko; hori dela eta, kontuan hartu beharreko alderdia da hori. Logikoaenez, Zuzendaritza Batzordearen tamaina estatutuetan ezarrita dago, eta kide-kopuru egokiena izateari begira, kontuan hartu beharko luke partaidetzaren eta eraginkortasunaren artean oreka izatea. Behin hautatu ondoren, argi geratu beharko dira erakundeko erabaki-organo bakoitzaren eskudantziak, zuzendaritza batzordeetatik hasi eta egiteko zehatzak determinatzen dituzten batzordeetarako. Bozketarako, gatazkak ebazteko eta informazioa banatzeko arau finkoak egongo dira. Informazioaren arloko gardentasuna, aurrehartzea, eta zehaztasuna beti bete beharreko baldintzak izango dira, hartzen diren erabakiek behar den informazioa eta koherentzia eduki ditzaten.

Gobernu-organoak tresna eta bide objektiboak edukiko ditu erakundearen kudeaketari buruzko edozein informazio eskuratu ahal izateko. Zuzendaritza Batzordearen eskudantziak izugarri zabalak diren arren, logikoa dirudi erakundearen kudeaketa arrunta zuzendaritza exekutiboaren bizkar egotea. Horrek ez du ezertarako kontrolaren eginkizuna kentzen, ez eta diligenza, xede soziala, leialtasuna eta konfidentzialtasuna direla-eta dauden betebeharrak ere.

Baliagarria da jokabideari buruzko barne erregelamendu bat edukitzea, zeinean interes-gatazkak deskribatu eta haiek ebazteko bidea emango baita, bai eta egitate horien jarraipenerako batzordeen barne-funtzionamenduko beste bideren bat edukitzea ere. Garrantzi bizikoa da Zuzendaritza Batzordeko kideen jarduketek bila dezatela xede soziala betetzea, eta ez dezatela talka egin hartu beharreko erabakiek eta kideen interes partikularrek.

Zuzendaritza batzordeetako kideen eskubideak eta eginbeharrak

Ahalmen handiak dituzte eskatu, jaso eta ikuskatu beharreko informazioa dela eta. Eskatzeko aukeren zabaltasunak, eta eguneroko

martxa ez oztopatzearren, eskatzen du informazio-prozedura batzuk egin daitezela, bai eta estandarizatutako aginte-koadro, txosten eta abarrekoak egotea ere, kudeaketaren jarraipena errazago egiteko. Halaber, modua edukiko dute adituen edozein babes eskatzeko, sozietatearen kargura, beren eginkizunak ongi betetze aldera.

Sozietate kotizatuen edo beste batzuen kasu orokorrean, ordainsaria kontseilariaren eskubide bat da, eta horri buruzko araudi zabala, gomendioak eta jurisprudentzia badaude, nahiz eta, aztergai dugun kasuan, gehienetan, batzordeei gutxiago ordaintzen zaien, dieta txiki batzuekin, batzordeetako kideek saioen batera joaten direnean izaten dituzten gastuak berdintze aldera; hori dela eta, ez dut uste gai honetan luzeago aritu behar denik.

Oinarrizko eginbeharrei, nola baitira legea, sozietatearen estatutuak, prozedurak eta jokabide-kodea edo barne-erregelamenduak bezalakoak betetzea, honako hauek gehitu behar zaizkie, besterik ezean, zuzendaritza batzordeetako kide guztien kasuan:

- Profesionaltasuna eta dedikazioa.

Haien eginkizuna Zuzendaritza Batzordearen lehentasunezko egitekoa gainbegiratzea denez, haien kideek behar den denbora eman behar dute beren eskumeneko gaiak aztertu eta eztabaidatzeko.

Kide diren organo eskuordetuen bileretara joango dira, eta parte-hartze aktiboa izango dute eztabaidetan, haien irizpidea ekarpen bat izan dadin erabakiak hartzeko garaian.

Batzordeak eskatzen dizkien egiteko berariazkoak beteko dituzte (batzorde, lantalde eta abarrekoen bidez), beren dedikazioaren konpromisoaren barruan daudenean.

Zuzendaritza Batzordeko buruak une oro sustatu beharko du kide guztiek esku hartzen dutela eta jarrera libreki adierazten dutela.

- Diskrezioa eta gardentasuna

Bai Zuzendaritza Batzordean, bai horrek parte hartzen duen organo eskuordetuetan izandako eztabaidei eta hartutako erabakiei buruzko sekretua, konfidentzialtasuna eta diskrezioa gordeko dituzte.

Ezin izango dute eman kargua betetzen ari diren bitartean eskuratu duen informazioa.

Erakundeak bermatu behar du behar adina denborarekin eskuratzen dutela aztertu beharreko gaiei buruzko iritzi exhaustibo eta oinarri-dun bat sortzeko behar den informazioa, aldi berean behar den informazioa emanez.

Gardentasunaren eginbeharra, erabakiak hartzeko eragina izan dezaketen interes partikularrei buruz Zuzendaritza Batzordea garaiz informaturik edukitzeko eginbeharra da. Halaber, informazioa emango dute eta baimena eskatuko dute interes-gatazka dakarten karguak hartu baino lehen.

Komenigarria da erakundeak une oro Zuzendaritza Batzordeko kidearen kargua hartzeko unean konfidentzialtasun klausula bat jaso dezala, gobernu korporatiboaren jardunbide on baten gisara.

- Objektibotasuna eta gardentasuna.

Zuzendaritza Batzordeko kideen iritzien objektibotasuna zaintze aldera, garrantzitsua da interes partikularrak eta Mutualitatearen interes orokorrak deslotzea.

Gomendioak zorrotz hartuz gero, batzorde bat egon beharko litzateke non informazioa emango den erakundearen interesen eta partikularren interesen artean gatazkarik sor daitekeen inguruabarrei eta egoerei buruz, azken interes horien artean sartuz zuzeneko senideenak eta batzordekidearekin lotutako enpresenak.

Batzordekideak ez du parte hartuko interes-gatazkak gerta daitezkeen eztabaidetan. Zuzendaritza Batzordearen bileraren gai-zerrendan, inguruabar horiek hartuko dira kontuan, haiek saiheste aldera.

- Leialtasuna.

Guztiak negozioa zabaltzeko aukerak aurkeztzen saiatu beharko dute, eta sozietatearen martxa onerako garrantzitsuak diren informazioak eman beharko dituzte.

Erakundeko bezeroekiko, zuzendaritzako kideekiko eta enplegatuekiko interferentziak saihestu beharko dira, salbu eta Zuzendaritza Batzordearen berariazko eskuordetzea dagoenean. Horretarako, prozedura eta bide egokiak aurreikusita egongo lirateke.

Mutualitatearekiko leialtasunak batzordekideak eraman beharko ditu lehendakariari informatzera ohar hauen inguruan gehiegikeriaren baten edo ez-betetzereen baten berri dutenean.

Zuzendaritza batzordeetako kideek beren esparru partikularrean egiten dituzten jarduketak arautzen dituen politika on bat, interes-gatazkak eta kolusio kasuan jarduketa horiek jakinarazteko prozedura bat aurreikusiko duena, edukitzeak arazo deribatu asko saihestuko ditu.

Batzar Orokorra

Gisa honetako erakundeen estatutuek honako hauek aurreikusten dituzte: deialdia, behar den informazioa, eskudantziak, boto-eskuordetzeak, bertaratzeko eskubidea, eztabaida-arauak, eztabaida bera eta botoa, eta abar.

Kapitaleko sozietateen legeak batzar orokorreari buruzko alderdi normatiboak arautzen ditu, hura akziodunen batzarrekin asimilatuta baitago. Hori dela eta, oinarrizko alderdiak jada araututa eta estandarizatuta daude, eta halakoak ez dira garrantzi gabeko kontu bat. Hala eta guztiz ere, gomendagarria da arau eta prozedurak gehitzea, batzar orokorrak ahal den modu onenean funtziona dezan lortzeko.

Batzar orokorrerako deialdiak haren izaera arrunt edo berezia jaso beharko du, eta oso bereziki tokia, eguna eta ordua. Bertaratzeko eta botoa emateko eskubidea izateko bete beharreko baldintzak. Batzuetan, batzarrerara bazkide asko joan daitekeela aurreikusten denean, behar besteko edukiera duen areto bat prestatu beharko da, akreditazio-aukera malguak eta boto-kontaketarako modu azkarrak dituen.

Bai batzar arrunten kasuan, bai berezien kasuan, informazioak eskuragarria eta eskuratzen erraza izan beharko du. Ahalegin bat egin beharra dago oro har oso teknikoa eta formala den informazioa ulergarri egiteko. Ez dugu ahaztu behar ezinbestez legegintzaren arloan edo gai ekonomiko eta finantzarioetan adituak ez diren bazkideekin ari garela; horrenbestez, labur esanda, informazioak ulergarria, argia eta erraza izan beharko du. Garrantzi bizikoa da mutualistaren ikuspegian jartzea, eta hari ematea batzarra jarraitzeko garrantzitsua den informazioa, eta ezagutza izanda gogoeta egin ahal dezala bere botoari buruz, gai-zerrendako puntu guztietan.

Zuzendaritza Batzorderako hauteskundeetan gertatzen den bezala, bitarteko teknologikoek aukera ematen dute arrazoizko kostuekin bazkideen espektro osora iritsi ahal izateko, batzarrera joan daitezten. WEB korporatiboa, gaur egun, bitarteko erosoena da, eta deialdia egiteko eta batzarrak egiteko informaziorako gehien erabiltzen dena da, behin prentsako iragarki tradizionalaren ordeztura hura erabiltzen hasi denetik. Ezer baino lehen, WEB horri korporatiboaren kategoria eman behar zaio estatutuetan. Baina bitarteko horretaz gainera, SMSa, posta elektronikoa edo sare sozialak bezalako bideak, edo bide tradizionalak erabili beharko dira kontuan hartutako ekitaldiei behar besteko publizitatea emateko.

Ezaugarri amankomun bat parte-hartze txikia da, bazkideen guztizkoaren aldean, baina badirudi endemikoa dela, eta kapitaleko sozietate hutsak direnekin alderatzen badugu, haietan dagoenaren antzekoa dela, zeren eta azken horietan ordezkagarritasuna kapitaletik baitator, eta haietan, berriz, pertsonengandik. Badirudi publizitatean jarri behar dugula azpimarra, bai eta botoa eskuordetzean ere. Gardentasun eta parte-hartze handiagoak lortuko ditugu batzarretara joateko eta informatzeko modua duten eta beste bazkide batzuekiko transmisio-lana egin dezaketen pertsonen esker. Bestalde, litekeena da etorkizunak batzarretan bestelako ordezkagarritasuna ematea, bitarteko teknologikoen bitartez, seguru asko horiek nagusituko baitira.

Gizartearekin elkarrengatze politikak

Nahiz eta zuzenean enpresen erantzukizuna ez diren, egunero, jada aipatu den bezala, erantzukizun soziala izaten da enpresa modernoaren

bereizgarrietako bat. Oraindik ere garrantzitsuagoa da gu bezala ekonomia sozialaren partaide diren pertsonentzat. Hori dela eta, garrantzitsua da arreta berezia ematea sozialki arduratsuak diren inbertsio-politikei. Berritasun bat dela badirudi ere, horrelako politikak gure inguruneko herrialdeetan garatzen joan dira aspalditik. Estatu-mailan, gai hauetan gero eta interes handiagoa dagoela ikusi da, batez ere mintzakide sozialek bultzatua. Halaber, SPAINSIF bezalako elkarteek —inbertsio sozialki arduratsua sustatzeko interesa duten erakundeek 2009an eratu zuten SPAINSIF— erreferente gisa dihardute gai hauetan Espainian. Eragin horietarako, eta lehenbizi modu normatiboan, planen eta funtsen arloko erregelamendu indardunak enplegu-funts guztiak behartzen ditu inbertsio sozialki arduratsuen arloko politika bat edukitzera eta halako inbertsioetako printzipioak, aktibo-kategoriak eta gutxieneko inbertsio-ehunekoak deskribatzera, bai eta politika horretan definitutako printzipioen kudeaketa eta jarraipena ezartzeko prozedurak deskribatzera ere. Xedea da bermatzea eskura dauzkagun baliabideak ahal den garapen sozial onenerako erabiltzen direla. Kasu honetan, bistan da, zuhurtziaz jokatu beharra dago politikaren kostuen eta haiei esleitzekoak diren onuren arteko oreka bilatze aldera. Epe ertain eta luzean, politika horrek parte-hartzaileei errendimenduak eman behar dizkie, erantzukizun sozial hori kontuan hartzen ez duten beste politika batzuetakoen pareko errendimenduak, eta, gainera, ingurumen-gaiekiko errespetuaren helburua lortu behar dute, bai eta giza eskubideak hobetzea eta, agerikoa denez, aztergai duguna ere, zeina baita, gobernu korporatibo on bat lortzea. Badirudi egitate egiaztatua dela epe luzean IGG arloari (ingurumena, gizarte-erantzukizuna eta gobernu ona) errespetua dioten enpresetan egindako inbertsioen errendimenduak handiagoak izan direla irizpide horiek betetzen ez dituzten beste enpresetakoa baino. Nazioarteko erakundeek ekimen jakin batzuk badauzkate; esate baterako, NBEⁿ, mundu mailako itunean jasotako 10 printzipioekin jarraibideak ematen zaizkie enpresei ekonomia jasangarriari eta haren garapenari buruz. UNPRI ekimenaren helburua da IGG irizpideak kontuan hartzea sektore finantzariorako eta inbertsioaren sektorerako. Irizpide horiek inbertsioaren arloko adituek, nazioarteko erakundeek eta gizarte erakundeek egin dituzte. ISA (inbertsio sozialki arduratsua) politikak egiteko kontuan hartu beharrekoak dira bi ekimen horiek.

Kontuan hartu beharreko gaien artean, gure enpresetan izugarri sentiberak zaizkigu giza baliabideetan eragina dutenak, lan-arloko

eskubideak errespetatzen dituzten politikekin, familia eta lana uztartzeko politikekin, onura sozialekin, prestakuntzarekin eta, berariaz, genero-berdintasunaren arloko prestakuntzarekin.

Gobernu korporatiboari buruzko informazioa, sozietateak emana

Enpresak urtero txostenen bat ebaluatu eta zabaltzeko beharko luke gobernu korporatibo onaren printzipio eta politikak aplikatzeari buruz, zeinean modu objektiboan jasota utziko baitira haien betetze-mailak eta ez-betetzeen arrazoiei buruzko azalpen bat. Arlo honetako hurrengo hobekuntza-helburuak jaso beharko lituzke, bai eta aurreikusitako aldaketak eta politika berriak ere. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, “betetzea edo azaltzea” printzipioa aplikatzeko jardunbide onei buruzko bere gida teknikoarekin, orientabide bat eskaintzen die sozietateei gobernu korporatiboari buruzko txostenean eman beharreko azalpenei buruz edo gobernu onaren kodeari buruzko gomendioen jarraipenari buruz. Egia da betebeharra loteslea dela soilik sozietate kotizatuentzat, baina gehitu beharra dago gida hori interesgarri gerta daitekeela sozietate-mota guztientzat, aztergai ditugunentzat ere bai, aipatutako txostena egiteko. Txostena nahitaezkoa ez izanik ere, objektibotasuna eranstean dio betetze-mailari. Horrenbestez, gardentasuna eta profesionaltasuna indartzen ditu, hain zuzen ere mutualitateen esparruari buruz aurreko garaian hain zalantzan jarri direnak. Kudeaketa-gastu apalekin lortutako errentagarritasuna, mutualitateen eta BGAEen bitartezko aurreikuspen sozial osagarria duten langileen klasearen tarte zabal bat babesten duena, urte askotako lan profesionalaren emaitza da, eta lagungarri gertatu da sektorearen konfiantzarako eta izen onerako. Hori dela eta, une honetara arte kapitulu honetan inongo txostenik formalizatu ez bada ere, iragan hurbilenean gobernu korporatiboari buruzko ageriko gabeziarik ez da agertu. Hala eta guztiz ere, positiboa dirudi aurrera egitea politika eta prozeduren transkripzioan eta haien betetzeari buruzko txostenak egitean, lortutakoa kapitalizatzeari begira eta gure enpresen konfiantzak iraun dezan.

Jon Aramburu Sagarzazu Jn.
Loreto mutua, MPS-ko zuzendari nagusia

14. Kapituluia

Teknologia berriak eta Gizarte Aurreikuspena: PREVITECH

Teknologia gure bizimodua aldatu du azken 35 urteetan, eta guztiz segurua da askoz gehiago aldatuko duela datozen 35 urteetan. Gaur arte, BGAEtan teknologia bereziki zentratu da erakundeei euskarria ematean aurreikuspen-prozesuen kudeaketa klasikorako (kalkuluak, kontabilitatea eta abar). Baina aro berri batean gaude, zeinean BGAEak gai baitira beren bezeroen esperientzia hobetuko duten teknologia berriak eduki eta aktibatzeke. Big data, gauzen Internet, analitika aurreratua, *wearableak* eta *botak* baliagarrienak izango dira prozesu konplexuak eraldatzeko eta bezeroei aurreikuspeneko alternatiba eta osagarri desberdinen ulermena eta aplikazioa errazteko. Gure egunerokoan “gardentasunez” integratutako teknologia dira, laguntza emango digutenak gure bizimodu osasungarriko ohiturak hobetzeko, aldi berean gure bizi-kalitatea eta gure aurrezkien kalitatea luzatuz. Ongi etorri etorkizun hobe batera.

- Sarrera. BGAEen bilakaera, teknologien bitartez.
- Pertsonentzako aukera teknologikoak.
- BGAEetarako aukerak.
- Konklusioak.

Sarrera. BGAEen bilakaera, teknologien bitartez

Teknologia gure bizimodua aldatu du azken 35 urteetan, eta segurua da askoz gehiago aldatuko duela datozen 35 urteetan. Atzera begiraturaz gero, 1984an, IBM nagusi zen *personal computer* deitutakoaren merkatu estreinatu berrian, IBM 5150 ordenagailuarekin, zeina teknologiaren abangoardian baitzegoen, DOS 1.0 erabiliz, 4.77 Mhz-rekin eta 16 Kb-ko memoriarekin; musika walkmanarekin eta kaseteekin entzuten genuen, eta ZX Spectrum-ekin edo 128 koloreko Atari 2600-ekin aritzen ginen jokoan; eta eskura zeuden telefono mugikor apurrek —esate baterako Motorola DynaTAC 8000X deitutakoak— 800 gramo inguru pisatzen zuten (von Hippel 2006). Funtzio teknologiko horiek guztiak, eta askoz gehiago, orain eskura edukitzen ditugu gure *smartphonean*.



Gizarteari dagokionez, eta gizarte aurreikuspenari buruz ari garela, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta EUROSTATen datuak aztertuz gero, egiaztatzen da 1984an Espainia herrialde gaztea zela, soilik biztanleriaren % 20k baitzuen 65 urtetik gora. Orain, 2019an, % 30 baino gehiago erretiroa hartuta daude, eta azken aurreikuspenek erakusten dutenez, Espainia izango da, Japoniarekin, Hego Korearekin eta bizilagun ditugun Italia eta Portugalekin batera, negu demografikoak gehien ukitutako herrialdea. ELGAren kalkuluen arabera, gaur egun, Espainian, bizi-itzaropena urtebetez igotzen da lau urtetik behin.

Bestelako mundu batean gaude, bestelako teknologia batek inguratuta. Horizontean erronka berriak daude, beharrian berriak, eta beharrezkoa da BGAEak aldaketa latz horietara egoki daitezen. BGAEetan teknologia, gaur arte, bereziki bereizgarri izan du erakundeei euskarria ematea aurreikuspen-prozesuen kudeaketarako

(kalkuluak, kontabilitatea eta abar). Bizi dugun olatu teknologikoak guztiz birdefinitzen du zer den BGAE bat. Kapitulu honen helburua aldaketa horri buruzko pintzelkada batzuk ematea da.

Ikus dezagun hori, lehenago, pertsonen bizimoduan eragiten duten aukera teknologikoetan eta, gero, BGAEen barruan sortzen diren eraldaketetan.

Olatu digital berri horretan, *quantified self* [ni kuantifikatua] izeneko azaleratzen da (Lupton, 2016), non pertsonak datuak etengabe sortzen eta kontsumitzen baitituzte, eta BGAEek zeresan handia dute.

Pertsonentzako aukera teknologikoak

Digitalizazioa

Arlo digitala gaur

Aurreikuspenaren mundua ez dago teknologia digitalen eta datuen bat-bateko agerpena eragiten ari den aldaketa handietatik kanpo (EY, 2018).

Pertsonak elkarrekin konektatuta bizi gara gure *smartphoneekin*, beti aldean edukitzen baititugu. Egun berean, Google Mapsekin orientatzen gara; *The New York Timesen web responsive* bertsioan albisteak irakurtzen ditugu; Alexaren inteligentzia artifizialarekin esperimentuak egiten ditugu; Youtubeko tutorialak ikusten ditugu; maite ditugun musika-taldeak entzuten ditugu Spotifyn; Twitterren iritzia ematen dugu; Whatsappekin txateatzen dugu; une bereziak partekatzen ditugu Instagramekin eta, noski, eta gero eta gehiago, kanal digitalen bitartez elkarreraginean jarduten dugu gure bizitzetan presente dauden enpresekin (Roland Berger, 2017).

Arlo digitala gure bizimoduetan sartu da, eta geratzeko etorri da; berritasun etengabeen disrupzioa eta azelerazioa jada gure egunerokoan daude (Stiegler, 2018). Aldaketen segida azkar horrek ezinegon transmititzen die kudeatzaileei, eta horiek erritmo berria ezarri behar diote maila guztietan beren barne-erlaketari, pertsonen bizimoduaren erdigunean geratzen jarraitzeko, haien itxaropenak asez.

Aurreikuspenaren digitalizazioa

Orain arte aurreikuspenaren sektorearen ezaugarria aldaketekiko erresilientzia izan bada ere, digitalizazioak egoera aldatu egin du; arlo digitalak balio berria sortzen du pertsonentzat, eta aldi berean kudeatzaileen eta aseguru-enpresen egokitze azkarra errazten du (EY, 2018).

McKinsey-ren (2008b) arabera, Applek edo Amazonek gaizki ohitu gaituzte; gure itxaropenak oso-oso goian daude, eta espero izaten dugun balio-ematea erabateko bikaintasunarena da, gutxienez. Honako hauek dira jada “*must*” bihurtu diren atributu digitalak:

 Interfaces Intuitivas	 Servicio 24x7	 Información Relevante
 Tiempo Real	 Valor Extra	 Alertas Customizadas
 Transparencia total	 Tolerancia al Error 0	 Marca con Valores

Ez gara gutxiagorekin konformatzen.

Accenture-ren azken *Technology Vision for Insurance* delakoan (2018b), erakusten da elkarrizketatutako 623 aseguru-exekutiboen % 82 ados daudela baieztatzerakoan teknologikoki lehiakor izaten jarraitu nahi badute, eta beren bezeroen itxaropenei erantzuteko moduko mailan, berrikuntza txertatu beharko dutela beren enpresen DNAn. Giza adimen onenaren eta puntako teknologiaren baturak baizik ezin ditu prozesuak sinplifikatu, barne-eragiketak arindu, eragiketen efizientzia areagotu eta zerbitzu berriak eta bezeroek gogoan hartzeko moduko esperientzia bat izango diren eta ehuneko ehun digitalak diren kanalak sortu, zeren eta digitalizazio horrek pertsonak jartzen baititu aurreikuspen-munduen balio-katearen erdigunean.

Beti bezeroaren ondoan

Pertsonengana hurbiltzeko modua aldatu egiten da, eta produktuen eta balio-ematearen izaera ere aldatu egiten da (McKinsey, 2018a). *The*

Truth About Customer Experience (Rawson et al., 2013) artikulu famatuan, itxiztat ematen da touchpoint-aren etapa: bezeroaren eta enpresaren arteko topagune oso zehatz eta mekanizatuak dira touchpoint horiek. Datuaren garaia, elkarreragina fluxu jarraitu bat da, eta aldean arteko harremana bidaide batzuen edo adiskide iraunkor batzuen arteko harremanaren moduko zerbait bilakatu da.

BGAEn kasuan, digitalizazioa aukera bat da garai hauetarako moduko mailan dagoen balio-proposamen berri bat eskaintzeko, pertsonen end-to-end erako esperientziaren birdefinizio sakon bat. Eta birdefinizio hori egiteko, gorantz ari diren teknologia berrien potentzia integratu beharra dago; izan ere, teknologia horiek, datozen hiru urteetan, BGAEei buruz dugun ikuspegia aldatuko dute.

Hartara, gaur egun aukera paregabe bat badaukagu digitalizazioaz baliatu eta harreman berriak sortzeko, modu efizienteago eta azkarrago batez, denbora errealean, sakontasunez eta egoerari egokitzuz; bi hitzetan: guztiz pertsonala. Aseguruaren ezaugarri izan ohi diren erregulazioak, produktuaren konplexutasunak eta denboran zehar egiten diren balantzeek ez dute oztopo bat izan behar; teknologiak asegurua demokratizatzen du, eta pertsona bakoitzaren berezitasunetara hurbiltzen du. Momentuz, digitalizazio hori pertsonentzako informazioan sentitu da, baliagarriagoa eta berehalakoagoa baita, norberari eta norberaren berezitasunei egokituia, estaldurei eta aurrezkiei dagokienez; beti eskura dagoen informazioa da, une bakoitzean erabaki onena hartzera bideratua. Aseguruak bizitza dira, eta azal digital berri honek soilik eskaintza bat eta gure bizitzetarako lagun-egite hurbilagoa ekar ditzake.

Guztizko pertsonalizatzea

Aurreko puntuan sartu genuen guztizko pertsonalizatzea oinarrituta dago, ezinbestean, identitatean, eta zehazkiago, gure identitate digital berrian. Hura ulertzeko, IoT-ari eta biometriari buruz hitz egin beharra daukagu.

Zer esan nahi dute IoT siglek?

IoT siglek [*Internet of Things*, ingelesez] kontzeptu zabal, lauso eta batzuetan abstraktua ezkututzen dute; alabaina, ildo nagusitan, definitzen oso erraza den kontzeptua da (McKinsey, 2017). Gauzen Internet

deitutakoa oinarrituta dago gure etxetresna elektrikoak, dispositibo digitalak eta sentsoreak elkarrekin konektatuta egotean, Internet sare berrien indarrak baliatuta, elkarrekin komunikatzeko eta gure bizimodua errazago egingo duten ekintzak sortzeko. Internetera konektatutako aparatu horiek elkarrekin hitz egiten dute gure onurarako; baina askoz ere gehiago badago (Da Costa eta Henderson, 2014). Gauzen Internet deitutakoak boladan dauden beste hiru kontzeptu erabiltzen ditu (Da Costa eta Henderson, 2014):

- *Wearable* deitutakoak, dispositibo elektronikoak, erloju adimentsuak edo sentsoreak dituzten oinetakoak, esate baterako, gure gorputzaren atalen batean jartzen direnak datuak sortzeko eta gure bizi-konstanteen adierazleak eskaintzeko,
- *Smart Home* deitutakoa, etxebizitza adimentsua, banakatutako sentsoreak dituen, eta aukera ematen duena oinarritzko kontsumoak (ura, energia eta abar) ezagutzeko, bai eta etxetresna elektroniko batzuen egoera ere, eta beste dispositibo batzuekin jarduteko, eta
- *Smart City* izenaz ezagutzen direnak: beren lurraldean sentsore digitalen geruza bat gehitzen duten hiriak dira, denbora errealean beren azpiegiturak eta populazioak monitorizatzen dituztenak, efizientzia eta segurtasun handiagoak lortzeko.

Gure gorputza, gure etxebizitza eta gure hiria, guztiak sarean konektatuta, egunerokoaren datuak hartu eta beste dispositibo batzuekin konektatzeko, guztion onerako diren ekintzak sortzeari begira (Accenture, 2017). Bizimodu biderkatu, produktibo, osasungarri, dibertigarri eta bizia (DaCosta eta Henderson, 2014).

IoT, BGAEen aliaturik onena

BGAEen esparruan, gauzen Internet deitutakoak *eHealth* izendatu ohi duguna zabaltzen du, alegia, digitalizazioa osasun pertsonalizatuaren zerbitzuan jarria. *Wearable*-en bitartez gure eguneroko jardura monitorizatu eta neurtzen dugu, bizi-konstanteetatik hasi eta kalorietara, egindako urratsak eta lo egindako orduak, eta bizimodu askoz osasungarriagoa eramateko informazioa lortzen dugu. *Wearable*-en merkatua hedatu egin da, eta era guztietako adibideak

aurki ditzakegu. *Empatica Embrace*-k erloju adimentsuekin epilepsia eta autismoa analizatzen ditu, alertak bidaltzeko eta gaixoei orientabideak emateko; *Lumo Lift-ek*, zeinak paparreko orratzaren forma baitu, gure jarrerren jarraipena eta ebaluazioa egiten ditu, gero eta sedentarioagoa den bizimodu batetik datozen bizkarreko lesio eta minak saihesteko; Philipsek Respironics izeneko atera zuen, zeinak informazioa emango baitigu gure amets-patroiei buruz eta aholkuak emango baitizkigu zurrungak eta apneak saihesteko; eta *Real Time Healthcare*-k gaixotasun kronikoetan medikazioaren erritmoa markatuko du.

Wearable-ak era guztietako datuak integratzeko lantzen ari diren sistema digitalen arkitektura berriei batu zaizkie, bai Smart City-tik datozenak —Bartzelonan, esate baterako, SENTILO aurkituko dugu—, zeinek airearen osagai hegakorrak, klimatologia, trafikoaren intentsitatea eta abar monitorizatzen baitituzte, bai etxebizitzetan beraietan ere erabiltzen direnak —adibide deigarrienetako bat JIBO da—, zeinek gure energia-, ur- eta argi-kontsumoei buruzko datuak ematen baitituzte. *Ni naiz ni eta nire zirkunstantziak*, zioen Ortega y Gassetek, eta aro digitalean, datuz inguraturik baikaude, deklarazio hori sekula baino egiazkoagoa da.

Identitatea segurtatzea guztia denean: Biometria

Gauzen Internet deitutakoan, non datuak etengabe sortzen baitira, zirkulatzen baitute, eta nahasten eta konektatzen baitira, zibersegurtasunak garrantzi berezia hartzen du, sentiberatasuna dela eta. ‘Konektatzeko’ identitate digital bat behar dugu, zeina, gaur egun, mugatzen baita gure posta elektronikora, izengoiti edo *nick name*-ra, telefonora, pin batera edo pasahitz soil batera; elementu horiek ezinbestekoago bilakatu zaizkigu, ia, gure NANA mundu fisikoan baino. Eta, horrenbestez, funtsezkoa da identitate berri horren gaineko kontrol bat edukitzea. Gure identitate-zeinu adierazgarriena gure trazu biometrikoak dira; esate baterako, gure hatz-markak eta aurpegia. Hori dela eta, azken bost urteetan nabarmen egin da aurrera giza gorputza identifikazio digitalerako gako bakar eta besterenezin baten gisara erabiltzeko bidean; biometria deitzen diogu horri (Das, 2018).

Lehenengo aplikazioak

Arrakastarekin ezarritako lehenengo aplikazioetako bat CaixaBank-en kutxazain berriak dira, zeinetan etorkizunerako urrats sendo bat eman

baita, aurpegiaren ezagutza bideratzen baitute segurtasun neurri gisa (Expansión, 2019-02-14). Ildo beretik, Estatu Batuetan atzeritarrez eta aireportuez arduratzen den saila aurpegiaren ezagutza-sistema bat lantzen ari da, zeinak bidaiarien identitatea egiaztatuko baitu pasaporteak eta NANak erabili behar izan gabe.

“*Nire abotsa, nire pasabitzza*” leloaren pean, *Veridium* etxea ahotsean guztiz oinarritutako segurtasun-zerbitzuak ari zaie eskaintzen enpresei. Eta ez dira bakarrik: *Nuance* etxea konponbide bat frogatzen ari da sendagilearen eta gaixoaren arteko elkarrizketa grabatzeko, mintzakide bakoitzaren identitatea ziurtatuz *Blockchain*-ekin konektatuta. Gobernu britainiarrak 13 milioi libera inbertitu ditu *Strennus* proiektuan, zeinak ahotsaren bidez —emozioen eta linguistikaren bidez— detektatu nahi baititu iruzur-zantzuak. Datozen urteetan, aldaketa gehiago etorriko dira. Microsofteko Alex Kipmanek 2018. urtearen amaieran aipatzen zuen pasahitz gogaikarriak eta elkarreraginerako bide gisa erabiltzeko pantailak desagertu egingo direla: “*Hiru dimentsioko izakiak gara, eta halakoak diren elkarreraginak behar ditugu. Eta gure gorputza, zeina gure identitatea eta gure jabetzarik preziatuena baita, gure burua identifikatzeko gakoa izango da*”. Adi egongo gara.

Testuinguru digital hiperkonektatu handiak, gauzen Interneta, eta sarbide guztiz pertsonalizatu eta besterenezinak, biometria, BGAEei laguntzen diete, beren bezeroekin batera, aurrezki-proiektuak sortzen, bizi-estiloari egokituak eta aliatu on batek ulertua eta lagundua sentitzearen esperientzia hedatuko duten gure zerbitzuez aberastuak.

Big Data

Digitalizazioak eta denbora errealeko pertsonalizazioak, imajina daitekeen bezala, datuen produkzio masiboa dakarte, orain arte ezagutu gabekoa. Gutako bakoitza datu-fabrika bat bilakatu gara. *Big Data* deitutakoen esparruan sartzen ari gara, bai.

Zer da Big Data eta zergatik da hain garrantzitsua?

Big Data terminoa albisteetan eta txostenetan boladan dauden hitzetako bat da. Big Data deitzen diogu datu-kopuru izugarri handien biltegitratzeari, haien egituratzeari eta haien tratamendu aurreratuari, erlazio konplexuak eta patroi berriak topatzeko. Datu horiek, beren bolumena eta heterogeneotasuna direla eta, ezin dira modu

tradizionalean landu, zeren eta ohiko gaitasun teknologikoak gainditzen baitituzte. Datuak balioa du soilik beste datu batzuekin tratatzen eta lotzen bada; eta analitika aurreratu berri horri esker lortuko da datuek elkarrekin hitz egitea ebidentziak eskaintzeko, erabaki konplexuak har daitezen errazteko eta etorkizuneko joeren prospektibak erakusteko. Orain dela oso gutxi arte gure irudimenean baino ez zegoen hori. Big Data delakoen atributuak bost hitz hauetan laburbiltzen dira:

- Bolumena, datu kopuru izugarriak,
- aniztasuna, jatorri oso heterogeneoa,
- abiadura, etengabeko produkzioa,
- benetakotasuna, datuaren ale-egitura eta kalitatea, eta
- batuaren balioa, azalpenak emateko ateratako balioa (Marr, 2017).

Orain dela gutxi samar arte, 5 edo 6 urte, konpainiek datu-bolumen handiak edukitzen zituzten *Data WareHouse*-etan, eta azken horiek eskura zituzten software-tresnekin erabiltzen zituzten; dena den, datu-produkzioa ernetzearekin, *smartphone*-ei esker, hirietako sentsoreei esker eta sare sozialei esker, errazago gertatu da bilakaera teknologikoak jauzi esponentzial bat egitea, biltegiatzearen eta tratamenduaren kostuak jaitsiz eta, aldi berean, datuen-ustiaketa terabyte eta petabyte-tara zabalduz (McKinsey, 2017).

Big Data horien aniztasuna dator pertsonetatik, enpresetatik eta datuen iturri libre handietatik, *Open Data* deitutakotik, alegia. Hartara, informazio egituratu edo desegituratu horren artean, norberarena eta besterena, denbora errealeko konexio berriak ehuntzen dira, datuak aberasten dituztenak, logika difusoko sareetara konektatzerakoan (Marr, 2017).

Baina nolako eragina du Big Datak BGAEetan?

Denbora errealean berritzen diren datu-kopuru izugarri handi bat, historiko garrantzitsuak eta analisirako tresna indartsuak edukitzeak aukera ematen du askoz ere hobeki ulertzeko pertsona bakoitzak berezitik duena, profil kustomizatuekin, eta haren orainaldiko eta etorkizuneko beharretara egokitzeko eta aurrea hartzeko. Bezeroak bere esku informazio argi eta fidagarria eduki dezake, eta horretan oinarrituta aurrezki-erabaki onenak hartu ahal ditu, bere egoeraren eta bizitza-helburuen arabera. Simulazioak eta balizko etorkizuneko agertokiak edukiz, ‘hauta ezazu zeure abentura’ modukoak, pertsonen

zentzuz uler dezakete beren erabakien eta lortuko dituzten emaitzen garrantzia. Inbertsio-estrategia pertsonalak, aldizkako ekarpen aldakorrak, erretirorako nire osagarriari edo prestazioei buruzko erabakiak, antzeko egoeretako profiletan, generoa, lurraldea, adina, erosahalmena eta abar, oinarrituta hartzea ez dira jada hutsean egindako jauzi bat. BGAEen eskutik, Big Data jarduteko moduko egitate bihurtzen baitituzte, erabaki garrantzitsu horiek ez dira bakarrik hartzen, ez eta itsumustuan ere, baizik eta BGAEen datuek eta aurreikuspen sendoez lagunduta.

BGAEetarako aukerak

Robotika

BGAEen testuinguruari aplikatutako robotikaz hitz egiten dugunean, nagusiki bi mota desberdin, baina elkarren osagarriak, dauzkagu aipagai.

Boten inbasioa

Robotikaren lehenengo mota RPA da, zeina *Robotic Process Automation* [Robotika Prozesuen Automatizazioa] hitzetatik baitator. RPA ataza monotono, errepikakor eta administratiboak egitea lortzen duen teknologia bat da, zeinak pertsonak libratzen baititu beren denbora eta talentua balio handiagoko lanetan jardun dezaten. Errepikakorra den guztia RPA-en esku utziko da. Azken urteetan, enpresen automatizazioa, besteak beste BGAE enpresena, aurrekaririk gabeko mailetara iritsi da bere sendotasunean eta malgutasunean; *botak* —lan digitaleko indar bat—, ataza errepikakor horiek automatizatzeke gai diren *software* txikiak, gizakiekin batera bizi dira.

Barne-prozesuak robotizatzerakoan:

- Eragiketen arriskua gutxitzen da,
- efizientzia-ratioak handitzen dira, eta
- BGAE-en enplegatuen garapen pertsonal eta intelektualaren areagotzen da.

Horrek guztiak berekin dakar bezeroaren esperientzia hobetzea, eta hark erantzuteko abiadura eta baliagarritasun handiagoak dauzka zalantzak edo eskaerak iristen direnean (Acenture, 2016). Bot-en

indar digital horrek, bai *back office*-an, bai *front office*-an ere, lortzen du lanaren fluxua jarraitua izan dadila, inguruabar guztietan eta une oro (McKinsey, 2017). BGAEen mundua prozesu konplexuetan zehar zirkulazioan jartzen diren paper-kopuru handiekin lotu ohi da, halakoetan eskatzen baita kateko puntu bakoitzean pertsona desberdinak egon daitezen; RPA-ekin, prozesu bat abiatzen denean —erretiro-planerako egindako ekarpen bat, esate baterako—, *bot-ek* prozesu guztia modu automatikoan kudeatzen dute, beharrian jakin bati erantzun bat emateko. Erantzunaren mantsotasuna atzean gelditzen da. RPA-ekin 24x7 eskuragarri egotea finkatzen da, asteko 7 egunetan: jendeari helarazten zaion eskuragarri orohartzaile bat da.

Hitz egingo dugu? Chatbot-en agerpena

BGAEentzat, baliagarritasunari begira, bigarren robot garrantzitsuena *chatbot* izeneko da. *Chatbot* programabat da, zeinagauza baita elkarrizketa adimentsuak izateko pertsona batekin lengoaia naturala erabiliz, ulertuz zer esaten ari den eta mintzakidearen zalantzei konponbidea emango dioten intereseko erantzunak emanez. Elkarrizketan planteatzen zaizkion zalantzei erantzun erreala emateko, *chatbot* izenekoak lengoaia naturalaren prozesamendu-teknikak erabiltzen ditu, arau zorrotz eta errazak (Yes/No) edo, kasu konplexuagoetan, *machine learning* erako edo adimen artifizialeko algoritmoak baliatuz, zeinek ulergarritasuna gehitzen baitute hitz egiten den bitartean. Horrek guztiak interakzio erreal, oso eta asegarria simulatzen du.

Gaur egun enpresa gehienek jotzen dute kanal oro erabiltzeko estrategiara, denbora errealean atenditzea, informazioa beti eskuragarri egotea eta kanal desberdinetan, eta, horren barruan, funtsezko zeregina dauka *chatbot* delakoak. *Chatbota* gai da mota desberdinetako informazioak, edo *corpusak*, batzeko, eta hura eskuragarri jartzeko berehalako kanal batetik, *friendly* eta 24x7 bezeroaren esku.

Chatbot guztien artean, sofistikatuena *Siri* (Apple), *Alexa* (Amazon), *Cortana* (Microsoft) eta *Google Home* dira, eta gure ahozko adierazpena arakatu eta dauzkagun zalantzei erantzuten diete (Deloitte, 2017). Baina ez dira hor gelditzen. *Business Insider*-en (2016-12-14) iragartzen da mundu osoko enpresetatik % 80k, 2020rako, *chatbot* motaren bat ezarriko dutela, eta espero da teknologiak behar adinako bilakaera izatea bezeroaren bizitzarekiko elkarreraginerako eta hura ezagutzeko

eta haren zalantzen eta bizitzako uneen arabera egokitzeko gune berri bat izateaz gainera, gomendioak emateko gai ere izan dadin. BGAEen kasuan, horren emaitza da teknologiak ekarpen jakin bat proposatuko digula, edo iradokiko digula zein den prestazioa kobratzeko modu erosoa edo PFEZaren ondorioetarako efizienteena.

Insurtech

Gorago aipatu ditugun aukera teknologikoak teknologia berriak agertzean ez ezik, berrikuntzaren ekosistemetan eragile berriak egotean ere badautza. *Startup*-ei buruz ari gara, noski, zeinek Insurtech izena hartzen baitute aseguruaren munduan. Eragile berri horiek aseguruaren balio-kate klasikoan disrupzioak sartzeko gaitasuna dute; malguagoak eta kustomizazioari begira trinkoagoak diren teknologia eta negozio-eredu berrien moduko disrupzioak, alegia (Roland Berger, 2017).

2010-2015 aldian, *insurtech*-ak, arinak, mikro-nitxo erakoak eta guztiz digitalak, mesfidantzaren eta beldurraren nahasketa batez ikusten zituzten aseguru-etxeek; halere, pixkanaka, aliantzak ezarri dituzte; hain zuzen, pertsonen bizimodua hobetzeko elkarren osagarritasun sinergikoaren ideia indartzen duten aliantzak. Eta aliantza horiekin biek ala biek elkar eraldatzen dute, lehiakortasuna irabazten dute eta hobeki erantzuten diete pertsonen bizi-bereztasunei (Galbraith, 2019).

Insurtech-en egoera Espainian

Fütureren (2018-12-05) arabera, 2016tik aurrera *insurtech*-en goraldi bat gertatu zen Espainian, eta geroztik hazten jarraitu dute. *Insurtech*-en % 38 hasierako etapan edo *startup* etapan daude; % 46 *scale up* fasean garatzen ari dira, eta % 16, eta ez da gutxi, enpresa moduan finkatu dira. Talentu digitalari egokitzeko duten gaitasunari esker eta kontuan hartuta haien plantillak 2018an % 17 hazi direla, Espainiako *insurtech* guztien artean milioi bat bezeroren zorroa badaukate jada. *Community of Insurance*-ren arabera (2019-02-15), aseguruetan eta finantzen arloan berrikuntzarako proba-ingurune bat sortzea izango da sektorearen hurrengo urrats handia.

Eta nola aprobeitza ditzakegu sinergia horiek?

Insurtech-en loraldi horrek dakarrena da zerbitzu berrien koroa bat sortzea oso kostu apalarekin, eta horiek balio handi bat gehitzen diete BGAEen bezeroei, haien bizimodua nabarmen hobetuz. Elkarren

osagarritasun eta dibertsitate horiek nabarmenak dira, zeren eta BGAEen prozesuetako eta produktuetako puntu desberdinetan teknologia digitala sartzera orientatutako *startup*-ak agertu baitira. Arlo digitala lagungarria da BGAEen jarduteko eta lan egiteko modu tradizionala eraldatzeko. Inpaktu horietako batzuk prozesu adimentsuagoen moduan aurkezten dira, eta horiek datu-fluxuak, pertsonen egokitutako intereseko eskaintzen gehikuntza eta erabileraren araberako ordainketa-eredu berriak [*pay-per-use*] aprobetxatzen dituzte; hartara, BGAEek pertsonen une jakin batzuk aseguru ahalko lituzkete, bakoitzak dauzkan bizipen-moduei egokituz. Beste beritasun batzuk dira bezeroaren esku kalitatezko informazioa jartzea gaixotasun zehatzei buruz, esate baterako diabetesa, kalitate hobea lortzeki begira, edo are testamentua era digitalean egiteko modu berria ere, izapide hori ahal den guztian arintzeko.

BGAEen eta *insurtech*-en arteko batasuna hasi besterik ez da egin.

Konklusioak

Disrupzio teknologikoak gaikuntza ematen die BGAEei aztertu ditugun teknologia desberdin horietako batzuk erabili eta aktibatzeko, *Big Data*, gauzen Internet, analitika aurreratua, *wearable*-ak, *bot*-ak eta abar, horren bidez barne-prozesuak muturreraino efizienteago bihurtzeko eta bezeroei emandako balio-proposamena muturreraino eraldatzeko. Hartara, disrupzio horren helburua da bezeroaren itxaropenak asetzea, prezio eta kostuak jaitea eta zerbitzu berriekin ohi ez bezalako hazkundeei bidea ematea. Teknologia horiek guztiak BGAEetan modu sistematikoan sartzeko gai dira: *Wearable*-ak, esate baterako, erloju adimentsuak edo arropen eramateko bestelako sentsoareak, bezeroaren ohituretan txertatu dira; *big data* mikroprofil pertsonalizatuaren bila analizatzen da; *bot*-en bitartez, lan mekanikoak egiten dituzten robotak dira *bot*-ak, zerbitzuak denbora errealean eta *insurtech* batekin lankidetzan ematen dira. Irudimenak asma ditzakeen konbinazio guztiak daude.

Teknologia horiek guztiek, ordea, gutxi balio dute BGAEen aktibo nagusia kenduz gero: haien pertsonak. Sakonean, oinarritzko konpromisoak, elkarrekikotasunak beren horretan dira: pertsona

batzuek beste batzuei lagun egiten diete beren bizitzako une garrantzitsuetan, haiei entzunez eta ulertuz eta haien ongizatea zainduz. Orain, ordea, berritasun bat badago: gure aurrean zabaltzen ari den unibertso teknologikoa.

Jordi Vila Jn., Jorge Nicolau Jn., Félix Valdecantos jn.
eta Fran Morente jn.

VidaCaixa, GeroCaixa, banakako BGAEko, erakunde kudeatzailea.

Erreferentzia Bibliografikoak

- Accenture (2016). A Holistic Approach to Insurance Automation. Accenture.
- Accenture (2018a). *Redefine your Company based on the Company you keep. Intelligent Insurer Unleashed. How Do You Improve the Way People Work and Live?*; honako honetan: Accenture.
- Accenture (2018b). *Accenture Technology Vision for Insurance 2018*; honako honetan: Accenture.
- Business Insider (14/12/2016). *80% of businesses want chatbots by 2020*; honako honetan: Business Insider.
- Community of Insurance (15/02/2019). *El sector financiero une su voz para urgir la aprobación del Sandbox*; honako honetan: COI.
- DaCosta, F.; eta Henderson, B. (2014). *Rethinking the internet of Things: a scalable approach to connecting everything*. Apress: Massachusets.
- Das, R. (2018). *The Science of Biometrics*. Routledge: Nueva York.
- Deloitte (2017). *Conversational Chatbots – Let’s Chat*. Deloitte.
- Deloitte (2019). *2019 Insurance Outlook. Growing Economy Bolsters Insurers, but longer-term Trends may require transformation*; honako honetan: Deloitte.
- Expansión (14/02/2019). *CaixaBank permitirá sacar dinero del cajero con la cara y sin tarjeta*; honako honetan: Expansión.
- EY (2018). *Global Insurance Trends Analysis 2018*; honako honetan: EY.
- Fütüre (5/12/2018). *Las insurtech se consolidan en España*; honako honetan: Fütüre.

- Galbraith, R. (2019). *The End of Insurance as We Know it: How Millennials, Insurtech, and Venture Capital Will Disrupt the Ecosystem*. Independent Publisher.
- Gartner (2017). *Accelerating Digital Transformation in Insurance*; honako honetan: Gartner.
- Lupton, D. (2016). *The Quantified Self*. Polity Press: Nueva York.
- Marr, B. (2017). *Data Strategy. How to profit from a World of Big Data, Analytics and the Internet of Things*. Kogan Page: Nueva York.
- McKinsey & Co. (2017). *Digital Disruption in Insurance: Cutting through the Noise*; honako honetan: McKinsey.
- McKinsey & Co. (2018a). *Digital Insurance in 2018: Driving Real Impact with Digital and Analytics*; honako honetan: McKinsey.
- McKinsey & Co. (2018b). *Life Insurance and Annuities State of the Industry 2018: The Growth Imperative*; honako honetan: McKinsey.
- Rawson, A.; Duncan, E.; eta Jones, C. (2013). *The Truth About Customer Experience* (Iraila); honako honetan: Harvard Business Review.
- Roland Berger (2017). *Copy them? Work with them? Or buy them? Insurtechs and the Digitalization of Insurance*; honako honetan: Roland Berger.
- Stiegler, B. (2018). *Dans la disruption. Comment ne pas devenir fou ?* Babel: Paris.
- Von Hippel, E. (2009). *Democratizing Innovation*. MIT Press: Massachusetts.
- EUROSTAT: <https://ec.europa.eu/eurostat>
- Instituto Nacional de Estadística: <https://www.ine.es>
- OECD: <http://www.oecd.org/>

Pentsioen gaur egungo egoera eta etorkizuneko gakoak

BGAEn buruzko lehenengo legea onartu eta 35 urte beranduago egindako azterlana

“Pasa den urriaren 27an, 36 urte bete ziren Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeei (BGAE) buruzko 25/1983 Legea onartu zenetik.

Testuinguru horretan, Euskadiko BGAE Federazioak eta Eusko Jaurlaritzak uste dugu urteurren hori ospatzeko aukera ona izan daitekeela pentsio publiko eta osagarrien inguruko eztabaidan sakontzea, arlo horretan ospe handia duten adituen ezin eskertuko laguntzari esker sortu den liburu honen argitalpenaren bitartez”.

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Euskadiko BGAE Federazioko presidentea

“Argitalpen hori Euskadiko BGAE Federazioak Eusko Jaurlaritzarekin eta inplikaturiko agente guztiekin batera gure aurreikuspen-sistema hedatzeko eta sustatzeko duen konpromiso leialaren beste adibide bat da. Euskal erakundeak arduratsuak izan ziren Gizarte Segurantzari sartu gabeko mutualitateen arloko eskumenak azkar sustatzerako orduan eta esan daiteke historia arrakastatsu bereizgarri bat eraiki dugula gure inguruaren baitan”.

Pedro Azpiazu Uriarte jn.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia sailburua